BEGIRADA AUSARTAK

Gay eta Lesbianen bizitza
eta maitasun kontaketak
Frankismoan eta
Trantsizioan Euskal Herrian

GURE ESKER ONA ADIERAZI NAHI DIEGU MODU BATEAN EDO BESTEAN ARGITALPEN HONEKIN LAGUNDU DIGUTEN GUZTI-GUZTIEI.

2014ko Azaroak

Lege-Gordailua: **BI-1788-2014**

Egileak: **Inmaculada Mujika**
José Ignacio Sanchez
Iñigo Bilbao
Amparo Villar

Jatorrizko asmoa: **ALDARTE** eta **EHGAM**

Laguntzaileak: **Bizkaiko Foru Aldundia** eta **Eusko Jaurlaritza**

Argitalpen hau nahi duenak, nahi bezala kopiatu, banatu eta erabali ahal izango du, egileen izenak aipatzen baditu eta ez badu erabilpena dirua egiteko baliatzen. Ezin izango da lan hau aldatu edo moldatu, ez eta beste idatzi bat sortu ere hemen dagoena oinarri hartuta.

AURKIBIDEA

Aurkezpena **7**

Bizitza istorioak **15**

Joaquín 17
Gabriel 22
Empar 32
Mercedes 46
José Ignacio 53
Martín 64
Txema 72
Manuel 80
Xabier 86
Mikel 92
Alberto 100
Imanol 105
Karmele 122

Testuinguru Historikoa **129**

Begirada ausartak: ondorio gisa **137**

AURKEZPENA

Oroitzapen historikoaren abiapuntua

2013an hasi ginen ALDARTE (Gay, lesbiana eta transexualentzako arreta zentroa) eta EHGAM (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) elkarteko kideok franquismoan euren homosexualitatea bizi izan zuten gizon eta emakumeen lekukotasunak biltzen. Frankismoa aipatu dugun arren, ondo dakigu bizitzaren gorabeherak ez direla epe historiko zurrunetara mugatzen eta hortaz, Oroitzapen Historikoa biltzeko ahalegin honetan diktadorea hil eta segidako urteetan jazotakoak ere bildu nahi izan ditugu.

Lan honetan frankismoan jaio, hazi eta heldutasunera iritsi ziren emakume eta gizonen istorioak bildu ditugu. Hain gogo homosexualak debekatuta zeudela jakin arren, desioak bizitzaea lortu zutenen testigantzak. Lekukotasuna eskatu genienean, nola hazi ziren galdetu genien; nola asmatu zuten ohikoak ez ziren desio horiek sumatzen, nola egin zuten gogo horiek ezkutatu, eta bizitzeko; nola egiten zuten elkar ezagutu eta elkartzeko, zein lekutan batzen ziren eta zein hizkerak erabiltzen zituzten zer gertatzen zen besteak jabe ez zitezen.

Horien guztien gainekoa zen gure jakin mina, eta horretaz galdetu genien garai haietan gizonak maitatu izan zituzten gizonei, eta emakumeak maitatu izan zituzten emakumezkoei. Haien ausardia ezagutu nahi genuen, horren garai zurrunetan zoriontsu izateko ausardia izan zutelako, eta “arauetatik at diren sexu gogoak” horren jazarpen bortitza sufritzen zuten une haietan gorputzari atsegin hartzen asmatu zutelako. Aitortu behar dugu zorte on-ona izan dugula, lekukotasun horiez gainera errepresio egoera hori gainditu eta gaur bizi dugun errealitatea lortzen ahalegindu, lan egin eta borrokatu zutenen testigantzak ere eskuratu baititugu.

Lan honetan 13 bizitza istorio aurkezten dizkizuegu. Horiei guztiei esker emakume eta gizon homosexualak nola bizi ziren ezagutzeko aukera izango dugu. Egoera hartan elkarri igarri, harremanetan jarri eta ezagutzeko **begiradek** eta **keinuek** izan zuten garrantzia ikasiko dugu. Ia hutsik gabeko garrantzia, alegia. **Goitizenak** zergatik eta zertarako erabiltzen

zituzten ere bai; edo besteak aldera ekarri eta txortan egiteko baliatzen zituzten toki haiek, gaur egun galduta dauden komun eta zinemak, nola izendatzen zituzten; edo ezkutuko borroka politikoak nola uztartzen zituzten are ezkutuagoak zituzten sexu jarduerekin; edo, herri honetan preferentzia sexualak askatzeko sortutako **mugimendu** eta taldeak nola antolatu zituzten; edo, nolakoak zituzten baldintza latz horietan sortutako koadrilak; edo, gibhies gaixotasunak hasiera batean eragindako **nahaste-borrastea**, ezjakintasuna, beldurra, irain eta estigma, garai bateko “minbizi larrosari” lotutakoak, hain justu, nolako ondorioak izan zituen beraien egunerokotasunean; edo... horiek guztiak ezagutuko ditugu beraien lekukotasunari esker. Hitz bitan, egiaren gainetik, edo ondo-ondoan eraikitako beste egia horiek guztiak ezagutuko ditugu.

Ez daude diren guztiak

Bizitza istorio sorta hau osatzeko adin, jatorri eta kultur maila beretsuko gizon eta emakumeen testigantzak lortu ditugu. Beretsuak zera batzuetan, arras ezberdinak bestetsuetan. Gurea bezalako herri txikian, gainera, ez da harritzekoa bizipenak edo sentimenduak errepikatzea, honengan eta harengan. Elkarrizketak Bizkaia eta Gipuzkoan egin genituen 2013ko irailean hasi eta 2014ko otsaila bitartean. Jakin badakigu sorta honetan ez direla nahiko genituen guztien testigantzak ageri. Bilduma honetara ekarri ditugun istorioak apartekoak dira, horren testuinguru errepresiboan beraien sexu eta maitasun nahierak bizitzera ausartu zirenen lekukotasunak, alegia.

Eraberean badakigu oso zaila egiten zaiela emakume eta gizon askori, baita gaur egun ere, hainbeste eta hainbeste urtetan inposatu zitzaizkien isilpekoak agerian uztea. Tristea da lortutako garaipenak ukaezinak diren honetan pozik eta patxadaz bizi ezin direnak egotea, oraindik lotsagarriak zaielako barru-barruan dituzten sexu gogo eta desioak aintzat hartzea. Hori dela eta, urtetan eta urtetan beldurrak eta lotsak gainditzea eta no bere buruarekin lasai bizitzea izan izan zaielako, lan honetan haien bizipenak ezegutzera emateko ausartu direnen lekukotasunak bildu ditugu.Testigantzak jaso bezala eman ditugu, bakoitzaren modu eta mintzaera errespetatuz, nahiz eta grabatutakoak idazterakoan taxutu ditugun adierazitako guztiak ulergarri egiteko.

Horrekin batera esan behar dugu, aintzat hartu ditugula honen eta haren beldurrak, iraganaren gainekoak, baina baita etorkizunari lotutakoak ere. Horregatik, nork bere egoera besteok baino hobeto ezagutzen duelako, ez dugu inor egiazko izen-deitura esatera behartu, ez eta nor izan daitekeen iradoki dezakeen daturik ematera ere. Nahiago izan dugu beraien lekukotasunaren egia jaso, norena den egia hori argitara ematea baino. Beharbada irakurleari zaila egingo zaio batzuetan xehetasun zenbait ondo ulertzea, baina adierazitakoa esan bezala jasotzea ere beharrezkoa zen, batzuetan gramatikalki egokiena izan ez den arren, esaten dena bezain garrantzitsua izan ohi delako gauzak nola esaten diren, nola gertatu ziren ulertzeko.Istorio sorta hau osatzeko beraien testigantzak eta bizipenak ezagutzera eman diguten gizon eta emakume guztiei gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu lerrootan, egin duten ahaleginagatik eta erakutsi duten bihotz-zabaltasunagatik.

Argitalpen honekin ez da ezer bukatzen

Idatzi hau egin dugunon asmoa zera izan da: gaiaren inguruan egin beharko den azterketa landuago, sakonago eta zabalagoaren abiapuntu izatea. Izan ere, auzia hainbeste jendearentzat horren larria eta mingarria izanik ere, uste dugu gizarteak ez diola oraindik heldu merezi duen sakontasun eta betetasunarekin. Hori dela eta, zabalik utzi nahi dugu bizitza istorio sorta honekin ireki dugun atea, landu dugun aro historiko horretan beraien sexualitatea ahal bezala baina osoki bizi izan zutenentzat, bai, baina baita bizirik irauteko bestelako bideak hartu zituztenentzat ere.

Lan honekin hasitakoa osatzea neketsua da oso, korapilatsua. Badakigu hori. Mikrofono aurrera bildu beharko ditugu orain arte barrua hustu ez duten hainbat eta hainbat gizon eta emakume. Askok ez dute hitz egin, beldur direlako edo ez dutelako nahi. Berdin dio, horien guztien lekukotasunak jaso beharko genituzke ez dadin urte haietan gertatutako guztia betirako ahaztu, iraganaren hautsak ezkutatuta. Baten batek pentsa dezake ez dela horrenbesterako jende horrek bizi izandakoa argitara ekartzea. Guk besterik diogu, huts barkaezina litzateke hori guztiori ahaztea. Zorretan gaude horren jazarpen bortitza sufritu zuten guztiekin, *ume, nerabe eta gazte zirela, izatea izan ez zuten guztiekin* beraien maitasun edo larru grinak ezkutuan, klandestinitantean, zurikerian edo ukaziorik bortitzenean bizitzera behartuta egon zirelako. Zorretan gaude haiekin guztiekin.

Hau ez da bakarkako lana izan, auzolanean egindako ahalegina baizik. Gay mugimenduan edo borroka lesbikoan konpromezua hartua dugun emakume eta gizonen esfortzua izan da: *haiek egin zituzten elkarrizketak, hark ordenagailura pasa, neronek jasotako guztiari itxura eman eta beste haiek idatzitakoa zuzendu zuten*. Alegia, hasiera hasietatik auzolanean oinarritutako ekimena izan da hau, taldean erabaki eta taldearentzat egina, taldearen inguruan ditugun guztientzako aberasgarri izango zelakoan.

Zergatik? Hau delako, duda izpirik gabe, herri honetako emakume eta gizon homosexualen oroitzapen kolektiborako mugarria. Iragana ezagutuz, oraina ulertu dezakegula uste dugu, eta geroari begira sexu askatasunaren aldeko jarrera eraginkorrak sustatu. Hori da ahalegin honen xede nagusia, homofobia eta lesbofobiaren kontrako borrokan baliagarri izatea, eta ez besterik. Gainera liburu honetan jasotako informazioa aberasgarria izango zaie neska eta mutil gazteei, honekin ikasiko baitute eurak direla iragan ikaragarri horren oinordeko zuzenak.

Bizipen lekukotasunak

Ia bi urte eman genituen testigantza guzti hauek jasotzen, grabatzen eta idazten. Ondoren horrekin guztiarekin zer egin erabaki behar izan genuen, nola egin beraien bizipenak horren zintzoki eskaini ziguten horien testigantzak modu xume baina era berean zehatz eta sentikorrean ezagutzera emateko.

Azkenean, grabatutako elkarrizketak *bizitza istorioen* bidez argitaratzea erabaki genuen. Pentsatu genuen hori zela modurik aproposena lekukotasuna eman zuten guztiek aipatutako ildo eta ardatzek (sexualitatea, errepresioa, familia, borroka eta homofobia, besteak beste) bakoitzaren egunerokotasunean izan zuten eragina argi eta garbi ezagutzeko. Ez hori bakarrik, bizitza historiei esker aukera izan dugu agerian uzteko gizarte indar eta egiturek gu guztion bizimoduan eragiten dituzten ondorioak ikasteko.

Bizitza istorioak ez dira bakarrik honen edo haren bizipenak, badira ere familia baten, herri baten edo ingurumari baten istorioak. Emakume eta gizon horiei entzunda ikusi, eta ikasi dugu une historiko zehatz horretan herriaren zati batek bizi, gozatu, sufritu eta, zergatik ez esan, ikasi zuena. Beraz, lan honen xedeak zehaztu ondoren –adierazgarriak izan zitezkeen lagunen testigantzak bilatzea, hain zuzen-, haiekin guztiekin izan ginen, beraien lekukotasunak elkarrizketa bidez jaso genituen, ondoren informazio hori guztia sailkatu, eta amaitzeko istoriko guztiak alderatuz ondorioak atera genituen. Hori da lan honetan biltzen den ahalegina.

Beste begiradak

Bada antzezlan bat *Bere izena aipatzera ausartzen ez den maitasuna* goraipatzen duena, Oscar Wilde idazlearen *De Profundis* idazlanean oinarrituta. Erraietan iltzatutako sentimentuak aitortu eta izendatzearen inguruko beldurrak metafora egokia izan daitezke frankistek maitasun homosexualarekin egin nahi izan zutena ulertzeko. Gaitsezpenak baina, bestelako adierazpen eta harreman moduak ekarri zituen, sexu berekoak gogoko zituzten emakume eta gizonei bizirik iraun, maitatu eta txortan egitea ahalbidetu zizkietenak. Begiradak izan ziren eta dira elkar

ezagutzeko bidea, ahozko harremana debekatua zuten une, toki eta garaietan. Horixe esan digute lekukotasuna eman diguten guzti-guztiek.

Ez dakigu begirada berezi horrekin jaio ziren edo egoerak hartaratuta ikasi behar izan zuten, baina bai begirada ausartak izan zirela ez zirelako begi horiek inoren zapalkuntzara makurtu. Sexu disidenteen begiratu horrek ez zuen aintzat hartuko moral, aginte, aurriritzi edo enparaurik. Bere izena aipatzera ausartzen ez den maitasunak ez bezala, begirada ausart haiek maitasuna zuten aldarri, larrua bizitzeko eta gozatzeko edozein aukera zuten zilegi, inori baimenik eskatu gabe. Begi haiek ez zioten men egiten ez kolore bateko zein besteko zurikeriari. Horrexegatik lan honekin gogora ekarri nahi ditugu, eta omendu, begidara ausart, garden eta likitsarekin Elizak, familiak, gizarteak eta botere orok inposatu nahi zieten ixilkeriari aurre egin zioten emakume eta gizon guztiak.

BIZITZA ISTORIOAK

JOAKIN

- **Gure artean gaia inoiz aipatu barik, amak beti jakin izan zuen eta aitzat hartu ninduen**

Joakin dut izena, 70 urte eta donostiarra. Ume-ume nintzela ohartu nintzen apeta homosexualez, baina berandu hasi nintzen gorputzari astindu ederrak ematen, garai hartako gizartea horren itxia izanik ez baizegoen horretarako aukerarik. Gainera neronek erabaki nuen ez nuela ezer egingo aukera izan arte. Alegia, ez nuela bilatuko eta ez nuen bilatu. Garai batean psikiatra batengana ere jo nuen apeta horien inguruko argitasun bila, zer egin zitekeen ikusteko eta hark argi eta garbi esan zidan:

- *Hi lasai gera hadi, ez zegok zer eginik eta.*

Apaiza batekin ere hitz egin nuen eta antzeko erantzuna jaso zuen. Nesketan hasteko esan zidan hark. Eskolan derrigorrezkoa genuen igandetan mezetara joatea baina lanean 14 urtekin hasi nintzenez, berehala utzi nituen eskola eta mezak, eta bidez batez eliza. Zertarako nahi nuen nik, ni aintzat hartuko ez ninduen elizarik. Gaztetandik izan nuen oso argi zeintzuk ziren nire premiak. Bost axola niri psikiatrak eta medikuak esandakoak. Jakiteak ez zuen esan nahi arian arituko nintzenik, txortan egitea ez zen niretzat lehentasun. Neure buruari esaten nion:

- *Helduko duk garaia, egon hadi lasai halako batean aukera helduko zaik eta.*

Zain egon nintzen eta aukera heldu zenean gogoz heldu nion. 1961 urtean izan zen, lagun bi eta hirurok Mallorca aldera oporretan joan ginenan. Kanpadenda, orduan nahiko ezaguna zen hondartza baten ondoan jarri genuen, hotel batetik nahiko gertu. Egun batean hotelera ur bila joan ginela, gauean egingo zuten festara gonbidatu gintuzten. Parranda ohikoa izan zen, nahiko lasaia, baina baziren tartean hainbat atzerritar. Oker ez banago, holandarrak, sueziarrak eta alemaniarrak ziren. Mahai baten inguruan kopa bat hartzen ari ginela, ohartu nintzen baten batek igurtzi egiten zidala hankarekin. Zelako ezustea, oina mutil batena zela jabetu nintzenean. Taldeko alemaniar bat zen. Ni sutan nengoen, dardarka. Mahaia ere berehalakoan astinduko nuenaren beldur, zer gertatzen ari zen guztiak ohartuko zirela iruditzen baizitzaidan. Zutitu eta tabernara sartu nintzen. Atzetik etorri zitzaidan mutila. Hura izan zen nire lehen aldia! Zoritxarrez biharamunean uhartea utzi eta Valentzia aldera joatekoak ginen eta ez nuen aukerarik izan gau zoragarri hura gehiago luzatzeko. Pena benetan, maiteminak jota hartu nuen-eta itsasontzia.

Hori baino lehenago ezer gutxi egina nuen nik hankartekoarekin. Igurtzi batzuk eskolako lagunekin, besterik ez. Mukitzu bien arteko jolasak edo gizon batekin larrua jotzea, ez zegoen alderatzerik. Garai haietan sexuaz ezer gutxi aipatzen bazen, homosexulaitateaz are gutxiago. Ezer ez, egia esanda. Umetan entzuten genuen bakarra *maritxu* hitza zen, irain moduan. Elkarri esaten genion mutikook horrek benetan zer esan nahi zuen jakin ez arren. Ez zegoen libururik, ez zegoen filmarik, ez zegoen ezer garai hartan. Gogoan dut buelta asko ematen nizkiola buruari barru-barruan nituen apeta horien inguruan eta nik bakarrik osatu nuen nire errealitea, nire-nirea, inork ez ninduelako lagundu. Ez behintzat medikuntzak eta elizak, haiengandik ez bainuen ezer onik jaso.

Auzoan mutiko bat ezagutu nuen, ni baino lehenago eta azkarrago hasi zena larru kontuetan. Ni baino 6 bat urte gazteagoa zen eta zirkoan lan egiten zuen gizon batek sarrerak ematen zizkion nolabaiteko sexu hartu-emanen truke. Garai hartan halakoak ere gertatzen ziren, bai. Nire mutil-lagunari ere antzeko gertatu zitzaion, baina osabarekin. Zazpi urte zituela merkatuan postua zuen osabarekin joaten zen lanera, sos batzuen truke. Halako batean osabak esan zion:

- *Sar ezak eskua patrikan, hor zeudek-eta txanponak.*

Birritan pentsatu gabe, lasai asko sartu zuen eskua eta poltsikoa zulatuta aurkitu zuen. Niri ez zitzaidan sekulan halakorik gertatu. Umetan, honekin guztiarekin lotuta egon zitekeen aipamen edo zera bakarra orrazkera nuen, oso ile kizkurra nuenez amak kiribilekin orrazten baininduen. Umetan behin hondartzan geundela, gizon bat etorri zitzaigun eta esan zidan:

- *Kaixo neskato, zein ederra zaren!*
- *Zer diozu? Ez naiz neska, mutila naiz ni!*

“Cruising” Donostian

Oporretako estreinako txortaldi hura izan baino lehen entzuna nuen Donostian, mutiletan egiteko toki aproposak bazirela: Alderdi Eder lorategia eta Kontxa pasealekua, batez ere. Toki horietara joaten hasi nintzen eta horrela lortu nuen ni bezalako mutilak ezagutu eta haiekin larrua jotzea. Jendea Kontxako azpikaldean ezkutatzen bazen ere txortarako, nik nahigo izaten nuen Igeldoko aldapan diren txokoetara joatea. Burmuinean sartuta dut behin Kontxako azpialdean ikusitakoa: poliziek bete-betean harrapatu zituzten bi mutil txortan eta egundoko jipoia eman zieten. 60. hamarkadaren hasieran izan zen eta ez dut ahazteko. Beste behin, ezagutzen nuen mutil bat ikusi nuen polizien atzaparretan. Egurtzen ari zirela ikusirik ezin izan nuen itxilik geratu eta goitik egin nien oihu:

- *Putakume alaenak! Utzizaue pakean!*

Atzetik segika hasi zitzaizkidan eta arrapaldan egin nuen hies Alde Zaharreraino. Geroztik ez nintzen Kontxa alde hartara agertu. Gutxira, soldadutza egitera behartu ninduten eta militarren artean izan nintzen bitartean uko egin nien erabat barruko griñ guzti-guztie. Ez nuen hanka sartzerik nahi. Besterik izan zen, jakina, hura amaitu eta etxera itzuli

nintzenean. Libreago sentitzen nintzen, mutiletan aritzeko gogoz, nahiz eta horretarako aukerek Donostian oso mugatuta segitu. Kontxako azpialdean baino ez. Oraindik ez zegoen giroko tabernarik ez halakorik.

Garai hartan, nik 21 urte nituela, koadrilako lagunak andregaia hartzen hasi ziren, eta ezkontzen. Bakarrik geratu nintzen. Soldadutzatik itzuli nintzenean bakar-bakarrik nengoen. Egia aitortu behar badut, ez nengoen horren bakarrik ordurako nik bezala ulertzen zuen beste mutil gazte bat ezagutzen bainuen, eta lagun min egin ginen. Denborarekin gizon bikote bat ezagutu genuen Amarako Rondo Pasealekuan taberna bat zuena. Haiek ere, gu bezala, ulertu egiten zuten. Ez dakit taberna lekutan zegoelako zen, erdigunetik oso urrun, edo zergatik, baina beti zegoen hutsik. Guk taberna giroko bihurtzea proposatu genien, Donostian bertan ezagutzen genituen mutil homosexualen biltoki izateko. Esan eta egin. 1968 urtean ireki zuten Jacare izeneko taberna. Hor hasi zen gu bezalako jendea biltzen eta giroa sortzen.

Kosta zitzaien erabakia hartzea, baina egin zutenean ez ziren damutu. Gauez jendez gainezka egoten zen taberna. Zuhur jokatzen genuen, jakina, diskrezioz. Horrela ulertzen ez zuen baten bat sartuz gero, ez zen hor gertatzen zenaz ohartuko. Ez zen oilategi, baina poliki-poliki giroa berotzen joan zen eta Jacare tabernan biltzen ginen gizon guztiak gizonzaleak ginen.

Badut toki horren inguruan aipatu beharreko bitxikeria bat: Garai haietan nik Corbero enpresan egiten nuen lan eta tabernako sukaldea guk egin genuen. Halako batean sukaldea hondatu egin zitzaien eta nik teknikari bat bidali huen hura konpontzera:

- *Joan hadi Jacare tabernara, bertako nagusiak lagun dizkiat eta.*

Nik sano-sano esan nion, batere lotsarik gabe nahiz eta ordurako Donostian jende guztiak bazekien hura giroko taberna zela, homosexualen biltokia, alegia. Harrotu egin zitzaidan teknikaria eta gorabehera txiki bat izan genuen, mokoka hasi gabe. Tabernatik itzuli eta hara aurpegira bota zidan:

- *Maritxu alaena!*
- *Kabroi hori!*

Erantzunarekin asaldatu egin zen baina mutu geratu behar izan zuen eta ika-mika ez zen haratago joan.

"Cuesta del culo"ren sorrera

Jacare tabernaren inguruan ulertzen genuen gizonez osatutako koadrila bat sortu genuen. Haietako batek hotel txiki bat erosi zuen Mirakontxa aldean, geroxeago "Cuesta del culo" bezala ezagun egin zen tarte horretan. Guk ez genion horrela deitzen, jakina, iraingarri iruditzen baizitzaigun.

Hor bertan, Mirakontxan, arraindegiarekin dirua egina zuen emakume batek bi hotel erosi zituen eta horietako batean jatetxea ipini zuen. Hotelak txikiak ziren, baina politak. Gauza da atarramenturik ez zuela, eta azkenean negozioa eskuz aldatu behar izan zuen. Kansas kafetegian lan egiten zuen gure lagun batek hartu zuen. Berak ireki zuen aldapan giroko lehenengo taberna, Celmaster izenekoa, eta horrekin hasi zen zonaldearen arrakasta. Orduan bai sortu zela giro aparta, izugarria, aldapan. Oso giro ireki eta agerikoa sortu zen bertan. Eromena: jendeak kantatu egiten zuen, elkarrekin dantzatu eta ikuskizun erotikoak egiten ziren. Ez zen pornorik batere, eta tabernan bertan edo komunetan ez zuten sexu kontutan ibiltzerik uzten, baina beti aurkitzen genuen moduren bat elkarri esku sartzeko bederen. Tabernak egundoko arrakasta lortu zuela ikusirik, jabeak beste taberna bat ireki zuen, Valentino izenekoa, lagun batekin erdibana. Berehala jarri zen aldapa modan. Albisteak ahoz aho egin zuen arrapaldan eta handik gutxira jende guztiak zekien Donostian hura zela hiriko gune homosexuala.

Garai haietan, 1966an ezagutu nuen azken 50 urteetan bikotelagun izan dudan gizona. Londres hotelaren ondoan ezagutu genuen elkar. Autoz nindoala ikusi nuen eta ohartu nintzen bera ere niri begira geratu zela. Atzera egin nuen, bere ondoan pasa nintzen berriro eta esan nion:

- *Kaixo, bueltatxo bat?*

Eta Igeldo aldera joan ginen autoz. Handik 15 egunetara geratu ginen berriro, eta gero berriz hurrengo astean. Bera lapurtarra da eta astero-astero elkartzen hasi ginen. Hasieran hoteletan geratzen ginen, taberna barruan eta autoz joaten ginen toki lasaien bila. Inoiz Londres hotelean, edo Maria Cristinan ere geratu izan ginen. Azkenean Londres hoteletik gertu zegoen ostatu atsegin bat aurkitu genuen eta hara joaten ginen askoz ere merkeagoa zen eta. Handik denbora batera etxean aurkeztu nuen, lagun bezala jakina, eta hor geratzen ginen, gurasoekin. Amak ondoegi ezagutzen ninduen eta berehala jabetu zen gure harremanaz. Jakina, lagun bi baino ez ginenok ohe berean egiten genuen lo eta! Egia esan, inoiz horretaz hitzik egin gabe, amarentzat biok ginen bere semeak. Niri ez zidan inoiz ezer galdetu, baina bai lagunari:

- *Joakin, zer iruditzen? Bera, zer da zuretzat?*

Horrela ibili ginen denboraldi luzean. Hark ezin zuenean gurasoen etxera etorri, neronek zeharkatzen nuen muga hura ikusteko. Susmoa erabatekoa zen, baina inork ez zuen ezer esaten. Eta gurasoak poz-pozik zeuden, aita batez ere, mutilak arrandegi batean egin zuelako lan eta astebururo arrainak, muskuiluak edo ostrak ekartzen zizkiolako. Gure lagun kuadrila elite moduko bat ginen giro homosexualen, genituen lanbideengatik diru dezente geneukalako. 1971 urteaz ari naiz. Asteburutan seiko taldean ateratzen ginen Alde Zaharreko tabernetara. Jaun eta jabe izaten ginen gu giro hartan. Hasteko Basque edo Gabiña kafetegietan geratzen ginen, baina ordu batetik aurrera giroko tabernetara joaten ginen. Festarako ezin aproposagoak ziren haiek. Taldeko guztiak homosexualak izanik ere ez ginen batere nabarmentzen. Ez genuen lumarik botatzen eta nahiko txukun jantzi ohi ginen. Nik bulego batean egiten nuen lan eta trajea eta gorbata nituen eguneroko uniforme. Itxura horrekin ez zegoen batere nabarmentzerik.

Aitortu behar dut ni ez naizela sekula batere amultsua izan. Mutila jarrera horrekin haserretu egiten zitzaidan, ez naizelako jendaurrean nire sentimenduak erakusteko zale izan. Giroko tabernetan geudela besteak ikusten genituen elkarri muturra jaten, musuka, eta nik ezin zuen halakorik egin. Ez daukat ahazteko behin lagun guztiak txaloka hasi zitzaizkigula musu baten eske eta nik eman, eman nion, baina masailean.

Oporretan ere taldean joaten ginen, gure kasara Benidorm, Valentzia, Mala edo Sitges aldera. Apartamentu bat hartzen genuen edo hainbat gela hotel batean. Egia esan, bost axola zitzaigun gainerakoek zer pentsatzen zuten. Gaur egun ere jendea aurreiritzi beretsuekin bizi dela iruditzen zait. Ez dut uste jendea aldatu denik ezkontzeko aukera irabazi dugulako, ezta hurrik eman ere! Ez dut ukatuko gauzak hobetu direnik eta gaur hobeto bizi garenik, baina askorentzat guk oraindik atzelariak izaten segitzen dugu.Aldea egon badago, jakina. Batez ere lege aldetik. 70. hamarkadaren hasieran ia-ia bizitzea ere debekatuta geneukan. Ez dut esango egunero gertatzen zenik. Baina homosexuala izateagatik atzeman eta preso sartu zuten mutil bat ezagutu nuen. Denboraldi bat eduki zuten barruan eta oso-oso gaizki pasa zuen gizarajoak. Artean Franco bizirik zegoen eta ezin genuen tutik esan.

Hiesaren izurritearem menpe

Franco bakarrik izan balitz, sikiera! 80. hamarkadako urte haietan, hiesa izurrite bihurtu zenean oso gaizki pasa genuen. Ezagun eta lagun dezente gaixotu eta hil egin ziren. Guk geuk horrenbesteko beldurra hartu genion birus madarikatu horri, non denboraldi batez gure artean ere larrua jotzeari utzi genion. Kalean mutil-ehizan ibiltzea pentsaezina zen. Baina kalean bakarrik ez, arestian esan bezala bikote barruan ere sexua bazterrean utzi genuen tarte batez. Gaitzak nagusi samar ginela harrapatu ginduen eta horri esker, nik uste, onik atera ginen. Hil ziren lagunak gu baino gazteagoak ziren. Tristeena zen ezin geniola inori ezer aipatu. Baten bat hiesak jota hiltzen bazitzaigun, minbiziak hartuta edo auskalo zerk jota hil zela esaten genuen. Horrez gain, esan beharra daukat urtetan bananduta bizi izan ginela bikote-laguna eta biok. Mugaren alde bietan egiten genuen lan eta asteburuetan eta oporretan baino ez genuen elkarrekin egoterik. Oporrak bi txandatan banatzen genituen eta urtean bitan 15 egun izaten genituen biok bakarrik egoteko.Egun gauzak arras ezberdin dira. 1996 urtean biok hartu genuen erretiroa eta Lapurdira joan ginen elkarrekin bizitzera. Auzokoek badakite ezkonduta gaudela eta inor ez da gurekin sartzen. Ez gara hasiko bada orain txorakeriekin, ezta? Gainera, auzoko batzuk Donostian izan ziren, gure ezkontza ospakizunetan.

Gipuzkoan, 2013ko abenduan

• Ganorazkoa, bai… baina luma eskolak eman ditzaket

Nire burua aurkezteko Gabriel naizela esango dizuet, besterik gabe. 1938 urtean jaio nintzen arren, kontakizuna 75. urtean hasiko dut, orduan jabetu bainintzen homosexualitatearen gaineko arazoez eta urte hartan jarri nintzen arazo horiek guztiak borrokatzeko harremanetan jendearekin. Garai hartan Bilbon ez zen inor mugitzen, ez nuen nik inor ezagutzen. Lanean hasteko irrikitan nengoen arren, oso zaila zen jendearekin harremanetan jartzea. Urteak neramatzan auzoetan familia elkarteekin eta langileen mugimenduan lan egiten eta une horretan neure bizitzan erabili nahi nuen borrokarako griña hori. Gizarte mugimenduaren nondik norakoak ondo ezagutzen nituen eta banekin nik bakarrik ezin izango nuela ezer egin. Hori zen-eta nire arazoa, 46 urte nituela eta erabili gabe nengoen oraindik, birjina erabat. Gauzak aldatzeko zerbait egin beharra neukan eta aldizkari baten bidez harremanetan jarri nintzen beste gizon batekin.

Oso berandu hasi nintzen, bai. Baina kontutan hartu behar da hazi, oso giro elizkoian hazi nintzela. Gaztetan meza-mutila izan nintzen, Elizan oso-oso sartuta egon nintzen eta apaiztegian ere denbora dezente eman nuen. Erlijio heziketa oso sustraituta zegoen nigan. Heziketa baino, esango nuke itxurakeria zela garai haietan nagusi zena.

Bi urte eman nituen apaiztegian. Hasteko Saturraran aldean, eta gero Zenaurin. Eliza barruan oso sartuta jende asko ezagutu nuen eta azkenean topo egin nuen Kristau Elkarteak izeneko talde batekin. Berrikuntza polita izan zen ekimen hura garai haietan, gaur egunetik ikusita latzegia ematen badu ere. Garai haietan egindakoei erreparatuz, reality show baten tankera hartzen diot guztiari, jendearen aurrean barrukoak hustu behar izaten genituen eta. Egia esan beharra zegoen, latza benetan. Gaur ez nuke halakorik egingo, baina une hartan horrek guztiak argia ekarri zion nire sen goibelduari. Talde horiei esker ezagutu nuen nik bezala bizitzaren gaineko ikuspegi ireki eta aurrerakoia zuen jende gehiago.

Kristau Elkarteek ate ugari ireki zituzten gure gizartean, baita politika arloan ere. Hortik abiatuta harremanetan hasi nintzen nahiko modu inozoan gainera, talde sindikalekin. Halako batean ezkutuko bilkura batera gonbidatu ninduten. Ezkutukoa behar zuen, artean Franco bizirik baizegoen. Bilkura Saninazio auzoan izan zen, mojen eskola batean. Hor alderdi politikoetako jendea ezagutu nuen. Ni neu txundituta nengoen erabat. Jende hori zoragarria zen, atsegina eta eskuzabala. Nik ezin nuen sinistu:

- *Horiek badira komunistak.. Zer egiten nuen nik Elizan sartuta?*

Kontutan izan behar da hori 70. hamarkadaren lehenengo urtetan izan zela, Frankismoaren garai zurrunetan. Bilera horren ostean alderdi bateko kideak atzetik izan nituen. Beraiekin joatea nahi zuten eta ni haiekin joan nintzen. Hori zen une horretan halako erakundeetan sartzeko modu bakarra eta, bide batez, bestelako jendea ezagutzeko aukera. Ez nuen luze eman haiekin, ez zitzaidan larregi gustatu haien itxikeria. Zer egin nezakeen eta zer ez, agintzen zidaten eta hori jasangaitza egiten zitzaidan. Portaera arauak ez dira inoiz niretzat izan –orain hau egin behar duzu, orain beste hura— eta utzi egin nituen. Hiru hilabete eman

nituen alderdi horren barruan eta ordurako jende gehiago ezagutu eta adiskide berriak egin nituen.

Banketxe batean egiten nuen lan. Enpresa barruan baziren gizarte arloko hainbat zerbitzu eta ordurako ni harremanetan nengoen horiek kudeatzen zituztenekin. Nik esan nien:

- *Sinesgaitza dirudi herri honetan gertatzen ari den guztia.*

Banketxearen barruan talde bat sortzera animatu ninduten. Langileen defentsarako talde bat, alegia. Hainbat lankide elkartu, egitura sortu eta lanean hasi ginen. Egun batean Madrilera joatea proposatu zidaten, bertan arlo sindikalean trebatzeko aukera handiagoak izango nituelako. Urte haietan talde, erakunde, alderdi... piloa sortu ziren eskualde guztietan. Gurean ere, banketxeen alorrean, grebak eta protestak izan ziren sasoi hartan.

Posta bidez lagunak egiten

Lan sindikalean buru-belarri sartuta nengoela, 76. urtean Ozono izeneko aldizkariarekin egin nuen topo. Egoera kontutan hartuta, oso aldizkari interesgarria zen hura, guztiaren gaineko oso ikuspegi kritikoa zuena. Aldizkariak bazuen irakurleen arteko harremanak sustatzeko atala eta hor agertzen ziren mezuak irakurriz, bat oso deigarri egin zitzaidan: gay talde bat sortzeko jendea bilatzen zen. Berehala jarri nintzen harekin harremanetan, posta bidez.

Nik gutuna idatzi nuen eta telefono zenbaki bat emanez erantzun zidan norbaitek. Deitu egin nion, jakina. Horrela hasi zen harremana eta hori guztia berri-berria zen niretzat. Aitortu behar dut tentuz sartu nintzela hartu-eman horretan, zuhurtzia handiz, ez bainekien gutunaren bestaldean zer eta nor aurkituko nuen. Ezin dut ukatu, gainera, ordura arte homosexualitatearekin lotura zuen guztia gaitzesgarri zela niretzat. Homosexuala izatea ere, txarra zen, oso txarra. Eta horrela zen niretzat, umetandik barru-barruan nituen griñek besterik esaten zidaten arren. Gaztetan otoiz egiten nion Jaungoikoari griña horiek nigandik atera zitzan. Inoiz Lourdes aldera joatea ere pentsatu nuen, ea bertan mirari bati esker osatzen ninzen. Gipuzkoako mediku batengana ere joan nintzen. Zer gertatzen zitzaidan aipatu nion eta holaxe erantzun zidan:

- *Begira mutil, zer nahi duzu nik esatea? Arazo horietan ezin izango zaitut izut lagundu, debekatua dugu eta. Gobernua oso zurrun dabil gai hauekin eta ezin dugu ezer egin.*

Egia aitortu behar badut, orduan ez nekien oso ondo zer zen Arriskugarritasun Sozialari buruzko Legea. Izan bazela banekien, harreman homosexualak zigortzen zituela ere bai baina, haratago ezer ez nekien. Gerora bai, ondo ikasi nuen legea. Hori posta bidez ezagututako mutil harekin harremanetan jarri eta gero izan zen. Bera Huelvakoa (Andaluzia) zen eta hara joan nintzen. Irrikitan nengoen mutil hori ezagutzeko. Agian hark Euskal Herriko besteren bat ezagutuko zuen eta hura izan zitekeen nire salbazioa. Elkar ezagutu genuenean handik gutxira Benidorm (Valentzia) aldera lan egitera zihoala esan zidan. Era berean, Bilbon gay gaiari lotutako manifestazio bat prestatzen ari zen jendea bazela esan zidan:

- *Haiekin egin behar duzu harremana. Uste dut talde bat antolatzekotan dabiltzala.*

Eta Imanolen (Alvarez) izena eman zidan. 1977 urtea zen eta artean oraindik legez kanpo zeuden erakunde homosexualak. Jazarpena handia zen eta manifestazioa egitea ere debekatuta zegoen. Manifestaziora joan nintzen, jakina, eta hor ibili nintzen gora eta behera Imanolekin topo egin nuen arte. Hura zen Euskal Herrian gai honen inguruan egiten zen lehenengo agerraldia. Ordurako ni ordezkari sindikala nintzen banketxean, nahiz eta artean sindikatuak debekatuta egon, eta lankideei aipatu nien manifestazioa egitekoa zela eta haiek guztiak han ikustea espero nuela. Barre ederrak egin zituzten.

- *Baina zuei, zerk egiten dizue horrenbesteko grazia? Panfleto bat egingo dut zuek guztiak hankaz gora jarriz eta ikusiko dugu nork egiten duen azkenean barre. Ez banauze aintzat hartzen, salatu egingo zaituztet.*

Horixe esan nien eta ez nenbilen txantxetan. Azkenean batzuk animatu eta hor izan ziren, manifestazioan. Horien artean kazetari bat ere bai, Alderdi Komunistako kidea. Manifestazioa Zabalburun abiatu zen eta Hurtado de Amezaga kaletik jaitsi ginen Areatza aldera. Ibilbidean hor ibili nintzen galdezka, Imanolekin topo egin nuen arte.

- *Nahi baduzu, taldea antolatzen hasteko batzarra egingo dugu Durangoko baserri batean.*

Horrela ezagutu nituen une hartan Bilbon gay talde bat osatzeko asmoa zutenak. Imanolek xehetasun gehiago ere eman dizkidan: erakundea sortuko zutela, EHGAM (Euskal Herriko gay askapen mugimendua), taldearen estatutuak erabaki behar zituztela eta lanean hasi.

- *Etor zaitez!*
- *Txo, ni erabat prest. Lanean hasteko irrikitan nago eta ikusten dudanez taldea aurreratu samar daukazue.*

Lehenengo manifestazio hartan 500 edo 600 lagun elkartu ginen, dezente garaiak kontutan hartuta. Ez ditut gogoan manifestazioaren gaineko gorabehera guztiak, baina bai buruan grabatuta geratu zitzaidan manifestazioa aurrera zihoala jendearengan somatzen zen ilusioa. Lastima, ez zen ondo amaitu azkenean polizia oldartu zitzaigun eta.

Durangon hainbat egun eman genituen, baserri hartan. Taldearen estatutuak onartu genituen eta dena prest utzi genuen lanean hasteko. Bilbon ez genuen non elkartu eta lehenengo hitzordua Areatzako Boulevard kafetegian ipini genuen. Ezusteko galanta izan zen niretzat EHGAMen lehen bilkura hura.

-Aitaren eta semearen, zer da hau!

Oso jende gaztea bildu zen, gazteak eta lumaz josiak. Biziki hunkituta atera nintzen lehen bilera hartatik. Ni ohituta nengoen ohiko jardunbide politiko eta sindikalera, eta hor ikusitakoa itzela zen nirentzat. Sinesgaitza zen niretzat. Ez zitzaidan buruan sartzen norbaitek aldarriak plazaratzeko luma erabiltzea. Bileran neu nintzen zaharrena. Beti

izan naiz zaharrena. Baina adinatik haratago, ni neu nintzen arazoa. Ni giro politikotik nentorren, langileekin lan egiten ohituta nengoen eta halako bilera mota berria zen niretzat, inoiz ikusi gabea nuen ordura arte. Kontuan hartu behar da ni gay borrokan sartzeko irrikitan egon arren, ez nuela gainetik kentzerik izan oraindik homosexualitatearen kontra nik neuk nituen beldurrak, lotsak eta aurreiritziak.

“Homosexologia” eta “luma” eskolak

Zoro bezala hasi nintzen gaiarekin lotura zuen edozer ikasten. Liburudendetan topatutako liburu guztiak erosi eta irakurri nituen. Ez zegoen askorik. Eta zegoen apurra nardagarria, benetan. Taldea bete-betean lanean ari zela, behin bilera batetik ateratzerakoan gazteetako bat, jatorra eta *panpin* eder-ederra bera, etorri zitzaidan nirekin hitz egin nahi zuela esanez:

- *Haizan, txorakeria gutxiago eta hasi hadi lumatxo batzuk botatzen. Hireak ez zeukan barkamenik!*
- *Zer ba?*
- *Nola, zer ba? Ez al den ikusten horrela ez ohala inora? Ez dinat esan nahi inongo gizonik ez denela harrapatuko. Inork ez din kasurik egingo horrela segituz gero.*
- *Ba, baduk larria bai.*

Eta horrela hasi zitzaizkidan luma eskolak ematen. Eta azkenean neu ere lumak botatzen hasi nintzen. Hasieran izugarri kostatzen zitzaidan, baina apurka-apurka lumaren garrantzia ulertzen hasi nintzen eta onartu behar izan nuen arrazoi zutela, eskubide osoa zutela lumak nahi beste botatzeko. Hori izan nuen benetako ikasgaia, lagun hurkoa den bezala aitzat hartzea. Aurreiritzi guztiak bazterrean uztea, alegia. Askatasunaren alde borrokatzeko prest banengoen, lehenengo eta behin lagun hurkoaren askatasun osoa aintzat hartu behar nuela ikasi nuen. Hobeto esanda, ikasi genuen. Arazoa zuen bakarra ez nintzen ni.

Taldean ere egundoko eztabaida izan genuen lumaren inguruan, onartu edo ez. Arestian aipatutakoa gogoratu nahi dut. Hau da, oso garai itxiak ziren haiek. Batzuen ustez lumak kalte egiten zion taldeari mezua gizarteratzeko. Nik neuk horixe uste nuen hasieran, hori zelako ordura arte ikasi nuena. Gure mezua elarazteko seriotasunez egin behar genuela pentsatzen nuen, ganoraz eta ez horrenbeste *maritxukeriaz*. Azkenean amore eman nuen:

- *Besteek naizena onartzea nahi badut, nik neuk ere aintzat hartu beharko ditut besteak, diren bezalakoak direla. Bat serioa bada, serio. Baina bestela, pertsona bakoitzak nahi duen bezala bizitzeko eskubide osoa du eta nik onartu besterik ez dut.*

Horrela gertatu zen. Gauzak nahiko ondo atera ziren. Ni buru-belarri sartu nintzen lumen zera horretan, besteek adinako trebetasuna lortu arte eta iaiotasun horrekin inori luma eskolak emateko gai ere banintzen.

Bilbon egin genuen lehen manifestario haren ondoren eta EHGAM sortzen genuen bitartean, Huelvako mutilarekin izandako harremana sendotzea pentsatu nuen. Ordurako Benidorm aldean zebilen bera, lan egiten, eta hara joan nintzen jendea ezagutzera, tokian

tokiko sexu askapenaren aldeko taldeak sortu asmoz. Hiru bat aste eman nituen bertan. Orain ez dut gogoan zenbat jenderekin elkartu nintzen, baina bai mordoa izan zela. Jendeak oso ondo erantzun zuen eta bai, talde bat sortu genuen. Ez dakit zenbat iraungo zuen gero baina, Bilbora itzuli nintzenerako lanean hasiak ziren han ere.

Etxeratuta, lehenengo gauza banketxeko langileen ordezkariekin bilera egitea izan zen.

- *Zer moduz New York aldean?*
- *Uy!, New York?. Bai zera!, Benidormen izan naiz eta.*

Banketxean poxpolin bat eginda agertu nintzen. Bota luze batzuk oinetan, egundoko takoi puskarekin, amaren zapi batekin eta belus beltzez egindako jaka zoragarri batekin. Erabateko *maritxu looka*. Ikusi nindutenean aho bete hortz geratu ziren guztiak.

- *Entzun neskak, nirekin jai duzue. Kokoetaraino naukate horrebesteko txorakeriek. Ni maritxu galanta naiz, beraz... badakizue, hemendik aurrera begirunez hartu behar nauzue, ez dizuet lelokeria bat gehiago onartuko. Naizen bezala onartu beharko nauzue!*

Eta barrezka hasi ziren.

- *Ez, ez nabil txantxetan. Ulertu behar duzue zuen jarrera hori erabat salagarria dela eta ez banauzue aintzat hartzen liskarrerako prest naukazuela. Adi egon!*

Bada onartu ninduten, ez ondo, oso ondo baizik. Nire alde egin zuten eta nirekin bat, hainbat eta hainbat manifestaziotan. Benetan, izugarrizko zorte ona izan nuen lankideekin.

Lagun hurkoa hunkitu nahian

Franco hil berria zen eta EHGAMen lanari ekin genion. Hasteko alderdien babesa lortu nahi izan genuen, mugimendua sendotu eta gizarteratzeko eta, halako batean, 1977an izan zen hori, Boulevard kafetegian bilduta geundela neronek adierazi nuen ghettotik ateratzeko premia, ezin ginela egun guztia hor Boulevard horretan sartuta egon. Zelan egin? Hori zen arazoa. Eta banketxean izan nuen erantzuna. *Piri*, lankide anarkista batek egin zidan proposamena:

- *Nahi baduzue, jendea gure auzora dei dezakegu eta bertan egoitza lortu batzarra egiteko.*

Ekin eta egin. Rekaldeberriko elizan hitzaldi bat antolatu genuen. Eta EHGAMkideei nik neuk ematea proposatu nien:

- *Axola ez bazaizue, neronek emango dut hitzaldia.*

Hura ausardia! Bilbon ez zen sekulan eman homosexualitatearen gainean hitzaldi bat. Zoramena izan zen hura, ezin loak hartuta egon nintzen hainbat gautan. Hitzaldirako idatzi bat prestatu behar nuen eta akaberik gabeko idatzi luzea atera zitzaidan. Ikaragarria izan zen. Gaur ez nioke gaiari orduan bezala helduko, ezta hurrik eman ere! Baina sasoi hartan inork ez zekienez ezertxo ere homosexualitateaz edozer gauza emanda ere, berri-berria egingo zitzaien eta zentzuzkoa.

Ahal bezala joan nintzen Rekaldeberrira. Denbora hartan eliza konpontzen ari ziren eta hura barrakoi moduko bat zen. Eliza gainezka zegoen. Jendaurrean exeri ginenean ni dardarka nengoen. Beldurrez kakaztuta. Hitzaldia nire auzoan emango nuen eta nik lan handia egina nuen bertan familia elkartean. Jende guztiak ezagutzen ninduen eta lagun ugari bildu zen entzutera. Gogoan dut idatziarekin hasi nintzenean ezin nuela ixildu, hura amaigabea zelako. Benetan, izugarria izan zen hura.

Une horretan jendearen hunkiberatasuna suspertzen saiatu nintzen. Gay eta lesbianok sistemaren biktimak ginen, oso argia zen hori. Eta ez bakarrik sistemarenak, herritarrek ere bat egiten zuten-eta sufritzen genuen jazarpenarekin. Ez dut ahazteko aretoan nagusitu zen ixiltasuna, nire ahotsa besterik ez zen entzuten. Galderekin hasi zirenean, horren urduri nengoen ez nituela entzuten ere. Azkenean auzokoek oso ondo erantzun zuten eta amaitutakoan hurbildu egin zitzaizkidan.

- *Baina Gabriel, nolatan ez diguzu ezer esan? Gezurra dirudi, konfiantzarik ez izatea gurekin.*

Auzoan primeran hartu ninduten. Zorte handia izan nuen eta telefono zenbaki mordoa eman zidaten. Ezin dut gogoratu zenbat dei izan nituen hurrengo egunetan. Jendeak gurekin hitz egin nahi zuen, harremetan jarri. Kezkatuta utzi nuen jendea. Esandako guztia ondo iruditu zitzaien, baina arduratuta zeuden nirekiko. Jakin nahi zuten hitzaldian aipatutako jazarpena sufritzen ote nuen nik ere. Auzokoek lagundu egin nahi ziguten. Batzuk lasaitasun ederra hartu zuten gau hartan, baten batek hitz eman zielako beraiek ixiltasunean sufritzen zuten egoerari. Orduan ohartu nintzen jende ugari zegoela nire auzoan bertan, oso-oso gaizki pasatzen zuena sexu desioak ezkutatu nahian.

Izorrai marikoi hauekin!

Hitzaldi horren ondoren beste bat izan genuen unibertsitateko areto nagusian. Bestea ere nik eman nuen, baina oraingoan askoz lasiago. Jendaurrean hitz egiten ikasi nuen eta, patxadaz. Eta hitzaldiak eta batzarrak egiten hasi ginen herriz herri. Garai hartan gogoan dut Eibarren jazo zitzaidana alderdi bateko kideekin. 1977an behar zuen izan, hitzaldia urte hartan legeztatu zuten Alderdi Komunistaren (EAK) egoitzan egin baizen. Bada, hori, hara

joan nintzen ni, sasoi hartan horren ohikoa nuen kaiku urdinarekin. Txapela besterik ez zitzaidan falta. Sartu nintzen egoitzan eta behin barruan, EAKko bati entzun nion:

- *Marikoi ustelak, ez dakit ze ostia egitera datoz hona!*

Harren ondotik pasa, agurtu, exeri eta hitzaldiarekin hasi nintzen. Amaitu nuenean arestiko zakarkeria bota zuenak zutitu eta zera esan zuen:

- *Barkamena eskatu nahi dizut lehenago egindako zoritxarreko iruzkin horregatik. Ezer ez nekien sufritu duzuen jazarpenaz. Berbetan ari zinela guk nozitutakoak etorri zaizkit gogora. Ni Sovietar Batasunean bizi izan nintzen, preso ere bai eta, egia esan, gauza bera ez den arren orain ulertzen dut zuok pairatutakoa.*

Barkamena eskatu, elkartasuna adierazi zigun eta jesarri egin zen. Argi dago alderdi guztietan, baita ezker inguruko alderdi batzuetan ere, halako arbuioa, halako jarrera homofobikoak bazirela. Baina hori horrela zela onartuta ere, esan beharra dago ezagutzearekin batera mudatzen zirela jarrera horiek. Eta "alderdi batzuetan" esan dut izan zirelako beste batzuk, EMK (Euskadiko Mugimendu Komunista) kasu, gurekin bat izanak beti.

Behin pausoa emanda, ez nuen nire bizitza politikaz bakarrik bete. Une hartan, Franco hilda zela eta gizartean somatzen zen lasaitasunarekin, jendea irrikitan zegoen hartu-emanetan aritzeko. Eta larrua jotzea munduko gauzarik errezena bilakatu zen. Niretzat bai, behintzat. Esan daiteke jendea prestu zebilela, lotu barik. Ni neu horrela nenbilen. Sar nintekeen Poza kaleko edozein tabernatan, Orkonpon tabernan esaterako eta gustoko nuen mutil bat ikusiz gero, bete-betean esaten nion:

- *Hara, zelako begi ederrak dituzun!*

Ausardia zen jaun eta jabe eta ez zegoen inongo zulotan ezkutatzen ibili beharrik. Jendea prestu zegoen. Are gehiago, esango nuke oso gaizki ikusita zegoela gu arbuiatzea. Jende asko zegoen onarpenaren alde lan egiten. Apustu egingo nuke gizon askok probatu zutela, oso modernoa zelako sexu berekoekin txortan egitea. Hura oso giro erraza zen, edozein tokitan ligatzeko adinakoa. Pozas kaletik barrena edozer gauza jazo zitekeen: bati begira geratu, hari irribartxo bat bota eta edozein lelokeria esan. Eta hori Indautxun gertatzen bazen, pentsa zer izan zitekeen Zazpi Kaleetan, Barrenkalen adibidez, *Otxoak* bertan zuen-eta bere taberna.

Guneak askatzen

Giroko lehen taberna Bilbon hori izan zen, *Otxoa*rena. Baina Zazpi Kaleetan perretxikuak legez sortu ziren taberna eta enparauak. Horrek erruz errazten zuen mutiletan jardutea, harremana eta larrualdia. Eta tabernak aipatu ditudanez ezin dut ahaztu guretzako oso heavy izan zen tokia, *Opera* kafetegia, alegia. Arriaga antzokiko atzekaldean zegoen. Itxuraz, ohiko kafetegia zen hura, etxekoandreentzako aproposa. Auskalo zergatik, baina lekua gizon homosexualez betetzen hasi zen eta bertako komunak ligatzeko erabiltzen zituzten. *Opera* ezinbesteko topagune bihurtu zen Bilboko giro homosexualean, bertako ugazabek giroa zapuztu eta dena pikutara bidali zuten arte.

- *Jasanezina da! Zerbait egin beharra daukagu morroi hauek hemendik hanka egin dezaten.*

Baten bat komunera sartu bakoitzean, atzetik joaten zitzaizkion zelatan. Horrek egundoko ezingona eragin zuen. Alde egitea erabaki genuen eta Bilbon beste lekuren baten bila hasi ginen gu guztion biltoki eta topaleku bihurtzeko. Bila eta bila, azkenean Elkano kalean aurkitu genuen toki aproposa, Macumba izeneko taberna. Izugarri polita zen tokia. Hasieran taldetxo bat hasi ginen bertara joaten eta *Opera*n ikusitako guztiak hara bidaltzen genituen. Apurka-apurka Macumba hura giro toki bihurtu genuen, hau da, gay eta lesbianentzako txokoa. Taberna ezin aproposagoa zen, toki pribatu eta guzti. Hasieran gizonezkoak baino ez ginen joaten, baina geroxeago neskak ere sartu ziren eta azkenean egunero izaten ginen bertan. Arratsaldeko lauretan kafetxoarekin hasi eta hor egoten ginen guardia egiten, ea berriren bat agertzen zen bakarrik egon ez zedin. Boikota egin genion *Opera* kafetegiari eta hura izan zen haren galbide.

*Macumba*n oso ondo geunden arren, iruditu zitzaigu toki bakarrarekin ez zela nahikoa eta beste baten bila hasi ginen. Taberna handi bat topatu genuen, *Reala* izenekoa, erdigunean. Bi txoko genituen guretzako, 1978 urtean. Handik gutxira urrats berria eman eta dantzaleku bat hartu genuen. Hasieran *Yois* izan zen, Indautxun. Primeran izaten ginen bertan. Poteoa amaitutakoan hara joaten ginen dantza egitera eta, aurrekoan bezala, apurka-apurka gure egin genuen tokia. Ia guztiak ginen gay edo lesbianak. Gizon gehiago izaten ginen, baina denak elkarrekin egiten genuen dantza pistan. Hortik aurrera jendea Distrito Nueve dantzalekuan sartzen hasi zen eta hura ere geure egin genuen, baina oraingoan ez modu antolatuan. EHGAMeko bilerak ere *Olimpia* tabernak zuen soto txiki batean egiten genituen, *Txoko Landan* ireki aurretik.

Egia da ordurako bazirela mutiletan aritzeko toki gehiago Bilbon, Doña Casilda parkea eta abar, baina ni ez nintzen halakoetara joaten, nahikoa nuen-eta tabernetan ligatzen nuenarekin. Eta ez dut uste tabernetan sortutako giro hura ghettoa egitea zenik, ez zelako batere ezkutukoa gu hor elkartzea. Jendeak askoz ere modu irekiagoan bizi zuen orduan bere homosexualitatea, ez zen aurreko giro itxia, klandestinoa, ezkutuan bizi genuena inor jabetu ez zedin zertan genbiltzan edo nolakoak ginen gu.

Eta bat-batean, hiesa heldu zen

Dena oso ondo zihoanean, zoragarri bizitzen hasi ginenean, hiesa heldu zen. Izugarria izan zen. Batzuetan ez dut asmatzen nolatan lortu nuen bizirik irautea. Lagun gehiegi hil zitzaizkidan gaitzak jota, eta haietako batzuekin txortan egina nuen. Zorigaitz handia izan zen hura, oso gaizki pasa genuen. Nik neuk larritasun handiarekin bizi izan nituen garai haiek. Egun batean bai eta hurrengoan ere bai, hau edo bestea gaixotu egin zela esaten zidaten, edo beste hura hil egin zela.

Hasierako urteak izan ziren gogorrenak, 80. hamarkadako hasiera haiek. Ez zegoen informaziorik eta ez genekien zergatik hiltzen zitzaizkigun lagunak, edo nolatan gaixotu ziren. Ez genekien musu xume batekin kutxatzerik zegoen, edo ez. Eta ez naiz ari ahoz aho emandako musuez, masailean emandako musu xalo bati ere beldurra genion. Horrek guztiak erabat zapuztu zuen giroa. Normala, edonorentzat da jasanezina egunero-egunero baten bat gaixotu dela edo hil egin dela jakitea.

Gabon Zahar gau batean lagun batek eta biok hil zitzaizkigun lagunen zerrenda egin genuen. Guk hamasei zenbatu genituen. Eta guk hamasei bezala, beste batek beste hamasei zenbatuko zituen. Hildakoak egunero ziren albiste. Horretaz baina, ez zen hitz egiten, ez gure artean, ez hedabideetan. Ez genuen hiesa aipatu nahi ere. Eramangaitza zen auzia, gaiari buruzko filma bat ikusten hasi eta nik neuk behintzat ezin nuen amaiera arte ikusi.

Nola ahaztu, bestalde, jende askok hiesaren krisia baliatu zuela berriro ere homosexualitatearen kontra egin eta gertatzen ari zen hondamendiaren errua gay gizonoi egozteko. Jazarpen hori neurri batean leundu egin zen droga hartzaileak, hemofilikoak eta itxura guztien arabera harreman heterosexualak zituzten gizon eta emakumeak ere gaixotzen hasi zirenean. Baina ordura arte, baten batek zu gay zinela jakiten zuenean, galdera ezinbestekao zirudien:

- *Ez zara hiesarekin kutsatuta egongo, ezta?*

Gay izateagatik bakarrik seinalatuak izaten ginen. Aldaketa erabatekoa izan zen. Urte batzuk lehenago argira ateratzen hasi ginenean, dena zen polita, dena zen askatasuna, dena zen zoragarria. Hiesa heldu zen eta kikilduta bizi ginen, ez ginen ezer esatera ausartzen berehala gure kontra egiten zutelako, ustez hies gaitzak jota egon gintezkeelako. Oso gogorra izan zen.

Egun gauzak arras ezberdin dira, baita niretzat ere. Gaur ez dut orduko ezerekin zerikusirik. Lasai asko bizi naiz eta ez nago ezertan sartuta, ez sindikatuetan, ez gay mugimenduan, inon ez. Egia esan behar badut, gay giroa nolakoa den gaur ez dakit, ez dut ezagutzen eta. Tabernetan ere ez naiz ibiltzen. Bai esan dezaket hedabideetan edo kalean ikusten dudanagatik, auziak gaur hartua duen norabidea kezkagarria iruditzen zaidala. Atzera egin dugulakoan nago eta gizartean jarrera atzerakoiek gero eta indar handiagoa dutela. Beharrezkoa da borrokari eustea, jendeak ezin dio aurpegia emateari utzi.

Esate baterako, oso kezkagarriak iruditzen zaizkit Europako hainbat eta hainbat txokotan aspaldion ikusi ditugun agerraldiak. Eskuin muturrekoak harrotuta dabiltza eta ez dira lau katu. Ezkontza berdinduaren inguruan Frantzian jazotako aldarriak oso argigarriak izan ziren: ez zuten bakarrik emakume edo gizon homosexualen kontra egin gainera, gaixo gaudela eta anormalak garela esan ziguten. Badira ideia horiek barreiatzen dabiltzanak eta benetan diot, atzera egin dugu. Bestela, bada... nik esan dezaket ni neu lasai bizi naizela. Ez dut zer galdu. Hamaika urte daramatzagu mutil-laguna eta biok elkarrekin, eta ondo bizi gara.

Bizkaian, 2013ko azaroan

EMPAR

- **Lesbianapuska naizela esaten didate, txundituta geratzen naiz eta zirrarak habi egiten du nire bihotzean**

Empar dut izena nahiz eta Hernanin (Gipuzkoa) nire jaioterrian Amparito bezala ezagunagoa naizen, harakinaren alaba. 1944 urtean jaio nintzen. Oso urte garrantzitsua izan zen hura, ni jaiotzearekin batera, zoritxarrez, Nazioarteko Moneta Fondoa eta Munduko Banketxea ere sortu baitzituzten.

Ikasketak Hernanin eta Donostian egin nituen, hasteko ikastetxe pribatu batean eta gero Florida institutuan. Bukatu, Zaragozako unibertsitatean bukatu nuen, librean egindako azterketarekin. 1964 urtean Madrilera joan nintzen Filologia Erromanikoa ikastera. Eta Madrilera joan nintzen, besteak beste, nire ahizpa nagusia bertan bizi zen eta. Koinatuarekin ez nintzen ondo moldatu eta nahiago izan nuen ikastetxe-nagusira bizitzera joan. Isabel de España izeneko ikastetxera joan nintzen, izenagatik bitxia bada ere, une hartan Madrilen zegoen aurrerakoiena zen hura. Han sartu nintzen garai haietan oso progreak ziren hainbat gauzatan. Artean armairutik atera gabe nengoen. Behin, fakultateko ikaskide eta lagun nuen neska batekin hitz egiten ari nintzela, herrian izan nituen neska lagun minei buruzkoak aipatu eta gero, zera esan zidan:

- *Zer lagun min eta zer lagun min ondo, hi lesbiana puska galanta haiz eta. Ezta?*

Txundituta geratu nintzen…

- *Arraiopola! Gure arteakoa ez zen intimitatea… lesbianismoa baizik.*

Egiari zor, egundoko lasaitasuan hartu nuen, egundokoa azkenean baten batek izena jarri zion eta nire baitako grin haiei guztiei. Urte haietan (1964) ez zegoen gaiari buruzko libururik, ez gutxienez nire eskura. Jakin ere ez nekien lesbiana hitza bazenik ere, nahiz eta neure buruak bat egin lagun hark esandako guztiarekin. Eta jakina, hitza ez banuen ezagutzen are gutxiago lesbianak izan zitezkeen neskak. Marimutilei buruz bai, irain modun erabali ohi zen hitz hori ezagun nuen, baina ez nuen neuretzat hartzen, inola ere. Ni ordurako ohartuta nengoen mutilen jokoak nituela gogoko eta neskekin jolasteak ez

ninduela atsebetetzen. Koadrilako neskekin medikutara jolastera otzen zitzaienean elkartzen nintzen, soilik orduan eta ni beti izaten nintzen medikua.

Mutilekin ez nuen inolako arazorik mahai-futbolean edo txapetan jolasteko. Gogoan dut behin harategira joan zitzaizkiola amari kuxkuxean:

- *Zure alaba Amparitok ez du atarramenturik... ipurdia burua bera baino gorago jarrita dabil Plaza Berrin, txapetan joasten.*

Eta noski, mutil guztiei irabazten eta guztien txapak nire poltsikora sartzen.

Nortasuna zehaztuz

Madrilen, lagun hark lesbiana puska ederra nintzela esan zidanetik, nire burua argiago ikusten nuen. Gogoan dut une hartan, nik 20 urte nituela nire bizitza sentimentala aztertu nuen xeheki, nerabe nintzela lagun min izan nituen neska haiek guztiak gogoan. Burutazio harekin bukatutakoan, haiengana joan eta zera esan nien:

- *Aizan, gu ez omen gintuan lagun minak, gurea harreman lesbikoa omen zuan.*

Batzuk txundituta geratu ziren baina gehienek ez zuten gaizki hartu, eta ni lasaiago geratu nintzen.

Ikasketak bukatzeko gutxi falta zitzaidala, espedientea egin zidaten Complutense Unibertsitatean gorria nintzelako eta ondorioz ezin izan nituen ikasketak segitu ez han bertan, Complutensen, ez Bartzelonako Unibertsitatean. Karrera 1969 urtean bukatu nuen, Oviedoko fakultatean Franco hil baino urte batzuk lehenago.

Oso gogoan dut gari hartan Madrilen zegoen liburudenda bat. Fuentecaja zuen izena. Lekuz aldatu badute ere, liburudendak segitzen du. Debekatutako liburu mordoz beteta kutxa bat zeukaten denda-atzean. Har aurkitu nuen nik Ines Brouwer idazlearen liburu bat:

- *Baina liburu hau, nolatan dago bada debekatutakoen artean?*
- *Zentsuratzailearen apetaldiren bat izango zen: “Ene bada, hau sexuaz ari da, sexua da. Utikan!*

Hor lortu nuen lehenengoz sexualitateari buruzko liburuak gainetik bederen irakurtzea eta lagun hark arrazoi zuela baiezatu ahal izan nuen: lesbiana galanta nintzen ni.

Lentejuela gabeko luma gehiegi

Franco hil berria, Trantsizioaren lehen urte haietan Bartzelonan izan nintzen tarte luze batez. Bertan nintzela Madrilera itzuli behar izan nuen Giza Eskubideei buruzko

ihardunaldietan hitzaldi bat ematera. Mugimendu Feministak lesbianismoaren gaia nola ikusten zuen azaltzea egokitu zitzaidan. Nik txintxo-txintxo azaldu nituen zein ziren mugimenduaren barruan gai horretaz zeuden iritzi nagusiak: beste sexu aukera bat zela, gainontzekoak bezainbestekoa eta besteak bezain duin eta ohikoa. Bukatu nuenean hiru neska gazte etorri zitzaizkidan hau esateko:

- *Hik hemen, zergatik ez dun esan lesbiana haizena? Darabilkin lumazahar horrekin segituan nabaritzen bazain!*
- *Feminista izanik, zergatik ezkutatzen haiz isistasun harresi horren atzean?*

Zur eta lur geratu nintzaien,

- *Baina, horrenbeste nabaritzen al zaidan?*
- *Bai, izugarri. Ez dun onartuko baina begi-bistan zagon.*

Neronek neure burua ezagutzen nuen eta banekien emakume izanik ere ez nituela inoiz oso ezaugarri femeninoak izan. Ibilkera oso traketsa izan dut beti eta nire hizkera ez da sekulan batere fina izan. Nola ez nintzen bada horretaz ohartuko! Madrilen merkatura joaten nintzenean, txanda eskatu eta behin baino gehiagotan gertatu izan zitzaidan emakumeek esatea:

- *Egiozu kasu mutil honi, seguru guk baino presa handiagoa izango duela.*

Inoiz ez nuen asmatu zer egin halakoetan. Esatea nuen (ahots zatarrarekin) “bai, jarridazu hau eta beste”, edo emakume haiei egia esan, “emakumezkoa naiz”. Halakoak gertatzen zitzaizkidan. Edo komun publikoetara sartu eta bertan ziren emakumeek errieta egitea gertatu izan zait:

- *Aizu, faborez! Ez al duzu ikusi hor zer jartzen duen?*
- *Jakina ikusi dudana. Emakumeentzako dela jartzen du eta emakume naiz ni.*

Orain 68 urte ditutala ez zait horren usu gertatzen, baina oraindik izaten ditut halakoak. Pasa den urtean azkena, kiroldegian nengoela emakume talde batek aldageletarako bidea itxi zidan.

- *Ez zaitezte horrela jarri, erakutsikoizuet emakume naizena.*

- *Zer izango zara zu emakume?*

Eta esan nien:

- Zer nahi duzue, titiak erakustea?

Izugarria izan zen hura. Baina ondo pentsatuta, gauza bera pentsatu zuten hitzaldia amaitutakoan hori guztiori aurpegiratu zidaten hiru neskek. Eta haiek FLOC, Gaztelako Askapen Homosexualerako Fronteko kideak ziren. Lur jota utzi ninduten, gauza bat fakultate garaian lagun hark esandakoa izan baizen, baina handik hainbat urtetara berriro ere lelo berarekin etortzea, oso gogorra egin zitzaidan.

Telebistaren boterea

FLOC mugimenduko neska haiek pentsatzen utzi ninduten. Argi geratu zen, edo argi geratu zitzaidan, ordura arte ez nintzela neure buruarekin zintzo jokatzeko gai izan eta beraz, txorakeria alde batera uztea erabaki nuen. Une horretan gainera telebistan lesbiana bezala hitz egiteko aukera sortu zitzaidan. 80. hamarkadaren hasieran izan zen eta agerraldi hura zen TVE katean emakume lesbiana batek hitza hartzen zuen lehen aldia.

Egun horretan ulertu nuen benetan zenbaterainoko indarra duen telebistak eta hori telebistan bertan esandako guztiak ez ditudala rik gogoan. Eztabaida hartan Jordi Petit izan nuen ondoan, Kataluniako gay mugimenduko buru historikoa. Eta aurrez aurre psikiatra bat eta Etika katedradun bat. Biak ala biak ezin aldrebesagoak. Kristonak bota zituzten homosexualitatea eta lesbianismoaren kontra. Petitek eta biok ondo heldu genion erronkari. Garai hartan gu biok ginen hedabideetan aurpegia ematen bakarrak. Ordu bete baino gehiago eutsi genion eztabaidari, urte haietan Espainiako Telebistan arrakastarik haundiena zuen saioan. Nik emakume lesbiana bezala hitz egin nuen, eta Petitek berriz gay bezala. Beste biekin egurra besterik ez genuen izan.

Biharamunean Hernaniko okindegian nire ahizpa txikiak eta amak bi emakumeen hizketaldia entzun zuten:

- *Aizan, ezagutzen al dun bart telebistan agertu huan hura?*
- *Nik, zer dela ezagutu behar dinat bada?*
- *Bai ba, ezagutzen dun. Amparito dun, harakinaren alaba.*
- *Bai zera. Aizan eta, horretaz ari haizela hura zer, ezkondu al zuan?*

Ordu bete eman omen zuten gaiaz hitz egiten. Zur eta lur geratu nintzen ni etxekoek kontatu zidatenean. Emozionatuta, jakina. Gauzak horrela, aitortu behar dut neure burua lesbianatzat onartu eta ageriko egin ondoren, bizitzan ez dudala arazorik izan inoiz arrazoi hori dela eta. Gerora ohartu nintzen zentzugabea zela neure baitan iltzatuta neukan beldur hura, ez etxean ez adiskideekin ez lanpostuan ez inon, ez zegoela egiazko arrazoirik beldur izateko. Badakit pausoa ematea ez dela batere erraza. Oraindik larregitan topatzen ditut beraien lesbianismoa bizitzeko beldur diren neska gazteak eta une horietan ohartzen naiz zenbaterainoko lasaitasuna eta betetasuna ematen duen ezkutukeriatan ez ibiltzeak.

Moja batez maiteminduta

Eta neska gazteon beldurrak ulertzen ditut, Hernanin bizi izan nituen urteak gogoratzen ditut eta. Gogoan dut koadrilan bazela neskato bat hunkitzen ninduena. Ez, nik izugarri maite nuen neska hura. Eta eskolan bazen erabat txoratuta ninduen moja bat ere. Badakit mojen ikastetxeetan ikasi duten neska askok gorroto dituztela lekaimeak sufriarazi zietenagatik. Nik gezurra esan beharko nuke halakorik esateko. Horren txoratuta nengoen moja harekin,

non goizeko zazpietako mezetara joaten nintzela hura ikusteko soilik. Eta hori beti loti galanta izan naizelarik. Jauna hartzeko baraurik joan behar izaten nuen mezetara eta hark ematen zidan ondoren gosaria. Biok bakarrik egoten ginen nik gosaldu bitartean, eta hark laztanak egiten zizkidan, elkar ferekatzen genuen eta musutxoak ematen zizkidan. Ezpainetan, baina mingainik gabeko musuak. Bitxia zen egoera, moja hark etxekoak ondo ezagutzen baitzituen, gure ama zena bereziki.

Halako batean, mojak ikastetxeko apaizarekin hitz egin zuen eta gure harremana aipatu zion. Egia esan gizona oso ondo portatu zen gurekin. Esan zidan gauza bakarra zera izan zen mojak eta biok harreman berezia edukita, gainerako ikaskideak agian ohartu eta haserretu egingo zirela. Hori bera esan zidan lekaimeak:

- *Begira, kontu handiz ibili beharko dugu, besteak konturatu baitaizteke eta jeloskor jarri.*

Nire ikasgelan zegoen gainera nik horrenbeste estimatzen nuen ikaskide hura. Eta mojak beste neskak jeloskor jar zitezkeela esaten zuenean, ez zen maitasun kontuez ari. Esan nahi zuena zen besteek pentsa zezaketela ni bereziki ondo tratatzen ninduela. Eta onartu behar dut moja hura oso ondo portatu zela nirekin. Ikastetxea utzi eta institutura joan baino apur bat lehenago berak atzera egin zuen eta nire bizitzatik desagertuz joan zen, pixkanaka. Eta bera desagertatzearekin batera nire baitan gure amaren irudia indartu zuen. Ordura arte ama eta bion arteko harremana ez zen batere ona. Ezingo nuke esan nola egin zuen hori, baina bai asmatu zuela ondo egiten. Handik aurrera ama begirunez hartu nuen.

Moja eta biok handik urte askotara topo egin genuen berriro, *El Pais* egunkarian argitaratu zidaten iritzi artikulu baten kariaz. 1984ko ekainean argitaratu zuten, eta lesbiana bezala agertzen nintzen *Heterosexismoaren diktadura* izenburupeko saio hartan. Moja gurasoen etxera joan zen ni bertan nintzela eta argi eta garbi esan zidan ez zuela begi onez ikusten artikulua izen deituraz sinatu izana. Haren hitzetan egoera politikoa edozein unetan irauli zitekeen eta urte batzuk lehenago Txilen gertatutakoak ekarri zizkidan gogora:

- *Pentsa hemen ere halako zerbait gertatzen dela. Zureak egin du.*

Nik kontrako iritziarekin erantzun nion. Nik ere argi hitz egin nuen eta aurpegia emango zuen jendea egoteak zuen garrantzia aipatu nion. Arrazoi askorengatik, esan nion:

- *Ez nuen nire sexualitatea zabaldu nahi. Ados nago zurekin esaten duzunean hutsala dela nork bere sexu intimitateak ezagutzera ematea. Baina era berean uste dut behar-beharrezkoa dela emakume lesbianak egon bagaudela ikusaraztea. Pentsa zein garrantzitsua eta pozgarria den herri edo hiri txikitan bizi diren emakumeentzat nolabaiteko ereduak ezagutzea.*

Aipatu nion sortu berri genuen Lesbiana Feministen Kolektiboa, eta hasiak ginela aldizkari bat kaleratzen, *Gu, geure burua horrenbeste maite dugunok* izenekoa, alegia. Ale bat bidaliko niola hitz eman nion. Ezin dut ukatu emakume harekin izandako harremana oso aberasgarria izan zela niretzat. Asko ikasi nuen harekin, eta hazi ere bai. Eta onartu behar dut, hori ere: ez nintzela armairutik ateratzeko pausoa ematera ausartu telebistara deitu ninduten arte. Hortik aurrera ez zegoen atzera egiterik. Eta, eskerrak! Argi zegoen telebistan

ateraz gero, gainera kate bi besterik ez zeudenean, kitto! aterata nengoen, bai telebistan bai armairutik.

Sinesmena Salamancan ahitu zen

Emakume hura maitekiro gogoratzen dut eta bera lekaime izateak ez nau aztoratzen. Jakina, nire familia katolikoa da. Gure aita zena elizkoia zen oso. Ama berriz, guztiz kontrakoa. Fede handiko emakumea bazen ere, ez zuen itxurakeria gogoko. Ez zituen mezak eta errituak batere maite. Berak irakatsita zidan mezetara joatea ez zela garrantzitsua, benetan balio zuena nor bere barruan Jaungokoarekin ondo egotea zela. Nik pentsatzen nuen:

- *Jaungoikoak berak naizen bezalakoa egin banau, ondo behar du halabeharrez.*

Urte dezente beranduago, Madrilgo unibertsitatetik bota nindutenean Salamancara joan nintzen Filologia Erromaniko ikasketak bukatzera. Aldaketa izugarria izan zen, egun-argitik ilunpera bezalakoa. Madrilen pil-pilean zegoen giro politikoa, ikasleak oldartuta bizi ziren. Haren ondoan Salamanca basamortu gorria zen. Ez zen ezer gertatzen. Nire kabuz hasi nintzen batera eta bestera eta horrela ezagutu nuen hirigunetik kanpo zegoen auzo txiro bat. Madrilen ezagun nuen Pozo del Tio Raimundo izeneko auzo marjinala. Salamancakoa askoz okerrago zegoen. Bertan bizi-baldintzak oso latzak ziren, penagarriak benetan. Auzoan bertan bazen gainera udal espetxea izandako eraikina kalean bizi zirenentzat lo egiteko egokitu zutena, hain zuzen. Hiri hartan inor ez zen mugitzen, ez zegoen protestarik inondik. Egoera horrek ezinegon handia sortu zuen nire baitan eta ordura arteko sinismen guztiak zalantzan ipintzen hasi nintzen. Amabirjina bera kendu nuen, hasteko, nire burutik. Ez zen ezer pasa. Gero santu hau kendu nuen, eta ondoren beste hura. Eta berdin ez zen ezer pasa. Ezer ez. Laburtuz, nik Salamancan galdu nuen fedea.

Etxean ez ninduten ezertara behartu

Mudantza horregatik ere ez nuen arazorik izan etxean. Egia esan, inoiz ez nuen presiorik izan gurasoen aldetik ez ezkontzeko, ez umerik izateko. Nik uste haiek zerbaiten susmoa batzutela lehenagotik. Nik izan nuen ahizpa gazteago bat eta izan nuen diot ,bere buruaz beste egin zuen eta. Ahizpa aipatzen dut hark esan baitzion amari ni lesbiana nintzela, bera ere halaxe zela eta hitzez hitz eta xehetasun guztiekin azaldu zizkion ordura arte izan zituen larru joaldi guztiak. Seguru ama aho bete hortz geratu zela horiek guztiak entzutean. Gure ama euskaldun peto-petoa zen, musu bat emateko ere zuhurra. Hori bai, maitatzen bazekien, jeloskorra zen eta zaindaririk prestuena bera genuen. Emakume bikaina zen, dudarik gabe, baina ez zuen agerian utziko sekula barruko sentimendurik. Zahartutakoan aldatu zen. Gogoan dut oheratzen nuenean eta esaten nionean:

- *Bihar arte...*

Bi musu ematen nizkion eta emakumea pozez zoratzen geratzen zen. Eta noizbait muxu ematea ahazten bazitzaidan, akabo, sekulako kasketa harrapatzen zuen. Horregatik irudikatzen ditut biak, ama eta ahizpa txikia sexuaz hitz egiten, nolatan sartzen zuen behatza aluan eta pentsatzen dut: Koitadua!

Zintzoki onartzen dut nik ez nuela inoiz argi hitz egin etxean, baina premiarik ere ez nuen izan inoiz aita eta ama zirenen aurrean jarri eta esateko:

- *Hauxe gertatzen da, lesbiana naiz.*

Ez nuen beharrik izan. Hasteko moja etxera etorri zitzaidanean *El Pais* egunkarian argitara emandako artikuluagatik, ama aurrean zegoelako eta ez zuen tutik ere esan. Baina baita handik denbora batera elkarrizketa egin zidatelako *Interviu* aldizkarian, foto handi-handi bat eta guzti. Titularra ere hala-moduzkoa zen: *Ahatik naiz ni lesbiana*. Eta orduan ere ez zen ezer larririk gertatu. Beno, gurasoekin ez baina bai gertatu zitzaidan ezustekoa izebarekin. Hark taberna bat zuen eta behin auzoko bi entzun zituen Amparitori buruz hizketan, hau da, nitaz ari ziren. Galdetu zien zergatik ari ziren eta esan zioten bada Irtenviun agertzen nintzela. Hura itomena emakume gajuak harrapatu zuena. Ordu horretan herriko kiosko guztiak itxita zeuden baina han joan zen izeba goizeko seietan aldizkaria erostera...

- *Interviu, mesedez.*
- *Aizan, iloba Amparin agertzen dun eta.*

Arraiopola! Emakumeak ez zekien nun sartu. Aldizkaria tolestu, besapean jarri eta korrika abiatu zen etxe aldera. Atarian hartu zuen lasaitasun ederra larru bizirik ez nintzela ageri ikusi zuenean. Auskalo gajuak zer pentsatu zuen. Hori guztia amonak kontatu zidan gero. Bitxiena izan zen elkarrizketaren gaiak ez zuela batere larritu. Aitak ohitura zuen barruak izeba horrekin hustutzekoa eta esan omen zion:

- *Ikusi al den Interviu hori?*
- *Aizu, Jose Luis* –erantzuna–*, lehen senar emazteak bantatzea ikaragarri gaizki ikusita egoan eta orain berriz, ikusten dek, ohikoena horixe duk. Hau ere bihar-etzi halaxe izango duk, bizitza bera bezain normala. Seguru baietz.*

Eta niri kontatu zidanean, halaxe esan zidan:

- *Baina neska, zapatazahar horiekin, zola ziztrin hori! Baina lasai geratu nintuan ez hintzela titiak airean ikusi nianean. Ondo egon zuan, argazkian elegante-elegante agertzen hintzen eta.*

Aitak ere ez zidan aurpegira ezer bota. Esan zuen gauza bakarra ea zertan ibili behar nuen nire gauzak aldizkari, egunkari eta bestelakoetan aireratzen.

- *Hire gauzak bizi lasai, baina ez dun zertan inori kontatzen ibili behar.*

Hori esan zidan aitak, eta amak hori ere ez. Eta biek, hil ziren arte, ez zidaten inoiz ezer aurpegiratu hitz txar bat ere .

Tik lesbikoak, atzemanezinak

Sexuari dagokionez, nire lehenengo larru-kontuak Parisen izan nituen, ikaskideekin egindako txango batean. Logela beste neska batekin partekatu behar izan nuen eta hura lotsagabea zen erabat sexu kontuetan. Hasieran ni lotsak hartutan nengoen, non sartu ez nekiela, baina behin hasita ezerk ez ninduen kokildu. Oso gau berezia izan zen hura niretzat, beldur guztiak uxatu nituen eta beste neska baten gorputzarekin gozatzen ikasi nuen. Egun hartatik aurrera, ez dakit izango zen orduan harremanak egiteko arazo gehiago genituelako edo zergatik, baina besteen begiradei erreparatzen hasi nintzen.

Horretaz, nire adineko emakumeekin hitz egin izan dut eta bat etorri dira nirekin. Gure sexu aukera klandestinoa izanik, halako tik batzuk garatu genituen, halako begiradak, halako keinu eta portaerak, osoki lesbikoak ez zirenak baina aukera ematen zigutenak aurrean genuen beste emakume hark ulertzen zuen eta lehen harreman baterako prest egon zitekeen, edo ez, jakiteko.

Ezin dugu ahaztu ni neu gutxienez Frankismoan hezi nindutela, edo gaizki hezi hobeto esanda. Hau da, emakumeontzat sexualitaterik ez zegoela irakatsi zidaten. Emakumeontzat gizona asebetetzean hasten eta amaitzen zen sexualitatea; beti ere ezkontza barruan, jakina; eta gizonari seme-alabak emateko. Hori zen gure patua. Bazirudien emakumeontzat sexua ez zela interesgarria. Sexuaz, antza, gizonak baino ez ziren arduratzen. Iragarki batek hala zioen: “koñaka bezala, gizonentzat egina”. Gu samurrak behar genuen izan, atseginak, bihozberak, oso elizkoiak eta etxeko guztiek zituzten premiak asetzeko beti prest. Baina sexuaz gozatzea edo apeta sexuala izatea, ez zen guretzat.

Hori zela eta gure artean, lesbianon artean, halako mekanismoak erabiltzen genituen eta hautemanezinak zirenak lesbianak ez zirenentzat. Eta jakina, inoiz ez kalean. Mutilek ez bezala, emakume lesbianok ez genuen toki zehatzik elkar ezagutu eta harremanak izateko. Hori egitea jasotako heziketa guztia hankaz gora jartzea zitekeen. Guk zer egiten genuen? Harreman sareak lantzen genituen, etxeetan batez ere. Sare pribatu horietan, inoiz ez publikoetan, ezagutzen genuen elkar, hor irakurtzen genituen neska hurkoaren begiradak, eta hor ematen genien erantzuna, edo ez. Sare horietan aurkitzen genuen gau baterako atsedena edo bizitza osorako bikotelaguna.

Gaurko neska gazteei horiek guztiak aipatzen dizkiegunean, nola egiten genuen elkar ezagutu eta harremanak lantzeko, barre egiten digute.

- *Baina-baina emakume, nola egiten zenuten bada bizitzeko?*

Sasoi haietan neska lesbianen koadrilak egitea pentsaezina osatzea azaldu behar izaten diegu. Ezta pentsatu ere. Txango bat egiten genuenean, esaterako, dena ezkutuan egin behar izaten genuen. Horrela hezi gintuzten eta horrela hazi ginen. Alde horretatik, errazagoa zen txango bat egitea emakumeok bakarrik, inori ez zitzaiolako burutik pasatzen hor sexu konturik egon zitekeenik. Inola ere ez, laguna minak besterik ez omen ginen. Eta

baldintza horietan lagun minen taldea txikia izan ohi zen, oso txikia, ez bazen behintzat baten baten parrandaren arira beste neskaren bat ezagutzea.

Nola egiten genuen elkar ezagutzeko? Edozein tokitan lor zenezakeen neskaren bat ezagutzea arestian aipatu ditudan mekanismo horiei esker. Halabeharrez ikasi behar izan genuen hori egiten. Ezin genuen gure griña azaleratu, gure gogo sexualak ageriko egin eta keinu, begirada eta portaera horiei esker adierazten genuen zer nahi genuen eta jakiten genuen nor zen *gutarra*. Hori bai, harremana ez zen berehalakoa izango. Denbora behar izaten zen harremana lantzeko. Bitxia zen oso, lesbiana batek txortan egitea egunean bertan ezagututako neskarekin. Sexu kontuak apurka-apurka joan behar zirela irakatsi ziguten, oso motel. Horregatik harremanen bat lortzen genuela esaten dudanean, agian egin genuen bakarra elkarri irribarre egitea izaten zen. Eta irribarre egiteak ez du esan oheratu egingo ginenik.

Ez da samurra mekanismo horiek nolakoak ziren argitzea. Nolakoa zen ustez garatu behar izan genuen antena hori. Baina bai egia da, erakinkorra zen. Ez ginen iaiotasun horrekin jaio. Ikasi egin behar izan genuen halako keinuak, egoteko moduak, edo begiratzeko manera haiek guztiak irakurtzen. Gu berehala ohartzen ginen horietaz. Eta argi gera bedi, keinuak edo portaerak esaten dudanean, ez naizela ari *mari-motrailu* baten imintzioez. Horrek ez du kentzen, jakina, lesbianon artean halako sailkatze argiak ere bazirela onartzea: Baziren lesbiana emeak, luma arrosa zutenak batetik eta luma urdina zutenak, bestetik, hau da, jarreran edo ibilkeran ezaugarri maskulinoak zituztenak. Horrek ez du esan nahi gizonkeriaren jarrera zapaltzaileak errepikatzen zirenik. Sarritan luma urdinduna, *mari-motrailu* galanta zena itxura guztien erabera, etxeko andrerik finena izaten zen, eta bestea alta, kanpora begira oso fin edo leun agertzen zena, benetako arra. Bereizketa horiek hor daude baina ez ginen horiekin jaio, nork berea eraikitzen du bizitzak aurrera egin ahala.

Eta gure kasuan, gainera, luma arrosaz eta luma urdinaz gainera, luma euskalduna dago. Gurean ez dago bereizterik nor zer den. Ni gazte nintzela pentsa zitekeen Euskal Herriko andre gehienak, hamarretik bederatzi bai, lesbianak zirela. Urdin kolore ilunekoak gainera. Hori ere egia da.

Francoren kontrako borrokan

Madrilera joan nintzenean saltsa gorri guztietan sartu nintzen. Hasi, unibertsitatean inposatu nahi zizkiguten egitura faxista guztien kontra hasi ginen. Falangea bezalako egitura faxista horiek guztiak hankaz gora jarri nahi zituztenekin lankidetzan hasi nintzen. Hori zela eta, espedientea ireki zidaten Complutense Unibertsitatean eta handik alde egin behar izan nuen. Hortik, ia oharkabean, Francoren kontrako borrokara pasa nintzen, askatasunaren aldeko lan politikora bete-betean. Hori bai, borroka poltikoan leporaino sartuta nengoen arren, ez nuen burukideekin nire sexualitateaz hitz egiten. Ezkutuan gordetzen nuen nire mundutxoa zen hori, aparteko mundua.

Ez nintzen burukideekin hitz egitera ausartzen, ez nekielako nola hartuko zuten homosexualitateari buruzko aipamena Alderdi Komunistaren ezkerretara zegoen jende

horrek. Eta nik neure bizitza lesbikoa aipatutako sare horietan bizitzen nuenez, oso bananduta bizi nituen bata eta bestea. Neure bizitza lesbikoa ezkutuan gordetzen nuen eta sare horietatik kanpo bizi nuen neure militantzia politikoa. Ez nituen bi bizimodu horiek nahasten.

Madrilen oso gustura negoen etxeetan gordetako lesbianen sare arekin. Horrek ez zidan kalterik egiten, ez nintzen gaizki sentitzen, ez gogoz kontra. Hori dela eta beste batzuk garai haietan halako eta besteko sufritzen zituztelako biktima moduan hitz egiten entzutean, eta 1968 urteaz ari naiz, gezurra esango nuke biktima nintzela aipatuko banu. Nik primeran pasatu nituen urte haiek, izugarri disfrutatu nuen. Izugarri. Etxeetan 20 edo 25 emakume batzen ginen eta egundoko parrandak egiten genituen. Bizitza disfrutatu eta gozatu egiten genuen. Eta Francoren kontrako borrokan, beste horrenbeste. Batakin eta bestearekin ni zoriontsu izan nintzen, eta horrela aitortu behar dut. Zentzu horretan beti izan naiz oso emakume baikorra, sutsu eta gogotsua.

Oviedon ikasketak amaitzen ari nintzela Euskal Herrian ETA-Berriko jendeak bat egin zuen Madrilen borrokan ari ziren hainbat taldekin eta batasun horretatik sortu zen Espainiako Mugimendu Komunista (MCE). Halako batean, burukide batekin hitzordua nuela eta agertu nintzaionean galdetu zidan.

- *Zu, joango al zinateke Bartzelonara bizitzera?*
- *Ni bai.*
- *Eta, noiz egongo zinateke joateko prest?*
- *Auzi, ez dakit bada, noiz joan beharko nuke?*

Eta esan zidan:

- *Bihar bertan, esaterako, joango zinateke?*
- *Jakina joango nintzena. Bihar bertan joan nahiteke, lasai asko.*

Gogoan dut Candela nire ahizpa zaharrena Londresera joana zela eta bere autoa utzi zidala, Seat 600 txiki bat zen. Etxean nuen guztia autoan sartu, baita koltxoia ere ondo lotuta kopilotuaren eserlekuan euskal ohazal batez estalita, eta horrela abiatu nintzen Bartzelona aldera.

Bartzelonan aurkitu nuen mugimendu feminista ordura arte ezagutu nuena baino irekiagoa zen. Ez zen batere sektarioa. Hor ez nuen arazorik izan burukide feministen aurrean lesbiana bezala agertzeko. Beti izan naiz, baita zahartzaroan ere, nahiko promiskuoa. Aitortu behar dut. Berehala lotu nintzen honekin eta harekin eta oso ondo moldatu nintzen giro berri horretan, ez bainuen ezkutuan edo zurikeriatan ibili beharrik. Han nengoela gonbidatu ninduten berriro Madrilera, lehenago aipatu dudan hitzaldia ematera, mugimendu feministak nola ikusten zuen lesbianismoa, alegia.

Bartzelonan aurkitu nuen mugimendu feministak ate piloa ireki zizkidan. Horri esker borroka politikoan eredu bihurtu nintzen, bai eta mundu lesbikoaren ikusgarritasunaren ikur ere. Hura ez zen, inola ere, mugimendu itxia, inori ez zitzaion galdetzen bere gogo sexualei buruz eta jendea lasaitasun ederrean bizi zen. Gainera Francoren kontrako borrokan bertan sortutako egitura batuan sartuta nengoen, Kataluniako Asanbladan. Ziren guztiak hor

barruan zeuden: bai herri txikietako azken tximinoak, bai alderdi nagusietako buruak. Azken horiek pikutara bidali zuten Asanblada komeni izan zitzaienean.

Lehenengo hauteskundeak egungoko kolpe latza izan ziren ezkerreko alderdiontzat. Ez genuen jendearekin asmatu, ez baikinen ohartu botoa ematea egokitzen zaienean herritarrek ez dutela arrieskatzen eta moderatuen artean moderatuena hautatzen dutela. Ni neu izan nintzen Bartzelonako alkategai. Gogoan ditut alde agertu ziren guztiak. Lidia Falcon berak nire aldeko botoa eskatu zuen neu nintzelako hautagaien artean emakume bakarra. Horregatik eta arazorik batere ez nuelako neure burua lesbianatzat agertzeko, nire inguruan halako mitoa sortu zen, nolabait esatearren. Egia da, baita ere, hamaika hiri eta herritan izana nintzela Penintsula osoan lesbianismoa, sexualitatea, aborto eskubidea, emakumeoi zegozkigun eskubideak eta antzeko gaiei buruzko hitzaldiak ematen. Sexualitatea aipatzen nuen guztietan, lesbianismotik egiten nuen. Horregatik diot, hainbat tokitan matraka ematen ibili ondoren zerbait geratzen dela jendearen oroitzapenean.

Lesbianen mugimendua sortzen

Costa Brava aldean orduko IGAk, *International Gay Association* erakundeak egin zuen batzarraren arira (L hitza izenean gerora sartuko zioten eta) Espainiako estatuko taldeetako lesbianak elkartu egin ziren eta lesbianen lehen ihardunaldiak egitea erabaki zuten. Data eta tokia ere zehaztu zuten, eta parte hartuko zuten lesbiana guztiak biltzeko azpiegitura antolatu zen Madrilen. Guztiak deitu zituzten, bai talde mistoetan gizonekin batera lanean ari zirenak, bai lesbiana taldeetan zebiltzanak, bai eta mugimendu feministaren barruan ari zirenak ere, nahiz eta beren burua lesbianatzat ez agertu, garai hartan mugimendu feministan ez baizegoen lesbianen talderik.

Barquillo kaleko egoitza batean izan zen batzarra. Ihardunaldiak bukatu zirenean, berriro ere elkartzekotan geratu ginen handik hilabete batzuetara Valentzian. Madrileko emakumeok pentsatu genuen orduan:

- *Zergatik ez gara gu elkartzen eta horrela Valentziako batzarrerako txosten bat prestatzen.*

Ostiraletan hasi ginen batzen, FLOC mugimenduaren egoitzan. Hortik atera zen taldearentzat hainbesteko “eduki ideologia” zuen izena: LUVI izango ginen aurrerantzean, ostiralero batzen ginen lesbianak. Bidebatez muturrean eman nahi genien Erromako Eliz Amari, garizumako ostiraletan batzartuko ginen eta. Horrela hasi ginen Valentziako

batzarrerako txostena prestatzen eta halako batean FLOC barruan ari ziren neskek zera esan ziguten:

- *Gu nazka-nazka eginda gaude FLOC barruan sufritzen dugun misoginiarekin. Prest gaude egitura berri eta berritzaile baten alde apustu egiteko, lesbiana guztiak bere baitan bilduko dituen erakundea, hain zuzen. Bertan nahiko genituzke talde mistoetan gabiltzanokin batera, mugimendu feministan zabiltzatenak eta ez batean ez bestean, etxean sartuta dauden guztiak.*

Batzuoi egundoko pena ematen zigun FLOC taldearekiko lotura hautsi nahi izateak. Arazoa jarrera misoginoak baziren, uste genuen barrutik lan eginda hobeto alda zitezkeela gauzak. Ezetz erantzun ziguten, beraiek kokoetaraino zeudela ordurako. Eta horrela izan zen Madrilgo Lesbianen Talde Feministaren sorrera. Hiru xede zehaztu genituen erakunde berriarentzat: gure izate lesbianoa harrotasunez bizitzeko elkarri laguntzea, mugimendu feminista osoarentzat baliagarri izango zen baliabide izatea, eta ahaleginak egitea Madrilgo giroan eragiteko. Lehentasunak lehentasun, lehengo xede biei heldu genien buru-belarri. Giroa gay eta lesbianei zuzendutako taberna, jatetxe, liburudenda eta enparauei deitzen diegu eta, aitortu behar dugu giro hori nahiko apala zela eta mugimendu feministatik bezala, gay mugimendutik eta lesbianen taldeetatik nahiko aparte zebilela. Hiru xede horiekin asmatu genuela uste dut. Gure lesbianismoa harrotasunez bizitzeko taldeak asko lagundu zigun gutariko bakoitzari eta baita guztioi talde bezala ere. Gainera berebiziko esfortzua egin genuen aldizkari bat kaleratzeko: *Gu, geure burua horrenbeste maite dugunok*. Zortzi alek ikusi zuten argia. Hirugarren egitasmoan porrota erabatekoa izan zen. Huts egin genuen, ez baikenuen giroan eragitea lortu. Gerora ohartu ginen egindako ahalegia oso apala izan zela gure aldetik eta ez ginela behar bezala saiatu giroan mugitzen ziren emakumeengana heltzen. Inoiz ez genuen harremanik izan haiekin. Guk ez genekien orduan haiek puristatzat gintuztela: politikoentzat aldiz aldrebesak ginen gu, jende xehearekin ibiltzeko harroputzegiak.

Gure aldetik oso garbi geneukan zein zen gure benetako helburua. Mugimendu feminista gurera ekartzea hil ala bizikoa zen guretzat. Hori lortzen ez bagenuen, gureak egin zuen. Eta horretan fin aritu ginen. Giroan murgilduta bizi ziren lesbianekin berriz, ez genuen asmatu. Haiek ez gintuzten gu ulertzen ezta guk haiek ere. Haientzat gu elite bat ginen eta halaxe zela uste dut. Ez guk halakorik nahi genuelako, baina hala zen. Urte dezente beranduago onartu genuen haiek izan zirela, inoiz ezertan militatu ez zuten lesbianak hain zuzen, lesbianismoa eta lesbianak ageriko egin zituztenak, baita Franco bizi-bizirik zegoenean ere.

Lesbiana ikusgarriak

Gaur ez dut zalantzarik emakume lesbiana haiek izan zirela, bere luma urdin-urdin guzti haiekin, benetan mari-motrailuak ziren eta, emakume lesbianoi gizartean txoko bat egin zigutenak. Gugatik izan balitz, politikan genbiltzanongatik esan nahi dut, jai geneukan. Politikan esaten dut, ez lesbianen taldeetan ezkerreko erakundeetan baizik. Guk itxurak besterik ez genituen egiten, ezkutuan bizi ginen eta. Horrexegatik taldearen hasierako

xedea, gure lesbianismoa duintasunez eta harro bizitzeko elkar laguntzea. Hori lortu genuen.Garai bat nabarmendu nahiko nuke, puntu honetara helduta, uste baitut 80. hamarkadan bai lortu genuela izate lesbianoa begibistako egitea. Oso agerikoa. Horrek ez du esan nahi txoko guztietara heldu ginenik, baina bai mugimendu feministak lortu zuela lesbianismoa eguneroko eta ageriko egitea. Ukatu gabe, jakina, oraindik lan handia dugula egiteko.

Argi dago gizon homosexualek guk baino eragin askoz ere handiagoa dutela gizartean. Ikusi baino ez dago ospe handiko zenbat gizonek aitortu duen jendaurrean gay direna. Lesbianak berriz, baita oso-oso ezagunak direnak barruko sare itxi horietan edo unibertsitatea edo politika bezala mundu zehatzetan, ezkutuan bizi dute oraindik beraien izate lesbianoa. Eta pena da izen handiko emakume horiek pausoa eman eta onartuko balute lesbianak direna onartuko balute, dudarik ez izugarri lagunduko lituzketela emakume asko. Zorionez auzoetan aldaketak somatzen hasiak dira aspaldian,eta neska gaste askok lotsarik gabe bizi dute lesbianismoa.

1981.ean hasi nintzen Latinoamerikara joaten, bertako mugimendu feministak antolatzen zituen topaketetan parte hartzera. Ez dut ahaztuko bidaia horietako batetik izututa itzuli nintzela. Izututa gib-hies gaitzak herrialde haietan izan zuen eragin latzgarriagatik. Oso kezkatuta zeuden bertako guztiak, baita mugimendu feministako emakumeak ere. Eta ez bakarrik haietako askok eta askok lagunak galdu zituztelako gaitzaren ondorioz. Kezkatuta zeuden, oso kezkatuta, birusak emakumeon baitan eduki zezakeen eraginagatik. Hona heldu nintzenean burukide lesbiana eta feministei hori guztiori aipatu nien eta gogoan dut zorotzat hartu nindutela.

“Ezin naiz kexu izan”

Bizitza honetan izan dudan pena bakarra ezkontza egunekoa da, ezin izan nituelako gurasoak nirekin izan. Biak hilda zeuden ordurako. Familiako gainontzeko guztiak han izan nituen: izeba-osabak, lehengusuak, baita amaren anaietako bat Madrilen sekulan egon

gabekoa, eta hegazkinean ibili gabekoa. Oso gustura egon ziren guztiak. Bazkaria hotel batean egin genuen.

Hor zegoen Mikel Martin (EHGAMeko kidea). Joan nintzaion galdezka:

- *¿Zer moduz?*
- *Tira, liluratuta naukazue. Zenbat barre egin dudan gaurkoan!*

Lagun eta etxekoak hor ibili ziren kantu kantari, *Lesbiana, lesbiana naiz ni, atsegin eta nahi dudalako*. Mikel zoratuta bezala zegoen parranda hartan. Egia esan, ezin naiz kexu izan. Ez dut inoiz presiorik izan, ez dut eragozpenik izan, ez dut jazarpenik sufritu lesbiana izateagatik. Lantokietan ere, lan egin izan dudan toki guztietan egiarekin joan izan naiz beti eta, benetan, ez dut inoiz arazorik izan.

Gipuzkoan, 2013ko azaroan

MERCEDES

- **Hamar bat urterekin ohartu nintzen neskak oso gustuko nituela, eta horrek ez dit sekulan arazorik sortu**

Mercedes dut izena, Bilbon jaio nintzen 1952 urtean eta une honetan 62 urte ditut. Hainbat urtez Barakaldon bizi izan nintzen arren, beharra beti izan dut Bilbon, administrari legez. Hamar bat urterekin ohartu nintzen eskolako neskak oso gustuko nituela, eta horrek ez dit sekulan arazorik sortu. Nire bizitza oso orijinala ez dela sentitzen dut, nire bizipenak ia emakume lesbiana guztiek, hamarretik bederatzik bai, bizi izan dituztenen oso antzekoa dira eta.

Nerabe nintzela mutilak eta neskak nituen gogoko, baina 15 urte nituela neska lagun batez maitemindu nintzen, zoro-zoro. Nik banekien hura ez zela ohikoa eta, jakina, ezin nion inori aipatu gertatzen ari zitzaidana, artean 1968 urtea baitzen. Hala ere sentimendu haiek oso modu naturalean bizi izan nituen eta ez nintzen horiek izanagatik errudun sentitu. Bizitza osoa kirol munduan eman dut –eskubaloia, boleibola eta frontoia- eta kiro giro horretan hasi nintzen ustez ni bezalakoak izan zitezkeen neskak ezagutzen. Berehala izaten nuen susmoa begiratzeko zuten moduagatik eta egiten zituzten gauzengatik batik bat. Nik banekin gainerako neskekin alderatuz gero, ezberdina nintzela. Baina ez ninduen horrek larritzen, beti izan bainintzen inguruan nituen gainerako nesken aldean bestelakoa. Beraz, ez nion garrantzirik eman. Etxean ez nuen ezer aipatu, jakina. Gauza horietaz ez zen hitz egiten gure familian.

Neska bat ezagutu nuen 16 urte nituela eta harekin bai izan nuen nolabaiteko harremana. Baina une horretan urte eta erdiko tarte bat hartu nuen nire bizitzan, Irlandara joan nintzelako bertan ikastera. Han neska mordoa ezagutu nuen, baina baita gustuko izan nuen mutil bat ere. Ez genuen ezer egin, ez genuen inolako loturarik izan, baina oso ondo pasatzen nuen mutil harekin. Oherako griñarik ez pizteak ez zuen esan nahi mutilak gogoko ez nituenik adiskide edo bidaia lagun moduan. Hortik aurrera, ezer ez. Irlandan ez nintzen nesketan ibili. Ez nintzen ausartu. Batetik hizkuntza ez nuelako lar ondo menperatzen eta bestetik etxetik kanpo egonik, kikildu egin nintzelako. Hori da egia.Bilboko Bertendona institutuan eskubaloi taldean jokatzen nuen eta ordurako nahiko ausarta eta zuzena nintzen izakera aldetik. Neskaren bat begiko banuen, zuzenean joaten nintzaion. Zuzen, baina tentuz, hori bai. Inor zapaldu barik, baina neskaren bat atsegin banuen nire baitan zerbait pizten zitzaidan, halako barru sua neska hari berarenganako nituen sentimenduak

aitortzera bultzatzen ninduena. Nola egiten nuen? Ahalegintzen nintzen atsegina izaten berarekin eta hitz goxoz betetzen nizkion belarriak.

Kirol taldean neskak ezagutu nituen

Institutuako ikasketak amaitu nituenean, talde barik geratu nintzen. Urte haietan ikastetxe pribatuetan baino ez zuten aukerarik urte osoan jokatzeko, baina ez institutuan. Zorionez egunkarian irakurri nuen bazela Barakaldon neskez osatutako futbol talde bat eta domeka batean, partida zutela, han agertu nintzen, aldageletan sartu eta entrenatzailearekin egin nuen berba. Halaxe hasi nintzen fulbolean eta taldean ezagutu nituen neska bi. Haietako batek txundituta utzi ninduen, xarmangarria zen oso. Nik 18 urte nituen eta neska hari hurbiltzen hasi nintzaion, nereganatu guran. Hark senargaia zuen, baina mutil birekin ibiltzen zen aldi berean. Zorte handia izan nuen neska honekin, azkenean neureganatzea lortu bainuen eta harremanetan hasi ginen. Halako batean zazpi neska elkartzea lortu genuen, guztiak kirol mundukoak eta koadrila osatzea erabaki genuen. Hori bai, taldeko neskak beti geratu ginen elkarte, erakunde edo taldeetatik kanpo, ez genuen geure burua Emakumeen Asanbladan edo antzeko egituretan ikusten.

17 urtetik 23 urte nituen arte eskubaloi eta boleibol talde batean sartuta egon nintzen. 70. hamarkadaren hasierako urteak ziren, Francoren azken urteak. Taldean 12 neska ginen jokatzen. Haietatik erdiak lesbianak zirela esango nuke, nahiz eta eurak ez ziren horretaz ohartzen. Izatez oso jarrera eta itxura zatarra zuten, gizonezkoen tankerakoak ziren. Nik banekin neskaren bat edo beste oso gustuko zituztela, baina ez zuten inoiz halakorik aipatzen, eta are gutxiago lesbianak zirela esaten. Neskak gogoko zituzten, eta kitto.

Koadrilako neska guzitak beharrean genbiltzan eta dirua izaten genuen bidaiak egiteko. Miarritzera sarritan joaten ginen, mutilak mutilekin eta neskak neskekin ibiltzen ziren dantzaleku batera. Gu oso herrikoak ginen halako giro irekian, baina berehala moldatu ginen eta geure santsan egoten ginen har barruan. Hemen bizi genuen beldurra horrenbestekoa zen ezen gutako bat ezkutuan ibiltzen zela han Miarritzen Bilboko ezagunen batek ikusiko zuelakoan.

Beharrean ez nuen kritikarik onartzen

Ez dago ondo nik esatea, baina neu nintzen taldeko neskarik ausartena, beldur gutxienarekin bizi zena. Beharrean ere halaxe izaten zen. Bulegoan norbaitek gaia aipatzen bazuen, harreman homosexualen gainean trufa egin asmoz, nik berehala ixilarazten nuen eta gay eta lesbianen alde egiten. Inoiz lankideren bat haserretu zitzaidan, baina niri bost axola haren amorrualdia. Inoiz ez zidan inork zuzenean galdetu lesbiana ote nintzen edo ez.

Behin, lankideekin egin ohi genuen Gabonetako afarian, larregitxo edanda geundela, lantegiko emakume batek zuzenean esan zidan:

- *Bulegoan guztiok dakigu neskazalea zarela, ez duzu ezer aitortzen ibili beharrik. Nabarmena bada gero!*

Bizitza osoan nire inguruan izan ditudan adiskide eta lagunek beti hartu dute ondo, arazorik gabe eta modu oso naturalean nire izakera. Nik ez nuen ezer esaten, baina ez zegoen ezer esan beharrik. Etxean ere ez nuen inoiz ezer esan eta baten batek kasualidadez gaia atera izan balu, ez zen sekula gertatu, ez dakit zein izango zen nire erantzuna. Benetan. Ez dut uste ezer esan behar zenik, nik behintzat ez nuen horren premiarik sentitzen eta inork ez ninduen inoiz ezer aitortzeko aldartean ipini. Etxean harremana ona zen, giroa oso lasaia, baina nire sexualitatea nirea zen, eta nik libreki bizi nuen, onerako zein txarrerako. Koadrilako bati bai gertatu izan zitzaion amak errieta egitea gurekin larregi ibiltzen zelako. Niri ez zidaten inoiz ezer aurpegiratu. Horretan, egia esan, zorte handia izan nuen etxekoekin.

Urte haietan zera politikoetan sartuta zebiltzan neskek Emakumeen Asanblada osatu zuten festak eta ekitaldiak antolatu ohi zituzten. Gu ez ginen inoiz nahasten haiekin. Beharretik irtetzen ginenean elkartu eta tabernaz taberna ibiltzen ginen, beste koadrilek egiten zuten bezala. Ia seguru taberna haietako askotan borroka horietan sartuta zeuden lesbianekin topo egingo genuela, baina gu gure kasara ibiltzen ginen. Hori bai, gutako baten etxean parranda egiten genuenean, orduan bai barrenak ustutzen genituela!, gu geu izaten ginen eta izugarri disfrutatzen genuen. Etxeetan, kalean edo tabernetan, inoiz ez. Hor ohiko bizitza egiten genuen, gainontzekoen parekoa. Inork ez zuen inoiz susmorik izan laguntasunaz gainera gure artean beste ezer egon zitekeelakoan.

Borrokarako gogorik ez

Orainik lagun izaten segitzen dugun arren, taldeko gehienek ez dute jada ezer jakin nahi honetaz guztiaz. Bakarra dago legea onartu zenean ezkondu zena. Baina uste dut gehiago izan zela emazteagatik, abokatua bera, beragatik baino. Arestian horregatik azpimarratu dut behin eta berriro guk ez genuela inolako interesik ez politikan ezta borroka lesbikoan ere.

Parranda maite genuen, hori bai, eta ondo pasatzen genuen, baina bazterrean utzirik emakumeen asanblada zein lesbianen taldeak.

Ez du kontra geundenik esan nahi. Giro hori ez zitzaigun batere interesatzen, besterik gabe. Nik, esaterako, bikotelaguna nuenez ez nuen inoiz ezertan sartzeko premiarik izan. Gogoan dut Bartzelonako lagun batzuk bisitatzera joaten nintzenean, orduan bai giroan gehiago murgiltzen nintzela eta egia da egundoko parrandak egiten nituela. Baina neure burua inongo zeratan lerrokatu barik. Hitzaldietan eta manifestazioren baten ere izana naiz, aintzat hartzen nituelako feministen eta lesbianen borrokak. Betiere kanpotik, hori bai. Eta halakoetara joaten nintzenean ere, bakar-bakarrik joaten nintzen koadrilako neskek ez zutelako horiekin ezer jakin gura. Borrokak beldurtu egiten zituen, nahiago zuten klandestinitate gorrian bizi.

Bilbon harrotasunaren lehen manifestazioak egin zirenean, bertan izan nintzen lagun batek hartaratuta. Nik ezagutzen nituen neskak ez ziren joaten, ezta zoratuta ere. Baten batek ikusiko ote zituen beldur ziren. Haietako asko eta asko irakasleak ziren eta beldur ziren ikasleek edo haien gurasoek manifestazioan ezagutuko ote zituzten.

Ez dut aditzera eman nahi ezkutuan bizi ginenik. Ez zen hori. Baina egia da ez genuela gure itxura askorik zaintzen eta are gutxiago janzten orduko lesbiana aktibisten antzera. Haiek uniformez jantzita bezala joaten ziren, praka bakeroak eta elastikoa soinean. Gure koadrilako batzuk saiatzen ziren txukun janzten, gainerako neskak bezala, baina bere nortasuna mozorrotu gabe, itxurakeriarik gabe.

Gogoan dut behin horretaz jardun genuela, itxurak gordetzeaz, alegia. Batzuk argi zuten: etxean edo lantokian norbaitek lesbianak zirela galdetuz gero haiek berehala ukatuko zuten:

- *Zer diozu, baina? Ni ez naiz lesbiana.*

Nik argi esaten nien hori barregarria zela, guk gure izakera eta gure desioekin gustura eta pozik egon behar genuela, hori zen-eta gure bizitza. Baina ez, beldur handiegia zioten baita lesbianak izan zitezkeenaren susmoari ere. Apustu egingo nuke haien etxeetan susmoa batzutela, neska berarekin urteak zeramatzaten eta. Bakarrak izan zituen oso arazo larriak amarekin. Behin zerbait aurpegiratu zion oso modu aldrebesean. Zorionez behin baino ez zen izan eta ez zuen gaia berriro atera. Homosexualitatea tabu zen gure etxeetan, ez zen horretaz berbarik egiten.

Homosexualitatearen kontrako iritzirik ez

Etxean ez ziguten ezer esaten, ez alde ezta kontra ere. Bakean uzten gintuzten, ezkontzeko edo familia osatzeko estutu barik. Zorte handia izan genuen gainera eta koadrilako guztiak oso gazte hasi ginen beharrean, 16 urte genituela. Soldatak autonomia nahikoa ematen zigun gurasoen menpe ez bizitzeko. Beraz, ezin gintuzten ezertara behartu eta are gutxiago ezkontzera.

Izan daiteke nire jarreragatik edo bizimoduari aurre egiteko nuen prestutasunagatik baina, inor ez zen inoiz nire bizitza sexualean sartu. Besteen nahietara gehiago moldatu izan banintz, ausartuko ziren agian. Baina zorrotzegia izan nintzen beti eta ez nien aukera txikienarik ere ematen. Etxean edo bulegoan baten bat homosexualitatez hitz egiten hasten bazen, nik berehala mozten nuen eztabaida:

- *Ezin zaitezkete errespetutsuak izan?*

Kalean ere, koadrilakook ez genuen geure burua nabarmentzen. Gure artean edozein neskak lagunekin izango zuen tratu beretsua izaten genuen. Nire bikoteetako bat, esaterako, oso amultsua zen, eztitsua eta gustuko zuen kalean eskutik oratuta joatea eta jendaurrean elkarri musuak ematea. Baina lagunak besterik ez ziren neska bik egin zezaketen moduan egiten genuen guk ere, ohikoa izan zitekeen portaera gainditu barik.

Orain 25 bat urte, harremana izan nuen etxean arazo larri-larriak zituen neska batekin. Izututa bizi zen eta amak estutu egiten zuen ezkondu zedin. Emakume hark alabarekiko zuen jarrera izugarria zen, beldurgarria benetan. Eta alabak ez zion aurre egiten. Erantzun beharrean, ama, nazka-nazka eginda naukazu, kikildu egiten zen nire laguna. Emakume ari izugarri kosta zitzaion oskola apurtu eta amaren gonapetik ihes egitea. Azkenean egin zuen eta egun edonon topa dezakezu bere sexualitatea bete-betean bizitzen.

Koadrilan 20 neska izatera heldu ginen

Hasierako koadrilan kirol munduko sei neska ginen, taldea handituz joan zen apurka-apurka, gutariko bakoitzak ezagututako neskak batu egiten zitzaizkigun eta. Azkenean 20 bat neska izatera heldu ginen. Asteburuetan elkartzen ginen. Elkarrekin afaldu ostean dantza egitera joaten ginen. Gehienetan Deustura, *Wendolin* edo *Holiday* dantzalekuetara. Inoiz Castro aldean ere izan ginen, bertako dantzaleku batean. Pistan neskak ezagutzen genituen eta haietako batzuk taldera gehitu zitzaizkigun. Hori bai, koadrilako ardatza, gaur egun arte iraun duena, hasierako sei neska haiek izaten segitu genuen. Batzutan Zazpi Kaleetan ere ibiltzen ginen, giroko tabernetan. *Otxoa*ren tabernara joaten ginen, Barrenkalen, edo Amistad kalean zegoen *Holl* izeneko hartara. Azken horretan trabestien ikuskizunak izaten ziren. Hori 1985 urtean izaten zen. Baina arestian esan legez, gutxitan joaten ginen giroko tokietara. Nire lagunek nahiago zuten hortik kanpo bizi eta, gainera, giroan mutilak ziren jaun eta jabe. Beraz, bertara joateak ez zuen guretzat zentzurik. Gerora bai, *Convento* eta *Lamiak* bezalako kafetegiak irekin zituztenean, sarritan izaten ginen haietan. *Lamiak*, niretzat, ezinbesteko bihurtu zen, baina egunez gauez baino gehiago.

Ez “mari-motrailu”, ez lar femeninoa

Ni neu ez naiz inoz izan *mari-motrailu*, baina ezta lar femeninoa ere. Ez nuen neure burua ezertara behartzen, berez ateratzen zitzaidan legez bizi nintzen. Halakoa nintzen ni eta

jarrera hori liskar iturri izan zen lar maskulinoak ziren lesbianekin. Haietako batek, esaterako, arazoak izan zituen nirekin eta bikote-lagun izan zituen gainerako neska guztiekin. Beti zebilen bere ar jarrera hura nabarmendu nahian:

- *Hemen neu naiz gizona, neu arra eta zeu nire emea.*

Etxekoandreen atzetik ibili ohi zen, ezkondutako emakumeak ligatu nahian. Inoiz ez nintzen ondogegi moldatu horren *mari-motrailuak* ziren lesbianekin. Halakoei, jakina, bost axola zitzazkien mugimendu feminista edo lesbianen kolektiboak, ez zuten ezer jakin gura inolako aldarrikapenekaz. Ni berriz, gutxienez manifestazioetara joaten nintzen. Zentzu horretan nik oso argi nuen emakume nintzela, emakume lesbaina. Beti jakin dut zer gura nuen eta zer nuen gogoko. Horregatik, agian, bere buruaz oso seguru egon ez diren emakumeak ez zaizkit inoiz gustatu. Haien atzetik ibiltzea denbora alferrik galtzea zela iruditu zait beti. Patuak halako bat jarri izan balu nire bidean, ezkondua eta seme-alabekin, ez dakit zer egingo nukeen. Beharbada burua galduko nukeen harengatik. Hori ere egia da. Errezegi gaitzesten ditugu besteak, gu haien tenorean egotea tokatu ez zaigunean.

Zelan egiten genuen elkarri esan eta ezagutzeko

Koadrila barruan gu bezala lesbianak izan zitezkeenen gainean hitz egiten genuenean, ez genuen inoiz berba iraingarririk erabiltzen. Ez genuen *lesbianazaharra* edo *marimutila* bezalakorik esaten. Gure artean edo *lesbiana* esaten genuen, edo:

- *Begira hark zelako luma duen, gutarra dudarik gabe.*

Eta zelan egin elkar ezagutzeko? Begiraden bitartez, batez ere. Emakume bi elkarri begira geratzen zirenean ustekabean, behakoari eustea gerta zitekeen. Horrek elkarren arteko onarpena suposa zezakeen eta, askotan, baita bien artean grina eragin ere. Begirada zelakoa zen azaltzea ez da gauza samurra. Esan dezaket, hori bai, tematsua zela, limurtzailea eta inoiz ez erasokorra. Horrelakoak izaten ziren, behinik behin, nireak. Ni saiatzen nintzen zuzena izaten eta begiradaren ostean, emakumea gustukoa banuen benetan, harekin berbetan hasteko ahalegina egiten nuen, elkarrengana hurbiltzeko. Elkarri begiratu ondoren, besterik ez bazen gertatzen, nik aurrera egiten nuen eta, hor konpon!

Zine aretoan piztutako xarma

Ni oso zinezalea izan naiz beti. Gaztetan Urrutia zinemetara joaten nintzen, bertan ematen baitzituzten egile-filmak. Gustukua nuen emakume bat ezagutzen nuenean, zinemara gonbidatu ohi nuen. Zinemara elkarrekin joateak ez zuen esan gura gure artean ezer gertatuko zenik. Lagun bi ginen arratsalde pasan. Hori bai, zine aretoan argiak amatatu bezain pronto gure arteko giroa goxotzen saiatzen nintzen. Ukondoen arteko laztan txiki batek beste bat zekarren eta hark elkarren eskuak hartzea. Inoiz gertatu izan zitzaidan

baina, hastapeneko fereka bere horretan ahitzea. Besteak ez bazuen ezer egiten nik aurrera egin nezan, bertan behera uzten nuen ahalegina. Kitto. Emakume eder batekin filma on bat ikustea, ez zen porrota niretzat.

Zinema bion arteko lehen harremana finkatzeko erabili ohi nuen eta bion artean xarma berezia sortzen bazen, hurrengo baterako hitzordua jartzen genuen eta hori bai izaten zen maitaleon arteko zita. Gure adineko ia emakume guztiak gurasoekin bizi ginela zen arazoa eta garai hartan ezin ginen hoteletara joan. Biotako batek autoa izanez gero, Artxanda aldera joaten ginen eta bertan egoten ginen esku-ukituak egiten iluntzen zuen arte. Gehiagora heltzen ez baginen ere, polita izaten zen xarmari eustea. Zorionez, koadrilako ia neska guztiok geneukan autoa eta horrela moldatzen ginen premia zegoenean. Denborarekin hoteletara ere joaterik izan genuen, baina banaka sartzen ginen gelan deigarri gerta ez zedin.

Harremanak patxadaz hartu ohi nituen nik. Ez zitzaidan estu eta larri ibiltzea gustatzen. Emakume bat ezagutzen nuenean, egunean bertan ezertara heldu baino, gurago izaten nuen hurrengo baterako geratzea, goizez, edo arratsaldez, edo zinemara joateko, edo, besterik gabe, pasieran ibiltzeko. Sexua heltzekotan, helduko zen. Ez ninzen tematu zale, berehala ohartzen nintzen-eta besteak ere nik besteko interesa zuen edo ez. Bion arteko kimika egonez gero, harremari eusten nion eta sei edo zazpi aldiz elkartzen ginen, ohean amaitu aurretik. Bion arteko giroa ez zela berotzen ikusten bauen, kitto. Inoren atzetik alferrik ibiltzeak nagia ematen zidan. Bilbon, gainera, ez nituen eskura horrenbeste lesbiana eta beraz, ginen guztiak elkar ezagutu genuen oso urte gutxitan. Uste dut horregatik irauten zutela horrenbeste emakumeon arteko harremanak edo, gutxienez, horregatik irauten zidaten niri horrenbeste.

Gaztetan hainbat bikotelagun izan nituen arren, bakarrik bizi izan nintzen beti. Azkenarekin soilik jarri ginen elkarrekin bizitzen eta lau urtez egon ginen bikotean. Baina 80. hamarkadan ez zitzaigun burutik pasatu ere egiten elkarrekin bizitzea. Ez hori, ez etxean ezer esatea, elkarrekin bizitzeko etxebizitzarik erostea, ezer ez. Bikotelaguna egunero ikusten nuen, barikutik domeka bitartean elkarregaz egoten ginen, parrandak egiten genituen guk biok bakarrik edo koadrilagaz eta horrekin nahikoa genuen. Pentsatzen dut hunkigarriago zela hori, oraingoa baino: *gaur gauean bai, bihar ezin dut, goazen orain* eta, benetan, hori zen guretzat bikotean bizitzea.

Bizkaian, 2013ko urrian

JOSE IGNACIO

- **Apaizena abusua izan zen bidea neuk bakarrik egin behar nuelako, ez haiek behartuta**

Jose Inazio dut izena eta Kuban jaio nintzen duela 66 urte, jatorriz Euskal Herrikoa zen familia batean. Irlan hamar urte besterik ez nituen eman, Iraultza nagusitu zenean egoera politikoa horren nahasiegia egonik, familiak Estatu Batuetara joatea erabaki baitzuen. Bertan lau urte eman nituen ikasten. Handik Madrilera joan nintzen, atzera gurasoen sorterrira, Bilbora, etorri nintzen arte artean Franco bizi-bizirik zegoela. Goi batxilergoa amaitu, unibertsitate aurreko ikasketak egin eta azkenean unibertsitatean sartzea lortu nuen. Hala ere, liburuek baino gehiago erakartzen ninduten Frantziako Maiatzean jazotakoek eta ikasketak bazterrean uztea erabaki nuen. Zorionez, elebiduna izanik berehala topatu nuen lana itzultzaile moduan. Labe Garaietan hasi nintzen eta ondoren beste lantegi eta postuetan aritu nintzen.

Kuba aipatzen denean, bertako herritarren griña sexuala goraipatu ohi da eta txortarako beti prest daudela esan ohi da. Karibea delako, edo... Izango da, edo ez, baina egia da nik 7 urte nituela, 1953 urtean, barru-barruan sentitzen nituen apetak ukazinak direla. Ordurako banekien ez nintzela ikaskideak bezalakoa. Haiek gorputza lantzea besterik ez zuten buruan: indarra lortu eta gihartsu egotea, hori zuten helburu bakarra. Nik berriz gure irakaslea bainujantziarekin ikustea besterik ez nuen desio: haren bular iletsuak tontotuta ninduen. Banekien gainerako mutilek ez zutela lilura hori bizi. Ezin ditut ahaztu orduko hondartza egunak. Kuban, hemen Abrako *Maritimoan* bezalatsu, hondartzako aldagelak irekiak ziren eta armairuak ilaran ipinita zeuden. Arropa aldatzeko jendaurrean larrugorritzen ginen eta dutxa bata bestearen ondoan hartzen genuen. Orduak eta orduak ematen nituen nik aldagelan. Dutxa hartu, erropa aldatu, berriro dutxa hartu eta berriro jantzi. Liluratuta nengoen bertan ikusitako gizonen gorputzekin. Han hartu nion susmoa nire joera horri eta zalantzak izaten hasi nintzen. Sentitzen nuen grina ez zela normala iruditzen zitzaidan, lagunengan ez bainuen halakorik ikusten.

Hamar bat urte nituela, eskolan bolondres lanak egin behar izaten genituen arratsaldetan. Premian zirenei jaten ematea izaten zen gure egiteko nagusia. Niri, jatorri euskalduna zuen apaiza batek adinekoen artean meriendak banatzen laguntzeko eskatu zidan. Jendea lehiatila moduko batera hurbiltzen zen eta hor banatzen genituen guk jakiak. Egun batean lehenago joateko eskatu zidan apaizak, horrela banatu beharreko meriendak prestatzen lagunduko nion eta. Apaiz hura gure etxekoen laguna zen. Halako batean, ezer esan barik, bere hanketan jezarri ninduen eta halakoetan horren usua izan ohi dena gertatu zen. Musuak ematen zizkidala, zera esaten zidan:

- *Baina, zein ederra zaren…*

Nik pentsatzen nuen asko maite ninduelako esaten zizkidala horrelakoak, gure amaren laguna zelako, alegia. Berarekin eman nituen azken hilabeteetan hastapeneko laztantxo haiek, masailean emandako musutxo xaloak, larriagotu egin ziren: nire zakiltxoa ukitzen hasi zen eta nire eskua berera eramaten zuen. Horrela aritu zen ni izutu eta ihes egin nuen arte. Izututa nengoen ezin bainion jazotakoa inori esan. Nori esango nion bada? Amari? Bere lagun mina bazen! Zer esango zidan gure amak?

- *Asko maite zaitu eta.*

Apaizak itzultzeko eskatu zidan arren, ez nintzen harengana berriro joan. Orain 7 bat urte Oscar, orduko ikaskide eta lagun bat topatu nuen Miamin. Hark aipatu zidanez, berari berdin-berdin gertatu zitzaion apaiz harekin eta bera ere, egun, homosexuala da. Horregatik pentsatzen dut gizon hark gugan zerbait ikusi zuela, hark bazekiela barruan generamatzala desio homosexualaren hazia eta aukeraz baliatu zen.

Horrela hasi nintzen ni sexu kontuetan, apaiz harekin eta ikaskideekin izaten nituen ikutuekin. Baita aititeren lagun bategaz ere: musu asko eta laztan gehiago, dena zen maitasuna gizon harekin. Eta hazi hura nigan loratu egin zen, duda-mudaren hazia. Izan ere, lagun koadrilan neskak ez ziren falta eta haiekin ere jolasean ibiltzen ginen arren, ez ziren niretzat. Nik argi nuen neskek ez nindutela asebetetzen.

Abusua, abusu da

AEBetara joan ginenean, gurasoek eskola militarrean sartu ninduten. Armadako parafernalia bete-betean zegoen han, zigor fisikoak eta guzti. Ikastetxea militarra izanik ere, boskotar anaien esku zegoen arlo akademikoaren ardura. Nik arazoak izan nituen apaizekin. Batetik bihurri samarra nintzelako eta, bestetik, artean hizkuntza ez nuelako ondo ulertzen. Ikasleok launako gelatan egiten genuen lo eta logelak jakoteaz ingeles eskolak ematen zituen apaiza arduratzen zen. Hark bere babespean hartu ninduen. Ez dakit gaztetxoena nintzelako edo ingelesarekin arazoak nituelako izan zen, baina hark gordetzen ninduen. Bitxia izan zen oso. Gau batez baimenik gabe irten nintzen logelatik eta hark jakin egin zuen. Diziplina oso zorrotza zen eskolan. Apaizak bere logelara deitu eta zera esan zidan:

- *Araua hautsi duzu eta badakizu zein zigor dagokizun, ezta?*

Jakina banekiena! Egurrezko erregela hartu eta bizkarrean jipoiak eman ohi zizkiguten. Hori zen ohikoa. Baina niri prakak kentzeko agindu zidan eta kolpeak ipurmasailean eman zizkidan. Eta bidez batez, eskua sartu zidan. Hasteko hemen ipini zuen eskua, gero hor eta horrela jarraitu zuen nik hazia isuri nuen arte. Hitz bitan hura izan zen nire lehenengo sexu eskarmentua. Ezin izan nion inori esan jazotakoa. Ixilik geratzea beste erremediorik ez nuen izan. Eta eskolako lehen urte hartan gizon hura hiruzpalau aldiz gehiago izan zen nirekin.

Gauza bat utzi nahi dut argi. Uste dut bereiztu egin behar direla neure-neureak nituen grina haiek batetik eta, bestetik, gizon hark nirekin egin zuen abusua. Baimenik eskatu barik egin zidalako egin zidana, nahiz eta nik ondo pasa eta disfrutatu. Ez zuen eskubiderik egin zuena egiteko, neu ume moko bat besterik ez nintzen eta. Nik gizon hari, eta baita Kubako apaizari ere, zera egozten diet, alegia: ez zidaten utzi sexualitateaz nire kabuz jabetzen, konturatzen, ohartzen eta hori ezin diet barkatu. Egia da, ordurako zalantzak banituen, grinak hor zeuden....

- *Kontxo!* –esaten nion neure buruari–*, hau ez dago ondo, baina hauxe dut gustuko. Ez dut ondo ulertzen zergatik baina atsegin dut egin didatena.*

Haiek taldetik aterarazi ninduten eta esan zidaten:

- *Hire tokia hemen zegok.*

Egin zidatena ekartzen dut gogora eta gauza batek izorratzen nau bereziki: neronek, neure kabuz, egin behar nuen ibilbide hori, ez haiek behartuta. Horretaz guztiaz jabetu eta sutu egiten naiz. Ez dakit orain, baina duela 50 edo 60 urte usu gertatzen ziren halakoak apaizen eskoletan. Haiek ondo zekiten abusua nori egin eta nori ez. Oso ondo zekiten. Kubako eskola garaietatik lagun min ditudan gizon heterosexualei ez zieten inoiz halakorik egin. Inoiz ez. Baina Oscarri bai, hari esku sartu zioten, baita Rafaeli ere eta niri.

Haiek bazekiten guk hirurok beharbada oraindik ez genekiena, homosexualitataren harrak habia egina zuela gure baitan.

Zelan zekiten hori? Izan daiteke gainerako mutikoak baloian zebiltzan bitartean, irakurtzen egoten nintzelako txoko batean, edo kontzertuetara joatea atsegin nuelako, edo zinema mundua gertu-gertutik ezagutzen nuelako. Niri jokalari baten izena galdetu eta, akabo. Halakoa nintzen ni. Gabonetan, esate baterako, Oscar eta biok izaten ginen lehenak bolondres lanetarako izena ematen, lehenak txiroentzako opariak prestatzen. Gauza horiek, nik uste, aski zituzten gu zelakoak izan gintezkeen susmoa hartzeko. Eta jakina, denborarekin nik neuk onartzen dut homosexuala naizena.

Nolako Juantzar, halako Maritzar

Atsotitz ezagun batek halaxe dio: “Nolako Juantzar, halako Maritzar”. Egia biribil-biribila. Madrilera 14 urtekin heldu nintzen eta ordurako nik argi nuen zer eta nolakoa nintzen. Jakitearekin baina, ez zen nahikoa. 1963 urtea zen eta Madril basamortua. Gurasoek agustindarren El Buen Consejo ikastetxean sartu ninduten. Nire zorionerako ikasketak AEBetan baino atzeratuago zeuden. Eskolan irakasten ziguten guztia han ikasia nuenez, aise gainditzen nituen azterketak. Urte bete eman nuen potrojorran lasai-lasai.

Jendearekin harremanetan jartzen hasi nintzen, txortan egiteko. Ez nire adineko mutilekin, 30 urtetik gora zuten gizonekin baizik. Gutxienez ni baino 15 urte zaharrago ziren guztiak. Ikastetxetik gertu zegoen bilarrean ezagutzen nituen. Kontu handiz ibili beharra zegoen

baina. Zuhur jokatu beharra zegoen eta neu tentuz ibili. Poliziak edonon topatzen zenituen eta billarrean izaten ziren okerrik gertatuko ez zela zelatatzen. Lehenago esan bezala baina, *Nolako Juantzar, halako Maritzar*... Zergatik hori? Orduan ikastetxean ezagutu eta adiskide izandako hainbat mutil lagun ditudalako oraindik: Arman, Eloy, Simon... Urtetan elkar ikusi gabe egon eta gero, duela gutxi elkartu ginen berriro eta, bai, Simon gay da. Eloy ez, baina Simon bai. Gerora ohartu naiz eskolako lagun asko eta asko ni bezala, gay zirela. Gauza da orduan ez genuela ezer esaten. Ez zen ezer esaten, ez zen ezer aipatzen. Izututa bizi ginen. Baten batek *marikoi* izatea egozten bazizun, zureak egin zuen! Horretaz ez zen hitz egiten eta suposatzen zen ez ni ez inor ezin ginela horrelakoak izan.

Gure amak beti esan zuen ni nintzela bere zahartzaroko makulua. Horrek esan nahi du senak argi eta garbi esaten ziola amari ni ez nintzela besteak bezalakoa. Aitak ez zuen sekulan ezer esan. 18 urte bete nituenean armairutik atera, aurrez aurre jarri nintzaien eta zer eta zelakoa nintzen aitortu nien. Aitak ez zuen ezer jakin nahi izan. Familia bitan banatu zen. Bada bitxia baina emakumeek –ama, amama, izebak eta lehengusinak– nire alde egin zuten. Anaiak, aitak eta aititek ez. Aitite ez zegoen kontra, baina alde ere ez. Ez zitzaion buruan sartzen eta bada ulergarria 80 urteko gizasemeak ulertu ez izana.

Aitak ez zuen inoiz onartu nire homosexualitatea. Ez zuen kontra ezer egin, baina onartu ere ez. Behin, Jose Manuel bikotelaguna zendu zitzaidanean, bion etxean egindako afarian *marikoien* gaineko txiste bat kontatzea ere ausartu zen. Eta hori gure aita ohiko ar kubatarra zela, inguruan zuen edozerekin larrua jotzeko beti prest. Aitarengandik inoiz izan nuen berba adeitsu bakarra, hauxe izan zen:

- *Ondo moldatzen zarete eta uste dut ekipo bikaina egiten duzuela.*



Ez zuen esan bikote, ez zuen esa pare, ez zuen halakorik esan. Esan zuen: “ekipo bikana, elkarri laguntzeko beti prest”. Eta orain gogora ekarri nahi dut eta omendu, bizitzan nirekin gehien arduratu zen emakumea, gure amama. Jose Manuel zendu zenean etxeko inor ez zitzaidan doluminak ematera etorri, doluminak daukan zentzu eta indarragaz esan gura dut. Amamak bai, 98 urte zituela besotik heldu zidan, besarkatu ninduen eta zera esan zidan:

- *Txiki, zein bakarrik geratu zaren!*

Halakoak, batera edo bestera, etxe guztietan gertatzen dira. Hala uste dut nik behintzat. Garai hartan etxeko guztiek bazekiten arren, armairutik aterata gurasoen aurrean bakarrik soilik nuen egina. Gainerakoek bazekiten eta begiruneko jarrera hartu zuten gutxienez, ez baitzuten homosexualen kontrakorik ezer esaten. Baina hori etxe barruan gertatzen zen, hortik kanpo ni nahi bezala bizi nintzen.

Benetako gay bizimodua

Bilbora duela 47 urte heldu nintzen, 1967an, eta une hartan hasi nuen benetako gay bizimodua. Jendaurrean ez nintzen homosexual bezala aurkezten, noski, baina neure buruan ondo nekien zer nintzen eta zer gura nuen. Hori izan da beti bizitzeko nire filosofia. Ez dut ezer haizetaratzen, baina baten batek galdetzen badit, esan egiten dut lotsa barik. Jakin gura ez duenak ez dezala itaunik egin. Askoz ere lasaiagoa da bizimodua armairutik kanpo, barruan baino. Eta hori garai hartan Arriskugarritasun Lege *zoragarri* hura indarrean zela, bete-betean. Kontuz ibili beharra zegoen beraz.

Bilbora izeko Emilitaren etxera heldu nintzen. Kolon de Larreategi kalera. Ez zen familiakoa baina guretzat beti izan da etxekoa, gure izeko. Bilbora heldu nintzenean berton bizi ziren euskal-kubatarren babesa izan nuen eta haiei esker lortu nuen beharra. Lagunak egitea ez zitzaidan askorik kosta, etxekoei esker jende ugari ezagutu nuen eta. Arazoa besterik zen, ni bezalakoak nortzuk ziren hautematea, alegia. Non ezagutuko nituen? Zelan? Ustekabean lortu nituen erantzunak, lankideen eta familiaren lagunen artean hauteman nituen-eta horrenbeste desiratzen nituen gizonak. Egia osoa aitortu behar banu esan haiek hauteman nindutela ni begirada gozoagaz.

Begiradek beti funtzionatu izan dute mutiletan jarduteko. Esate baterako, kalean barrena nindoala gustuko gizon bat ikusten nuenean begietara so geratzen nintzaion zuzen-zuzenean. Besteak, gehienetan, desbideratu egiten zuen begirada, baina begiradari eusten bazion, lortu zenuen. Ez dakit, kimika hutsa da. Baten batek zure begiradari eutsi badio, zuk beste inora desbideratzen duzu begirada eta handik bizpahiru segundutara berriro begiratzen duzuean begira badaukazu, bestea ere irrikitan dago. Gerta dakizuke behin gertatu zitzaidana, gizon batek nire begiradari eutsi ziola eta ni poz-pozik:

- *Hau nitarra duk.*

Eta ez zen, lankide izandakoa nuen eta horregatik geratu zitzaidan begira. Halakoak gerta daitezke, jakina, baina oso gutxitan izaten da. Gehiago dira zu bezala bila dabiltzanen begiradak. Eta begi-kolpeari irribarre gozo bat gehitzen badio, *chapeau*! Zurea duzu. Urte haietan hala egiten genuen. Tabernan zeundela baten batek zure begiradari eusten bazion, txikitoa edan eta kalera irtetzen zinen. Asmatu bazenuen atzetik etorriko zitzaizun. Edo bestea komunetara abiatuko zen eta zu atzetik. Gerta zitekeen komunera joatea premian zegoelako eta orduan, estutasunetik ateratzeko, edozer asmatu behar zenuen berehalakoan. Taberna edo kafetegi zehatzetako komunak oso ezagunak ziren mutiletan aritzeko, giroko tabernak urte batzuk beranduago helduko ziren eta.

Urte haietan, 70. hamarkadaren hasieran, herrialdeak aurrera egin zuen. Jendeak egunero zuen zer jan eta alkondara bakarraren ordez bi ere izaten zituen. Ez zegoen alkondararen lepoari buelta ematen ibili beharrik, berria zenaren itxura egiteko. Ekonomian izandako hobekuntzarekin batera, gizartearen jarrerak lasaitu egin ziren. Ez dut esango homosexualitatea onartzen edo jasaten hasi zirenik, baina bai jarrera irekiagoa zutela. Hori bai: Nik banekien ordurako gizon homosexualak *Palanca* aldean batzen zirela, prostituten

tabernetan. Baina, jakina... egitekorik ba al nuen nik toki horietan? Neska bat nireganatuz gero, zer egin ez nukeen asmatuko.

Garai hartan baziren guretzako, gizon homosexualentzako, hainbat toki hirian mutiletan jarduteko. Bat Casilda Iturrizar parkeko pergola zen. Oraindik bada mugimendurik bertan, nahiz eta egun tokia arriskutsua ere baden. Han ondo-ondoan, Museoaren albo batean komunak zeuden garai batean. Hiriko komun publiko gehienetan aurki zitekeen larrua norekin jo: Kale Nagusian, *Corte Ingles* parean zeuden komunetan, Udaletxeko zubiaren azpian zeuden haietan, Zabalburukoetan... ia guztietan egoten ziren gizonak sexu bila. Eta *Corte Ingles* denda ireki zutenean, egunero zegoen sexu parranda barruko komunetan, bertako behargineka z, besteak beste.

Bilbo hartako ibilera lizunak

Toki horietan ibiltzen nintzen ni, batetik bestera lagunak egin eta koadrila osatu genuen arte. Ordutik aurrera elkarrekin joaten ginen toki guztietara eta parrandak etxeetan egiten genituen. Arazoa zen gehienak gurasoekin bizi ginela eta koadrilan zortzi baginen, bakarrak zeukala autoa. Horregatik txortan egin guran genbiltzanean, edozein bazterretan egiten genuen. Bilbon, garai hartan gainera, gaueko 23:30etatik aurrera kalean lapurrak eta maritxuak besterik ez zenituen aurkituko.

Nik beharrari esker banuen diru nahikorik nire kabuz bizitzen hasteko. Baina ondoegi bizi nintzen izekogaz eta beraz, etxea niretzako hura mezetara edo hiletaren batera joaten zenean bakarrik izaten nuen. Zelan ausartuko nintzen etxera inor ekartzen? Bat batean izeko agertu izan balitz, akabo! Eta hoteletara ere ezin ginen joan. Joan bai, baina ez gizon bi elkarregaz sartzeko karneta utzi behar izaten zen eta. Horrela bizi izan ginen Zazpi Kaleetan ez ikusiarena egiten zuen ostatu bat edo beste ireki zuten arte.

Gizon ezkunduen ehiza

Kontakizun honetan aparteko aipamena merezi dute ezkondutako gizonek. Ekainean hasi eta iraila bitartean izaten ginen haien ehizan. Tarte horretan etxekoak Plentzia aldera bidaltzen zituzten oporretan eta gizajoak Bilbon geratu behar izaten zuten bakar-bakarrik, beharragatik. *Corte Ingles*ean behar egiten zuen Malagako mutil batek esaten zuen moduan:

- *Neska, hasi dun ezkonduen ehiza.*

Nik neuk gizon ezkondu bat ezagutu nuen *Dragstor* kafetegian eta elkarregaz egon ginen uda osoan. Mutil zoragarria zen, ederra benetan. Hori bai, erruduntasunak hartaratuta arazo larriak zituen bere buruan. Horrez gain, ezkondutako gizon bat baino gehiago ezagutu nituen emaztearen eta seme-alaben aurrean itxura egin arren, etxetik kanpo mutil laguna

zutenak. Horiek guztiak *Ideal* zineman aurkitzen zenituen, aretoko ilunpean txortan ari zirela. Guretzako ezkondutako gizonak harrapakin errazak izaten ziren, goseak jota ibiltzen ziren eta. Bederatzi hilabete egoten ziren *zakil gose* eta libre uzten zituztenean berehala jausten ziren gure sareetan. Ez hori bakarrik, gizon horiek ez zuten loturaturik bilatzen. Primeran, guretzat.

“Aditzen” duen koadrila

---

70. hamarkadarekin batera, Bilbon gizon homosexualei zuzendutako hainbat taberna ireki zituzten. Leku horiek gu guztion bizimodua aldatu zuten, besteak beste mutiletan jarduteko moduak ere aldatu zirelako. Toki horiek gizonak ezagutu eta harremanetan hasteko aukera segurua eskaintzen ziguten. Ezagunena Opera kafegia izan zen, Arriaga antzokiaren atzekaldean. Tokia liluragarria zen, giro apartarekin gainera. Bertan izaten ziren Bilbon aditzen zuten gizon guztiak, desio homosexualak zituztenak, alegia. Oraindik garai hartan bertan ezagututako lagun minak ditut.

Kafetegi hartan sortu ziren gizon homosexualez osatutako lehen koadrilak. Gurea *Operan* sartzen zenean, *Bals neskatilak* esaten ziguten. Garai hartako giroan guztiok geneukan izengoitia, ez dakit zergatik baina hala zen: hau *Maripatxis* zen, beste hori *Metra* eta horko hura berriz, *Onasis*. Guztiok genuen gure goitizena. Pentsatu nahi dut begirunez jarritako izenak zirela, egiazkoak ezkutuan gordetzeko modua.

Eta *Opera* eta begirunea aipatu ditudalarik, zelan ahaztu Erromako Eliz Amaren zurikeria. Giroan apaiza mordoa ezagutu genuen eta! Gogoan dut oraindik egun guztia *Operan* sartuta ematen zuen haietako bat. Oso gizon atsegina zen eta oroitzapen ederra utzi zuen giroko gizonongan. Bilboko eliza ezagun bateko parrokoa zen eta orduak ematen zituen hor, *Opera* kafetegian. Jendeak begirunez hartzen zuen eta bere txokoa gordetzen zion.

Urte haietatik gogoan dut, baita ere, mutil gazteei ematen genien harrera. Oskola apurtu nahian, kikilduta bezala sartzen ziren *Opera* kafetegian. Gure koadrilan horiek guztiak biltzen eta laguntzen ahalegintzen ginen. Nahikoa zuten beraien homosexualitatea aintzat hartzen, guk ere zangotraba gehiago ipintzeko. Seguru batek baino gehiagok pentsatu izan zuela:

- *Mmm… hau berria dun. Ea horregaz txortan egitea lortzen dudan.*

Ez nik ez nire lagunek ez genuen halakorik egiten. Beti saiatu ginen jende gazteari gure laguntza eskaintzen eta adinarekin ikasitako eskarmentu guztiak hasi berri haiei irakasten. Sinetsita nago, benetan, orduko giroa txiki-txikia eta erdi ezkutukoa izanik ere, gaurkoa baino askozaz ere abegitsuagoa zela. Egun, giroan, jendea oso-oso berekoia da. Aldaketa 80. hamarkadan eman zela pentsatzen dut, tabernetan gela ilunak ipintzen hasi zirenean. Uste hori oso sartua dut buruan, gela ilunek hankaz gora jarri zutela giro tokietan zegoen komunikazioa. Txortan berdin-berdin egingo genuen, baina berba egin, elkar ezagutu eta adiskideak egin, ez.

Gakoa ez zen sexua anonimoa zen, edo ez. Autoan, komunetan edo hondartzan txortan egiten genuenean ere, nahiko anonimoa izaten zen. Baina larrua jo ostean, edo arinago, berba egiten genuen eta bestearen izena bagenekien. Ez ziren lagun izango eta beharbada ez zenituen berriro ikusiko, baina kalean ikusiz gero, elkar agurtzen genuen, lotsarik gabe. Nik oraindik agurtzen ditut kalean topatzen ditudanean:

- *Kaixo, zer moduz?, zelan zabiltza?, aspaldiko!*

Eta ezagunak dira parkean birritan egin genuelako txortan. Gaur hori pentsaezina da.

Baina berriro 70. hamarkadako kontuak aipatuz, garai haietan oso-oso deigarri egiten zitzaidan gauza bat ekarri nahi dut gogora. Bilbo horren hiri klasista izanik , gizon homosexualez osatutako koadrilatan giroa demokratikoa zen, benetan. Etxe on-oneko mutila langile baten semeagaz ibiltzea ohikoa zen. Sexuak jendea batzen zuen. Gure koadrilan, esate baterako, *Campa del Muerto* auzoko etxe haundi batean bizi zen mutil bat geneukan eta haren etxean egiten genituen parrandak. Etxe hartan kasta askotariko gizonak elkartzen ginen. Hasiera batean gizon homosexualak baino ez ginen izaten, baina apurka-apurka lagun genituen neska lesbiana batzuk ere etortzen hasi ziren eta egundoko parrandak egiten genituen zapatuetan. Betiere zuhurtzia handiz jokatuz, jakina.

Errepresioaren beldur

1974 urtean oso jende gutxi zegoen armairutik kanpo eta homosexualitatea agerian bizi zutenak oso ezagunak ziren: *Charcu, Ochoa* edo *Medalla*, besteak beste. Lau katu ziren, jendea beldurrez bizi zen eta. Ezin da ahaztu homosexualitatea zigortzen zuten legeak indarrean zirela: Nagien eta Gaizkileen kontrako Legea lehenik eta Arriskugarritasun Sozialaren Legea ondoren. Poliziaren atzaparretan jausiz gero zureak egin zuen. Zigorrak zigor, jendeak bazuen askatasun irrika sendoa. Ez dakit zelan azaldu irrika hori. Barruan sartuta genuen indarra zen, zelan bizi ez genekiena edota ausardiarik ez genuen horretarako. Ezin genuen.

Eta hala ere gero eta ageriagoak ziren askatasun irrika hori adierazten zuten keinuak: arrosa koloreko alkondarak, txima gero eta luzeagoak, makillaje apur bat masailetan, manikura eskuetan... Halakoak gero eta gehiago ikusten ziren. Gura legez bizitzeko libre ez ginen arren, ez ziren zirrikituak falta grina horiek kaleratzeko. Gure artean, noski. Esaterako, batek parrandarako egundoko soineko ederra prestatu bazuen ez zitzaion burutik pasako Kale Nagusitik soinekoa soinean joatea. Hori ez.

Parrandatan gero eta jende gehiago batzen ginen. Koadrilakoek lagunei pasatzen zieten abisua telefonoz edo ahoz-aho:

- *Aizan, ekartzan pamela ederra, biharkoa pamela festa dun eta.*

Gauza horiek ahoz aho jakinarazten genituen. Ezin genuen *Correo* egunkarian iragarki bat atera: “*Maritxuen* festa halako tokitan”. Ez ziguten utziko. Eta urteen poderioz askatasuna

indartuz joan zen apurka-apurka. Askatasuna gizartearen aldetik, agintariek zuten permisibitatea emendatu egin baitzen, gehiago ez. Fracoren erregimena erabateko gainbeheran zegoen. 1973 eta 1975 urte bitartean hainbat gertakizun izan ziren gu guztiongan eragin izan zutenak: Burgosko Auzia edo *Txiki* eta Otagiren fusilamenduak, besteak beste. Neuk ere urte haietan hartu nuen neure egoeraren gaineko kontzientzia. Gogoan dut Sarrikoko irakasle batekin izandako bilera batean ohartu nintzela gay mugimenduaren premiaz. Artean, Euskal Herriko Unibertsitatea sortzeke zegoen. Garai haietan indar haundia zuten Juntak eta Platajuntak (Francoren aurka borrokatzeko PSOE eta PCE alderdiek bultzatutako egitura bateratuak ziren haiek). Irakasle hark argi esan zidan:

- *Gauza bat esango diat, marikoiak dituk alderdion eta herritarron lehentasunetan azkenak.*

Hor jabetu nintzen guk askatu beharko genuela geure burua, inork ez zigula ezer oparituko. Eta gurean, garai hartan, zegoen gay talde bakarrean hasi nintzen lanean, EHGAM Euskal Herriko gay askapen mugimenduan, alegia. Urte haietan ireki zituzten, gainera, gizon homosexualei zuzendutako lehen tabernak: *High* eta *Golar Fruit*, besteak beste. *Otxoa* Aste Nagusian *Liberate* kantarekin ezagun egin zenerako jende dezente zebilen bere burua askatu nahian borrokan. Eta testuinguru hartan aldatu ziren gauzak. Esan gura dut ezkutuan ibiltzeak ez zuela jada zentzurik. Mutiletan jarduteko toki bereziak sortu ziren eta lasaitasun horri esker, elkarrenganako konpromisoa ere sendotu egin zen.

Bikote engaiamendua

Garai hartan baziren mutil bik edo andrazko bik osatutako bikoteak, baina ez ziren elkarregaz bizi. Orduko bikoteak asteburuetan baino ez ziren elkarregaz egoten. Astelehenetik barikura bakoitza bere etxean bizi zen. Ni neu, 1981 urtean Jose Manuelekin hasi nintzenean, bakar-bakarrik bizi nintzen eta bera izekogaz. Zapatu batzuetan nigaz geratzen zen etxean baina ez beti suertatzen, izeko zaindu behar zuen eta. Orduko bikoteak hala moldatzen ziren.

Horrexegatik uste dut, hain zuzen, bikote bizimoduak ez zuela luze irauten. Baldintza horietan ezinezkoa zelako bizitza-egitasmorik partekatzea. Batzuk lortu zuten, jakina. Ezagutzen ditut 50 urte baino gehiago elkarregaz dabiltzan gizonezkoak.

Egun bikote izateko elkarregaz bizi behar izaten da, gastuak, bizimodua dena partekatu behar izaten da. Baina urte haietan bikotelagunagaz bizitzaren zatitxo batzuk besterik ez zenituen partekatzen, eguneko ordu gutxi batzuk, gauean bakoitza bere etxera joaten zen

eta. Orduko bikoteak ez ziren gaurkoak bezalakoak. Elkarrenganako erantzukizunik ez zegoen, ez eta orain ditugun eskubideak ere. Eta hori diodanean ez naiz ezkontzaz ari. Bizitza elkarrekin partekatuaz egungo bikoteek sortzen dituzten konpromiso eta eskubideak ditut gogoan, tartean legezko paperak egon zein ez. Garai haietan ez zegoen halakorik eta baldin bazegoen oso-oso ezkutuan bizi ziren bikoteak izaten ziren, gainerako guztiokaz nahasten ez zirenak.

Gauza asko aldatu dira urteen poderioz. Hizkuntza ere aldatu da. Guk beti esaten genuen ahizta gutarrak izendatzeko. Eta ez dut uste oker genbiltzanik, gurea familia modukoa zela uste genuen eta. Esan genezakeen, bai:

- *Hara, hor zetorrek beste homosexual bat, beste marikoi bat.*

Homosexual berba otso gutxitan erabiltzen zen baina, *marikoi* gehiagotan erabiltzen genuen. Berba hori ez dut inoiz gustuko izan, iraingarria iruditzen zitzaidan baita guk geure artean erabiltzen genuenean ere:

- *Aizan marikoi hori, etor hadi hona.*

Badakit berbak hala erabilita ez duela irain asmorik eta alta, maitasunez ere esan daitekeela. Baina niri ez zait gustatzen, inola ere ez. Nik nahiago dut *ahizta* esatea, edo hark *ulertu* egiten du. Gure artean, koadrilan, beti deitzen genion *ahizta* elkarri.

“Minbizi arrosa”ren madarikazioa

Ez nuke gogoeta hau amaitu gura gogora ekarri barik zelan hiesak hankaz gora ipini zuen geure bizimodua. Jakina denez, 80. hamarkadaren haieran heldu zen izurritea gugana. Halako batean ezagun, adiskide eta lagun min nituen hainbat gizon gaixotzen hasi ziren, ustekabean. Hori baino hilabete batzuk arinago gertatu zen ezohiko neumoniaren krisialdia. Jende piloa hil zen industriarako zen koltza olioa etxerako saldu eta sukaldean erabiltzeagatik. Sarraski krudela izan zen hura, handik gutxira giza inmunoeskasiaren birusak eragingo zuen krisi are larriagoaren aurrekari mingotsa. Esan bezala, ustekabean harrapatu gintuen gaitzak: hainbat ezagun eta adiskide neumoniak jota edo ordura arte ezagutzen ez genuen gaitz arraroren batek jota gaitxotzen hasi ziren.



Gutxira *minbizi arrosaz* berba egiten hasi ziren hedabideetan eta hori izan zen jendaren buruan sartu-sartuta geratuko zen ideia: zer jazotzen ari zen inork ez zekien arren, jazotakoa, edozer zela *marikoen* gaitza zen. Izua etxean sartu zitzaigun. Ni neu beldurrez bizi nintzen eta badaezpada ere girotik aldendu nintzen. Rock Hudson aktore estatubatuarra gaixotu zela eta Parisera *Pasteur*

Insitutura eraman zutela esanez albistea heldu zitzaigunean hasi ginen jasotzen egiazko informazioa. Orduan jakin genuen hiesa zer zen eta horren gainean ezer ez genekiela.

Fundamentuzko lehen albisteen arabera, birusa giza jarioen bidez hedatzen zen gorputz batetik bestera. Baina jakina, aurreko urtean ere ezohiko neumonia txoriek hedatu zutela esan ziguten eta ordurako bagenekien esandako guztia gezur hutsa zela. Izututa geunden, inor ez zen ausartzen inor ukitzen. Oso luze egin zitzaizkigun hurrengo hilabeteak. Estu eta larri bizi ginen, beldurrez. “Zorionez”, berba hori erabiltzerik balego behintzat, homosexualak ez zirenak ere gaitxotzen hasi ziren eta komunikabideek bazterrean utzi behar izan zuten ordura arte hainbestetan erabilitako *minbizi arrosa* edo *homosexualen minbizia* bezalako terminoak.Ikerlariek denbora dezente behar izan zuten birusa odola eta espermaren bidez hedatzen zela argitu arte. Hala ere gay gizonak markatuta geratu ginen: orain gutxira arte gizon homosexualok debekatuta izan dugu odola ematea, esaterako. 90. hamarkadan gaixoak botika antiretrobiralak hartzen hasi zirenean den-dena aldatu zen. Beharbada larregi lasaitu ginen eta egun kezkagarriak dira berriro pandemiaren datuak: hiesa gazte homosexualen artean hedatzen ari da berriro. Ezin dugu ahaztu, hala ere, hiesa sistema homofobikoaren azken aitzakia izan dela homosexualitatearen kontra egin eta haien moralarekin bat egiten ez dugun guztiak hedabideen eta gizartearen sutara botatzeko. Min handia egin ziguten bai, baina ez zuten lortu eta ez dute sekula lortuko hamarkada bi lehenago sexu iraultzaren sua piztu zuen grina askatzaile hura zapuzterik

Bizkaian, 2013ko irailean

MARTIN

- **Inor nitaz maitemin zedin ez nintzen inoiz ahalegindu, nahiago nuen besteek ni maitatzea**

Martin dut izena eta 1950. urtean jaio nintzen Kanariar Uharteetako herri txiki batean. Hasierako urteak ez ditut gogoan baina sasoi hartan homosexuala izatea ez zela batere erraza izango suposatzen dut. Sexu kontutan 12 urte nituela hasi nintzen nahita 15 urte zituen lehengusu batekin. Nik berotu nuen hura, ez zen abusua izan. Harekin izan nituen nire lehenengo sexu harremanak, maitemindu egin nintzen estreinakoz y hari esker ohartu nintzen ez nintzela oso normala, ez nintzela gainerako mutilak bezalakoa. Lehengusua asko maitatu nuen, miretsi egiten nuen eta hura harrotuta zegoen nire lilurarekin. Xehetasunak gogoan ez baditut ere, badakit bion artean bazela halako konplizitatea. Gure harremana oso polita izan zen neska bat ezagutu, ezkondu eta gure artekoa amaitu zen arte.

Mutiko nintzela akolito izan nintzen herriko elizan, buruan sartuta nuen eta egunen batean misioetara joango nintzela. Urte haietan herrian baziren zurrumurruak apaizaren inguruan. Eliz mutilei eskua sartzen ziela esaten zuten guztiek, baina niri ez zidan inoiz halakorik egin. Beharbada homosexuala nintzela sumatuko zuen apaizak eta mutikoak gogoko nituela, hori pentsatzen dut. Ez dakit bada, egia esan ez nuen inoiz ezer arrarorik ikusi elizan.

Anaiekin alderatuz gero arras ezberdina nintzen eta ez bakarrik nire sexu grinak bestelakoak zirelako. Orduak ematen nituen musika entzuten. Musika klasikoa. Ikasi gabea nintzen arren, izugarri gustatzen zitzaidan musika klasikoa eta orduak ematen nituen irratiaren aurrean klasikoen doinuak entzuten. Guraso eta anai-arreben esanetan zoratuta nengoen. Ez zen bakarrik musika, betirako markatu ninduten beste zaletasun eta joerak ere banituen: irakurtzea atsegin nuen, ikastea ere bai eta, batez ere, Historia ikastea. Txikitan hareazko eraikinak egiten nituen eta arkitektu izatea ere pasa zitzaidan burutik. Jolasean aritzeko ni baino txikiagoak nahiago izaten nituen baina ikasteko, ezagutzeko eta partekatzeko hobeto moldatzen nintzen jende helduarekin. Belaki moduko bat nintzen ni, haien jakituria guztiak xurgatzen bainituen. Biziki maite nuen ikastea, denetarik ikastea gainera.

Etxean ez zen gaia sekula aipatu

Gure etxean ez zen inoiz homosexualitateaz berbarik egin. Inoiz ez. Inork ez zidan galdetu, inork ez zuen ezer esan eta nik ez nizkion inori aipatu beste mutilenganako nituen grinak.

Egun, oraindik ni baino hiru urte zaharragoa den arreba etortzen zaigu etxea garbitzera, ikusi du mutil-lagunarekin bizi naizela, ohe berean egiten dugula lo, baina ez dugu inoiz horren inguran ezer aipatu. Onartu egiten du eta horrek aberastu egin du gu bion arteko harremana. Berbarik gabe begirunea erakutsi dit eta nik ere berezbiziko errespetua diot. Gainerako anai-arrebetatik txikienak bakarrik daki, nik neuk esanda. Banekien hark ulertuko zuela eta naizen bezala onartuko ninduela. Besteei, edo bere garaian amari, esan izan banie seguru nago zorotzat hartuko nindutela. Hori bai, amak beti maite izan zituen nire lagun min eta nolabaiteko bikote izan ziren mutil guztiak. Horregatik pentsatzen dute amak zerbait bazekiela edo gutxienez, susmoa bazuela. Aita, nik 15 urte nituela zendu zen eta bizi zela ere ez genuen harreman onik: beti zegoen mozkortuta, inoz ez etxean eta amak bakar-bakarrik hazi behar izan zituen 6 seme-alabak. Nahikoa arazo bazituen emakume gajo hark umea *maritxu* atera zitzaiola-eta arduratuta egoteko.

Zer zetorren asmatzea ere, ez zen batere zaila. Umetan izugarri gustatzen zitzaidan panpinekin jolastea eta fede handiko mutila nintzen, fedeak askorik iraun bazidan ere. Anai-arreba eta lagunekin prozesioak egiten genituen eta ni izaten nintzen apaiza edo etxeko salan jartzen nituen buztinaz jaiotzako irudiak egiten. Horiek ziren etxean burutik jota zegoen seme arraroaren beste alderdiak. Pentsatzen dut haien artean halakoak esango zituztela, baina nire aurrean inoiz ez. *Marikoi* edo halakorik ere ez didate deitu eta ez dut sekula beraien errefusa sufritu. Izango da, beharbada, koipetsu samarra nintzelako eta helduek esaten zidaten moduan guztia txintxo-txintxo betetzen nuelako. Eta ez nuen zurikeriagatik egiten, helduekin egotea, haiek entzutea, haien bizimodu eta istorioak ikastea, izugarri disfrutatzen nuen eta aberastu egiten nintzen horrekin guztiarekin.

Eskola publikoan ikasi nuen eta beti lehiatzen nintzen ikaskide batekin eskolako azkarrena izateko. Ez nuen ariketa fisikorik egiten eta futbola ere ez zitzaidan gustatzen eta, hala ere, inoiz ez zidaten eskolan *marikoi* deitu. Bizkaira etorri ginenean, urte bete egon nintzen Santurtziko institutuan eta ikasketak Bilbon amaitu nituen. Argi dago bizitzan aurrera egin nuela, herri txiki batetik hiri handi honetara, alegia. 16 urte nituela hasi nintzen beharrean eta lantokian ere ez dut gogoratzen inoiz inor nirekin sartu zenik.

Beharbada neure burua ez nuelako nabarmentzen izango zen. Beti izan nuen ahoa itxirik, ezer esan gabe. Hazi nintzen heinean lotsa guztiak galdu nituen, baina garai haietan artean ez. Sorterrian ez bezala, Bilbon ikusi nituen homosexualitatearen kontrako jarrerak nahiz eta ez izan nire kontrakoak . Pentsa zitekeen Kanariar Uharteetako herri txiki hartan nire bizimodua zailagoa izango zela denok ezagutzen genuelako elkar. Baina ez, han ere ez nuen gaitzespenik sufritu. Umetako garaietatik gogoratzen dudan gauza txar bakarra gazte baten gaineko zurrumurruak dira. Esaten zutenez, *marikoia* zen eta herriko gizon mordo batek *popatik eman* zion zuhaitz baten azpian. Hori eta apaizari buruzko aipuak dira gogoratzen ditudan kontrako portaera bakarrak. Onartu behar dut, hala ere, hazi nintzenean ere inuzente samarra nintzela. 18 urte izango nituen, baina nire buruko adina 14koa zen, errealitatetik at bizi nintzen eta.

Arazoak beranduago izan nituen, hogei eta piku urterekin. Poliziek behin baino gehiagotan pasarazi zidaten gaizki, parkean nintzela:

- *Zer egiten duzu zuk hemen?*

Ez dut ahaztuko behin 28 bat urte nituela aurre egin niela eta zakarki erantzun. Hor bertan atzeman ninduten eta ordu dezente eduki ninduten, ziotenez harroputz erantzun nien eta.

Umetan hasi nintzen, eskolako mutikoekin

Nire lehen sexu jolasak herriko mutikoekin izan nituen, umemokoa nintzenean. Lagunekin egindako gauzatxo haiek zirela-eta izugarri disfrutatzen nuen. Orainik asko akordatzen naiz nahiko zakarra zen ikaskide batekin: gelan atzeko aldean jartzen ginen biok eta berak praka motzak apur bat altxatzen zituen nik esku sar niezaion. Sexu-istorio gehiago ere izan nituen herriko mutikoekin, baina horiek guztiak ezin ziren lehegusuak eta biok izandako harremanarekin alderatu. Ni harekin maiteminduta nengoen, erabat gainera. Ezkondu behar zuela esan zidanean, izugarrizko etsialdia izan nuen. Santurtzira bizitzera joan ginenean berriz, ez nuen ezer egin han bizi izan ginen urte osoan. Bertan galduta bezala sentitu nintzen. Bilbon bai, jakina, beti lanpostutik kanpo. Lantokian baziren gustuko morrosko batzuk, baina ez zitzaidan burutik pasa sexu gauzetan haiekin ezer izatea. Ez naiz inoiz nire sentimenduak edo izaera ezagutzera ematearen zale izan. Jakin, ondo nekien nola egin gustuko nuen baten bat berotzeko, baina nik oso gutxitan ematen nuen lehen pausoa. Nahiago izaten nuen besteek ni maitatzea, ez nintzen inoiz inor nitaz maitemindu zedin ahalegindu.

Aldaketa 25 urte nituela gertatu zen. Orduan erabaki bainuen bazela ni bezalako mutilak bilatzen hasi eta haiekin larrua gustura jotzeko garaia. Bizitza 1972an aldatu zitzaidan. Anaiak ziren lagun bik eta hirurok oporretan Grezia aldera joateko asmoa genuen. Azken orduan haien gurasoak damutu egin ziren eta ez zieten bidaia egiten utzi. Neureak egin zuela zirudien unean, lagun batek tren txartel berezi baten berri eman zidan. *InterRail* zuen izena eta horrekin Europa osoa trenez zeharka nezakeen. Txartela erosi eta amari lagunekin nindoala esan nion eta Italia aldera abiatu nintzen bakar-bakarrik. 25 urte nituen, bai, baina nire izaera ume batena zen, oraindik lar inuzentea izaten segitzen nuen eta. Atxuriko geltokian hartu nuen trena Donostiaraino eta bertan mugara eramango ninduen Topoa. Ia-ia hortxe amaitu zitzaidan bidaia, pasaportean ez zelako ageri soldadutza egina nuenaren zigilua eta herrialdetik atera ahal izateko derrigorrezkoa zen. Negar apur bat egin nien mugako poliziei eta azkenean lortu nuen Hendaiatik Erromara zuzenean eramango ninduen trena hartzea. Hara joan nintzen, bidean gelditu barik.

Abiatu aurretik jakina nuen Europako hiri nagusietan gazteentzako aterpetxeak bazirela. Erroman ez nuen halakorik aurkitu eta gaua gainera etorri zitzaidanean tren geltokira itzuli nintzen, bertan lo egin asmoz. Jendilaje galantarekin batu nintzen bertan: proxenetak, makarrak eta prostitutak ziren gehientsuak. Italiako poliziak geltokia hustu egin zuen gauerdian eta neure burua kale gorrian ikusirik han bertan zegoen lorategi batean egokitu nintzen. Esan dut bai, garai hartan inuzente samarra nintzela. Nire inguruan gertatzen ari ziren mugimendu guztiez jabetu nintzenean, aho bete hortz geratu nintzen: ordurako ni gizaseme eder eta galanta nintzen eta oso gazte. Adineko gizon bat etorri zitzaidan lehenik eta haren ostean beste bat eta ostean beste bat, guztiak sexu eskaintzak eginez. Betaurrekoak zituen gazte batekin joan nintzen, zuen intelektuak itxurarekin fidatzekoa

iruditu zitzaidan eta. Erabakia nahiko zentzugabea zen, baina une hartan norekin txortan egitea ez baino laguntasuna behar nuen nik. Etxera eraman ninduen eta harekin jo nuen lehenengoz larrua etxetik urrun, lehengusuarengandik urrun eta ordura arte bizi izandako guztitik oso-oso urrun.

Florentzian ostatu hartu eta bertako etxekoandreak gela beste mutil batekin partekatzeko prest egongo ote nintzen galdetu zidan. Gogoan dut ezin izan nuela gau osoan lo egin, mutil hura ondoan izanik urduri nengoen eta. Gau hartan ez zen ezer gertatu. Mutila etorri eta seko lo geratu zen. Gau hartan erabaki nuen ez nuela berriro ostaturik ordainduko, hobeto zela gizonen bat bilatu, haren etxera joan eta bidez batez, gau hartan txortan egitea. Venezian berriz igeltsero bi ezagutu nituen eta haien ohean egin nuen lo, bien erdian, ogitartekoaren pernila legez. Bidaia abentura ederra izan zen: tren zerbitzuko beharginen greba tokatu zitzaidan Frantzian eta dirurik gabe geratu nintzen bidaia erdian. Jateko ere ez neukan ezer. Hori bai, gizon mordoa ezagutu nuen han eta hemen.

Non topatuko dut Bilbon, hainbat hiritan bizi izandako guztia?

Bilbora itzuli nintzenean galdera bakarra nerabilkien buruan: non dago hemen, baldin badago, Europako hainbat hiritan ikusi eta bizi izandako hori guztiori? Ez nekien nori galdetu, artean ez nuen giroko lagunik ezagutzen. Nire kontura ikasi behar izan nuen.

Florentzian saltsa guztia tren geltokian zegoela gogoratuta, Atxurira joan nintzen eta geltokia goitik behera zeharkatu nuen. Alperrik, ez nuen topatu. 1972 urteko ekaina zen, 22 urteak Venezian bete nituen eta. Casilda Iturrizar parkera joan nintzen egun batean, zoria goitik behera aldatu zitzaidan. Begiradarekin harrapatzen nituen nirea bezalako grinapean bizi ziren gizonak. Urte hartan gainera, koadrilako lagun bat seduzitu nuen eta urtetan ezin izan nuen hura gainetik kendu. Nik, baina, ez nuen gizon berarekin birritan egiten. Handiegia zen barruan nuen premia eta inorekin larrua jo ondoren akabo harekin, beste baten bila hasten nintzen. Garai hartan gizon bat eta beste bat eta beste bat ezagutzeko irrika nuen.

Horrek ez du esan gura bizitza sexu grinaren doinura dantzan jarri nuenik, edo nire ardura bakarra homosexuala izatea edo ez izatea zenik. Ikasketak jarraitu nituen eta Bilbon koadrila topatu nuen. Garai hartaz dudan damu bakarra Santurtziko lagun bati huts egin izana da. Hura ni bezala homosexuala zen eta bazterrean utzi nuen inolako azalpenik eman

gabe. Horrekin damu izango naiz beti. Zergatik egin nuen? Bilbok liluratu egin ninduelako eta Santurtzi eta Santurtziko oro txiki geratu zitzaizkidalako. Arnasa hartzeko, bizitzeko, Bilbo bezalako esparru handiak behar nituen, bestela ito egingo nintzen eta. Koadrilakoekin hala ere ez nuen inoiz nire sexu gogoen inguruan berbarik egin. Taldeko txikiena nintzen eta beti zaindu ninduten eso modu berezian. Pentsatzen dut haiek susmoa bazutela nirekiko. Are gehiago, duela gutxi orduko lagun batek aitortu zidan beste batek, bere gaian, zera galdetu ziola nitaz:

- *Eta honek zer, okela, arraina edo zer?*

Nik uste nuen argi zegoela guztientzat. Ezer aipatu ez arren, ez bainuen ezkutatzeko ahaleginik egiten. Lotsarik gabe ibiltzen nintzen homosexualak ziren lankide edo adiskideekin eta koadrilakoek haiekin askotan ikusi ninduten. Ezagutzen zituzten nire adiskide haien sexu joerak eta... baita bi gehi bi lau direla ere. Ordurako argi neukan zer nintzen eta zer nahi nuen eta ez nintzen zurikeriatan ibiltzen. Hura izan zen nire pizkunde politikoan unerik iraultzaileena, nahiz eta beste pizkundea, sexuala, beranduago etorriko zen. Ni bezalako mutil inozoa ehunka langile dituen enpresara heltzen denean eta lantegian sindikatuak protestan dabiltzanean egun batean bai eta hurrengoan ere bai, ez da harritzekoa nahaste-borraste horrek ni harratzea. Politikagintzan bai, baina sexu kontuetan ez nuen ingurumariaren presiorik sentitzen. Gurean inor ez zen ibiltzen eskuma edo ezkerrekoa zen esaten, fededuna edo fedegabea. Bada, nik horixe bera egitea erabaki nuen: inori ez zitzaion inporta norekin oheratzen nintzen eta norekin ez. Irizpide hori goiburu izan nuen beti. Gainera, lehen esan bezala, ez nuen presiorik bizi ezer esateko, ez beharrean eta are gutxiago koadrila barruan. Lagunek ez zuten andregairik eta baten batel ezkondu barik jarraitzen du.

Beldur guztiak, hala ere, soldadutzan galdu nituen. Palman izan nintzen soldadu berandu samar, egia esan, ikasketei esker hainbat atzerapen lortu nituen eta. Hura izan zen niretzat paradisua. Bertan galdu nuen geratzen zitzaidan lotsa apurra. Kaserna barruan txintxo-txintxo portatzen nintzen, baina hortik kanpo orduak eta orduak ematen nituen *Fifhty-Fifhty* izeneko taberna batean. Nagusiei gauez berandu itzultzeko baimena eskatu ohi nienean, operara joateko zela esaten nien. Tenienteak argi eta garbi esan zidan:

- *Aizu, ez dadila inor enteratu operara joateko baimena eske zabiltzala. Esan ezazu putetara joateko dela eta kitto.*

Beti izan naiz toki guztietan arraroa.

Nire lehenengo bikote-laguna 26 urterekin izan nuen eta egia esan nien lankide bati eta haren emazteari. Elkarri estimu handia genion eta ondo hartu zuten. Bilbon ia harremanik ez nuen etxekoekin. Gure ama haserre nuen. Pisuan oso ondo moldatzen nintzen auzoko guztiekin. Oso lasaia nintzen eta ez nuen arazorik sortzen auzoan. Behin auzoko atso batek nire kontrako zurrumurruen gaineko abisu eman zidan:

- *Jakingo bazenu zure kontra zelako astakeriak bota dituen!!*
- *Den-denak egiak, seguru.*

Horixe erantzun nion. Gerora bai, gizondu nintzenean inork aipu zakarren bat egiten bazidan, nik are zakarrago erantzungo nion:

- *Agian neuk galdetu dizut ea emaztarekin non egiten duzun txortan? Bada, horixe bera: utzidazu pakean.*

Gaztetan ez nintzen ausartuko, ezta hurrik eman ere! Orduan bakar-bakarrik nengoen eta ez nukeen asmatuko nori galdetu edo norengana jo laguntza eske. Garai batean, batxilergoa amaitu ahal izateko, gau eskoletara joaten nintzen goizez beharrean izaten nintzen eta. Gazteluetan egin nituen ikasketok, *Opus*ek kudeatzen zuen ikastetxean, alegia. Erlijio irakaslea oso jatorra zen. Ni horren inozo izanda, behin aipatu nion nire bizitzaren gaineko guztiak egunkari batean jasotzen nituela. Idatzitakoa irakurri nahi zuela eta uzteko eskatu zidan. Nik utzi bai, hark itzuli ez. Ikaskide batek jazotakoa jakin zuen eta berak konbentzitu ninduen apaizari egunkaria eskatzeko. Benetan sufritu nuen nirea zena atzera berreskuratzeko. Seguru apaiza hark barre mordoa bota zuela nire kontura.

Hiesa eta garai berriak

---

80. hamarkadarekin batera heldu zitzaigun hiesa. Izugarrizko nahasmena eragin zidan gaixotasunak. Egia da lagunik ez zitzaidala hil, baina bai adiskideen lagunak. Jendea izututa bizi zen. Itsututa bezala bizi nintzen eta arretaz osoz ibili nintzen: ez nuen inorekin txortan egiten kutsatu ez nendin, edo grinak hartaratuta tentaldian eroriz gero, besteari idairena jotzen nion arrapaladan. Sexuan haratago ez nintzen ausartzen. Ondo nekien gaztetan Italiatik itzuli berritan, neurrigabe ibili nintzela eta denetarik harrapatu: sifilia, *purgazioak* (gonokozia), potrozorriak eta enparauak. Hargatik, hiesa heldu zenean izuak jota ibili nintzen. Zorionez urte haietan banuen bikotelaguna eta ez nuen ohiturarik etxetik kanpo txortan egiteko. Ez dut sekula ahaztuko urte haietan biziki mindu ninduen gertakaria: Gaitza nahiko aurreratua zuen adiskie batek nire mutilarekin oheratu nahi izan zuen. Hura ikusi zuen adiskide batek kontatu zidanez, zoratuta bezala zebilen. Esaten omen zuen:

- *Neureak egin duenez, nirekin eramango ditut ahal ditudan guztiak!*

Hori jakindakoan sutan jarri nintzen. Gizon harekiko harreman oro moztu nuen. Inoiz ez nuen jakin txantxetan ala benetan ari zen, baina txantxetan ari bazen ere, onartezina iruditu zitzaidan.

Adineko gizonekin ikasten

Ni ez naiz inoiz gay borrokan sartuta egon, baina izan ditut lagunak oso sartuta egon zirenak eta haiekin ibiltzen nintzen. Ez dut ukatuko haiekin kalean nenbilela lankideek ikusten baninduten asaldatzen ez nintzenik, zalapartatsua eta lumaz josia izaten baizen lagunon portaera. Enbarazu egiten zidan gaztetandik beti saiatu izan naizelako neure burua

ez nabarmentzen. Izan daiteke umetan ez zitzaidalako buruan sartzen ni bezalako gehiago egon zitekeenik. Onartu behar dut, hala ere, jende zoragarri asko ezagutu dudala. Ni baino zaharragoak ziren gizonekin asko ikasi nuen eta esker onekoa da hori aitortzea. Heldutasunarekin batera ohartu nintzen gizonaren gorputza bera baino are garrantzitsuagoa eta erakargarriagoa zela gizonaren izaera, harekin ondo moldatzea eta harengandik ahalik eta gehien ikastea.

Baten bat asaldatuko bada ere zera esan behar dut, alegia: hobe lukete egungo gazteek antigualeko Greziako efeboen bideari jarraitu eta haiek bezala sexu kontuak gizon helduekin ikastea. Nire lehen musu bustia, ahotik ahora emandakoa, lehengusuak eman zidan eta ni baino zaharragoa zen. Harekin isuri nuen lehen aldiz, eta hark esan zidan:

- *Hi haiz hi, gizona.*

Horrekin ez dut esan gura abusuak onartzen ditudanik. Halakorik inoiz ez. Ni baino zaharragoak ziren gizonekin ikasi nuen, baina ez askoz zaharragoak. Esaterako, 20 urte nituela 35 edo 40 urteko gizonekin sartzen nintzen. Hitz egiteko eta ikasteko bai, horretarako nahiago nituen adineko gizonak, baina larrutan aritzeko ez. Alde horretatik bada bitxia baina, nire bikotelagun guztiak neu baino gazteagoak izan dira. Bada kontraesana, baina halaxe zen, hobeto moldatzen nintzen neu baino dezente zaharrago zirenekin.

Ordukoa ezjakintasuna zen, egungoa gorrotoa

Nik 70. hamarkadako garai haiek bizi izan nituen. Orain txundituta nago ikusiaz gazteek nola bizi duten euren homosexualitatea. Nik uste nuen urteak aurrera egin ahala egungo gazteek orduko debeku garaietan baino modu naturalagoan biziko zutela hau guztiau. Susmoa dut guretzat eramangarriagoa zela gaurko gazteentzat baino. Egia da aspaldi ez naizela jende gaztearekin ibiltzen eta ez naizela giroko tabernetara joaten, baina susmoa oso errotuta dut: gure garaian gehiago dibertitzen ginen egungo gazteak baino. Ez dut ukatuko egungo gazte batentzat errazagoa denik gurasoei homosexuala dela aitortzea, baina guraso gehiegi ikusten ditut oraindik seme-alaben homosexualitatea onartzeko gai ez direnak. Orain gutxi gertatu zait adiskide batekin. Semea gay duela uste izan eta horretaz galdetu nion. Berak badaki ni gay naizena eta, hala ere, ez zidan erantzun nahi izan eta gaia aldatu zuen.

Onartu behar dut bestalde, egundoko inbidia ematen didatela gazteek egun dituzten aukera horiek guztiak eskura dituztelako: edozein zalantza dutela telefono batera deitu eta erantzuna jasoko dute, liburu, filme eta zerbitzu askotarikoak dituzte aurrera egiteko, Administrazioak aintzat hartzen ditu bakoitzaren ezaugarriak eta horien araberako laguntzak ematen dizkie eta, azkenik, lantokian arazoren bat izanez gero badute non salatu. Gure garaian horiek guztiak amets hutsak ziren. Zineman ez genuen homosexualitatearen gaineko filma bat ikusiko, ezta kasualidadez ere. Egun, internet bidez zer zaren eta zer gertatzen ari zaizun ikus eta ikas dezakegu eta zure moduko mutil gehiago ezagutu. Gaurko gazteek erraz aurkitzen dituzte euren modukoak, besterik ez bada ere norbaitekin hitz egin ahal izateko. Nik ez nuen halakorik izan. Ia 30 urte nituela ezagutu nuen lehenengo lagun homosexuala. Ezin dut ukatu hortaz, arlo askotan izan diren aurrerakuntzak, baina iruditzen

zait zerbitzutan horrenbeste aurreatu dugun bezala, gizarteak atzera egin duela eta jende asko eta asko garai batekoa bezain astoprotroa eta matxista dela homosexualitatearekiko. Egun badago ordukoa baino are zakarragoa eta itsuagoa den jendea. Hitz bitan: Ordukoa ezjakintasuna zen gaur egungoa, berriz, gorroto itsua.

Bilbon, 2014ko urtarrilean

• Ni ez naiz ez “gay” ez “homosexuala”, “marikoria” naiz goitik behera

Txema naiz, 1962 urtean jaino nintzanez, egun, 60 urte ditut eta adimena izan nuenetik naiz marikoia. Umemoko bat nintzela banuen mutil-laguna. Elkarri eskua emanda egin genuen lehen jaunartzea Ortuellako San Felix de Cantalicio elizan. Mutiko harekin gozatzen nuen nik eta mutiko hura gozarazten nuen. Biok jaunartu genuen baina konfesatokitik pasa barik eta erretoreari gu bion txilibituekin egindako jolasak aitortu barik. Arestian mutil-laguna zela esan dut baina gu biok hori zer zen ere ideiarik ez genuen. Gauza bakarra genekien: asko maite genuela elkar. Eta 7 urte besterik ez genituen.

Hortik aurrera beti izan ditut oso argi nire sexualitatearen nondik norakoak. Sexuan grinatsua izan naiz beti, eta beti mutilekin. Neska-lagunen bat edo beste izan dut ere , baina larrutan jarduteko gizonezkoak nahiago izan ditut beti.

Gaztetandik semaforoak baliatzen nituen mutiletan aritzeko. Niretzako askoz ere interesgarriagoa izan da beti oinezkoen pasabide bat gay tabernarik modernoena baino. Gaur egun, berdin. Arinago lagun batek aurkitu berri duen taberna batean izan naiz eta hor ere egundoko giroa dago. Behin erresidentziara etorri zitzaidan eta zera esan zidan:

- *Txema, taberna bat aurkitu diat gu biontzako apropos-aproposa.*

Joan ginen eta bai, gu biontzat ezin aproposagoa zen hura. Orain gutxi, beste lagun batekin izan nintzen bertan eta txundituta geratu zen morroia bertako giroa ikusita.

- *Hi haiz hi! Zelan egin duk hau aurkitzeko hire baldintzatan, gurpil-aulkiari lotuta hago eta?!* (Txema aspaldi dabil motordun gurpil-aulki batean kalean ibiltzeko).
- *Begiratzea baino ez duk izan. Ondo begiratu, begiradari ondo erreparatu eta begi horien ugazaba nora zihoan ikusi.*

Mutiletan jarduteko ez dago ondo begiratzea bezalakorik. Begiradan dago gakoa, nork jaso duen zure begirada eta begion asmoei ondo erreparatuta nork eutsi dion begiradari, batere harrokeriarik gabe, naturaltasun osoz. Begiradaren ostean dator aurpegia bihurtzea onespen keinuaz... edo ez. Zertara? Elkar ezagutzera. Zertarako? Berba egiteko. Berba, zeren gainean? Bada, zuri eta bioi bost axola zaigula gainontzeko guztiei zer jazo zaien eta zuk eta biok irrikitan gaudela gu bioi zer jazo zaigun jakiteko. Hori guztia ohean amaitzeko? Beharbada... ez, agian soilik berbaldi arin batean nongoa zaren jakin dezadan, nongoa naizen jakin dezazun, zenbat urte dauzkagun. Besteari jakinarazteko, esaterako:

- *Ez, nik gurago dizkiat adinekoak.*

Edo lodikoteak gustuko ditudala esateko eta zuk berriz, txikitxoak. Eta zu ez bazara lodi eta ni ez banaiz txiki, ez dugu txortan egingo. Ezta? Bost axola zaigu gu bioi. Berba egin dugu eta ez dugu inoren bitartekaritza behar izan elkar ezagutzeko. Hori guztia begiradari esker lortzen da. Gaztetandik semaforoetan jartzen nintzen bidearen bestaldean nituen gizonei

begira. Begiekin zirikatu egiten nituen. Eta baziren begiradari harrotasunez eusten ziotenak eta gizona gustuko banuen ez nion begirik kentzen.

Grinak, apetak...

Hori esaten dut orain baina ez dut uste 7 urterekin begien indarraz harrapatu nuenik mutiko hura. Ez zen begirada izan umetan, gehiago izan zen barruko grina eta ausardia. Ausartu egiten zara eta bestea ausartu egiten da eta biak ausartzen badira bilatuko dute eta bilatzen duenak aurkitu egiten du. Esan bezala 7 urterekin jaioa nintzen sexu kontutan eta garai haietan bizi eta gozatu auzoan eta eskolan egiten nuen. Zazpi urterekin ez nintzen inongo kabaretan sartzeko gai, adin horrekin eskolan eta kaleetan topatzen nituen mutilak.

Garai hartan, Ortuellan, kalean bizi ginen eta kalekoekin. Inoiz ez nuen apaizekin traturik izan eta sekula ez nion apaiza bati nirekin ezer txarrik egiten utzi. Inoiz ez, iguingarriak eta koipetsuak iruditzen zitzaizkidan eta. Esango nuke apaizen erdiak edo, bilatzen zuten gauza bakarra ume xaloei eskua sartzea zela. Gorroto nituen, benetan.

Nik orduko eskola nazionalean ikasi nuen, baina garai hartan denak ginen katolikoak. Franco hil zen arte mundu guztia zen francozalea. Hori bai, biharamunean inork ez zuen Franco gogoko, mundu guztia gorria zen, betidanik gorria gainera.

Ni amamarekin hazi nintzen Ortuellan, 7 urte izan nituen arte. Gurasoekin itzuli nintzen gero, Kobeta Mendira (Basurtu) eta bertan jarraitu nituen ikasketak eta har segitu nuen ikaskideekin sexu kontuak *praktikatzen*. Txortan egiten nuen, ez dut esango egunero baina bai maiz eta jende askorekin. Asteburuetan eskolarik ez zegoenez, auzoko mutilekin aritzen nintzen sexu jolasean. Nire adinekoekin, zaharragoei ez nien uzten ezer egiten. Utikan! Haiengandik ihes egiten nuen.

Mendian bizi ginen eta umemokoak ginen. Horrek esan gura du hamaika txoko genuela gure gorputzekin jolasean aritzeko. Gehienetan txaboletan ezkutatzen ginen txilibituei astindu ederrak eman gogoz. Umeak ginen arren bagenekien jolas horiek debekatuta zeudela eta ezkutuan jardun behar genuela. Ondo ezkutatu beharra zegoen, Franco bizirik sexua pekatu zen eta beraz, delitu. Frankistak edonon aurkitzen zenituen auzokoek zer egingo zelatan. Pentsa, gurasoek Alderdi Komunistaren irrati Radio Pirenaica lasai entzun zezaten, kalean egoten ginen gu auzoan lotsagabeko belarririk ez zela izango zaintzen. Edozein tokitan txortan egiteko geunden gu!

Gogoan dut 12 urte nituela Bilbora bidali nindutela mandatu bat egitera. Suhiltzaile baten alargunarentzat sos batzuk eraman behar nituen *Radio Bilbao* irratiaren egoitzara. Hara joan nintzen ni, poz-pozik Kale Nagusitik gora eta behera. Bidean gizon luze eta ilehori batekin egin nuen topo. Begira-begira geratu zitzaidan. Nik ere begiak bota nizkion gainera, hark tinko eutsi zion begiradari eta pentsatu nuen.

- *A ze beldurra, mamutzar halakoa!*

Zergatik ez jakin arren, argi nuen hanka egin behar nuela handik, berehalakoan. Bilbora bakar-bakarrik jaisten nintzen lehen aldia zen eta beldurtu egin nintzen. Hor abiatu nintzen lasterka Kale Nagusian gora, mendiak non ikusiko, haiei esker etxerako biderik azkarrena zein izango zen asmatzeko. Aztoratuta nengoen, erabat. Eta 12 urte besterik ez nituen. Urte dezente beranduago jakin nuen nor zen gizon hura. Adarrak ere jarri nizkion mutil-lagunarekin. Txortan ari ginela mendeku zoragarria iruditu zitzaidan: hura zen hura mutil katxarroa! Baina umetan ihes egin nion alproja hari. Haren begirada astunegia egin zitzaidan, bortitza. Ez zitzaidan gogoko egin eta ez morroia motza zelako. Ez horixe, ederrasko zegoen eta. Gero jakin nuen modelo zela eta Bilboko erakusleiho-apaintzailerik ospetsuena, gainera. Baina nik 12 urterekin, ondo baino hobeto asmatu nuen begirada horrek iradokitzen zuena. Haren asmoak argiak ziren, nik ez nuen halakorik nahi eta ihes egitea erabaki nuen. Gizona atzetik etorri zitzaidan temati eta ezin nuen gainetik kendu. Azkenean aztarna galarazi nion *Mariquita Perez* dendaren ate batetik sartu eta segituan bestetik atera nintzenean. Indautxun zegoen denda hura eta bada bitxia denda *Mariquita Perez* izatea eta *marika* gazte honek *marikatzar* hura bertan galdu izana. Senak irakatsi zidan begirada haren benetako asmoak atzematen, liburu barik ikasi behar izan nuen hori guztia.

Gizon harekin ez nuen txortan egin nahi izan ni baino bi aldiz luzeagoa zelako, nik baino auskalo zenbat urte gehiago zituelako eta artean ni neu ez nengoelako halako hartu-emanak izateko prest. Ni baino zaharragoekin ez dut sexurik nahi izan sekula. Ni umea nintzen eta umeekin jolastu nahi nuen. Gizonak planta ona zuen,hori egia da, baina haren begietan argi eta garbi ikusten zen gaitzustean zetorrela.

Eredurik gabe hazi nintzen

Eta nik 12 urtekin, libururik irakurri barik eta inorekin egon barik, gizon heldu batekin txortan egin barik esan gura dut, ez nekien zer zen *gay* izatea, zer zen *marikoi* izatea. Ez nekien ezer. Eredu barik hazi nintzen, mendi zulo hartan sartuta. Homosexuala izan zitekeen gizon heldurik ez nuen ezagutzen. Baina ezagun nituen nire modukoak ziren mutilak, nik gustuko nituen jolasetan ere amorratuak zirenak, hargatik geure buruari inolako izen berezirik eman beharrik ez genuen. Mutikoekin jolasten nuen eta baita neskekin medikutara ere. Ezin dut hori ukatu, baina neu *marikoia* naiz goitik eta behetik. Horixe naiz ni, ez *gay* eta ez *homosexual*. Beti izan nintzen ni neu, horrek besteen arbuioa ekarriko bazidan ere. Ez dut inoiz nire kontrako irain edo erasorik onartu. Grinak erakusteko erabiltzen nuen begirada horregaz beragaz adierazten nuen ez nuela ezelako erasorik onartuko. Baten bat oldartu zitzaidan eta berehala damutu zitzaion. Beti eskatu dut nire buruarekiko begirunea, lagun

hurkoarenganako errespetua gordetzen jakin dudan indar beragaz. Kontuz ibili beharra dago nirekin.

Gaztetandik jakin dut neure burua gobernatzen eta 14 urterekin hasi nintzen *Brasilia* tabernan beharrean. Cantarranas kalean zegoen taberna, San Frantziskotik Lagunara igotzen den horretan. Taberna gizon eta emakumeentzat zegoen irekita eta bertan egiten nuen lan 14 urterekin, barran zerbitzari. Urte haietan ezagutu nuen Keka, *Conga* tabernan lan egiten zuen andrazkoa. Hark jende guztiari esaten zion:

- Kike esadazu.

Conga taberna Gorte kalean zegoen eta bertan orkestra batek zuzenean jotzen zuen eta baziren *alternadorak* bezala ezagun zirenak. Bezeroek haietako *andereño* bat kopa hartzera gonbida zezaketen eta neskek lagun egiten zieten. Berbetan jarduten zuten eta neskegaz dantzatu gura izanez gero eta pistara ateratzeko gehiago ordaindu behar zen. *Keka* alternadora zen: ilehori faltsu-faltsua, mutil erara moztua, trajea, aurpegian marka ederra eta obsesio bat buruan: “Kike esadazu”. Alternadora zen arren, Keka ez zen gizonekin joaten. Haiekaz arituko zen solasean, haiekaz egingo zuen dantza, baina Keka ez zen inoiz gizonekaz oheratzen.

Giro horren egiten nuen nik behar 14 urterekin, eskola adin horregaz utzi nuen eta. Arte Grafikoak ikasten hasi nintzen, baina bi irakasgaietan baino ez nintzen ondo moldatzen eta gainerakoez paso egiten nuen. Hargatik hasi nintzen tabernetan beharrean. Lehenengo San Diego tabernan hasi nintzen, Hernani kalean zegoen kabaret baten parean. Toki haiek ez ziren berez, berezo homosexualentzat pentsatuak.

Urte haietan gizon homosexualak ez ziren edozein tokitan biltzen, toki oso zehatzetan baizik. 1966 urtean Zazpi Kaleetan baziren giroko hainbat taberna. Barrenkale amaieran *Gallo de Oro* izenekoa zegoen, urte dezente arinago emakumeen taberna izan zena eta gero, tarte luze batean, gay taberna bihurtu zutena. Jardines kalean berriz, egun *Bizkaia bi* taberna dagoen horretan, *La Taberna* izeneko jatetxea zegoen. Bertako sukaldean Valentin, mutil homosexual batek behar egiten zuela eta, jatetxea biltoki bihurtu zen auzotik ibiltzen ziren maritxuentzat. Neu be sarri joaten nintzen. Beranduago kale Berrian *Quijote* izeneko taberna berri bat ireki zuten. Horiek guztiak Zazpi Kaleetan gizon homosexualentzako tabernak ziren. Moyua plazatik gertu, *Metropolis* kafetegia zegoen. Toki hura oso handia zen eta hor egoten ziren prostituzioan zebiltzan mutilak, bezeroen bila.

Andrazkoen egoera, askoz latzagoa zen

---

60. hamarkadan Bilbon ez zegoen andrazkoentzat ezer. Orduko lesbianak, gizonak eta andreak sartzen ziren tabernetan ibiltzen ziren. Egia osoa esan behar badut, sasoi hartao andreak ez ziren askorik ateratzen eta, ausartzen zirenak *Brasiliara* joaten ziren, asteburuetan horra biltzen zirelako herrietatik etorritako neskak. Gutxi batzuk Mesedeetako kalean zegoen *Live* tabernara be sartzen ziren, baina zuhurki. *Live* izan zen denboraldi batez gizon homosexualentzako giro taberna eta hor batzen ziren, haiekin batera, hiriko

lesbiana klasikoak. *Petrolio-ontzi* deitzen genien andrazko haiei, edozerekin ausartzen zirelako. Lita eta Vicente bikotearena zen taberna. Lita gaztetan aizto jaurtitzaile bategaz ibilia zen eta nik Santarretik etorritako lesbianatzar hura ezagutu nuenean andrazko bategaz harremanetan zebilen. Ahiztak zirela esaten zuen beti, neska-laguna zenik ezin zuen esan eta. Itxurak egiteko azkenean, bere agente artistikoarekin ezkondu zen. Izan ere, Francogaz mutilon egoera gogorra zen, baina neskena latza benetan.

Benetan, mutilok txarto pasa bagenuen, neskek askoz ere okerrago pasa zuten. Hori bai, haiek gu baino azkarragoak ziren. Eta haien egoera latzagoa zela diot mutil batek ezpainak margotuko zituen arren edo jostun edo ile-apaintzaile sartuko zen arren–horiek ziren-eta adibiderik ikusgarrienak– artez edo moldez, konponduko zelako. Baina itxura eta jarrera lar maskulinoa zuten andrazkoek, *mari-motrailuek* jai zuten. Berehalako gaitzespena sufritzen zuten. Etxekoek arbuiatzen zituzten eta gizarteak ere bai. *Atsogizonak* oso txarto ikusiak ziren, itxura femeninoa zaintzen zutenak, berriz, ez horrenbeste. Bikote harremanetan baina, egoera guztiz kontrakoa zen. Ezagutu nituen inondik inora “nabarmentzen ez ziren” emakumeak eta arazo barik egin zuten bikote bizitza. Gikonek ezinezko zuten. Gogoan dut gizon bikote bat Plaza Barrian loradenda bat zuena: bata atzerritarra zen eta bestea berriz, bilbotarra. Azken honen lobak ere ezagutu nituen eta haiek halaxe esaten zidaten.

- *Hura beti izan da osaba Richard.*

Haientzat osaba Richard zen, bere osabaren bikotelaguna. Baina gainontzeko guztientzat haiek biak auzoko *marikoiak* ziren. Emakume bi izan balira esatea zeukaten loradendako bazkideak zirela edo lehengusinak, edo bien artean adin alde nabarmena bazegoen, zaharrenak esan zezakeen gaztea “babespean” hartuta zuela.

Kontu handiz ibili beharra zegoen

Mutiletan jarduteko, karrera egiteko edo, orduan esaten genuen legez, *kankaneoan* aritzeko kalea bezalakorik ez zegoen. Kale Nagusian bertan, urrunago joan barik, goizaldeko 02:30etan. Zer zen hura! Kalean ez zegoen inor eta 32 aldiz gurutzatu zenuen morroia hor ikusiko zenuen berriro zureganako bidean eta berriro etorriko zen bietako batek lotsak galdu eta berbetan hasi arte:

- *Gabon.*
- *Ene bada! ahotik kendu didak eta.*

Kale Nagusian edo Alamedan, berdin zen. Zer egiten zuten gizon bik ordu haietan? Eguzkia hartzen, ez. Begira? Ezta ere. Gizon hurkoa limurtu nahian zebiltzan, hori seguru. Kontuz ibili beharra zegoen hala ere, polizien salatariekaz. Ni ohartuz gero mutiletan zebilelakoan *txakurren* bat (polizia) *marikoien ehizan* zebilela, inguruko guztiak ohartarazten nituen. Eskua papar-hegalera eramaten nuen hura *txakurra* zela adierazteko, lepoan ezkutatzen zuten eta polizia plaka. Ni ez ninduten sekula harrapatu, baina ezagutu nituen atxilotu zituztenak. Hori bai, abizenaren arabera Harriskugarritasun Sozialaren Legea ezartzen zioten, edo ez. Beti izan da horrela.

Nik hargatik, ez dut inoiz harremanik izan *txakurrekaz*. Eta batzuk benetan joaten ziren txortan egiteko gizonen bila. Baina ez, nik ez dut inoiz *txakur* batekin edo apaiz batekin larrurik jo. Ezta munduko gizonik liluragarriena balitz be. Haiekin sekula ez.

Egia da garai haiek gogorrak zirela eta kontu handiz ibili beharra zegoela. Hala ere ni lasai-lasai ibili izan naiz beti Zazpi Kaleetan, naizen bezalakoa izanik eta ezer ezkutatu barik. Gau-jagole edo serenoek ere ondo zekiten eta grinak estutzen zituenean hor etortzen zitzaizkidan sexu apetak baretu niezazkien. Auzoan baziren txortan egiteko gelak orduka alokatzen zituzten etxebizitzak eta haietara joaten nintzen ni artean adingabekoa nintzen arren. Orduan legez nagusi 21 urtekin izaten ginen. Eta nik 14 urte nituenetik bota ditut lumak Zazpi Kaleetan eta Indautxun. Joan zaitezte orain Perez Galdos kalera lumak botatzera! Egia esan, atzera egin dugu. Ez dago gotorleku bilakatu den Zazpi Kaleetatik kanpo lasai ibiltzerik. Nik beti bota dut luma, gaztetxo nintzenetik. Bakar-bakarrik ibiltzen nintzen kalerik kale, hostalari izanik oso ordutegi eskasa bainuen koadrilan ibiltzeko.

Txortaldi alaiak eta ez horrenbeste

Mutiletan jarduteko ez zeuden soilik tabernak, kafetegiak edo Kale Nagusiko espaloiak. Horiez guztiez gain baziren toki gehiago: Ezagunena *Balcon de la Lola* izango zen, Santanderrerako tren geltokiaren ondoan. Beheko arkupetan, urtetan igandero merkatua ipintzen zuten toki hartan larrua jo da San Antonen ostiak banatu baino gehiago. Mutiletan aritzeko beste toki ezagun-ezaguna Casilda Iturrizar Parkea zen eta bereziki, bertako bonbonerak. Halaxe deizen genien txortan egiteko erabiltzen genituen komun publikoei. Sexua lortzeko komun mordoa zegoen hirian: Kale Nagusian *Corte Ingles* ondoan, Moyua Plazan, *Misericordia*ko autobus geltokiaren ondoan, Areatzan, Casilla Plazan, Errekaldebarriko zubipean, Plaza Barrian musika kioskoaren azpian eta orain gogoan ez ditut beste hamaika tokitan. Komun horietan guztietan topatuko zenuen txortan norekin egin, larregi ahalegindu barik gainera.

Onartzen dut niretzat egokiena Casilda Iturrizar Parkeko *bonbonera* zela. Egunez, beste zereginik ez banuen oso toki lasaia zen egoteko. Han ez zen inor ibiltzen eta are gutxiago bilbotarrak. Komuna erabil zenezakeen edo kanpoan geratu nor sartuko zelatan. Orduak ematen nituen bertan sartzen zirenak itxurosoak ziren eta astindualdi baterako merezi zuten edo ez aztertzen. Oraindik badabil jendea Parkeko komunetan, baina tokia,egun, arriskutsua da. Hor bertan erail zuten Javi, *Hueveroa*. Jende larregi ibiltzen da hor orain bizimodua atera nahian eta ez prostituzioan, mutiletan dabiltzanei lapurtzen baizik. Hori larria da. Lehenago be hildakoak izan genituen, baina garai haietan faxistak izaten ziren, esaterako, *Balcon de la Lola*ko arkupetara joaten ziren *marikoiak* akabatzera.

70. hamarkadaren hasieran *Opera* kafetegia ireki zuten, *Arriaga* antzokiaren atzekaldean. Hura izan zen denbora luzean Bilbon ligatzeko tokirik egokiena. Kafetegian harrapatzen ez zuenak Areatzako aparkalekuan izango zuen aukera. Ingurumari hartan egundoko joan-etorria zegoen garai haietan. Eta mutilen bat ezagututa nora joan ez bazen, prostituten tabernetara joatea zuten. Toki lasai eta erosoak ziren haiek kopatxo bat hartu, berba egin eta elkar ezagutzeko. Neskek ondoegi zekiten zertan ari zineten eta ez zuten ezer esaten.

Lagun dezente egin nituen nik giro haietan. Beharrik ez bazegoen, prostitutak nirekin egoten ziren lasai eta luze solasean.

Taberna haietako batean ezagutu nuen Fidel, Frantziatik etorri berria eta *Cepi* bezala ezagun genuen mutil homosexuala. *Cepi* goitizeneko hari izugarri gustatzen zitzaizkion *txulo* itxurako mutilak eta oso denbora gutxian taberna hura Otxarkoagako *txuloen* eta La Salveko guardia zibilen biltoki bihurtu zen. Haien artean polizia-inspektore bat nabarmendu zen. Olga deitzen zioten eta gitarra eskolak ematen zizkion Fideli. Taberna hura oso toki berezia izan zen. Ez zen gay giroko taberna, bertara denetarik sartzen zen baina goizeko ordu txikietan gizon homosexualez betetzen zen. Ni be usu joaten nintzen bertara horren konpainia bitxiarekin. Zulo hori izan zitekeen 70. hamarkadan Bilboko gauen biltzen zen jendilaje bereziaren adibiderik garbiena.

Argi horiek guztiak handik gutxira amatatu ziren, hiesa heltzearekin batera. 80. hamarkadako urteak oso latzak izan ziren. Lagun piloa ikusi genuen hiltzen. Ezin dut ahaztu medikutara joaten nintzen bakoitzean izututa ematen nituela analisien emaitzak jaso arteko egunak. Beldur handia izan diet beti medikuei eta gutxitan joaten nintzen. Hain gutxitan hanka be beluegi joateagatik galdu nuela. Eta duela bederatzi urte minbizia sortu zitzaidan zakilean eta zakil barik geratu nintzen. Sexu kontuak ia-ia amaitu dira nirentzat. Hori bai, zerbait egiten badut, garbitasunez egiten dut. Sexua ez da inoiz izan nire bizitzaren ardatz bakarra, baina bai ardatzetako bat. Urteak eman ditut zakil batetik bestera. Txortan ia egunero egiten nuen, ez bazen Ideal zineman izan, Parkeko komunetan izan zen. Edozein tokitan norekin jo izaterik banuen behintzat. Zenbatezinak dira ezagutu ditudan gizonak. Hiesa oso arazo larria izan zen guretzat eta izaten segitzen du. Baina inork ez du beldurragatik sexua baztertu.

Hobera egin dugulakoan

Urteak joan urteak etorri, aldaketa ugari izan dira gay giroan. Hobera egin dugulakoan nago ni. Gizon homosexualok geure burua hobeto estimatzen dugula uste dut, begirune handiagoz zaintzen dugula geure burua eta geure gorputza. Egun, ez diogu geure buruari *Maria* deitzen, edo *Juanita Reina*, edo *Raquel de Medellin*. Gure artean orain goititzen bitxiak erabil ditzazkegu baina txantxetan , inoiz ez lagun hurkoa erasotzeko. Geure burua lehen baino gehiago maite dugula uste dut. Nik ez dut emakume goitizenik izan sekula eta baten batek halakorik ipini nahi izan didanean, izorratzeko asmoz, ahalegina berehalakoan moztu dut. Gaurko gazteak ikusten ditut ez dabiltza lumak botaka, halabeharrez. Eta kontuz,

lumak niretzako zoragarriak dira. Esan nahi dut: gura duenak gura duena botatzen duela, gura duen zulotik. Egungo neska gazteak ikusten ditut emakume izateko gogoz, guraso izateko irrikitan. Eta lortzen dute. Lehen pentsaezina zen ekumakume lesbiana bat ama izatea. Auzoan akabatuko ez bazituzten, asartu be ez ziren egingo!

Gaurko bikote homosexualak besteak bezalakoak dira eta hori ondo dago, hau da, elkarrekin haserretuz gero bikotea uzteko gai gara eta mutil-lagunari bete bikotetan egindako min berbera egingo diogu. Ez gehiago eta ez gutxiago. Eta argi gera bedi ez natorrela bat ezkontza auziarekin. Ez dut batera gogoko ezkontza berba gure egin izana. Ezkontza katolikoen gauza da, gobernuarena. Ezin ditut aintzat hartu araututako eta agiri bati lotutako bikoteak. Ez dut ondo ikusten ezkontzari edo familiari horrebesteko garrantzia ematea. Batez ere instituzio horiek goratzearren bestelako harremanak eta moduak zigortu eta txarresten badira. Horrek bai izorraten nauena. Pentsatzen dut beste berba bat asmatu beharko genukeela, ezkontza berba ez. Adierazgarria eta askatzailea izango litzakeen berba beharko genuke.

Bizkaian, 2013ko azaroan

MANUEL

- **Gure garaian maritxuok elkarri laguntzen genion, ez orain bezala bakoitza bere kaxara dabilela**

Ni Manuel naiz, Barakaldokoa eta 63 urte ditut. Umetandik izan nuen oso garbi ez nintzela gainerako mutikoak bezalakoa. Lehengusina nuen lagun min-mina eta harekin panpinetan jolasten nuenean ni zoriontsu nintzen. Beti jakin dut gizonezkoak nituela gogoko. Baina noski, 16 urte izan nituen arte ez nintzen mutiletan ibiltzen ausartu eta hori garai haietan 21 urte bete arte adingabekoak izaten segitzen genuela.

Esan bezala, 16 urterekin eskolatik atera, Barakaldoko lagunak utzi eta mutilen bila Bilbora etortzen nintzen, giroko zinema aretoetara. Ideal zinemara joaten nintzen gehienetan. Ez besteak baino hobea zelako, pedigri gehiago zuelako baizik. *Gayarre* zinema bera baino gehiago bai, behintzat. Areto barruan galerian biltzen ginen eta egundoko txortaldiak izaten genituen hor bertan. Aretozaina galeriatik desagertu egiten zen, bai edo bai; bestela guk desagerrarazten genuen. Aretoko argiak amatatzen zituztenean etengabeak izaten ziren komunera egindako joan etorriak. Izan ere, komuna –guk *bonbonera* esaten genien– izaten zen gizonak harrapatzeko tokia eta baita txorta lekua ere nora joan ez zuten guztientzat. Autoa zeukana zinema utzi eta barruan ezagututako gizonarekin Artxanda aldera joaten zen. Belarretan manta edo plastiko puska bat jarri eta bertan ematen zioten plazerra elkarri. Artxanda txortarako oso toki lasaia zen urte haietan, nahiz eta gizonen arteko sexu harremanak oso zigortuta egon agintarien aldetik.

Capitol zineman, esate baterako, *tio Paco* edo *tio Pepe* deitzen genuen ezkutuko polizia bat ibiltzen zen mutiletan zebiltzanak harrapatu nahian. Atzekaldeko aulkietan egoten zen zelatan eta ahal zuen guztietan giroa zapuzten zuen. Zitala zen gero polizia hura! Polizia izanagatik zuen botereaz baliatzen zen ni bezalako *marikoi* denak izutu eta izorratzeko. Ondo dakit askori ez zaiola batere gustatzen guk halako berbak erabiltzea, baina ni neu *marikoia* nintzen. Frankismoan jaio nintzen eta ingurumari historiko hartan ez zegoen ez *gey*, ez *gay* ez antzekorik. *Marikoiak* ginen, hitzez hitz gainera.

Poliziak aspertuta zeudenean edo, sarekadak egiten zituzten eta harrapatutako *marikoiak* Indautxuko komisaldegira eramaten zituzten. Nik 20 urte egin berriak nituen Golar tabernan izandako sarekada entzutetsu hura gertatu zenean. Taberna Charcu izeneko maritxu ospetsu batena zen. Egun hartan han izan ginen orduko nire mutil-lagun kataluniarra eta biok eta bost minutu arinago trena hartzera joan behar izan genuelako saihestu genuen sarekada. Goiz aldeko ordu batean Barakaldorako tren pirata deitzen genion hura hartu behar genuen eta presaka atera ginen Golen tabernatik. Horri esker libratu ginen. Oker ez banago, 1972 urtean izan zen. Antza

norbaitek salaketa egin zuen eta guk taberna utzi eta minutu gutxira sartu ziren poliziak. Barruan ziren guztiak atzeman zituzten, hogeita piku ziren guztira eta hiru egunez izan zituzten atxilo Indautxuko komisaldegian. Horien artean zeuden *Otxoa, Metra, Marilin* eta hiriko giroan oso ezagunak ziren beste batzuk.

Lagun homosexualen taldea

Lagunei esker ezagutu nituen toki horiek guztiak, alegia, tabernak, zinemak eta *bonbonerak*. Guztiak ziren homosexualak eta koadrilan ibiltzen ginen. Leku guztietara elkarrekin joateaz gainera, baten batek mutiletarako toki berriren bat ezagutzen bazuen horren gaineko xehetasunak ematen zizkigun: ondo ote zegoen, merezi zuen edo ez eta antzekoak. Denak ziren ni baino apur bat zaharragoak. Nik, 16 urterekin, nire kintakoekin baino 20 eta hogeita piku urteko mutilekin ibiltzea nahiago nuen. Ez dakit, babestua sentitzen nintzen haien artean. Eta hori inoiz ez nuela arazorik edo larrialdirik izan mutiletan ibiltzeagatik. Esan bezala, toki guztietara koadrilan joaten ginen eta elkarri laguntzen genion. Ez orain bezala bakoitza bere kaxara dabilela.

Elkar babesten genuen, asko gainera. Esate baterako, parkeko bankutan eserita hor ikusten genuen jendilajearen gaineko informazioa pasatzen genion batak besteari:

- *Kontuz hor datorren horrekin, zerrikume galanta duk eta.*
- *Beste hura berriz, handik datorren hura, jatorra duk oso.*

Eta baten batek merezi zuela uste bazuten, aurkeztu egiten zizuten, harekin solasean hasten zinen eta bion artean *feeling*a ematen bazen ilunpetara joaten ginen larru jolasera. Parkean mutiletan ibiltzen ziren asko eta asko, *bonbonera* aldean batez be, Neguriko etxe on-oneko semeak ziren. Haiek ere grinapean bizi ziren eta. *Señorito* horietako batekin txortan egiteak bazituen abantaila ederrak: bazenekien hark ez zuela tutik esango, zertan ari ginen jakingo balitz berak zuk baino gehiago galduko zuen eta.

Garai haietan ez zen batere gaitza mutil ehizan aritzea eta non ehizatu behar zen jakitea. Nik, esaterako, Gestoria batean beharrean hastearekin batera ekin nion ehizari. Mandatuen morroia nintzen eta goiz guztia ematen nuen batetik bestera paperak banatzen. Orduan ezagutu nuen gizon mordoa, mandatu batetik bestera *bonboneratan* hartzen nuelako atseden. Bisitatzen nuen lehen komuna parekoa izaten zen eta, jakina! *egun santu guztia elizan sartuta, kristau bukatu nuen azkenean*.

Gizon asko ezagutu nituen, gizon askorekin egin nuen txortan, haietako batzuen adiskide izan nintzen eta haiek ematen zizkidaten giro tokien gaineko xehetasun berriak. Horrela hasi nintzen ni, misterio handirik gabe. Koadrilakoekin *Arriaga*ren atzekaldean zegoen *Opera* kafetegira ere maiz joaten ginen eta han gizon gehiago ezagutu nituen. Gurea bezalako hiri txikian giro homosexualeko gizon guztiak, edo ia guztiak ezagutzen zeituen azkenean, beti toki beretsuetan ibiltzen ginen eta.

Etxean denek jakin arren, inork ez zuen ezer esaten

Urte haietan maiz gertatzen zitzaigun giro tokietan ezkondutako gizonak aurkitzea. Egun ohikoa da eta orduan askoz ere gehiago. Gaur, diotenez, eskubide guztiak lortu ditugun honetan, ia egunero entzuten dugu baten bat jipoitu edo iraindu dutela mutil-lagunarekin eskutik helduta joateagatik. Garia haietan halakoak maizago gertatzen ziren eta askorentzat hil ala bizikoa izaten zen itxurak gordetzea. Horregatik ezkontzen ziren. Nik ez nuen premia hori izan, lagunak banituelako, ia guztiak ezkongabeak zirelako eta guztion artean babestu egiten ginelako. Ez naiz sekula emakume bategaz oheratu. Ez nuke asmatuko zelan den esaten, baina bai horrek ez nauela erakartzen. Gogoan dut aititek behin zera esan zidala:

- *Laister hilko naiz eta ez dizut eztei-oparirik egin.*
- *Jaka edo beroki bat erosidazu.*

Eta horrela egin genuen.

- *Aitite, hauxe da nire eztei-oparia ni ez naiz sekula ezkonduko eta.*

Itxuraz, bederen, etxekoek ezer ez zekiten nire homosexualitatearen gainean eta ama gura duzuna izango zen, baina tuntuna ez. Aita-ama ponteko izeko-osabarekin bai izan nituen arazoak. Arestian aipatu bezala, Barakaldoko lagunak utzi eta Bilbora etortzen nintzen mutiletan aritzeko. Hemen gainera, ni baino 5 bat urte zaharragoak ziren lagunekin elkartzen nintzen eta ez ginen ezkutuan ibiltzen. Izeba-osabak sarri etortzen ziren Bilbora paseoan eta behin baino gehiagotan harrapatu ninduten lagunekin. Azkenean amari joan zitzaizkion belarria berotzera:

- *Ea mutiko hori hobeto zaintzen duzun, adineko gizonekin sartuta dabil eta.*

Gure amak ez entzunarena egin zuen, nire ustez ordurako bere susmoak hartuak zituen eta. Orain urte bi zendu zitzaigun emakumea eta bere bizitza osoan behin baino ez zuen gaiaz berba egiteko saiakera egin:

- *Auzokoak ea andregairik baduzun galdetu dit.*
- *Ama, zer diozu?!*
- *Baietz ba, behin baino gehiagotan ikusi omen zaituzte trenetik jaisten neska bati besotik oratuta.*
- *Hura izango da* –amak ondo ezagutzen zuen lagun bat–*. Esaiezu lagun dudala, ez andregaia.*
- *Egia da seme, inori ez zaio inporta zu norekin zabiltzan.*

Une horretan pentsatu nuen: “Antonio, hobe duzu ixilik geratzea”. Amak gaiari jarraitu izan balio barruak hustuko nizkiokeen hantxe bertan. Baina gaia berak baztertu zuenez, nik gurago izan nuen ixilik egon eta horrela izango zen ama hil zitzaigun arte. Izeko-osabak familia guztiari jakinarazi zioten ni adineko mutil haiekin ikusi nindutela, baina inork ez zidan galdetu hura egia zen edo ez.

Bilbo kolore bakarreko hiria zen garai haietan, oso grisa. Edo urdin iluna agian. Gizonok urdin kolorez jantzi behar genuen nahi eta nahi ez. *Maritxuak* ginen araua apurtzen bakarrak. *Corte Ingles*ko behargin batek *Baglioni* izeneko denda ireki zuen. Bertan gizonentzako modako arropa saltzen zuen, Adolfo Dominguez markakoa bereziki. Modakoa baino, modaren hurrena zen hura eta hor janzten ginen *marika* guztiak. Gure aita *Labe Garai*etako behargina zen arren, ordurako ni lanean ari nintzen eta irabazitako guztia denda horretan xahutzen nuen.

“Barakaldoko Maritxu herrena”

Garai haietan, bestalde, ohikoa izaten zen *maritxuon* artean goitizen bidez ezagutzea. Benetako izena jakin be, ez genuen jakiten. Besteak hurkoa behar zuen izan zein izenarekin bataiatu zuten jakiteko. Niri, adibidez, *Barakaldoko Maritxu herrena* esaten zidaten. Herren nintzela ezin nuen ezkutatu eta. Goitizenak ohikoak ziren eta ez dut uste iraingarriak zirenik. Lagun bati, esaterako, *Cacharritos* deitzen zioten behin hondartzan zegoela arrantza-ontzi bat ikusi eta zera atera zitzaiolako:

- *Hara, zelako trastetxoak!*

Eta goitizen horrekin geratu zen betirako. Antzekoa gertatu zitzaion *Desmayada* esaten ziotenari:

- *Goazen bazkaltzera, kordegabetuta nago eta.*

Edo *Salipum* goitizenarekin bataiatu zutena, edozin unetan aterata be, *pum* bai edo bai aurkitu egingo zenuen eta. Onartu beharko dugu nire kintako *maritxuak* oso nabarmenak ginela, lehenengo esne-hortza Areatzan atera zitzaigula, mutiletan genbiltzala. Hirian giro homosexualeko horrenbeste taberna ireki baino arinago, 1965 urtan bizpahiru toki baino ez zeuden Bilbo osoan: *Lita* eta *El Gallo de Oro* ziren ezagunenak. *Charcuk* urte batzuk beranduago ireki zuen berea eta are beranduago *High*, gela ilun eta guzti.

Bilboko jaietan –artean ez zen-eta Aste Nagusia– urtero jartzen zuten barraka gunean *Argentinako Antzokia* izeneko kabareta. Hura zen hura *putatokia*, marikoiez josita alde guztietatik. Ikuskizuna amaitzen zutenean *vedette* guztiak *Lita* tabernara joaten ziren eta diotenez, sexu parrandan amaitzen zuten gauero-gauero. Besteek kontatuta dakit nik hori, adingabekoa izanik ez zidaten-eta sartzen uzten.

Artean Frankismoa bete-betean eta orain bizi dugun askatasunik ez bageneukan be, gu ez ginen ezkutatzen. Are gutxiago ni, barakaldoarra izanik Bilbon ikusten baninduten be ez nintzen-eta batere arduratzen. Eta oraindik gutxiago Madrilera parrandan joaten ginenean. Eta maiz joaten ginen, amorru handia ematen zigun arren zelan hartzen gintuzten abarkaduntzat:

- *Hara, berriro etorri ditun probintzietako neskak.*

Madrilgo giroa Bilbokoa baino hamaika aldiz handiagoa eta ikaragarriagoa zen. Halabeharrez, ezta? Hemen taberna bi bazeuden, han 55.000 gehiago eta ezin zen alderatu gure *Ideal* zinema, guretzako egundokoa zena, Madrilgo *Carretas* zinemarekin. Han egun osoan aurkituko zenuen txortan norekin egin, filmeen emanaldi jarraitua goizeko 10:00etan hasten zuten eta. Bilbon dantzalekurik be ez genuen. Zegoen zera bakarra Zabalburuko tablado flamenkoa zen eta hor batzen zen Botxoko gau-jendilaje guztia. Haatik joaten ginen Madrilera, bertan beldur barik botatzen genituen-eta neurrigabeko parrandak. Berdin zitzaigun, etxetik kanpo egonik inork ez gintuen ezagutzen eta. Gau batean giroko *pub* batetik bota gintuzten gau hartan luma larregi bota genuenaren aitzakiagaz. Antzeko zerbait gertatu zitzaigun geroxeago *Arriaga*n, 82ko uholdeak baino arinago bertan zegoen kafetegian:

- *Ardurardunak eman du agindua* –eta arduradun hura bazen bai alproja galanta– *zuoi ezer gehiago ez zerbitzatzeko.*

Gogoan dut lagunak ziztu batean altxatu zirela alde egin asmoz. Ni bertan geratu nintzen.

- *Marikoi, ez al dun entzun ez digutela ezer gehiago aterako?*

Nik egoera harri aurre egin gura nion, saiakera bat be egin nuen baina azkenean kikildu eta ez nuen ezer egin.

Ordukako ostatua

Urte haietan ireki zuten Zazpi Kaleetako Santa Maria kalean ostatu berezi-berezia. Barakaldoko adiskide batek ireki zuen. Juan izena zuen eta gurasoen etxetik gertu taberna bat zeukan mutil-lagunagaz eramaten zuena. Ezkonduta zegoen, baina mutil-laguna be bazuen eta biak egoten ziren tabernan. Bilbora maiz etortzen ziren biak eta giro guztiak gertu-gertutik ezagutzen zituzten. Halako batean etxe bat erosi eta ostatua ireki zuten bertan. Tokiak on egin zien txortan egiteko lekurik ez zuten guztiei edo negu gorrian larrua patxadaz jo gura zutenei. Ostatuan orduka ordaindu behar izaten zen, gura beste ordu: ordu bete edo bost minutu, norberaren premien edo ahalmenen arabera.

Franco bizirik eta artean Harriskugarritasun Legea indarrean zegoela, kontu handiz ibili beharra zegoen mutiletan genbiltzanean. Aitortu behar dut izan ditudan ezusteko bakarrak ez direla poliziek eraginak izan, mutilak ehizatu asmoz ezkutuko poliziarena egiten zuten sasikume pare batek eragindakoak baizik. Ustez *txakurrak* zirelakoan, zurekin gura zuten guztia egiten zuten eta apetagatik edo plazerragatik astindualdi bat ematen bazizuten, ezin zenuen ezer esan “poliziak ziren eta”.

Ezin dut ahaztu giroan bazebila bat benetako polizia zena eta urte batzuk beranduago GAL taldeagaz nahasita egon zena. Hura bai zen maltzurra gero! Hark atzeman eta buruz behera jartzeko agintzen bazizun, buruz bera jarri behar zinen; hanka bat hirigunean eta bestea Artxandan jartzeko agintzen bazizun, hanka bat hirigunean eta bestea Artxandan, ez zegoen beste erremediorik. Gaiztoa zen, zarrikume halakoa! Mihi gaiztoek ziotenez, *Charcu*k adingabeko mutikoak lortzen zizkion, ustez gazte-gaztetxoak atsegin zituen eta. Umeak ez antza, baina arestian aipatu bezala orduan 21 urte bete arte adingabekoak ziren gazteak.

Ezusteko bat edo beste kenduta, gure grina homosexualak nahiko lasai eta atsegin handiz bizi genituen. Ez dut gezurrik esango baina, *Golar* tabernako sarekadaren berri izan nuenean, ia-ia tokian bertan geratu nintzen seko hilda.

Sexu-betekada

Sexua asebete arte izaten genuen. Eta gehiago ere bai. Udan lagungarriena, hirian *rodriguez* legez geratzen ziren gizon haietako bat harrapatzea izaten zen. Ezkonduta zeuden gizonak ziren emaztea eta seme-alabak oporretan zirela aprobetxatuz “mutil-laguna hartzen” zutenak, eurek esaten zuten moduan. Nik ezkondu batekin nahaste nintzen bakoitzean “bezeroa” lortu nuela esan ohi nuen. Eta hori ez nuela sekula kobratu, ezta ordaindu ere inorekin txortan egiteagatik. Uda batean etxe on-oneko sasi senargai bat be izan nuen. Etxe oso aberats eta oso jeltzaleko semea zen eta oso-oso ederra. Baina ni “bestea” nintzenez, azkenean utzi egin ninduen. Hori bai, elkarregaz egon ginen bitartean nazkatu arte egin genuen txortan bai Madrilgo etxean, bai familiak Punta Galean zuen jauregitxoan. Maiordomoa be bazuten etxe hartan. Benetan, ez dut sekula ezagutu hura bezain gizon atsegin eta eskuzabalik. Denetan bezala, baziren lehen eta bigarren mailako *maritxuak*. Neu bigarren mailakoa izan arren, oraindik gaztea eta polita nintzenez ate dezente ireki zitzaizkidan.

Garai haietan, bestalde, oso mutil gutxi ziren gizonen pentsura bizi zirenak eta zeuden gutxi horiek jendeak txarretsi egiten zituen. Niri amorru handia ematen zidan haietako bat ezagutzen nuenean. Behargin semea izanik eta lana izanik ez zitzaidan buruan sartzen inoren pentsura bizitzea. Gogoan dut behin, mutiletan nenbilela bat hurreratu eta zera itaundu zidala:

- *Zeuk, zenbat kobratzen duzu? Mila pezetagaz ondo?*

Horren irainduta sentitu nintzen, ahotik ateratako astakeria guztiak bota nizkiola har bertan, kale erdian. Berdin zitzaidan baten batek marikoi edo herren esaten bazidan. Egiak ziren biak eta ez zitzaidan inporta. Baina sekula ezin izan nuen jasan baten batek pentsatu izatea txortan egiteagatik dirua irabaz nezakeela.

Bizkaian, 2013ko abenduan

XABIER

- **Garai guztietan ditut oso oroitzapen goxoak, bai orduan bizi izandakoak, baita orain gozatutakoak be**

Xabier dut izena, 59 urte ditut eta bilbotarra naiz. Giroan *hogeita piko* urte nituenean hasi nintzen. Nebaretasunean, 16 urterekin, izan nituen nire gora beherak auzoko mutikoekin, baina orduan ez nekien oso ondo zer zen egiten genuen hori, ezta zer zen *isuritze* hura ere. Auzoko mutil baten etxean elkartzen ginen guztiak jolastera eta beti berdin amaitzen genuen: zakila tente elkarri igurtziz, baina besterik gabe.

Ezingo nuke berba batez adierazi zer zen lagunon artean egiten genuen hura, “hori” bazenik be ez genekien eta. Sexu homosexuala? Zer zen hori? Bai, lagunokin “hori” egiten nuen, ondo pasatzen genuen, baina egindakoari ez genion aparteko garrantziarik ematen. Jakina, egindakoa ez genion inori aipatzen, etxean ikasia genuen-eta hanka artean genuen zera hori txiza egiteko baino ezin genuela erabili. Horretarako baino ez. Etxean ez ziren sexu kontuak ezertarako aipatzen. Gogoan dut, esaterako, goiz batean blai eginda esnatu nintzela, pijama zikin-zikin eginda. Neskei lehen hilekoarekin gertatzen zaien legez, ni neu oso kezkatuta geratu nintzen lehenengo gau poluzio harekin. Ez nekien zer esan. Amari ezer aipatzea ez zitzaidan burutik pasatu be egin. Isildu egin nintzen, baina amak be ez zidan ezer esan pijama ikuzi behar izan zuenean. Horrexegatik diot homosexualitatea izan bazenik be ez genekiela, gauzak ez zirelako gaur egun bezala gertatzen: telebistan ez zen gay filmarik ikusten eta kalean ez zen horretaz berbarik egiten. Nik ezer ez nekien, bazenik ere ez. Testuinguru horretan kezka handiz hartzen nituen zalantza guztiak. Nik banekin zer nuen atsegin, zerekin gozatzen nuen. Baina haratago ez nekien ezer, ez non bilatu plazerra, ez zelan egin bilatzeko, ezer ez. Zomorro bitxia nintzen ni edo horrela ikusten nuen neure burua. Orduko bizipenak ez ziren gaurkoak bezalakoak.

Gogoan dut behin, 20 urte nituela, harremanak egiteko aukera eskaintzen zuen gay aldizkari batekin egin nuela topo. Frantziatik etorritako mutil bik litxarreria denda bat zeukaten Iturribide kalean eta haiek utzi zidaten aldizkaria. Nik entzunak nituen bi haien gaineko zurrumurruak: bitxiak zirela, bikote zirela, elkarregaz bizi zirela... Behin dendara joan eta galdetu nien:



-Eta... mutilen aldizkaririk ez daukazue?

Eta denda-ostera pasarazi ninduten. Ezer txarrik ez zidaten egin, hori da egia. Hainbat aldizkari erotiko jarri zizkidaten aurrean nik bat aukera nezan eta nik hartutakoa maileguan utzi zidaten. Arestian esan bezala, aldizkariak mezu laburren bidez egindako harremanak ahalbidetzen zituen eta erakargarria iruditu zitzaidan mezu bati erantzutea deliberatu nuen. Mutil batek deitu zidan handik gutxira eta elkar ezagutzeko hitzordua Kolon Larreategi kaleko kafetegi batean ipini genuen. Gizona ezkonduta zegoen, seme bat bazuen

eta bigarrena bidean. Ederra zen benetan eta nirekin izandako txortaldia mutil batekin izandako lehena izan zen harentzat eta niretzat, be bai. Sexua haren autoan izan genuen eta daukadan oroitzapena ez da batere gozoa, benetako lardaskeria izan zen eta.

Aska zaitez, eta horra hor beste kopatxo bat

Handik gutxira jakin nuen bazela Bilbon *High* izeneko taberna, gizon homosexulen topaleku zena eta gela iluna be bazuena. Ohikoa egin nintzen eta hari hartatik tiraka taberna gehiago ezagutu nituen: *Arriaga* atzekaldeko *Opera*, *Cotis* eta 83ko uholdeak izan aurretik Jose Antoniok, *Otxoa*k zeukana, beranduago Chufa izenekoa ireki aurretik. Hor ezagutu nuen nik *Otxoa*. Hori bai hori pertsonaia! Tabernan mutil jantzita egoten zen, kopak zerbitzatzen. Barraren bestaldean zituen guztiei kopa bete ondoren, mikroa hartu eta kantu kantari hasten zen. Kantu bi eta berriro ekiten zion kopak betetzeari. Aste Nagusian *Federiko Ezkerra*ren txosnan *Liberate* abesti entzutetsu hura kantatu zuenerako, nik buruz nekien doinua eta letra. Izugarria izan zen kantuak izan zuen oihartzuna. Garai hartakoa da, baita ere, *Larri*k, *High* tabernako ugazabak Bilbon ireki zuen lehengo sauna, Maiatzak bi kalean.

Horrela hasi nintzen harilkatzen istorio bat besteagaz. Garai hartako bat modu oso berezian gogoratzen dut. Madrilen izan zen Paloma San Basilio abeslariak egindako *Evita* opera ikustera joan nintzenean. Gau hartan, ez dakit non, Figueroa kalean zegoen gay *pub* bateko publizitatea ikusi nuen. Catacumbas izena zuen eta bertan dantzatu nuen nik lehengoz mutil bategaz, biok elkarri besarkatuta. Mutila Leonekoa zen arren, Madrilen bizi zen Arte Ederretako eskolan ikasten zuen eta. Etxera motorrean eraman ninduen eta gau osoa eman genuen larrua jo eta jo. Oso ondo pasa genuen. Gau hura *demasa* izan zen niretzat.

Bilbon tabernak ireki baino lehenago nire adineko gazteentzat bi toki zeuden bereziak mutiletan aritzeko. Bata *Balcon de la Lola* izenaz ezagun genuen. Gaur bada izen bereko pub bat Bailen kalean, baina ez zen hori gogora ekarri gura dudana. Santanderrerako trenen geltokiaren ondoan eskailerak zeuden kaia aldera jaisteko eta hor behean, arkupetan, korridore luze bat zegoen. Hor ipintzen zuten domeketan merkatu txiki bat. Arkupe horietan benetako orgiak izaten ziren gauero-gauero. Uholdeak izan aurretik toki hartan gura zuen guztiak egiten zuen txortan. Hor bertan ezagutzen zenuen mutilen bat eta hor bertan ematen zenioten plazerra elkarri.

Nire adinekoentzat bazen bigarren toki aproposa: *Pepe* ostatua. Kontuan izan behar da garai hartan mutil homosexualak edo ezkongabe zirela eta ,hortaz, gurasoegaz bizi zirela, edo ezkonduta zeudela eta orduan, emazteagaz. Sasoi hartan ez zegoen gay izan, ezkondu

barik egon eta nork bere etxea edukitzerik. Halakorik ez zegoen eta hortaz, mutilen bat ezagutuz gero ez bazenuen larrua kale gorrian edo autoan jo nahi, *Pepe* ostatura joan behar zenuen, Santa Maria kalean. Pepe hori gizon homosexuala izanik be, ezkonduta zegoen eta alaba bat be bazuen. Zu ostatura sartzen zinen eta:

- *Arratsaldeon, tokirik bai?*

Toalla bi ematen zizkizuten, sartutakoan ordaintzen zenuen, gelara joan eta bertan gura beste denbora ematen zenuen. Autoa zutenek Artxandara be joan zitezkeen. Neu be lehen autoa erosi nuenean, seat 127 haietako bat, maiz joaten nintzen Enekurira, *Fatima* elizaren atzekaldera. Casilda Iturrizar parkera joateko ohitura beranduago hasi zen. Eta ezin dut aipatu barik utzi Areatzan be, egun txoznak ipintzen dituzten gunean, egundoko saltsa izaten zela. Aparkalekuan autoa utzi eta beti aurkitzen zenuen ezagunen bat. Harekin berbetan zeundela etortzen ziren auto guzitak zelatatzen zenituen eta gustuko gizonen bat agertzen zenean ekiten zenion kortejoari. Areatzan be sexua lortzea erraza izaten zen. Ez dakit zergatik baina halako batean giroa epeldu egin zen hor eta jendea parkera joaten hasi zen.

Eta jakina, txortan egiten zen hiriko komun publiko gehientsuenetan, batez be *Corte Ingles* ondoakoetan eta Areatzako zubipean zeuden haietan. Eta modan jarri zen beste toki bat *Ideal* zinema aretoa izan zen, toki benetan historikoa nire kintako gizon homosexualentzat. Hiru solairuko areto bakarra zenean Ideal izena zuen eta egoitza hainbat areto txikitan banatu zutenean, *Ideales* izena hartu zuen, orain *Iris* hotela dagoen horretan. Hirugarren solairuan jende gehiago izaten zen korridorean butakan filma ikusten baino eta larrua jotzen genuen patxada ederrean, bai komunean bai butaketan.

Beranduago, EHGAM sortutakoan *Txoko Landan* dantzalekura joaten ginen. Baina hori, diodan bezala, urte batzuk beranduago izan zen. 80. hamarkadaren hasieran izan zen hori, nik ordurako 27 urte banituen eta Bilbon gay giroko taberna piloa zegoen.

1983an mutil bat ezagutu nuen *Balcon de la Lola* hartan eta lagun egin ginen. Hurrengo urtean berak Bartzelonara joan behar izan zuen behar egiten eta hura bisitatuz ezagutu nuen nik Bartzelonako gay giroa. Oraindik ez zegoen taberna askorik eta zeuden haietan ez zegoen gela ilunik. Halanda be, ordurako *Chad* izeneko dantzalekua martxan zen, Diagonal kalean, baina ez zen egungo *Chad* bera, oraingoak badu eta gela iluna. Izena gogoan ez dudan arren, beste toki bat be ezagutu genuen, oso bitxia, bertan transformisten ikuskizunak eskaintzen zituzten eta. Urte batzuk beranduago laguna Madrilera bidali zuten eta hor be, berdin, hiriko giro homosexuala ezagutu nuen. Artean Chueca ez zen gaur egungo Chueca.

Begiradak, horrek ez zuen hutsik egiten

Egun gauzak arras ezberdinak badira be, indarrean dira oraindik ligatzeko orduan erabiltzen genituen moduak eta horietan, dudarik ez, begiradak jaun eta jabe izaten segitzen du. Mutilak ehitzatzeko begirada lakorik ez zegoen. Esan gura dut, ni Kale Nagusian gora

nindoala gustuko nuen edozein mutilari begira geratzen nintzaion, berak begiradari eusten bazion nik pausatu egiten nuen ibilkera. Gurutzatutakoan nik buruagaz atzera egiten nuen begira segitzen zuen edo ez ikusteko. Begira ez bazegoen, nik neure bidetik jarraitzen nuen. Baina begira bazegoen, orduan geratu egiten nintzen inguruan topatzen nuen lehengo erakusleihoaren aurrean. Berdin zion andrazkoen lentzeria saltzen bazuten be, hor geratzen nintzen bestearen zain.

- *Zertan zabiltza?*
- *Hemen, bueltatxo bat ematen.*
- *Zerbait hartu gura? Edo, zerbaiten bila zabiltza?, presaka zabiltza?*
- *Ez, ez dut presarik.*

Garai haietan horrela izaten zen mutil ehitza. Edozein tokitan gerta zitekeen baten bat ezustean ezagutzea. Edozein tokitan, benetan. Eta ligatzen zenuen ez bakarrik txortan egiteko. Nik oraindik baditut garai haietan horrela ezagutako lagun minak. Horrela ezagutu nuen 30 bat urte, nik baino 5 gehiago, zituen gizon bat. Lagun harek etxebizitza lortu zuen eta hor elkartzen ginen domekero. Egun 65 urte izango ditu eta maiz elkartzen gara oraindik etxe hartan. Urte haietan *Ideal* zineman ezagututako beste gizon bat be askotan ikusten dut. Denda dauka eta hara joaten natzaio agurtu eta berba egitera.

Garai haiek poztasunez gogoratzen ditut. Gabon zahar gau bat gogoratzen dut bereziki. Hurtado Amezaga kaleko etxe batean egundoko parranda egin genuen. Ez dut gogoan zelan heldu nintzen etxe hartara baina 60 edo 70 lagun batu ginen festa hartan, den-denak gizon homosexualak. Gau hartan inoiz egin gabeko dantza guztiak dantzatu nituen eta izugarri disfrutatu nuen. Jende askok oraindik poz handiz gogoratzen du Gabon zahar gau hartako parranda hura.

Urte haietan koadrila bi txandakatzen nituen, lagun heterosexualak batetik eta homosexualak bestetik. Saunara, esaterako, astean zehar joaten nintzen beti eta zapatu gauetan lagun heterosexualekin geratzen nintzen. Hori bai, goizaldeko ordu batak aldera nekatuta nengoela esan eta, etxeratu beharrean, *Godarfri* tabernara joaten nintzen. Taberna *Charcu* goitizenaz ezagutzen genuen Jose Antoniorena zen eta hor elkartzen nintzen lagun homosexualekaz. Azkenean koadrila heterosexuala utzi nuen apurka-apurka guztiek andregaia hartu eta baztertuta sentitu nintzelako. 1984 urtean neuk be neure etxea izatea lortu nuen eta kasualitatez, etxe ondoan neska lesbiana bik kudatzen zuten *Piper* izeneko taberna zegoen. Ugazabak neskak ziren arren, lesbiana gutxi sartzen zen hor, gehienak gizon homosexualak izaten ginen.

Atzera begiratzen dut iraganeko kontu haiei errepasoa emateko eta ohartzen naiz sasoi guztiak izan direla onak, guztietan disfrutatu izan dudala. Egia da egun 25 urte banitu, orain dakidan guztia jakinda, orduan baino are gehiago ligatuko nukeela. Baina ezin naiz kexatu. Denetarik pasa izan dut, biziki disfrutatu dut eta asebetetzeraino bizi izan naiz. Garai guztietan ditut oso oroitzapen goxoak, bai orduan bizi izandakoak, baita orain gozatutakoak be. Gogoan dut Aste Santuan Benidorm aldera joaten hasi ginenean, orain 20 bat urte. Egundoko giroa zegoen orduan, tabernak lepo beteta egoten ziren eta arazoak izaten ziren sartzeko. Aurton berriz, txundituta geratu nintzen, taberna guztiak hutsik zeuden, ia inor ez zebilen. Hiri harenak egin zuen.

Bilbon, hildako dezente

Zein latzak izan ziren hiesaren urteak! Ezagun larregi zendu zitzaidan. Jende bat gaixotu egiten zen ezustean eta hurrengo albistea zen hila zela. Pandemiaren krisia EHGAMeko kide bezala bizi izan nuen eta taldean berebiziko ahalegina egin genuen gaitza eta homosexualitatea lotzeko zegoen joera hura indargabetzeko. Izan ere, min handia egin ziguten *minbizi arrosa* bezalako aipuek. Hasieran gainera, arazorik larriena informazio eza izan zen. Jendea erruz hiltzen zen eta ez genekien zerk gaixotzen zuen, zelan kutsatu ziren, zergatik, ezer ez genekien. Gizon homosexualok izututa bizi ginen. Ez dut ahazteko pasadizio nahiko larri bat: Halako batean Zazpi Kaleetan nenbilela, Bilbon oso-oso ezaguna den gay bategaz egin nuen topo eta agurtzera joan nintzaionean zera bota zidan:

- *Ez nazazu ukitu, arren! Gaitza izerdiaren bitartez kutsa daiteke eta.*

Bilbon jende asko hil zen. Beldur handia zegoen eta kontrakoa dioena edo gezurretan ari da, edo ez zen ezertaz enteratu. Eta kutsadura semenaren bidez gertatzen zela jakin genuen arte, kondoiak bazirenik ere ez genekien. Nik neuk ez dut argi noiz jabetu nintzen preserbagailuak izan bazirela. Ikaragarria izan zen. Oso gogoan dut, hori bai, horretaz ez zela berbarik egiten, hedabideek be ez zutela ezer aipatzen. Adiskideak faltza zitzaizkigula ohartzen ginen, aspaldian ez genituelako ikusi eta halako batean esaten ziguten hilda zeudela. Gaur oraindik ez dakit hildako batzuk zelan hil ziren, hiesak jota zendu ziren, edo ez.

Izua bera bezain larria izan zen, bestalde, hiesaren inguruko estigma. Neuk be sufritu nuen halakorik. 1988an izan zen, hepatitis batez gaixotu nintzenean. Ez nuen sekula kolorea galdu, txiza be ondo ateratzen zen, baina neka-neka eginda negoenez lantokian hainbat analisi egiteko agindu zidaten. Emaitzaren arabera, transaminasak altuegi zeuden. Azterketa errepikatu behar izan nuen eta hor atera zen hepatitisak jota nengoela. Hepatitisa zen, kitto. Lasai geratu nintzen baina *Piper* tabernako bezeroen artean zabaldu zen hiesak jota nengoela hamar bat kilo galdu nituelako. Eskerrak banuen lagun bat Gurutzetan erizaina zena eta hark egin zigun eskupetik gib birusaren azterketa mutil-lagunari eta bioi. Garbi atera ginen eta horrexek utzi zuen zurrumurrua indar barik. Baina ordurako gezurra ondo hedatua zegoen.

Eta zoritxarrez, bere horretan dirau hiesaren gaineko estigmak. Orain urte dezente Bartzelonan izan nintzen lagun bat bisitatzen eta hark esan zidan:

- *Xabier, joan baino arinago zugaz egin behar dut berba. Esan behar dizudanagaz kezkatuta nago, esan egin behar dizut baina ez dakit zelan hasi.*
- *Bada, hasi zaitez eta kitto!*
- *Gib birusa harrapatu dut.*
- *Medikutara joan zara?*
- *Bai.*
- *Botikak hartzen hasi zara?*
- *Bai.*

- *Orduan, zer axola dio. Badakizu zer egin behar duzun, tratamenduari eutsi, zeure burua zaindu eta txortan egiten duzunean kontuz ibili.*

Hori lasaitasuna hartu nuena hori guztiori esan nionean. 15 urte pasa dira eta primeran dabil. Eta hori azken boladan 7 eta 10 kilo artean galdu dituelarik, baina bazuen horren premia, bai.

Bizkaian, 2013ko urrian

MIKEL

- **Onartzen dut bizitzan asko gozatu dudala eta sexuari dagokionez oso pertsona eraginkorra izan naizela**

Mikel naiz, 58 urte ditut eta Donostian jaio nintzen arren 29 urte bete arte Errenterian bizi izan nintzen. Bertan bizi naiz orain, 14 urtez Bilbon izan ondoren herrira itzuli bainintzen. Lanean 15 urterekin hasi nintzen eta lantoki batetik bestera ibili nintzen 45 urte bete nituen arte, duela 14 hiesaren ondorioz gaixotu eta erretiroa eman baizidaten.

Beti izan naiz oso bihurria. Lanean horren gazte hasi banintzen, horregatik izan zen, Lanbide Hezkietako ikasketak utzi behar izan bainituen izaerak hartaratuta. Egia osoa esan behar badut, ikastetxeko zuzendariak bota ninduen. Hura zen hura faxista galanta! Aspaldi zebilen nire kontra eta 1973 urtean, ikasleen greba antolatu zuen taldeko kide izatea leporatu zidan. Aitortu behar dut Burgosko Auziak berebiziko eragina izan zuela nigan eta une horretan hartu nuela kontzientzia politikoa. Horregatik utzi nuen eskola, jasanezina egiten zitzaidalako bertan biziarazten zidaten egoera. Esan behar dut, gainera, neska eta mutilak elkarrekin geunden eskola batetik nentorrela eta nik nahasketa hori behar nuen lasai egoteko. Lanbide Heziketan mutilak besterik ez geunden eta horrek ito egiten ninduen. Neskekin hobeto moldatu izan naiz beti. Lagunak ginen, haiek ziren konfiantzazko lagunik minenak, haiekin jolasten nuen, harremana lantzen genuen eta primeran pasatzen genuen.

Mutilek, niri, ez zidaten graziarik egiten. Ez nituen gogoko ez haien jarrerak ez portaerak. Hain ar, hain gizontxo ikusten nituen, baztertuta sentitzen nintzela. Aldaketa izugarria izan zen. Ni ez nengoen gustura haiekin. Haientzat futbola besterik ez zegoen eta kirola eta lehiaz aparte ez zitzaien besterik sartzen buruan. Eta horrek guztiorrek niri ez zidan ezer esaten. Lanean hasi nintzen hortaz, erretiroa eman zidaten arte.

Besteak bezalako mutikoa

Umetan nik ez nekien, ez neukan argi zer zen heterosexuala izatea, ezta zer zen homosexuala izatea ere. Sexualitateak erakarri egiten ninduen, hori bai. Nire baitan sentitzen nuen premia zen, bilatu nahi nuen zerbait, bizi-bizi zegoena. Baina sexualitatea zen, ez heterosexualitatea, ez homosexualitatea. Gogoan dut ez nintzela gainerako mutikoak bezalakoa eta hargatik irainak jasotzen nituela, edo burlak garai hartan orain iraintzat hartzen direnak: *neskato* esaten zidaten, *maritxu bat zara* esaten zidaten, *marikita halakoa!,* horrela esaten zidaten. Eta nik ideiarik ere ez nuen hitz horiek zer esan nahi zuten. Gogoan dut auzokoek, etxekoandreek batez ere, femeninoz hitz egiten zidatela eta poz-pozik hartzen nuen. Horrek ez zidan arazorik sortzen, inolako erru sentimendurik ez. Neskatzat hartzen ninduten eta ni gustura nengoen, ohartu gabe, jakina, izan nintekeela, edo ez, homosexual. Gainerako mutikoekin alderatuz gero, ezberdina nintzela argi neukan, ez nintzelako haiek edo nire anaiak bezalakoa.

Nik bi anaia eta hiru arreba ditut. Haiekin guztiekin eta gurasoekin bizi nintzen. Inguruan genituen, baita , Extremaduratik etorritako lehengusuak eta izeba-osabak. Giro hartan nahiko garbi zegoen ez nintzela nire anaiak bezalakoa. Nik banekin, edo susmoa banuen, hobeto esanda, ez nintzela inoiz ezkonduko. Nire anaiek bazekiten ezkondu egingo zirela eta seme-alabak izango zituztela. Neuk berriz bakarrik bukatuko nuenaren irudipena nuen, esan bezala, ez nintzela inoiz ezkonduko. Ez nuke jakingo esaten susmo hori zergatik nuen horren errotuta, baina halaxe zen. Nire izaeragatik izango zen, aldarteagatik, ez dakit. Ez nengoen inoren manipulazioa jasateko prest. Libre izan nahi nuen eta ezkontza, niretzat, lotura astunegia zen.



Sexualitateak biziki erakartzen ninduen, nahiz eta harreman sexualak aipatzen ziren guztietan ernalketatik haratago ez zen ia ezer aipatzen. Hori bai, 10 edo 12 urte nituela herriko liburutegira joaten nintzen eta sexualitateaz hitz egiten zuten liburu guztiak begiratzen nituen. Hor ezagutu nituen, argazki eta irudien bidez, gizon eta emakumeen gorputz atalak. Liburuotan ikasi nituen sexu-organo guztien izenak eta buruan sartuta ditut haurdun zeuden emakumeen sabelei egindako argazkiak. Horretaz guztiaz, ernalketaz eta ugalketaz, alegia, irudi piloa zegoen, homosexualitateaz berriz, ezer ere ez.

Maritxuak eta marikoiak besterik ez

Umetan ez dut uste inoiz ezer entzun nuenik homosexualitateari buruz. Hitza ere ez nuen ezagutzen. Orduan *marikoiak* eta *marikak* besterik ez ziren aipatzen, horiek eta *mutilzaharrak*. Hitz horiek gainera, mezpretxuz erabiltzen ziren beti. Gogoan dut nik 11 urte nituela auzoko guztiek gizon baten izena zerabiltela ahoz aho. Ile-apaintzailea zen eta gure etxetik urrun samar bizi zen. Gure aitak beste ile-apaintzaile batengana eramaten gintuen. Nik ez nuen hura batere gogoko. Ez zitzaidan gustatzen nola mozten zigun ilea, artesi eta guzti. Horrexegatik, etxekoei ezer esan gabe beste ile-apaintzaile harengana joan ninzen bakar-bakarrik, guztiek iraintzen zuten gizon harengana, hain zuzen. Haren etxean sartutakoan oso lasai sentitu nintzen. Eta izugarri dotore utzi ninduen, nik horren gogoko nuen orrazkerarekin. Izan ere, handik urte askotara gizon hura hil zela jakin nuenean, egundoko tristura sartu zitzaidan. Herriak hainbeste sufriarazi zuen gizona joan zitzaigun. Gizondutakoan ohartu nintzen gizon hark jasandako sufrikarioaz: han goian bizi zen *marikoi* hark. Gizon hartaz entzuten genuen bakarra mespretxuzko hitzak ziren, den-dena zen txarra. Eta hartaz guztiaz ni bezalako umemoko batek atera zezakeen zentzuzko ondorio bakarra zen *marikoia* izatea oso gauza txarra zela.

Ordurako ni jabetuta nengoen neskek ez nindutela sexualki erakartzen. Auzoko neskekin oso gustura jolasten nuen, baina lagunak ginen, besterik ez. Zorionez, gu bizi ginen auzoa artean nahiko zonalde basatia zen, mendiz inguratuta eta bertan nahiko jende gutxi bizi zen. Inguruan dena zen mendia, zuhaitz askorekin. Naturaz inguratuta ni pozarren bizi nintzen. Urtero, maiatza aldean, lore sortak eskutan joaten nintzaion amari etxera eta txikitan

landarez eta lorez egindako soinekoekin janzten ginen. Giro hark ez zuen zerikurisik Errenteria gerora izan den porlan inguruarekin.

Udan, gainera, lagun baten baserrira joaten nintzen eta bertakoei laguntzen nien belarra mozten, ukuiluak garbitzen eta ganaduari pentsua ematen. Edo auzoko beste lagun batekin elkartzen nintzen, haren aitaren zaldiak zaintzen. Polita zen gero mutil puska hura. Dendena zuen hark zoragarri: ilea, orrazkera, ilearen kolorea, aurpegia eta gorpuzkera. Egun, oraindik, ikusten dudan bakoitzen liluratuta uzten nau. Aitaren lagun baten semea zen eta 30 edo 40 zaldi zituen bere ardurapean. Garai hartan nik 10 urte nituen eta hark nik baino 9 gehiago. Uda heltzearekin batera zaldiekin joaten zen mendian barrena eta nik eskolan piper egiten nuen harekin joatearren, biok bakar-bakarrik egotearren. Inoiz zaldi berean joaten ginen biok eta nik beso biak jartzen nituen estuki haren gerriaren inguruan. Itzela, benetan.

Lehenengo hartu-emanak

Mutilekin izandako lehen hartu-eman fisikoak Lanbide Hezkuntzako eskolan izan ziren, nik 14 urte izango nituenean. Hori baino lehenago auzoko mutiko zaharrenak ikusiak nituen kanpaia jotzen, bide zaharrean. 15 eta 18 urte artean izango zituzten haiek eta auzoko mutil guztiak joaten ginen txoko hartara elkarrekin hankartekoari astindu ederrak ematera. Baina beste gizon baten gorputzarekin izandako lehen harremana, eskolan izan zen. Ikaskide batek zakila erakutsi zidan eta idiarena jo niezaion utzi zidan. Oso esperientzia atsegina izan zen hura. Polita egin zitzaidan zakila nola gogortzen zen ikustea, nola hazten zen, itxuraz nola mudatzen zuen. Gogoan dut une zoragarria izan zela egun hartakoa, ondo pasa nuela eta izugarri gustatu zitzaidala.

Donostiako hondartzara joaten ginenean txundituta begiratzen nituen mutilak eta haien bainujantziak. Ez nekien ondo zergatik, baina begiak haien hakartera joaten zitzaizkidan. Gainerako mutikoek neskak zituzten hizpide: haien titi mardulak, haien ipur masailak. Nik nahiago izaten nuen gizonei erreparatzea, haien paketeak, zakilak, potroak... Gizonei begira, bainujantzian ezkutatzen zuten guzti hari begira aho bete hortz geratu ohi nintzen. Ordurako banekin neurea gorputz sexuala zela, kanpaia jotzen nuenean nire zakilak egundoko plazerra eragiten zidala. Falta zitzaidana eta lortzeko irrikitan nengoena zera zen, plazer hori norekin partekatu, norekin gozatu. Galderaren harrak habia egina zuen neure burmuinean: nolakoak izango dira?, berdinak ote?, ezberdinak?, nola izango da elkarrekin egotea?

Hitz iraingarriak

Horrek guztiak ez du kentzen txikitandik buruan sartuta izan nuela sexua bekatu zela, kaltegarria eta txarra. Oso ondo gogoratzen dut beldurrez bizi nuela sexualitatearekin zerikusia zuen guztia. Oso bizipen korapilatsua zen, okerra, kontraesankorra. Azken batean,

hori zen txikitandik jaso genuen informazioa. Eta informaziorik okerrena, beldurrik handiena eragin zidana eta izu handiz hartzen nuena apaiz *alu* batek ematen zidana izaten zen. *Zerrikume* hark esaten zizkidanak gehiegikeriak ziren! Haren hitzak zama handia ziren niretzat eta larritasun eta egonezin handiz hartzen nituen.

Eskerrak haren eliza berean bazen beste apaiza bat, herrian oso ezaguna eta maitatua zena eta izan nuen harekin guztiz bestelako harremana lantzerik. Beste hau sotana bazterrean utzi eta langile gisa hasi zen. Jatorra zen gero, gizona. Eta ogi koskorra bera baino gozoagoa! Hori ere aitortu beharra daukat. Behin hondartzan nenbilela ikusi bainujantziarekin nuen eta tonto-tonto utzi ninduen. Nik 14 bat urte izango nituen eta liluragarria izan zen neure begiek ikusten ari zirena, sotanaren edo lan-jantziaren azpian ezkutatu ohi zen gorputz mardul hura. Hura zen hura gizon katxarroa! Izugarria, benetan!

Gaztetan nire sexu jarduera bakarra aldizkari pornoekin izaten nituen kanpai joaldiak izaten ziren. Hori eta Hendaiara egiten nituen ihesalditxoak X filmak ikusteko. Denbora luze batez sexua neroni emandako plazer bakartia izaten zen. Horrela ibili nintzen neure gorputza beste mutil bati eskaini nion arte, nolabait esatearren beste batek mendean hartu ninduen arte. Bion arteko laztanak, musuak, batak bestearen zakilari emandako zurrupadak, hori guztia zoragarria egin zitzaidan. “Baina” bakarra sarketa izan zen, min egin zidalako. Minak min, hala ere, hor hasi nintzen sexualitatearen alde are helduagoa, ezberdinagoa eta garatuagoa ezagutzen.

Donostian gertatu zen lehen txortaldi hura, gay askapen mugimenduaren batzar baten ondoren. Egun hartan mutilak baino ez ginen izan bileran. Batzarra bukatutakoan bazkaltzera joan ginen denak elkarrekin, ondoren pote batzuk hartu genituen Alde Zaharrean eta gauean bilbotarrek hartua zuten ostatuan amaitu genuen guztiok. Bertan pasa genuen gaua lau mutilek bi ohetan. Gau hartan izan nuen nire lehen sexu harremana, harreman hitzak duen esanahi osoarekin, beste gizon batekin. Nik 21 urte nituen.

Donostian ordurako ezaguna zen *Cuesta del culo* deitzen genuen zonaldea, Mirakontxan. Hura ez zen munduari irekitako gunea, munduaren barruan zegoen beste mundu bat baizik. Bertan, gizonak ezagutzeko aukera eskaintzen zuten taberna sorta zegoen: *Master, Valentino, Mostacho, Cul, Malmesón*… Beste taberna bi ere bazeuden, *Txirula* eta *Maruxa*, baina aldapatik kanpo aurkitzen zirenak. Aitortu behar dut gune hori ezagutzeak bizitza aldarazi zidala. Ordurako oso gazte bizi eta bihurria nintzen ni. Oso argi nuen sexu grina guztiak agerian eta askatasun osoz bizi nahi nituela. Oso agerian, gainera. Kalean atsegin nuen mutil batekin topo eginez gero, berehalakoan nabarmenduko nintzaion eta lotsarik gabe hurbilduko: goitik behera begiratuko nuen, adi-adi geratuko nintzaion, atzetik joango nintzaion edo zuzenean berarengana joan eta agurtu egingo nuen. Berak bere bideari jarraitzea zeukan edo, alta, burua bueltatzea zeukan, bost edo hogei metro aurrerago geratu, atzera egin eta niregana etorri. Biok bide erdian elkartuko ginen.

Ni hasi nintzen askatasun osoz bizitzen, edo neuk erabakia nuen askatasun osoarekin bizitzen. Eta onartzen dut beharbada lotsagabeegia ere banintzela. Hori bai, inor iraindu gabe. Lotsagabe eta era berean, libre. Mutil bat gogoko banuen, ni joango nintzaion eta zuzenean esango:



Mikel Errenterian egindako herri asanblada batean hitz egiten.

- *Kaixo, zer egiten duzu hemen?, bueltatxo bat ematen?, hitz egiterik nahi?, bueltatxo bat emango dugu elkarrekin?*

Eta horrekin, nolabait, argi adierazten nion berarekin oheratzeko prest nengoela. Hori gertatzen zitzaizun, edo gerta dakizuke gaur, edozein tokitan. Denborarekin ohartu nintzen Donostian bazirela toki bereziak mutiletan ibiltzeko. Eta Donostia aipatu dut Errenteriatik alde egiten nuelako, bertan ez bainuen nire adineko inor ezagutzen. Donostiara etortzen nintzen, edo Iruñera edo Bilbora joaten nintzen mutilak bilatu eta haiekin larrua jotzera. Hiri guztietan zeuden toki bereziak mutilak mutilekin dantza egin, edan, abestu, besarkatu edo bakoitzaren ahalmen eta jaiotasunen arabera bururatzen zitzaion guztia egiteko. Hori guztia gay tabernetan egin zitekeen, gizonen arteko harremanak ahalbidetzeko hiri guztietan zeuden tabernetan. Egia da taberna guztiak ez zirela berdinak eta horietako batzuk ez zirela ageri-agerian gay taberna bezala agertzen. Gogoan dut orain 34 urte taberna horietako batera sartu nintzela EHGAMeko txartelak ipini asmoz eta bertatik bota egin nindutela hura ez zelako, jabearen esanetan, *maritxuen* taberna.

Maritxu esan dut, ez inor iraintzeko asmoz baizik eta hori zelako garai hartako hizkera: *marikoiak* eta *homosexualak*, horrela hitz egiten genuen guk. *Gay* hitza beranduago heldu zen eta nik beti erabili izan dut kutsu politikoarekin, askapen hitz bezala, alegia. Egun oraindik, *gay* hitza, niretzat, funtsean askapen terminoa da.

Geroago konturatu nintzen tabernak ez zirela mutiletan aritzeko leku bakarrak, Kontxako arkupeetan ere mugimendu dezente egoten zela, batez ere gauetan. Amaran bazegoen beste toki bat, burnizko zubiaren bestaldean. Zubi berriarekin auzoa eraberritu egin da erabat baina orduan trenbidearen inguru guzti hori hirigunetik oso aparte geratzen zen. Halako batean akordatu nintzen entzunak nituela txikitan toki horren kontrako aipuak. Bertara ez zegoela joaterik esaten ziguten, oso arriskutsua zelako. Azkenean ulertu nuen, noski, tokia arriskutsua zela gizonez beteta egoten zelako.

Seropositiboa naiz

Onartu behar dut bizitzan asko gozatu dudala eta sexuari dagokionez, oso pertsona eraginkorra izan naizela beti. Urte batzuk Bilbon eman nituen eta Madril, Bartzelona edo Valentzia bezalako hiri handiak ezagutu nituen. Hiri guztietan aurkitu ditut mutiletan aritzeko tokiak, kale gorrian egon diren toki bereziak. Izugarri maite dut txortan atari zabalean egitea: zuhaitz baten azpian, harkaitzen artean, aparkalekuan... edozein tokitan gozatu dut. Halako batean, duela urte dezente, seropositiboa nintzela esan zidaten. Berebiziko zirrara eman zidan albisteak, nahiz eta nik banekin arriskua hor zegoela eta egiazkoa zela. Benetan diot ez nintzela askorik asaldatu, ez nintzela gehiegi izutu. 15 urte bete nituenetik oso bizi gogorra izan dut nik, *marikoia* izateaz aparte, iraultza egin asmoz borroka politikoan buru belarri sartuta egon bainintzen. Artean 16 urte bete gabe, klandestinitatera pasa nintzen eta ezkutuan eman nituen bost urte, Franco diktadore madarikatu hura hil zen arte. Egoera hartan nik banekin bizitza egunero arriskatzen nuela, heriotzaren mehatxua egunerokoa zela. Nik oso argi nituen klandestinitatearen ordainak zein izan zitezkeen eta heriotzari beldurrik izan gabe bizitzen ikasi nuen.

Gai horiek aipatu ditudala, gogora ekarri nahi ditut borroka politikoan sartuta egon nintzen urte haiek. Izan ere, nire erakundeko arduradun batek, emakume batek, bultzatu ninduen EHGAMeko jendearekin harremanetan jartzera. Nik ezer erabaki aurretik, hark animatu ninduen gay askapen mugimendua ezagutzera. Emakume hura ezin izango dut inoiz ahaztu. Biziki maite izan nuen. Horrekin adierazi nahi dut neure alderdian, Euskadiko Mugimendu Komunistan (EMK) lan handia egin genuela sexu askapenaren mesedetan. Alderdiaren barruan gay esta lesbianen egiturak sortu genituen, lehenik Euskal Herrian eta ondoren Espainiako estatuan. Egitura horrek kanpora begira egiten zuen lan, baina baita alderdi barruan ere, burkideekin izugarrizko lan ideologikoa egin baigenuen. 80. hamarkadako urteez ari naiz. Horrek ez du kentzen, eta hori ere aitortu behar dut, alderdikide guztiak primerakoak zirenik. Lesbiana zen kide batek behin kontatu zidan, esaterako, nola burkide batek esan zion lasai egoteko, topatuko zuela erakundearen barruan zoriontsu egingo zuen gizona. Gauza horiek gurean ere gertatzen ziren.

Gib birusa eta hiesaren harira itzulita, ezin dut ukatu pandemiak izugarrizko eragina izan zuela gizon homosexualengan. Hasierako urteak beldurrez bizi izan zituen jendeak, izu handiz, hastapeneko urte haietan birusa harrapatzeak heriotza zekarrelako, bai eta bai. Arestian esandakoa onartuta ere, ez dakit oso ondo zein puntutaraino jakin banekien nik kutsatu nintekeela. Zeren, egia baita, ez nintzela gertatutakoaz ohartu oso gaixorik egon nintzen arte. Jakin nuenean onartu nuen, hori bai. Erabaki nuen ahalik eta lasaien biziko nintzela birusarekin, saiatuko nintzela beldurrik gabe bizitzen, aurpegia emanez gainera. Gaixotasunari aurre egitea erabaki nuen eta neure burua zainduko nuela ere bai. Era berean, aurrerantzean osasun eragile izango nintzela pentsatu nuen, osasunaren alde eta sidofobiaren kontra borrokatuko zuen eragile gogotsua. Baina hiesak erabat aldatu zuen nire bizitza, sexu harremanei dagokionez batez ere. Ordu ezkeroztik gizon hurkoarekiko harremanak arras ezberdinak dira niretzat, orain bai baitakit zer egin dezakedan eta zer ez. Oherakoan zurekin dagoen gizonari seropositibo zarela aitortzea oso zaila da, oso gogorra. Zure egoerak jendea beldurtzen du eta zuk beldurrez bizi duzu bestearen errefusa. Gaitzespena larrutik ordaindu dut eta horrek segurtasun-gabezia eragiten du norberaren buruan.

Ipurdi paregabe hura

Botika antiretrobiralei esker goitik behera aldatu zen gaixotasunak gugan eragiten zuen hondamendia. Baina ezin ditugu ahaztu gaixotasunaren hastapenak eta hasierako urte latz haiek. Urte haietan hartutako hainbat botikek gure gorputzean eragin zuten itxuraldaketa larria izan zen. Atzean geratu zen ipurdi paregabe hura, zureak ez dira jada beso gihartsuak, bularraren dirdira itzali egin da eta zure aurpegia orain ez da zoragarria. Itxuraldaketa erabatekoa izan zen. Handik aurrera nire gorputza ez zen izango erakargarria

inorentzat, lagun hurkoaren begien gustukoa. Gay munduan gorputzarenganako miresmena handia izaten segitzen badu ere, esango nuke azken boladan gero eta nabarmenagoa dela gorputzatik haratago pertsona balioztatzeko dagoen joera.



Baina, noski, nik egin dudan moduan baten batek aurpegia ematen badu eta jende guztiak badaki seropositiboa dena, zaila izango du hark edonorekin txortan egitea. Horixe gertatzen zait niri. Eta bada bitxia beldur hori. Izan ere, egun bere burua zaintzen duen seropositiboa, botikari esker birusa maila neurtu ezinean mantentzea lortu badu, *de facto* arriskutsu izateari utzi dio. Arriskua oraindik badago, noski, asko direlako kutsatuta egon arren bere burua zaintzen ez dutenak, edo kutsatuta daudenik ere ez dakitenak. Horiek eragiten dute arriskua eta zenbat diren ez badakigu ere susmoa dago ez direla gutxi. Horregatik kondoia guztiok hartu beharreko ezinbesteko neurria da oraindik. Birusarekin bizi garenok, geure burua maite dugulako zaintzen garen guztiok, geure burua ondo babestu beharrean gaude infekzio berriren bat saihesteko. Nik oso argi daukat lasaitasunez bizi nahi dudala nire egoera hau, naturaltasun osoz, munduko pertsonarik zoriontsuena izaten saiatuz edo, gutxienez, besteak, kutsatuta ez dauden horiek guztiak bezain zoriontsu. Saiatzen naiz neure buruari iruzurrik ez egiten eta jendartean eta zoritxarrez, birusarekin bizi diren asko eta askoren artean horren hedatuta dagoen sidofobiaren atzaparretan ez erortzen.

Gipuzkoan, 2013ko azaroan

ALBERTO

- **Umetan gizon batekaz egoterik banuen, ez nuen aukera galtzen oso ondo pasatzen nuen eta**

Ni Alberto naiz, 54 urte ditut eta bilbotarra naiz. Zentzua dudanez geroztik gizonek erakarri izan naute. Gaztetan, hala ere, nesketan hasi nintzen eta azkenean haietako batekin maitemindu eta ezkondu egin nintzen. Elkarregaz 18 urte eman genituen eta seme bat izan genuen. Ezkondunta egon arren eta emaztearekin ondo moldatzen nintzen arren, noizbehinka ihes egiten nuen gizonezkoekin txortan egiteko. Eskolan hasi nintzen sexu jolasean ikaskideekin eta garai hartan gizon batekaz egoterik izanez gero, ez nuen aukera galtzen oso ondo pasatzen nuen eta.

Pentsatzen dut eskolako ikaskideek femenino samarra ikusten nindutelako nahi zutela nirekin. Gogoan dut futbola ez zitzaidala batere gustatzen eta ikasteko, esaterako, hobeto moldatzen nintzela eskolako neskekin. Ni beti nengoen neskez inguratuta. Panpiñekin jolastea izugarri gustatzen zitzaidan eta ez nuen zaletasun hori ezkutatzen. Eskolatik irtetzen ginenean mutilekin baloian jolasten geratu beharrean, lehengusinen etxera joaten nintzen eta haiekin sukaldatzen ibiltzen nintzen, jolasean. Eta horregatik ez nituen inoiz ez irainak ez mehatxuak jasan, ez eskolan ez etxean. Ni 11 anaia-arrebetan txikiena naiz eta nire aurrekoa ere gay da. Hark bai, izan zituen arazoak etxean. Ikusten nuen anaiak zelako iskanbilak izaten zituen aita eta anaia zaharrekin eta harekin eskarmentu hartuta, ixilik geratzen nintzen eta ez nuen pausorik ematen. Horrek lagundu zidala pentsatzen dut. Niri inork ez zidan esan nire anaia zer zen, baina nik banekien. Bere gauzak miatzen nizkion eta behin baino gehiagotan harrapatu nizkion *morroien* aldizkari pornoak. Ahatik, hark sufritzen zuena ikusita, ixilik geratzen nintzen eta etxekoekin disimulatu egiten nuen.

- *Armairutik ateratzeko daude hauek!*

Behin etxerako bidean nintzela, trenean, gauza oso bitxia gertatu zitzaidan. Nik 14 bat urte izango nituen eta Gernikatik nentorren. Trena hartu nuen eta ondoan gizon bat jesarri zitzaidan. Trena abiatu zenean, disimulu handiagaz igurtziak egiten zizkidan hankan eta, ez dakit zelan egin zuen baina eskua sartzen hasi zitzaidan hanketan jarrita zeukan berokiaren azpitik. Bagoia beteta zegoen arren, inor ez zen konturatu gizon hura eta bion artekoaz. Helmugara heldu nintzenean trenetik korrika irten nintzen eta ihes egin nuen etxerantz.

Zelan egin zuen gizon hark nik eskua sartzen utziko niola konturatzeko? Ez dakit. Baina ez zen izan oilalokarena egiten nindoalako, ni formal-formal nihoan eta. Arrisku handian egon ginen gu biok, trenean ezagunen bat joan izan balitz gerta zitekeen-eta etxekoei kontatzea.

Gizondutakoan, artean ezkonduta nengoela, lagun bat eta biok joaten ginen gizonetan egitera. Hura Bartzelonan bizi da orain eta badira 20 urte elkarren berririk gabe, baina garai hartan elkarrekin joaten ginen gizon ehizara. Laguna nitaz maiteminduta zegoela uste dut eta emaztea utzi eta beste batekaz hasi nintzela ikusi zuenean, minduta amaitu zuen. Lagunak ginen, inoiz oheratu eta txortan egin genuen baina, hortik aurrera, ni ez nengoen beraz maiteminduta. Elkarrekin ibiltzen ginen mutilen atzetik, batez be komun publikoetan: Kale Nagusian *Corte Ingles* ondoan, Casilda Iturrizar Parkean eta goian, Begoñan, besteak

beste. Kasualitatez aurkitu genituen komunak, behin txiza egiteko premiaz sartu ginen, bertan zegoen mugimenduaz jabetu eta ohiko bihurtu ginen.

Beharretik ihesean, txortan egitera

Batzuetan lagunarekin joaten nintzen eta beste askotan bakarrik. Beharrean ere nire *ihesalditxoak* egiten nituen *bonbonerara* joateko, horrela deitzen genituen-eta txortan egiteko erabitzen ziren komunak. Eta gauez *Balcon de la Lola* aldera joaten nintzen, *Feve* tren geltokiaren ondoan.

Soldadutza Bartzelonan egitea egokitu zitzaidan eta hilabete haietan gura beste jo nuen larrua bai X filmak ematen zituzten zinematan, bai Sans tren geltokiko komunetan. Azken toki horretan zegoen saltsa gehiegizkoa zen, sartu eta berehala konturatzen zinen zenbaterainoko mugimendua zegoen bertan.

Kalean ere ligatzen nuen, begiradei esker. Begirada azkar bat nahikoa izaten zen, bestea ere bazen edo ez jakiteko. Mutil bati begiak bota eta hark begiradari eusten bazion, beharraren erdia egina zegoen. Berehala ohartzen zinen, ez dakit senak hartaratuta zen edo zergatik zen baina ziztu bizian konturatzen zinen. Hasteko, begietara botatzen nizkion begiak eta ondoren, beheraxeago. Ez nion bakarrik paketeari erreparatzen, merkantzia osoa aztertzen nuen, goitik behera.

Ikusten nuena ondo bazegoen begirada zorrozten nuen eta, bestela, atzera egin eta alde egiten nuen. Besteak beste horrenbeste egiten zuen nirekin: begiradari eusten zion eta onartu edo uxatu egiten ninduen. Horrela zen, edo haren gustukoa zinen edo harekin jai zenuen. Eta ez dut sekula hutsik egin. Pentsatzen dut senak agintzen duela halakoetan, hori ez dela ikasten ez irakasten. Egia da emakumeek gehiago begiratzen diotela elkarri, lasaitasunez eta naturaltasun osoz eta horregatik haien artean ez da ezer gertatzen. Gizonezkoen artean berriz, besteak ez badu aditzen edo ez bazara haren gustuko, begirada kenduko du, eta kitto. Eusten badio baina, hura be *maritxu* galanta!

Bilbon, gaztetan, Begoñako *bonbonera*ra joaten nintzen ligatzera, basilikako aparkalekuko komunetara, alegia. Komunetan nor sartuko zelatan egoten nintzen arren, ez nengoen inoiz geldirik, batera eta bestera mugitzen nintzen zertan nenbilen inor ohar ez zedin. Sartu berri zena gustuko banuen haren atzetik sartzen nintzen, ondoan jartzen nintzaion, edo bazter batean eta haren erantzunaren zain geratzen nintzen. Hankarteari begiratzen nion,

begiratzeari utzi eta haren erantzunaren zain berriro: hark, edo erantzun egiten zuen, edo ospa. Batzuetan ni neu izaten nintzen barruan zegoena eta nor sartuko zain egoten nintzen. Egunaren arabera. Ez nintzen batere lotsagabea, ez beste batzuk bezala: aurrez aurre jartzen zitzaizkizun zakila tente-tente zutela, ea zuk edo beste batek zera hura harrapatuko zuen. Penagarria zen haien portaera, komunetara sartzen ziren guztiak ez ziren-eta homosexualak. Nik horregatik ez nuen halakorik egiten. Neukan *merkantzia* erakusten nuen jakina, baina besteak jakin mina erakutsi bazuen, ez bestela.

Kanpai jotze azkarra eta, hanka

Baten batek harrapatuko ninduenaren arriskua beti zegoen. Eta ez bakarrik aldiro-aldiro zelatan pasatzen ziren udaltzainak. Emazteagaz bizi nintzen urte haietan, beti zegoen ezagunen batek bertan ikusi eta etxekoei kontuarekin joango zitzaizkienaren arriskua. Horren beldur izanik gutxitan sartzen nintzen komunetako gelaskatan. Barruan ez ninduten inoiz beste gizon batekin atzemango. Komunetara grinak hartuta sartu banintzen eta besteak ez bazuen txortan lasai egiteko tokirik, hor bertan kanpai jotze azkar bat egiten genuen eta, hanka.

Handik urte batzuetara, Zabalburuko X zinema aretoak ireki zituztenean, maiz joaten nintzen bertara. Goiko aretoan saltsa handia egoten zen. Txortan, komunetan eta butaketan egiten genuen. Gogoko nuen baten ondoan jesartzen nintzen edo zutunik haren atzean eta hor ekiten nion ehiza dantzari. Batzuk aski izaten zuten kanpai jotze hutsarekin baina beste askok bete-betean hasten ziren larrua jotzen, berdin komunetan berdin butaketan, jende guztiaren aurrean.

Nik edozein aitzakia baliatzen nuen mutiletan aritzeko. Ahal nuen guztietan hies egiten nuen, baita beharrean nengoenean be. Bilbora mandatu bat egitera etortzen nintzen guztietan bueltatxo bat ematen nuen aipatu tokietan zer *ganadu* zebilen ikusteko. Saunetan eta tabernetan ez nintzen sartzen, ezagunen batek horietan ikusiko ninduen beldur. Mesedetako zubia zeharkatzea pentsaezina zen niretzat, erreka pasatzen zuten guztiek zerbaiten bila zebiltzala pentsatzen nuen eta.

Zazpi Kaleetan baziren giroko kafetegiak eta haietara emaztearekin joaten nintzen eta inoiz baita semearekin be. Baina hor ez nuen sekula mutiletan egin, inoiz ez. Berdin dantzalekura joaten ginenean. Ni ondo pasatzera joaten nintzen eta ez zitzaidan burutik pasatzen inguruko mutilak ligatzen hastea. Eta lagun homosexualik ez nuen. Gaztetako hura baino ez, mutiletan nirekin etortzen zen hura, baina auzokoak ginenez inork ez zuen gure gaineko susmorik izan, ez zertan ibiltzen ginen eta are gutxiago elkarregaz txortan egiten genuenik.

Ni baino apur bat zaharragoa zenez harekin ikasi nuen sexu homosexualaren gainean jakin beharreko guztia. Garai batez auzokoa ez zen hirugarren bat be inguratu zitzaigun, baina nire adiskidea zen gehiago harena baino. Izan zen, baita be, emaztearen lagun bat batzuetan gu biogaz parrandan ateratzen zena.

Bizimodu bikoitza

Arestian aipatu dudan bezala, 18 urte eman nituen emaztearekin eta, ezkondu baino arinago, 6 gehiago haren senargai. Bizimodu bikoitza egiteak ez zidan inolako arazorik sortzen. Jakina, askozaz be lasaiago geratu nintzen emaztearekin zintzotu eta guztia kontatu nionean. Egundoko zama kendu nuen gainetik etxean guztia aitortu nienean emazte eta semeari.

Emazteak ez zuen ezer susmatzen. Egia esan susmo txiki bat bazuen, baina hark uste zuen beste emakume bategaz nenbilela. Gizonezkoa zela esan nionean, lur jota geratu zen. Gizonezko bategaz ezin bide zuen lehiatu. Beragatik izan balitz, elkarregaz geundeke oraindino.

Dibortziatu nintzenean, aita hilda zegoen eta amak egundoko nahigabea hartu zuen. Baina gero bera izan zen ongien hartu ninduena. Amak laster beteko ditu 100 urte eta 80 zituenean kontatu nion guztia. Hark eta anaiarik zaharrenak ulertu zuten ongien guztia. Alta, jarrerarik ezkorrena eta suminduta bezala egon zena gay den anaia izan zen, ni baino 4 urte zaharragoa. Ez dakit zergatik baina, muturtuta egon ginen denbora luzean. Izan ere, mutil-lagunarekin nenbilena gure etxean jakiten lehena bera izan zen eta familia osoari kontatu zion. Nik ez nuen ezer esan, hark zabaldutakoa baieztatu besterik ez nuen egin. Gerora konpondu ziren gu bion artekoak, baina haserako bizpahiru urteetan oso gaizki moldatu ginen anaia eta biok. Eta gainerako anaia-arrebekin ez dut arazorik izan, baina batzuk artez egiten didate berba, eta besteek berriz, moldez.

Orain bost bat urte, baina, uda partean ama ez zegoela etxean aprobetxatuz, anaiak, gay denak –eta amarekin bizi denak–, mutil-laguna sartu zuen etxean. Hondartzatik bueltan ziren eta dutxa bat hartu guran joan ziren etxera. Auzoan bizi diren hiru anaiak agertu ziren bertan eta ostikoka atera zuten anaiaren mutil-laguna etxetik. Hori orain bost urte gertatu zen. Bitxia da emaztea eta biok banandu ginenean, auzoko batzuk erreguka etorri zitzaizkidala gogoratzea. Jakina, nik emaztearen 3 lagunen senarrekaz oheratu nintzen, behin baino gehiagotan. Hirurek ezkonduta segitzen dute eta seme-alabekin. Bat bera be ez da banandu.

Gizon batez maiteminduta

Iñaki ezagutu eta elkarrekin hasi ginenean erabateko aldaketa gertatu zen nire bizimoduan. Egia da ez zitzaidala askorik kosta, baina ordura artekoak zama astunegia ziren niretzat, egun batetik bestera bazterrean uzteko. Aitortu behar dut Iñakigaz maitemindu ez banintz, seguru aski emazteagaz egongo nintzela oraindik, ezkonduta eta ihes egiten segituko nuela gizonekaz txortan egiteko. Eta hori nahiz eta Iñaki ez izan lehenengo gizona nire bizitzan. Arinago beste bat ezagutu nuen, bilbotarra bera, baina utzi egin nuen hark gehiago gura

zuela ikusten nuen eta. Elkarregaz ibiltzen ginen, parrandak egiten genituen, sexua be bai, baina ni ez nengoen hartaz maiteminduta eta beldurtu egin nintzen.

Iñaki ezagutu arte emaztea maite nuen. Gizonekaz egiten nuena sexu hutsa zen. Ni zakil bat harrapatzeko irrikitan joaten nintzen toki haietara, barrua hustutzera beste barik. Hori ez zen maitasuna.

Bizkaian, 2014ko urtarrilean

IMANOL

- **Bizitzan erabaki gutxiago hartu ditut nik, bizitzak berak nigatik hartutakoak baino**

Imanol naiz, 56 urte ditut eta bilbotarra naiz. Azken 18 urteotan Iralen, sare publikoan dabiltzan maisu-maistrak euskalduntzeko Jaurlaritzak sortutako zerbitzuan ibili naiz irakasle. Bertan hasi baino arinago hainbat eskola, institutu eta unibertsitatetan ere ibili nintzen, adin guztietako ikasleekin lanean. Iralera ezustean heldu nintzen, txiripaz. Ez Iralera bakarrik, bizitzan kasualitatez heldu naiz toki gehienetara. Esan dezaket bizitzan erabaki gutxiago hartu ditudala nik, bizitzak berak niretzat hartutakoak baino. EHGAMera, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendura ere halaxe heldu nintzen, txiripa hutsez. 20 bat urte izango nituen Durangoko Liburu Azokan nenbilela bistaz ezagutzen nuen mutil bat berbetan hasi zitzaidanean. Esan zidanez, Erresuma Batuan ikasten ibilia zen eta etxeratu berria zen. Antza, gay mugimenduaren sorrera ezagutu zuen bertan eta gurean ere matxismoari, sexismoari eta zapalkuntzari aurre egingo zien antzeko mugimendua sortzeko irrikitan zetorren. Neu hain nintzen gaztea, ezjakina eta xaloa ezen asmo horiek guztiak txalotu egin nizkiola. Era berean, hori bai, ametsa iruditu zitzaidan, halako ekimena sortzea ezinezko iruditzen zitzaidan eta. Berak ondoegi esan legez, Euskal Herria oso matxista zen artean, jendea oso itxia eta erlijioak egundoko eragina zuen gure herrian. Ez nuen pentsatzen horren kontra ezer egiterik izango genuenik.

- *Zintzoki esaten dizut, ez dut uste posible izango denik. Baina zu aurrera egiteko prest bazaude, bejondeizula! Zurekin nago.*

Hori 1976ko azaroan izan zen. Nik ez nuek ikusten, baina gizona ilusioz beterik zetorren. Hark oso argi zituen asmoak, nik banituen harremanak eta beharrari ekin genion. Egin genuen lehenengo gauza hedabideei zuzendutako gutuna idaztea izan zen. Idatzian mundu zabalean indartzen ari zen gay mugimendua goraipatzen genuen eta berton hedabideek horren gaineko albisteak ezkutatu egiten zituztela salatzen. Bartzelonan abian zen *Front d'Alliberament Gai de Catalunya* izenekoa eta prentsak ez zuen horren berririk eman. Gutuna, hedabide bakarrean argitaratu zuten, frantziskotarrek euskaraz kaleratzen zuten *Anaitasuna* izeneko astekarian. Beste inon ez zen atera. Bitartean, Kataluniako taldearen antzeko zerbait gurean sortzeko proposamena egin genien giro homosexualetik ezagutzen nituen hainbat eta hainbati. Hasera batean, taldearen asmoa mamitu bitartean, etxeetan eta tabernetan elkartzen hasi ginen. Gutunak argia ikusi eta handik bi hilabetera agerraldi publikoa egin genuen frantziskotarrek eurek Iralabarrin zuten egoitzan. Batzarrerako deia *ghetto*ko taberna guztietan egin genuen. Estraineko bilera

hartara gizonak baino ez ginen elkartu, garai hartan apenas ezagutzen genituen-eta emakume lesbianak.

1977ko otsailean 30 bat gizon elkartu eta erakundea sortzeko konpromisoa hartu genuen. Hasxe,erako asmoa taldeari *Euskal Herriko Gay Mugimendua-Movimiento Gay del País Vasco* izena jartzea izan zen, horrela bi hizkuntzetan. Zorionez, bidean hainbat emakume ezagutu genituen eta haiek ere taldera batu ziren, ekimenari ikuspegi irekiagoa emanez. Aitortu behar dut, hala ere, ez genuela sekula lortu taldean emakume lesbianak gizonak bezainbeste izatea. Beti izan dira gutxiago.

Bizitza sexualaren hastapenak

Zelan jabetu nintzen? Zelan jakin nuen gizon homosexuala nintzela? Garai hartan sexu hezkuntzarik ez zegoen. Ikasten genuen apurra –hori ikastea bazen, jakina– kalean ikasia zen, lagunei eta auzoko mutikoei entzunda. Zorionez, gure etxean nahiko irekiak ziren eta lagun hurkoarenganako begirunean hezi gintuzten. Ni gazte-gaztea nintzela gure arrebarik zaharrena ezkondu eta haurdun geratu zen.

Urte haietan modan egon ziren guraso berriei zuzendutako aldizkari bereziak eta arrebak horiek guztiak erosten zituen. Aldizkari haiei esker ikasi nuen nik bazirela harreman heterosexualak, alde batetik, eta bazirela harreman homosexualak, bestetik. Ordura arte uste osoa nuen nik egunen batean andregaia hartuko nuela, jende guztiak egiten zuen moduan. Horrela hezi ninduten eta hori zen nik neuk nire inguruan entzun eta ikusitakoa.

Inoiz prentsa beilegia ere irakurtzen nuen, *El Caso* egunkaria batez ere, eta hor halako albisteak jasotzen zituzten, alegia: “Gizon bi atxilotu dituzte elkarri musua emateagatik”. Ulertezina egiten zitzaidan hori. Harrigarria egiten zitzaidan irudikatzea gizon bi elkarri musuak ematen. Baina nire xalotasunean, are harrigarriagoa egiten zitzaidan elkarri musua ematea delitu izan zitekeenik. Beti izan naiz lar inuzentea. Duela urte batzuk lankide batek horixe leporatu zidan, ustez minduko nintzelakoan:

-*Imanol, zeu zeure mundutxoan bizi zara.*

Zelan minduko ninduen horrek, egia bazen! Onartu behar dut beti ibili naizeka neure kasara. Nerabe nintzela ohartuta nengoen mutil batzuk atsegin nituela, baina baita neska batzuk ere. Ez dakit ohikoena zen, baina zentzuzkoena iruditzen zitzaidan. Inozo samarra izan arren ez nintzen tuntuna eta nire mundutxo horretan gustura egonik ere, banekien nire ustetan zentzuzkoena zena gizartean ez zegoela ondo ikusita. Hargatik erabaki sendoa hartu nuen: “arazorik izango ez badut, nesketan baino ez ditut begiak jarriko”. Aste bete iraun zuen erabakiak. Etxerako bidean autobusean ikusitako mutil puska batek izan zuen

errua. Hura bai hura mutil katxarroa! Pikutara bidali nuen aste bete lehenago hartutako erabakia, pikutara gizartea eta begira geratu nintzaion begietan min izan nuen arte.

Artean 17 urte nituela nire bizitzan hartu dudan erabakirik irmoena hartu nuen autobus hartan: aurrerantzean neure buruaz arduratzeaz gainera, gustuko nituen guztiak irrikaz begiratuko nituen. Pertsona orok sexu gogo askotarikoak izatea zen niretzat gauzarik naturalena. Senak aginduta pentsatzen nuen horrela, ez auzi horren inguruan ezer teorizatuta neukalako. Senak berak esaten zidan zentzurik ez zuela pertsonak bereizten ibiltzea: heterosexualak hauek, homosexualak haiek.

Beti pentsatu izan dut gu guztiok dugula izate sexuala, sexualitatearen jabe garela eta sexu ahalmen hori nork bere gorputzak agindu bezala gozatzea litzatekeela onena. Betiere, zentzuzkoak diren baldintzetan jakina. Gaztetandik dut ideia hori buruan sartuta eta ez bakarrik ideia bezala. Hasieran nire sexualitatearen gaineko ikuspegi horrekin lasai bizitzea gaitza egingo zitzaidala pentsatu nuen. Uste baino errazagoa egin zitzaidan. Hargatik esaten nuen arestian bizitzaren olatuak eraman nauela ni: atzemanezina zirudien guztia oso erraz eskuratu dut. Nire grinak ez ezkutatzea erabaki nuen eta ez nuen hargatik aparteko arazorik izan. Etxean ez nuen ezer esan, beharrik ere ez. Gurasoak ez zeuden itsu, nire bilakaera ikusi zuten eta ez zidatzen inoiz trabarik ipini. Arazorik ez nuen izan ez etxean, ez unibertsitatean, ez eta beharrean egon naizen ikastetxeetan ere.

“Ghetto” homosexuala ezagutzen

Ghettoa batxilergoaren azken urtean ezagutu nuen, fraideen ikastetxe batean nenbilela. Ez nion inori nire bizitzaren gaineko aipamenik egiten, baina era berean ez nuen ezer ezkutatzen. Unibertsitatean nengoela hasi ginen EHGAM eratzen eta beti eman nuen aurpegia. Inoiz ez dut arazorik izan. Zorte handiegia izan nuelako zen edo homosexualitatea patxada ederrean bizi nuelako, baina esan bezala ez nuen inoiz arazorik izan. Nik uste horregatik izan zela, jendeak neure buruarekin lasai ikusten ninduelako eta pakean uzten ninduen. Neure buruarekiko bestelako jarrerarik hartu izan banu, gogoak ezkutuan gordeaz edo, agian jendearen erantzuna bestelakoa izango zen. Beharbada, bai.

Garai hartan ez nekien ni ote nintzen eskolako gay bakarra. Ezkutatu ez arren, ez nuenez ezer esaten, horretaz ez zen berbarik egiten. Geroago jakin nuen, hori bai, handik urte batzuetara eskolako hainbat lagun ere armairutik kanpo atera zirela. Baina hori handik urte batzuetara jakin nuen. Jakin esaten dut, batzuei susmoa hartua nien eta. Zergatik? Manerengatik, berba egiteko moduengatik eta bati, ar itxura larregizkoa hartzeagatik. Horren gizontxo, susmagarri egiten zitzaidan. Beti pentsatu du muturrak elkartu egiten direla eta baten bat ikusten nuenean horren ar, horren gizon, horrenbeste adierazteko premiarekin, susmoa hartzen nion. Hanka sartu nezakeen arren, asmatu egin ohi nuen.

Beste batzuei kontrakoagatik hartu nien susmoa, bere burua larregi zaintzen zutelako edo adeitsuegiak izateagatik. Horiengatik ere pentsatzen nuen ni bezalakoak izan zitezkeela. Ondo dakit horiek guztiak topiko hutsak izan daitezkeela, badirelako *ulertu* arren inoiz susmagarri izango ez direnak, haiek gura ez badute. Egia. Egia den bezala nik izandako

susmo gehienak denborarekin egiaztatu zirela. Zelan? Ez dakit, baina bai asmatu egin nuen.

“Aberria”ren zerbitzari fin

Handik gutxira eta garaiko mutil guztiei bezala, neuri ere soldadutza egitea egokitu zitzaidan. Artean intsumisio bezalako berbak asmatu barik zeuden eta kontzientzia-eragozpenaz zertxobait entzuten bazen ere, gaia oso motel zegoen oraindik. Ikasketak zirela-eta, hainbat luzapen izan nituen eta azkenean soldadu joatea tokatu zitzaidanean baneramatzan urte bi EHGAM barruan lanean. Ez dut ukatuko kasernara sartu nintzenik, baina han bat gehiago nintzen. Hor ere argi izan nuen beti ez niola inola ere neure buruari, neure izateari uko egingo. Armadan ere egundoko zorte ona izan nuen.

Kanpamendua Araban egin nuen eta soldadutzako urtea berriz, Donostian. Horri esker pase pernocta deitzen zuten baimena lortu nuen eta gauetan EHGAMkide baten etxera joaten nintzen lo egitera. Militarren artean ere hain irekia nintzen ezen sargentu batek euskara irakatsi niezion eskatu zidala. Han denak ohartu ziren ni euskalduna nintzena eta gura izan zuenak jakin zuen nire grinak nondik norakoak ziren ere.

Inork ez zuen *ni halakoa* naiz esaten, ez. Beharrik ere ez zegoen, elkarrekin horrenbeste ordu egonik berehala ohartzen baizinen nork ulertzen zuen eta nork ez. Eta besteek nirekiko berdin, gura zuenak berehala asmatu zuen. Ikasketak nituenez kabo egin ninduten eta bat egin nuen maila bereko beste soldatu batekin, oso jatorra bera eta oso susmagarria. Susmagarria baino ez, ixila eta oso lotsatia baizen. Hark bai sufritu zuela soldadutzan eta inoiz hura defenditzea tokatu zitzaidan.

Nirekin ez ziren ausatzen, nik berehalakoan eta irmotasunez egiten nielako aurre. Ez dut esan gura horrekin oldarkorra nintzenik edo arrarena egiten ibiltzen nintzenik. Guztiz kontrakoa, lasai ikusten ninduten, neure buruarekin zoriontsu eta seguru eta halako jarreraren aurrean inor gutxi ausartzen da ezer egiten. Hitz bitan, soldaduntzan txortan egin nuela kabo harekin eta beste hainbat soldadurekin.

Loiolan nintzela, Segurtasun Konpainian, iritzi artikulu bat argitaratu zidaten *Egin* egunkarian. Izen eta guzti agertzen zenez soldadu askok irakurri zuten eta zalaparta apur bat sortu zen kasernan. Sargentuak ixilarazi zituen guztiak:

- *Zertan zabiltzate?*
- *Ezertan ez ene sargentua, Alvarezek idatzitako artikulua irakurtzen besterik ez.*

Sargentuak egunkaria hartu, ondo begiratu, gaia ikusi eta esan zuen:

- *Alvarez behar zuen, nork bestela idatziko zuen halakorik?*

Alegia, guztiek zuten oso argi gay nintzela eta horrek ez zidan trabajarik eragin.

Lumak institutuan

Beharrean ere ez dut inoiz arazorik izan. Gogoan dut 1983an, *Euskal Telebista* hasi eta gutxira *Amatiño*k bere saiora gonbidatu ninduela EHGAMkide bezala berba egitera. Garai hartan ikastetxe batean egiten nuen lan eta eskolan inor ez zen geratu saio hura ikusi barik edo bertan izan nintzela jakin barik. Egundoko elkartasuna jaso nuen hurrengo egunetan, bai irakasleen aldetik, bai ikasleen aldetik eta baita gurasoen aldetik ere. Elkartasuna esateko modu bat da, nik ez bainuen inoren elkartasun premiarik sentitzen. Hori bai, gero jakin nuen gurasoen batzar batean horretaz aritu zirela ama talde batek hitza hartu eta zera esan zuelako:

- *Baten batek Imanolen kontra zerbait esateko asmorik ekarri badu, hobe du itxilik geratzea bestela aurrez aurre izango gaitu eta.*

Inork ez omen zuen ezer esan. Ez dakit inork ez zuelako ezer esateko asmorik edo ausartu ez zirelako iza zen. Ikasleekin ere ez nuen inoiz arazorik izan. Zazpi urte eman nituen institutuan nerabeekin beharrean. Dudarik gabe haiek dute adinik larriena irakasle-ikasle harremanean. Haiekin ere ondo moldatu nintzen eta guzti-guztiek zekiten ni gizon homosexuala nintzena. Ez nik esanda, baizik eta maiz agertzen nintzelako hedabideetan gay bezala. Eta egia da keinuka egiten dudala berba. Izan daiteke ia beti euskara edo euskaraz irakatsi diedalako hizkuntza ez zekitenei eta keinuak baliatzen nituelako esan gura nuena ulerarazteko.

Behin, insititutuan, *goitik behera* esan behar nuen perpausa-atal batean eta esaterakoan keinu ikusgarri batez osatu nituen berbak. Egia da nahiko *maritxu* atera zitzaidala keinua. Ez nuen nahita egin baina horrela atera zitzaidan eta horrek burlak eragin zituen gelaren atzeko aldean jesarrita zeuden neska batzuen aldetik. Une hartan aukera barik geratu nintzen ni. Lotsatzea neukan eta ixil-ixilik geratu, baina oso argi nuen jarrera hori hartzea hanka sartze galanta zitekeela. Nerabeei ezin zaie utzi irakasleon kontura iseka egiten. Haatik bertan behera utzi nuen ikasgaia, baina ez neska haiei errieta egiteko. Aitzitik:

- *Behin ikusi eta gustatu zaizue, ezta? Berriro egingo dut baina adi egon zaitezte ez baitut errepikatuko: Goitik behera.*

Zur eta lur geratu ziren, Deustuko tomateak baino gorriago. Ordutik aurrera lagun izan nituen guztiak eta ez zidaten berriro isekarik egin. Halako pasadizo ugari ditut buruan.

Bilbon bertan aurkitutako mundu berriak

Zelan hasi nintzen ni gay giroan? Bizitzak hartaratuta heldu nintzen horra. Gaztetako lagun gehienak eskolakideak ziren. Hala ere nire izaera eta zaletasunengatik, hainbat tokitara bakar-bakarrik joaten nintzen. Batez ere ni zinema eta antzerki zale porrokatua nintzelako eta haiei antzerkia ezer ez eta zinema bai, baina ez filma berak. Eta gertatu ohi da bakarrik joanda lagunekin baino gauza gehiago edo gauza arras ezberdinak ezagutzeko aukera izatea. Halaxe ezagutu nituen nik Bilboko giro lekuak. Behin *Arriaga* antzokira joan nintzela topo egin nuen bistaz ezagutzen nuen mutil batekin. Atsedenaldian kanpora atera nintzen eta halako batean ohartu nintzen joandako toki guztietan mutil harekin topo egiten nuela. Ez nion kasurik egin. Saioa amaitu zenean antzokitik atera eta etxerako bidea hartu nuen. Ni lasai nindoan mutila atzetik zetorkidala ohartu nintzen arte. Inoiz ez zitzaidan halakorik gertatu eta ez nekien zer egin.

- *Jakin daiteke zergatik zatozen atzetik?*
- *Barkaidazu, ez zintudan izutu gura. Hala izan bada, benetan, barkaidazu.*
- *Ez nago izututa, baina jakin gura dut zergatik zatozen nire atzetik.*
- *Ezergatik, gura baduzu garagardo bat har dezakegu.*
- *Ez, ez dut gura.*

Lau pauso aurreratu eta damutu nintzen. Pentsatu nuen: “Zelan ezetz, hemen zer gertatu den jakin beharra daukat”. Atzera egin, bera zegoen tabernara sartu eta esan nion:

- *Ez dut garagardorik gura, ez zaidalako garagardoa gustatzen, baina kafe bat onartuko dizut.*

Mutil harekin mundu berri bat ezagutu nuen, mundu hori bazenik ere ez nekien eta. Gau hartan ez genuen txortan egin, berbetan aritu ginen ordu txikitan etxeraino lagundu zidan arte. Une hartan nire premia berba egitea zen, ezagutzea, beste ezer baino gehiago. Asko ikasi nuen harekin. Batez ere gauzei eta egoerei beste modu batez begiratzen ikasi nuen eta ohartu nintzen egia zela, nik uste baino ohikoagoa zela Bilboko kaleetan mutilak ezagutzea. Orduan jakin nuen antzokian baino gehiago hiriko hainbat zinematan egunerokoa zela mutiletan aritzea. Ordura arte horretaz guztiaz konturatu barik nengoen ni.

Esaterako, *Ideal* zineman gizonen arteko sexua ematen zela kasualitatez jakin nuen. Igande batean bakarrik joan nintzen lagunek ez zutelako botatzen zuten filma ikusi gura. Garai hartan filmarekin hasi aurretik *Nodo* izeneko albistegia ematen zuten. Hura Francoren aldeko propaganda hutsa zen. Filmaren erdian gainera, atsedenaldia izaten zen. Tarte horietan ez aspertzeko liburu bat ematen nuen, badaezpada. Zineman baina aretora sartu baino arinago konturatu

nintzen gizon mordoa zebilela kanpoan. *Nodo*a ez zutela ikusi gura izango pentsatuz, barrura egin nuen. Baina albistegi hura amaitu eta aretoko ateak zarratu zituztenean, inor ez zen sartu, denak kanpoan geratu ziren. Harrituta egon arren filma ikusten hasi nintzen. Benetan, ez dakit izan zen filma aspergarriegia zelako edo pantailari begiratu ordez inguruan gertatzen ari zenari erreparatu niolako, baina konturatu nintzen hor oso gauza arraroak gertatzen ari zirela: batzuk tokitik altxatu eta jesarlekuz aldatzen ziren, besteak hormaren kontra zutik egon ziren denbora guztian eta gehienek komunerako joan etorrian eman zuten emanaldia. Azkenean haiek guztiak gizon ehizan zebiltzala ohartu nintzen.

Horrela ikasi nuen zinematan ere bazegoela mutiletan aritzerik. Eta ez bakarrik *Ideal* zineman. *Arriaga* antzokian zinema ematen zutenean ere, egundoko mugimendua egoten zen goiko solairuetan eta nik ezagutu ez arren, jakin nuen Itxaropena kaleko frontoia dagoen horretan zegoen *Bilbao* zineman ere antzeko saltsak izaten zirela. Hor ez, baina *Abando* zineman askotan izan nintzen larrua jotzen. Bertan zine erotikoa ematen zuten, garai hartan S bezala sailkatua zena.

Aurkitzeko, bilatu baino ez dago

Arestian esan dudan moduan, pertsona oro izaki sexudunak gara eta batez ere gizonok, heziketagatik edo dena delakoagatik, sexu grinapean bizi gara. Sexua bilatzen dugu, baita debekatzen badigute ere. Bilatu eta, jakina, aurkitu egiten dugu. Logikoki, garai hartan, Frankismoaren garai zurrun haietan sexualitatea debekatuta ez ezik, zigortuta zegoenez, bilaketa hori ezkutuan egiten zen, isilpean, gorde-gordean. Hargatik pentsatzen dut mutiletan aritzeko toki ilunak edo gauak bilatzen genituela, inoren aurrean aurpegia ez ematearren. Toki bereziak bilatzen genituen, gu bezala ehizan zebiltzanak baino topatuko ez genituen toki ilunak, alegia: zinemak, parkeak, komun publikoak edo tren geltokiak izan ohi ziren sexu trukerako tokirik aproposenak.

Aho bete hortz geratu nintzen ni azpimundu hori ezagututakoan. Ordura arte ezagututako munduaren azpian sortutako beste mundu bat zen hura. Hain zen azpikoa beste mundu hori, arinago ezer ikusi gabeko tokietan hamaika saltsaz ohartu nintzela. *Arriaga* antzokiko kafetegia zen horren adibide garbia. Inoiz ez zitzaidan bururatu horrenbesteko mugimendua egon zitekeenik bertan. Ez ziren bakarrik sexu homosexualaren bila zebiltzan gizonak, hara prostituten bila joaten ziren-eta hiriko gizon *prestu* asko. Kafetegi barruan ligatzen zen, eta baita kanpoan ere antzokiari bueltak emanez. *Arriaga* inguratzen zuten espaloietan ikusiko zenituen gizon guztiak ehizan zebiltzan, duda barik gainera.

Eta Arriaga aipatu dudan bezala, Kale Nagusia aipa nezakeen, Areatzatik hasi eta Moyua plazaraino. Goizaldeko ordu txikitan ehiza toki homosexuala izaten ziren espaloi biak. Ordu horietan zebiltzan guzti-guztiak beharbada ez, baina gehientsuenak horretan zebiltzan. Berdin-berdin gertatzen zen Areatzako aparkalekuan, Casilda Iturrizar parkean edo hirian sakabanatuta aurkituko zenituen komun publikoetan. Izugarria zen azpimundu horrek zuen bizitasuna.

Zikin eta narras, baina likitsak

Gaurko gazteek ez dute ulertuko agian, komun publikoak mutiletan eta txortan egiteko toki aproposak izan zitezkeenik. Baina garai hartako testuingurua eta errealitatea zein gordinak ziren kontutan hartuta, pentsatzen dut ulergarria dela komunetan jazotako guztia. Neroni ere kosta zitzaidan ulertzea. Txizalarri nintzela maiz izana nintzen Areatzako komunetan bertan zer jazotzen zen jakin barik. Ohartu nintzenean hor barruko anabasa zenbaterainokoa zen, iguingarri egin zitzaidan. Zelan egin zitekeen ezer hor barruan? Baina horren gainean zenbat eta gogoeta gehiago egin, hobeto aditzen nuen eta konturatzen hasi nintzen toki horiek berebiziko morboa zutela sexu homosexualaren bila zebiltzanentzat: bertara jende gutxi sartzen zen, sartzen ziren guztiak gizonezkoak ziren, barrua ezkutuan geratzen zen eta berez komunak nahiko narras egoten ziren arren, nagusi zen testuinguru hartan –beldurra eta ezkutuan bizitzeko premia nagusi ziren hartan–, bazuen zentzurik.

Aitortzen dut txikitandik erakutsi zizkidaten gauza dezente baztertu eta ahaztu behar izan nituela hori guztia aditu eta nik neuk komunak txisa egiteko ez beste zerbaitetarako erabiltzen hasteko. Gure etxean oso irekiak ziren arren, eman zidaten hezkuntza klasikoa izan zen garai haietarako. Komunetan txortan egitea niretzat bitxia zen eta uste guztien kontra zihoan. Maitasunik gabeko sexua aditu nezakeen, ohetik kanpo txortan egitea ere bai: parkean, arropa denda bateko probagelan edo autoan bertan. Baina komunetan? Halakorik ez zitzaidan sekula burutik pasako. Behin probatu nuen arte eta, esaten duten bezala, *katua jakin-minak akabatu* zuen.

*Arriaga*koa ez zen sasoi hartan giroko kafetegi bakarra. Hor bertan, baina atzekaldean, *Opera* izeneko kafetegia zegoen eta horiez gain, hirian, mutiletan egiteko *Dragstor* taberna eta *Flas* dantzalekua toki aproposak ziren. Banderas de Vizcaya kalean zegoen dantzaleku hartara gizondu eta gero hasi nintzen joaten, baina *Dragstor*era sarritan joaten nintzen. Hor barruan ehiza erritua begiradarekin hasten genuen. Gustukoren bat ikusiz gero, hari begira geratzen nintzaion eta besteak begiradari eusten bazion, komunerako bidea hartu eta atzetik etorriko zitzaizun, edo zu haren atzetik komunera, jakina. Hor barruan ez zegoen txortan egiterik. Horretarako, edo etxean edo ezkutuko bazter bat aukeratu behar izaten genuen.

Zelan ahaztu hor ezagutu nuela bihotza estrainekoz erdiratu zidan mutila! *Dragstor* tabernan ezaugutako mutil puska hura eta ohera eraman ninduen. Lehen aldia zen inoren etxera joaten nintzena txortan egitera eta inozo pentsatu nuen mutil eder hura neurea zela.

Biharamunean etxeko atarian egon nintzaion zain. Heldu zenean haren muturra ikusi eta jakin nuen gau bakarreko txortaldia izan nintzela harentzat. Larrutik ikasi nuen eta denborarekin konturatu nintzen giroan ohikoa zela hori egitea. Baina ondorio horretara heldu eta aintzat hartzeko txikitandik ikasitakoa desegin behar izan nuen: larrua larru truk izan zitekeela eta ez zetorrela halabeharrez maitasunari lotuta ikasi behar izan nuen, edo batzuetan bai eta orduan polita zen, baina berdin izan zitekeela oso polita biak ala biak bananduta lortzen baziren. Hori ikasi behar izan nuen.

Gayontzako berariazko tabernak

Mutiletan egiteko ez zeuden soilik kaleak, parkeak edo kafetegiak. Horiez gain baziren ordurako gizon homosexualontzat berariaz irekitako tabernak, artean gutxi eta txikiak ziren arren. Nik kalean ezagutuako gizonei esker ikasi nuen horiek ere hor zeudela. Zazpi Kaleetan mugitzen hasi nintzenerako zarratu berri zuten *Libis* izenekoa, baina kale Barriko *Quijote*k irekita segitzen zuen. Garai hartan gainera, giro handia zegoen Labayru kalean, Zezen Plazatik hasi eta Etxetxua plazara arte. Hor bazen taberna txiki-txiki bat, *Sol* izena zuena, niretzat zoragarria zena. Hori zuen giroagatik zen, niri gehien gustatzen zitzaidan taberna. Ligatzea gutxienekoa zen, bertara ondo pasatzera joaten ginen. Diska makina ere bazuen, ordurako erlikia hutsa tramankulu horiek tabernetatik jada desagertuta zeuden eta.

Hor inguruan zegoen *Golarfruit* taberna ere. *Charcu*rena zen, *Otxoa*ren betiko lagun-etsaiarena, alegia. Nik adiskide zirela esango nuke eta *Charcu* bestea baino zaharragoa, hori bai. *Golarfruit* zarratu zuenean *Charcu*k berak *Golar* taberna ireki zuen eta horren ostean, berriz, *Harris* izenekoa. Azken hau oso ezaguna zen, antzerti-munduan zebiltzanen artean batez ere. Bilbora etortzen ziren artistek, berdin antzerkia, zinema edo kabaret mundukoak, guztiek ezagutzen zuten *Harris* taberna.

Golar tabernan denetarik batzen zen, gay zirenak batez ere. Baina niretzat xarma berezia zuen *Sol* txiki hark. *Charcu*ren tabernak gainera bazuen fama txarrik, poliziak sarekadak egin ohi zituelako bertan. Furgoiaren atzeko atea tabernako sarreran jartzen zuten eta ateratzen ziren guztiak barrura sartzen zituzten Indautxuko komisaldegira eramateko. Bizpahiru egun izaten zituzten atxilo, berriro libre utzi arte. *Charcu* zendu dela kontutan hartuta, gaur esan dezakegu mihi gaiztoek haren kontrako zurrumurru dezente zabaldu zituztela. Ziotenez, tabernak horrenbeste urte iraun zituen ugazaba poliziekin nahasita zebilelako. Antza sarekada egin behar zutenean abisu ematen zioten *Charcu*ri berari eta honek bere lagunak gaztigatzen zituen hanka egin zezaten. Bada kasualitatea baina, sarekada izaten zenean haren lagunak alde egin berriak izaten ziren. Zorionez ni ez ninduten inoiz sarekada batean harrapatu, baina kanpotik behin baino gehiagotan ikusi nituen poliziak eta horregatik kontatu dezaket han jazotakoa.

Labayrun bertan beste gay taberna bat ireki zuten, *Mi Bar* izena zuena baina ez zuen luze iraun. Eta geroxeago, han bertan, kalearen amaieran, *pub* itxurako beste bat ireki zuten, oso dotorea, zerbitzari ederrak barran eta gela ilun moduko zerbait bazuena. Tokiak huts egin zuen, ez dakit ohiko girotik urrun samar zegoelako edo garai hartarako modernoegia zelako izan zen, baina harenak egin zuen. Bertan segitzen du baina ez gay *pub* moduan prostituten

taberna bezala baizik. Garai hartan izan zen gainera, 1979an, Harriskugarritasun Legea indarrik gabe utzi zuten urte berean, Bilbon lehen gela ilunak ireki zituztenean.

Zazpi Kaleetan lehen *pub* itxurako tokiak irekitzeak Labayru kaleko giroaren gainbehera ekarri zuen. Cotis izan zen lehenengoa, Barrenkalen, giroko jendearik gazteenaren eta gorrienaren biltoki bihurtu zena. 1980 urtean, EHGAMek Zabalbideko *Artagan* antzokian jaialdia egin zuen gau berean –eta geroxeago egingo dugu berba horren gainean– *High* taberna ireki zuten. Hasera batean ez zuen gela ilunik baina hura izan zen Bilbon taberna barruan txortan egiteko toki berezia ireki zuena eta oraindik irekita darraiena. Horrekin hasi zen Maiatzaren Biko kalea gay giroko bihurtzen. Hori baino arinago, Labayruri txanda Kristo kaleak hartua zion, Udaletxearen atzekaldean. Bertan ireki zituzten Key eta Bohemios tabernak eta zapatu gauetan kalea jendez gainezka egoten zen. Aurrerantzean giroko hamaikatxo taberna ireki eta zarratu zituzten Bilbon eta egoera normalizatuz joan zen hein berean merkatuak aginduko zuen eta ez beste ezerk, zein tabernak izango zuen arrakasta eta zeinek ez.

Gorte kalea, argi izpi bat gau ilunean

Frankismoaren azken urteetako giro homosexualaz berbetan gabiltzala Gorte kalea ez aipatzea bekatu litzateke. Izan ere, auzoa askatasun uhartetxoa izan zen, sexualitatea dotrina nazional-katoliko zurrunaren atzaparretatik kanpo bizi gura zuten guztientzat. Nik ezagutu nuenean auzoak bizitasun handia zuen oraindik, baina garai bateko zurrunbiloa baretzen hasia zen. Gorte kalean dena ez zen zoragarria, jakina. Ezagutu nuen andrazkoak prostituzioan ustiatzen zuen *txulo* bat edo beste. Hori egia da, baina egia da baita ere auzoan egin zitezkeela ez Bilbon, ez Euskal Herrian sexu kontuetan egin ezin ziren hainbat eta hainbat gauza. Poliziak ez ikusiarena egiten zuenez, inguruan prostituzioa erruz hazi zen. Eta ez bakarrik prostituzioa, kale hartan perretxikuak legez sortu ziren-eta kabaretak eta askotariko jendea izaten zen bertako ikuskizunekin disfrutatzen.

Horren giro permisiboan gizon homosexualak nahiko lasai ibiltzen ziren auzo hartan eta bitxia bada ere, prostituten klubetan egoten ziren ongien. Ez zen harritzekoa klub haietan askatasuna zela nagusi kontutan hartzen badugu, sexu kontuetan bederen. Halako giro irekia pentsaezina zen San Anton zubiaren bestaldean. Egun, Bilbon, domeka gauetan girorik ez badago, urte haietan basamortua zen hiria. Edo ia, Gorte kalean dena zen-eta kolorea eta neon argiak eta hor edozein ordutan ikusiko zenuen jendea. Benetan, Gorte kalea oasi ederra zen gauez Bilbo zen basamortuan.

Hainbestetan joaten nintzen bertara tragoak hartzera, bertako prostituta eta trabesti ugarien lagun egin nintzela. Trabesti izenarekin ezagutzen genituen garai hartan emakume transexualak. Zer zen hura! Auzoan bizi zen giroa oso atsegina zen, oso bizia eta ez bakarrik sexu aldetik: jatetxe ugari zegoen bertan, batzuk oso famatuak hirian eta ikuskizunetako artistei eta prostitutei esker, markako boutique eta luxozko zapata dendez beteta zegoen auzoa. Hori guztiori handik urte batzuetara desagertu zen sexualitatearen bizipen aske eta osoarekin zerikusirik ez zuten arrazoiengatik.

Gay koadrilak oso heterogeneoak ziren

Gaztetan aldi berean ibiltzen nintzen eskolako edo unibertsitateko lagunak eta giroan ezagututako adiskideekin. Apurka-apurka lehen taldekoak nire bizitzatik desagertuz joan ziren eta gay lagunekin ibiltzen nintzen batez ere. Orduko gay koadriletan zerbait azpimarratu beharko banu heterogeneoak izatearena litzateke. Sexu bereko lagunenganako erakarpenak batzen gintuen taldean –mutilei mutilak eta neskei neskak–, baina hortik aurrera denetarik aurki zitekeen koadrila barruan. Ohiko koadriletan ez zen halakorik gertazen. Mutilen edo nesken koadrilak izango ziren, bai, baina adin, maila ekonomiko edo ideologia beretsuko lagunak izan ohi ziren.

Gay koadriletan berriz, egoera guztiz bestelakoa zen. Printzipioz, sexu grinak elkartu izanagatik taldearen barruko batasuna oso ahula izan zitekeela ere pentsa daiteke. Ez zen horrela gertatzen. Koadrilaren barruan maila eta adin askotariko jendea elkartzen zen, 17 urteko gazteak 40 edo 50 urteko gizonekin eta langile kastako mutilak etxe on-onekoekin. Eta haien artean gutxitan amaitzen zuten ohean, gehiago ziren adiskide, lagun eta ehizakideak. Hori bai, tabernetan edo giroan elkarrekin hainbeste ordu egonik, helduek gazteengandik asko ikasten zuten eta hauek berriz, adinekoen urteetako eskarmentua bereganatzea lortzen zuten.

Antisozialen kontrako jazparpena

Aipatu eskarmentua barregarria izaten zen batzuetan, baina ez beti. Ezin dugu ahaztu artean indarrean zela sexu homosexualaren kontra agintariek zerabilten jazarpena. Ni mundu horretan murgiltzen hasi nintzenean ez nuen horren berri. Nekien gauza bakarra txarto ikusita zegoela zen eta legez kontrakoa izan behar zuela egunkarian irakurrita nekien-eta gizon bi atxilotu zituztela elkarri musuak emateagatik. EHGAM sortu genuenean asko ikasi nuen. Orduan jakin nuen bazela gizarte harriskugarritasunaren kontrakoaraudi zorrotz bat. Legea Kode Penalaren barruan zegoen 1970 urteaz geroztik homosexualitatea zigortzeko. Araudiak garai bateko Alfer eta Gaizkileen kontrako Legea ordezkartu zuen frankisten ustetan *antisozialak* ziren portaera eta pertsona oro jazarri eta zigortzeko. Agintarien jomuga ez ginen harreman homosexualak genituen gizon eta emakumeak bakarrik, legeak gogor zigortzen zituen-eta bai eskaleak, bai droga hartzaile eta saltzaileak,

bai pornografia saltzen zutenak, bai prostitutak eta proxenetak eta baita legez kontrako etorkinak ere.

Diktaduraren azken urteetan agintariek sistematikoki erabili zuten Gizarte Harriskugarritasun Legea, Eskandalu Publikoaren gaineko araudiarekin batera, homosexualitatearen inguruko edozein aldarri zigortzeko. Andrazkoak eta gizonak bergizarteratzeko zentroetan preso sartu zituzten ustez harreman homosexualak izan zituztelako. Nahikoa zen susmoa izatearekin. Ez zituzten legez atxilotzen, ez epaitzen. Indarrez atzeman eta bergizarteratze zentroetan sartzen zituzten eta horietako zentro bi baino ez zeudenez, asko eta asko gartzelatan izan zituzten preso. Kasu hauek direla eta, argi utzi beharra dago Franco hil ostean ere zigor horiek indarrean jarraitu zutela, ez 75ean izandako indultoak ez 76ko amnistiak ez baizituzten aintzat hartu *antisozialak* izanagatik preso hartutakoak eta horien artean emakume eta gizon homosexualak, jakina.

Hargatik, hain zuzen, lege horren kontra Bilbon egin zen lehen agerraldia, 1977ko azaroan sexu askatasunaren alde egindako manifestazioa izan zen. Protesta Marjinatuon Koordinadora osatzen genuen taldeok antolatu genuen, alegia: EHGAMek, COPEL presoen koordinadorak, Prostituten Batzordeak eta Kontzientzi Eragozleek. Harriskugarritasun Sozialaren Legearen kariaz sexu behargin bat atxilotu zuten Bilbon eta ziega barruan zeukatela, sute batean hil zen. Inoiz ez zen argitu zerk eragin zuen sua. Eriotza salatzeko deitu genuen manifestazioa eta egundoko arrakasta izan genuen, 4000 lagun baino gehiago elkartu ginen eta. Manifestazioak San Frantzisko eta Gorte kaleak bete zituen bitartean dena ondo joan zitzaigun baina, zoritxarrez, Areatzarako bidea hartu genuenean *grisak* oldartu zitzaizkigun (garaiko Polizia Armatua) eta oso-oso gaizki amaitu genuen.

EHGAMkideok taldea sortu genuenetik borrokatu ginen lege horren kontra. 1979an araudiaren hainbat artikulu indar barik utzi zituzten, besteak beste *homosexualitate jarduerak* zigortzen zituztenak. Guretzat garaipena izan zen lege aldaketa, baina ez osoa: Harriskugarritasun Sozialaren Legeak indarrean segitzen zuen eta prostituzioa zigortzen zuenez, poliziek bere horretan eutsi zioten sexu beharginen kontrako jazarpenari. Zati batean bada ere, onartu behar dut talde bezala legearen aldaketa garaipena izan zela guretzat. Gay askapen mugimendua ginen aldetik hori zen gure lehentasuna, nahiz eta gu legea bere horretan indargabetzearen alde egon, araudia lotsagarria zela pentsatzen genuen eta. Homosexualitatea legetik atera zuten, baina ez Kode Penaletik. Eskandalu Publikoaren Legeak indarrean segitzen zuen eta edozein agintarik mutil bi ikusten bazituen elkarri musu ematen, nahikoa zuen gizarajo bi horiek ondo *izorratzeko*. 1983an, Kode Penala ere aldatu zuten azkenik eta 1995 urtean, berriz, indar barik utzi zuten Harriskugarritasun Sozialaren Lege madarikatu hura

Erakunde bezala borrokari eutsi behar izan genion, artean homosexualitateak zigortuta jarraitzen zuelako Kode Militarrean. 1986 urtera arte ez genuen azken hau aldatzerik lortu. Aldaketarekin batera, hala ere, tranpa txiki bat egin zuten militarrek: Armadaren buruek oso

ondo zekiten zer egiten zuten eta zer ez zuten gura eta ondorioz, indarrean utzi zuten kasernetan harreman sexualak zigortzen zituen artikulua. Jakina, garai hartan Armadan ez zegoen emakumerik hortaz, argi zegoen zein sexu harreman zigortu gura zituzten.

Gu borroka horietan buru belarri sartuta egon ginen arren, onartu behar dut aldaketa horiek guztiak edo taldeetan edo oso politizatuta geunden *maritxuoi* baino ez zitzaizkigula interesatzen. Giroan bost axola zitzaien legea eta lege ondokoak. Gogoan dut 79an Harriskugarritasun Legea indarrik gabe utzi zutenean poztu ginen arren ez genuela ospatu. Gure benetako lehenasuna legezko erakunde izatea zen arren, agintariek ez zuten EHGAM inola ere legeztatu nahi. Urte batzuk behar izan ziren oraindik legezkoak izateko.

“Ni ez naiz ez homosexuala, ez gay”

EHGAM sortu genuenean taldearen xedeak eta behin behineko aldarriak zehazteko premia ikusi genuen eta horretarako ezinbestekoa zen gogoeta sakona egitea eta gai horien inguruan teorizatzea. Asmo horrekin, erakundeko talde guztietako kideok Biltzarra egin genuen 1977 urtean. Bileran landu beharreko bost helburu finkatu genituen eta 30 puntu bilduz aldarrikapen taula zehaztu genuen. Finkaturiko helburuen artean garrantzitsuenetako bat biko rolak gainditzea izan zen, txantxetan *bipolar* bezala izendatzen genituen, hain zuzen. Horrek dikotomiak gainditzea esan gura zuen: maskulinoa eta femeninoa, arra eta emea, heterosexuala eta homosexuala, besteak beste. Funtsezkoa genuen aldaketa hori lortze aldera, ezinbestekoa zen hizkera bera egokitzea. Horregatik, esate baterako, *gay* hitza taldeaz berba egiteko baino ez genuen erabiltzen, gay mugimenudaz aritzeko. Ez genuen inola ere esango “ni gay naiz”.

Gure iritziz *gay* berbak egundoko garrantzia zuen, terminoa mugimenduak berak erabakia zelako bere burua izendatzeko. Egia da Estatu Batuetan sortutako berba izanik batzuk mesfidantzaz hartu zutela horren erabilera, baina borrokan eta borrokarako sortutako terminoa zen heinean, EHGAMkideok aintzat hartu genuen. Hura gustukoago genuen gainera *homosexual* berba baino. Hori bai ez genuela batera atsegin.

Jakin bagenekien giroko jendeak usu erabiltzen zuela *homosexual* berba *marikoi* edo *maritxu* bezalakoak baino adeitsuagoa zelako. Baina EHGAMen eta gurean bezalako beste talde batzuetan ez genuen ahazten berba hori Medikuntzak asmatua izan zela XIX. mendearen amaieran, balizko gaixotasun bat izendatzeko. Gurea ez zen gaitza eta, hortaz, ezin genuen aintzat hartu hitz hori.

Giroan jendeak ez zuen arazorik beren burua *maritxu* edo *marikoi* bezalako berbekin izendatzeko. Pentsatzen dut ez zirela ohartzen edo ez zekitela berba horien erabilerak egundoko zama zuela edo agian erabiltzen zituztela barregarri iruditzen zitzaizkielako, baina inongo oinarri ideologiko barik. Egun badira berba horien erabilera aldarrikatzen dutenak irain bezala sortutako hitz horiei guztiei eduki baikorra eman gura dietelako. Aditzen dut, errespetuz hartzen dut eta neurri batean ados egon naiteke. Haatik, garai hartan ez genuen halakorik onartzen, iruditzen zitzaigun *marikoi* berba iraingarria ez ezik, onartu ezina zela eta gogor egin genuen horren kontra.

Garai labur batez hainbat komunikabidek eta psikologok *homofilia* eta *homofilo* bezalako berben erabilera sustatu gura izan zuten, pentsatzen baitzuten *homosexual* terminoa sexuari lotuegi zegoela eta jendeak berba hori entzundakoan sexuarekin lotzen zuela eta ez maitasunarekin. Egia esan ahaleginak ez zuen atarramenturik izan eta berba bi horiek sortu bezala desagertu ziren.

Nik neuk ez nituen batere gogoko termino horiek eta gure mundutxoan baten batek desio edo jarduera homosexualak zituela adierazteko, ez genuen ez *gay* ez *marikoi* ez *homosexuala* erabiltzen, emakume edo gizon hark *ulertu* egiten zuela edo *aditua* zela esaten genuen.

“Txoko Landan”, gune alternatiboa

Horretan genbiltzala EHGAMkideok argi geneukan gure lanarekin aurrera egiteko egoitza baten premia genuela. Lortu genuen lehen txokoa giroan oso ezaguna zen gay batek utzi zigun, Larrinoak. Hark etxebizitza eta lokal ugari zituen hirian eta bat utzi zigun hainbat hilabetez bilerak egin eta taldearen gauzak gordetzeko: kartelak, pankartak eta enparauak. Handik gutxira, hala ere, enpresa izandako soto bat alokatu genuen eta bertan hasi ginen bilerak ez ezik festak egiten. Jendez gainezka izaten genuen egoitza huraxe baitzen Bilbon ghettotik kanpo zegoen gune alternatibo bakarra. Jateko eta edateko zerbait jartzen genuen, baita musika ere eta bertan biltzen zen jendea dantza egiten edo solasean. Egoitzari *Txoko Landa* izena jarri genion, jarri zioten egia esanda, garai hartan soldaduntzan negoen eta.

Bertan egon izan banintz ez zuen izen hori hartuko, belarrira arraro samarra egiteaz gain, izenak euskaraz ez zuelako batere zentzurik.

Txokoa, hori bai, taldearen hainbat eta hainbat jardurea legearen barruan egiteko aitzakia izan zen. EHGAM ez zutenez legeztatu gura, *Txoko Landa* egitura asmatu genuen eta elkarte gastronomiko eta libertitzeko toki bezala legeztatu genuen. Garai haietan *Landa* berbak gay kutsu handiegia zuenez, izena apur bat moldatu eta *Txoko Landan* jarri genion egoitzari eta legeztatzeko paperak bete genituenean, erdaraz *Rincon en la pradera* idatzi genuen. Antza, agintariari horren xaloa iruditu zitzaion aurkeztu genion egitasmoa arazo barik onartu zuela eta hura izan zen gura genuen guztia legearen barruan estaltzeko, jakina azkenik EHGAM legeztatu zuten arte.

Bilboko Udalak lehen Aste Nagusia antolatu zuenean bestalde, *Pinpilinpauxa* konpartsa sortu genuen Copel taldeko jendearekin batera. Gure asmoa txoznen inguruko festa gunean gure aldarriak ezagutaraztea izan zen. Zoritxarrez urte bete baino ez zuen iraun asmoak, talde bion artean hainbat ika-mika sortu ziren eta bai Copel bai EHGAM konpartsatik kanpo geratu ginen. Konpartsak aurrera egin zuen jarraitu gura izan zuten guztiekin eta zorionez oraindik badu ukatu ezin den gay kutsu nabarmena. Hurrengo urtean ez zen txoznarik izan Castañares alkatea eta konpartsak haserretu egin zirelako. Hurrengoan baina, EHGAMkideok beste konpartsa bat sortu genuen: *Katalingorri*. Oraingoan ere esperientziak urte bakarra iraun zuen taldean ez zegoelako txanda guztiak betetzeko adina jende eta aste osoan *lau katu* egon ginelako beharrean. Nazkatuta, bertan behera utzi genuen konpartsa. Hori bai, txoznarekin lortutako diruarekin *Txokoa* alokatu genuen, hogei urtez *Txoko Landan* izango zen hura.

Lau horma ziren, hainbat zutabe erdian, armiarma-sare ugari alde guztietan eta bonbilla batzuk sabaitik eskegita. Ez zen gehiago. Lokala banana almazena izana zen, *Mercabilbao* ireki zutenean porrot egin eta zarratu zutenez hainbat hilabetez hutsik egon zena. Horri esker nahiko merke lortu genuen. Gure eskuz atondu genuen egoitza: batzar aretoa egin genuen, bulego txiki bat ere bai, biltegi txiki bat eta gune publikoa, barra eta guzti. Guk geuk egin genuen guztiak, ahal izan genuen moduan.

Txoko Landan bariku eta zapatu gauetan irekitzen genuen eta gura zuten guztiak sartzen ziren. Hori bai, sudur puntan jartzen zitzaigunean, ez genuen irekitzen. Dantzatokiaren arrakasta itzela izan zen. Hura zen Bilbon, gune alternatibo bakarra eta mistoa izateak suposatzen zituen gauza on eta txar guztiekin. Bertan emakumeak eta gizonak batzen ziren eta sarreran inori ez zitzaion galdetzen norekin oheratzen zen. Jendez gainezka zegoen beti. Haserako giroa oso-oso atsegina zen, baina denborarekin gauzak okertu egin zitzaizkigun. Hasteko, giroko gizon eta emakume ugari ez ziren nahastu gura *aditzen* ez zuen jendearekin. Ez ziren gustura egoten euren burua zirkoko animaliak balira legez ikusten zutelako. Ez zitzaien arrazoirik falta. *Ulertzen* ez zuen jendearentzat hain zen guaza

berria giroa, hain zen arraroa, begirunez eta asmo onez jokatuta ere azkenean barruan ziren gay eta lesbianak gogaitu egiten zituztela. Inori ez zaio gustatzen barraketako tximinoa izatea eta guk txokoan gura genituen haiek etortzeari utzi zioten. Eta bestetik guk gura ez genuen jendilajea hasi zitzaigun etortzen.

Ezagutu zutenek gogoan izango dute *Txokoak* izan zuen lehen sarbidea nahiko iluna eta nahiko narrasa zela eta jende bati gurera etortzeak beldur ematen ziola. Giro hartan Zazpi Kaleetako *gameluak* etxean bezala sentitzen ziren. Egoera jasanezina egin zitzaigunez, *gogaideen* txartela asmatu genuen *Txokoan* sarrera mugatzeko. Mila gogaide baino gehiago izan genituen eta aurrerantzean haiek eta haien lagunek baino ezin izango zuten Txokoan sartu. Beraz, bariku eta zapatuetan Txokoa irekita bazegoen ere, guk gura genuen jende baino ez zen sartzen. Horrela lortu genuen giroa eta lasaitasuna berreskuratzea. Azkenean, urteen poderioz eta gu geu nekatzen hasiak ginelako, *Txoko*arenak egin zuen. Taldean ez zen belaunaldi txandarik egon eta hasieratik egon ginenok uztea erabaki genuen.

Dantzalekua zarratu genuen eta handik urte gutxira baita egoitza ere, Udalarekin izandako liskarrak jasanezinak egin zitzaizkigun eta. Udalak inoiz ez zigun baimenik eman lokala berriztatzeko. Ziotenez, eraikina arauditik kanpo zegoen eta bertan ezin zen ezer egin. Egin genituen lanengatik hortaz, isun potoloak ezarri zizkiguten. Hori guztiori gutxi balitz, egoitzaren ugazaba hil zenean arazoak izan genituen haren oinordekoekin eta gu guztiok suminduta amaitu genuen. Egoitza gero eta okerrago zegoen, konpontzeko dirurik ez genuen eta behin betiko zarratzea erabaki genuen. Orduan izan zen auzoko Gazte Asanbladakoek *Txokoa* izandakoa okupatu zutenean eta *7 Katu* gaztetxea ireki zuten bertan.

EHGAMeko hasierako urte haietatik bada, oso kuttuna izanagatik, gogora ekarri gura dudan pasadizo bat. Harrotasunaren bigarren agerraldiaren amaieran hasi zen guztia –oraindik horrela deitzen genion-eta ekaineko manifestazioari– 1979ko ekainaren 28an. Amaitutakoan Areatzan kontzertua egitea zen gure asmoa eta halaxe egin genuen. Baina berebiziko zorigaitza izan genuen, kontzertuan jo behar zuen rock taldeari ekipoa hondatu zitzaion eta. Musutruk etorri zirenez, haiek laguntze aldera zerbait egin behar genuela erabaki genuen. *Otxoa*rekin harremanetan jarri ginen eta Zabalbide kalean zegoen *Artagan* antzokian jaialdi bat antolatu genuen elkarrekin. Jaialdiak izugarrizko arrakasta izan zuen. Bertan izan ziren Bilbon gay munduarekin zerikusia zuten artista guztiak, transformistak izan edo ez. Bertan izan zen *Bataclan* dantzalekuko artista talde osoa. Amparo Bilbaoren orkestrak zuzenean jo

zuen eta opera irakasle batek kantatu zuen. Izugarria izan zen. Eta jakina, *Otxoa* bera izan zen gau hartako izarra. Antzokia lepo bete genuen eta rock taldeari ekipo berria erosteko adina diru lortu genuen. Horrenbestekoa izan zen arrakasta jendeak gehiago eskatu eta hurrengo urtean berrio errepikatu genuela jaialdia eta oraingoan, ez dirua behar genuelako, ondo pasa gura genuelako baizik. Pena izan zen antzoki hura zarratu izana ezin izan genuelako berriro jaialdirik egin.

Beti pentsatu izan dut bizitzan ez dagoela zertaz damutu eta oraindik gutxiago bizitzarekin egin dugunaz. Ni poz-pozik nago egindako guztiarekin, ez harro, baina bai pozik. Arestian esan dudan bezala ni bizitzak eraman nau batetik edo bestetik, hark erabakitako zirrikituetatik. EHGAMen sartzea ere, nire bizitzan izan duen garrantziarekin, ez nuen kontzienteki egin. Ekin genionean ez genikien oso ondo zer egin nahi genuen, zer lortuko genuen eta bat-batean eta ezustean pizkunde politiko hura jazo zen gure herrian osoki harrapatu gintuena eta nire kasuan, behinik behin, betirako geratu zena. Nire bizitza pertsonala eta politikoa eskuz esku joan dira beti eta, esan dudan bezala, ez naiz ezeren damu.

Bizkaian, 2013ko irailean

KARMELE

• Kolektiboak ez dira lagunak egiteko

Karmele naiz, 49 urte ditut eta 1965 urtean jaio nintzen Azpeitia (Gipuzkoa) ondoan dagoen herri txiki batean. Gaztetan Azpeitian bertan egin nituen ikasketak eta 18 urte bete nituenean Donostiara etorri nintzen Magisteritza eskolara. Garai hartan hiriburuan ginen herrietako ikasleen bizimodua egiten nuen: astelehenetik ostiralera Donostian eta asteburuetan herrira joaten nintzen. Larunbatetan herriko neskekin joaten nintzen, ia gehienetan *Txokoa* dantzalekura. Nik neuk ez nuen hura oso gogoko baina, tira… Eta igandetan zinemara joaten ginen. Niri igandetako zinema ikuskina, ez zidan inork kenduko! Hori izan zen, besterik gabe, nire bizimodua gaztetan.

Gurea hain herri txikia izanik, pentsa zitekeen zaila izango zitzaidala desio homosexualak atzeman eta onartzea. Ez zen horrela izan. Etxean anaia gay zen eta haren lagun lesbianak ezagutzen nituen. Hortaz, lesbiana nintzela onartzea ez zitzaidan larri egin. Anaiarekin gaia normaltasun osoz hartzen ikasi nuen eta giroa ere, gutxi gorabehera, ezagutzen nuen. Egia da, hala ere, nire izana onartzea ez zela egun batetik bestera gertatuko zen prozesua. Izan ere, anaia gay zela ulertzeko denbora behar izan nuen. Susmoak banituen 19 urte nituela, baina hark ez zuen etxean ezer esan. Gay izan zitekeela uste nuen mugitzeko, hitz egiteko eta egoteko zituen moduengatik, luma piska bat botatzen baizuen. Esaten zituen gauzak entzunda edo zein tokitan ibiltzen zen ikusita ez zitzaidan zaila egin hura gay zela asmatzea. Egun santu guztia *Tristan* tabernan ematen zuen eta hura zen garai hartan Donostian gay eta lesbianen modako biltokia. Zituen lagunak ere ezagutzen nituen eta haiek ikusita: *agerikoa* zen. Etxean ez zuen ezer esan beharrik eta ez zuen ezer esan. Batzuetan jendeak hori behar du, esatea eta gauzei izena jartzea. Batzuetan ona izaten da, bai, baina gauzak hitz egitea ez da beti halabeharrezkoa izaten.

Izan ere, gure etxean ez zen homosexualitateri buruz hitz egiten, ezta heterosexalitateari buruz ere. Baina ez zegoen azkarreagia izan beharrik gure anaia ez zela heterosexuala asmatzeko.

Neure gogoez konturatzen

---

24 urte nituela konturatu nintzen beste neskenganako desioak nituela. Hori baino lehenago gizonek erakartzen ninduteneik ez du esanahi horrek. Ez. Ordura arte ez nion sexuari erreparatu, besterik gabe. Ikasi, parrandak egin eta, ezer gutxi gehiago egiten nuen. Gaztetan eskolako neskak ikusten nituen mutilen atzetik, baina ez nuen halakorik sentitzen. Astunak ziren gero!:

- *Hori dun mutil katxarroa.*
- *Ixilik egon hadi, zatarra dun eta!*

Dantzalekuan ikusten eta entzuten nituen, eta pentsatzen nuen:

- *Eta niri, zer?*

Dantza egiten nuen, jakina. Gogo handirik gabe baina. Garai hartan, edo giro hartan, mutilek ez ninduten erakartzen, ezta neskek ere. Ez dut ukatuko koadrilako nesken aldetik sentitzen nuela nolabaiteko presioa mutil-laguna har nezan. Bai, baina pentsatzen nuen:

- *Bada, ongi da!*

Horrek ez ninduen larritzen. Konturatzen hasi nintzen gainera emakumeekin oso gustura egoten nintzela. Irakasleekin batik bat. Izugarri maite nituen nire irakasleak. Baziren *madarikatu* samarrak zirenak, baina *tontotuta* bezala izaten nintzen haiekin. Garai hartan aparteko sentimenduak izan nituen emakume batenganako. Ia egunero ikusten genuen elkar eta, ez dakit maitemindu nintzen edo zer, baina oso gustura egoten nintzen harekin. Elkar ikusteari utzi genion eta hor bukatu zen harremana. Haseran telefonoz hitz egiten genuen, baina ez maizegi. Emakume hura biziki atsegin banuen ere, ez nintzen ausartzen telefonoa hartu eta hari hots egitera. Beldur izan nuen, hori da egia.

- *Emakume honek jakingo balu zenbateraino erakartzen nauen, ez luke sinistuko ere egingo.*

Pentsamendu hori non izan nuen ere gogoan dut oraindik, une horretan pozarren bainengoen. Uste dut une horretan hasi nintzela neure buruaz benetan pentsatzen eta lesbiana nintzela ohartu nintzen. Esan bezala, artean 25 urte nituen. Ordura arte emakumeek erakarri egiten ninduten, hori banekien baina ez neukan oso argi sentimendu horiek sexu grina ere izan zitezkeenik, sexu erakarpena.

Esan dezaket horrek ez ninduela inola ere asaldatu, ez neure baitan eta are gutxiago neure fedean. Elizarekin ez dut inoiz arazorik izan. Apaiztegian nengoela ere –Magisteritza eskolak bertan hartu bainituen– oso argi neukan Jainkoren bat egon behar zuela eta oso lasai bizi nintzen uste horrekin eta giro hartan. Baina Apaiztegia utzi nuen eta ordura arte ezagutu gabeko mundu oso batekin egin nuen topo.

Koadrilako neskekin, alferrik zen

Une hartan ohartu nintzen, 25 urte nituela, koadrilako neskekin jai nuela, haiekin egonda ez nuela nire moduko emakume lesbianik ezagutuko. Larunbatero dantzalekuan sartuta ez zegoen atarramendurik niretzat. Asteburuak herrian ematen nituen koadrilako neskekin eta haiekin ez zegoen zer eginik. Ezta astean zehar ere, ez bainuen inor ezagutzen. Halako batean baina, Martxoak 8ko ospakizunerako egun batzuk besterik falta zirenean, Emakumeen Asanbladaren kartela ikusi nuen. Anoetako pilotalekuan egingo zuten afari-jaia iragartzen zuten horma-irudian. Sarrera txartela erosi nahian *Albokar*a joan nintzen, baina ez zeukaten. Festa larunbatean izango zenez, bertara joatea erabaki nuen sarreraren bat geratuko zenaren itxaropenarekin. Hara joan nintzen bakar-bakarrik. Gogoan dut denbora luzean itxoin behar izan nuela lekurik izango zen edo ez ikusteko. Azkenean,

antolatzaileetako batek egun adiskide eta giroan ibiltzen denak, nirekin hunkitu eta zera esan zidan:

- *Itxoin pixka batean, sarrerarik ez bada neurea emango dizut.*

Hainbeste denboran zain ikusita pena eman nion eta azkenean bere sarrera eman zidan.

- *Bakarrik hago?*
- *Ba, bai.*

Eta mahairaino lagundu ninduen. Hor anaiaren adiskide batekin egin nuen topo. Ezagutzen nuen eta banekien hura lesbiana zela:

- *Hemen neskak besterik ez ditun topatuko.*
- *Horretara etorri naun, nesken bila.*
- *Ondo zagon, aurkeztuko haunat.*

Eta ondoan zuen neska bat aurkeztu zidan. Esan zidanez neska hura Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboko kide ezaguna zen. Pozarren nengoen, ni ere halako talde batean lanean hasteko irrikitan bainengoen. Lan egin bakarrik ez, lagunak ere egin nahi nituen, ni bezalako neskak ezagutu eta sarea osatzeko premia nuen, alegia. Handik gutxira Kolektiboan sartu eta neskak ezagutzen hasi nintzen.

Koletiboko neskekin

Ordurako Donostiako giroaren gainbehera nabarmena zen eta Errenteria aldean ibili ohi nintzen. Askorik ere ez, orain pixka bat edaten badut ere garai hartan ez bainuen parranda egin eta edateko ohiturarik. Baten batekin geratuta ez banegoen ez nintzen etxetik ateratzen. Astean zehar ez nintzen inorekin geratzen. Ostirala noiz helduko zain egoten nintzen, egun horretan izaten zelako Kolektiboaren bilera eta bukatutakoan Egia edo Gros aldera joaten ginen, afaltzera. Kolektiboak edo Emakumeen Asanbladak antolatu ohi zituzten jaietan bakarrik egiten nuen parranda. Festa horietan neskak ezagutu eta lagunak egiten nituen.

Ospakizun horietatik kanpo ez nekien non egin nezakeen lagunik. Kolektiboko neskak hor zeuden bai, baina lanerako eta ondo moldatzen ginen arren, hortik kanpo… gure artean *feeling* eskasa genuen. Koletiboko neska batekin harremanetan hasi nintzen eta

noizbehinka hots egiten zidan geratzeko. Baina ez parrandarako edo koadrilakoekin ateratzeko, horretarako ez zidan deitzen.

Kolektiboko neskekin ez nintzen ondo konpontzen maila horretan. Egia da baita, haiek ezagutu baino lehen feminista banintzela eta lan egiteko irrikitan nengoela, baina ez aurpegia emanez. Batzuetan, bakarrik nengoela Errenteriara joaten nintzen banekielako han Kolektiboko neskak aurkituko nituela. Topatzen ez nituen egunean esaten nion neure buruari:

- *Hemen ez zagon inor.*

Eta hanka, etxera itzultzen nintzen. Arestian aipatu dudan bezala, Errenterian giro handia zegoen eta Kolektibokoak *Sociedad* tabernan edo *Reina* zinema bezalako tokietan batzen ziren. Elkartzen ziren neska guztiak ez ziren Kolektiboko kideak, baina haiek osatzen zuten taldeko ardatza. Errenterian elkartzen zirenean hainbat neska gazte inguratzen zitzaizkien eta oso giro polita sortzen zuten sartzen ziren tabernetan.

Arazoa izan zen niretzat lagun sare bat osatzea. Kolektiboak edo feministek antolatutako festetatik kanpo ez nuen asmatzen zer egin lagunak egiteko. Izugarri kostatu zitzaidan. Orain esan dezaket ez nuela inoiz benetako koadrila izan. Udak negargarriak egiten zitzaizkidan, sasoi horretan Kolektiboko bilerak eten egiten baikenituen. Errenteriako *Madalenak* heltzen ziren arte, nor bere kasara ibiltzen zen eta asteburutan ezin nintzen inorekin geratu, guztiak batera edo bestera ibiltzen baiziren. Udak luze eta aspergarriak egiten zitzaizkidan. Nire adinean neskak ez zueden koadrilan ibiltzeko. 15 urterekin koadrilak zentzua baduela iruditzen zait, baina 25 dituzunean kadrilarik jada ez dago. Nor bere kasara ibiltzen da eta komeni zaienean batu egiten dira. Eta zaila izaten zen osatuta zeuden lagun taldeetan sartzea. Are zailago lesbiana bazara.

- *Hau ehizan zetorrek, koadrilako neskak harrapatzera.*

Emakume asko asmo horrekin sartzen ziren Kolektiboan, nesketan egin asmoz, alegia. Ez da harritzekoa hortaz, barrukoek oztopoak jartzea. Baina, beste zer egin zezaketen? Mundu hori ondo ezagutu nuenean, lagunak egin asmoz Kolektibora sartu nahi zuten neska guztiei neronek esaten nien ez egiteko.

- *Lagun bila bahabil, ez hadi sartu. Hauek ez zeuden horretarako.*

Gaizki pasatzen nuen neskak Kolektibotik uxatzen nituenean, bai banekien hortik kanpo oso zaila zela neska lesbianak ezagutzea. Errenterian bazegoen taberna bat edo beste, nesken biltoki bezala funtzionatzen zutenak baina Donostian ez zegoen ezer. Nik nekiela ez behinik behin, lesbianontzako ez zegoen berariazko tabernarik. Alboka hor zegoen, egia da eta hor feminista ugari ibiltzen zen. Baina talde horietan sarbidea izateko ohikoa behar zenuen tabernan eta nik ez nuen hara joateko ohiturarik. Iriko giroak zerikusi gutxi zuelako herrietan bizi genuenarekin, agian. Ez nuen lortu Donostian moldatzerik.

Egun, esate baterako, garai hartako lesbiana ezagunak mendira joan ohi dira elkarrekin edo elkartu egiten dira edo dena delakoa egiten dute , baina garai hartan ez zuten halakorik

egiten. Egia esan urte haietan ez genituen gaur ditugun azpiegitura eta sareak. Kolektiboak berak ez zuen egoitzarik eta bilerak tabernetan egin behar izaten genituen.

Bakarrik egoteagatik, errudun

Gogoan dut 1995 urtean lau hilabete eman nituela Bilbon ordezkapen bat egiten eta pozez zoratzen izan nintzen bertan. Bakar-bakarrik egonda ere, ondo eta lasai nengoen. Lanetik ateratakoan *Lamiak* kafetegira joaten nintzen edo *Bizitza*ra eta garagardo bat hartzen nuen, ondo patxadan. Nire kasara ibiltzen nintzen. Zazpi Kaleetan hartu nuen etxebizitza, gogoak nituenean zinemara joaten nintzen eta ostiral gauetan atera egiten nintzen. Bakarrik egon arren, ez nintzen etxean geratzen. Ez nintzen errudun sentitzen inoiz Donostian gertatu bezala. Behin, zinematik garagardo bat hartzeko gogoz atera nintzela, *Cicuta* tabernara joan nintzen. Bertan tragoa hartzen nengoela, errudun sentitu nintzen. Oso gaizki.

- *Azkenekoz!*

Gaueko 12:30ak ziren, bakar-bakarrik nengoen taberna batean garagardo bat hartzen. Errudun sentitu nintzen, erabat. Bilbon berriz, ez zitzaidan inoiz halakorik gertatu. Bertan garagardoa ondo patxadan hartzen nuen, bakar-bakarrik eta oso-oso gustura. Donostian ezin nuen halakorik egin. Donostian ez naiz bakarrik ateratzen garagardo bat hartzera gauez, ezta zoratuta ere.

Urteak joan urteak etorri, Kolektiboko neskekiko harremana hoztu egin ze galdu arte. Neska laguna izan nuen garai hartan eta haren lagunekin ibiltzen ginen. Harekin ere bukatu nuen eta bakarrik egon nintzen beste neska bat ezagutu nuen arte. Baina hark ez zuen giroa atsegin eta ez ginen joaten. Azkenean bukatu egin genuen, berak utzi ninduen eta ikasteari ekin nion berriro. Neska-lagunik gabe geratu nintzen arren, gogoz heldu nien ikasketei. Bukatu nuenean zer egin ez nekiela, *Gehitu* elkartean sartu nintzen. Egia esan ez zitzaidan inoiz burutik pasa *Gehitu*n sartzea, baina hor bukatu nuen.

Donostia oso hiri irekia da mutilentzat eta, beharbada, baita donostiar petoentzat ere. Baina nire moduan herrietatik etorritako neskentzat ez zegoen toki berezirik. Eta lekuren bat aurkituz gero porroak erre edo edateko ohiturarik ez daukagunok, zer egiten genuen bertan?

Nesketan egiteko ere lesbianak ez gara mutilak bezala. Azken neska-laguna izan zen Kolektiboaren bitartez ezagutu ez nuen bakarra. Lantokian ezagutu genuen elkar eta izugarri kosta zitzaigun harremanetan hastea. Institutuan biak irakasle ginen arren, irakasleon gelan baino ez genuen elkar ikusten. Ordurako Kolektibotik kanpo nengoen, ez negoen inon sartuta eta erabat galduta nenbilen, zer egin jakin gabe eta neskak ezagutzeko aukerarik gabe. Galduta baina neure buruarekin lasai, horrela nengoen emakume hura ezagutu nuenean. Hari buruz ahal izan nuen guztia ikasi nuen: eskola zein gelatan ematen zuen, zein ordutan, den-dena nekien. Libre nengoenean hura ibiliko zen tokietara joaten nintzen ikusteko bederen. Berdin zitzaidan denbora alferrik galtzea, atzetik joaten nintzaion barregarri geratzeko beldurrik gabe. Ikustearekin nahikoa nuen. Baina halako batean

desagertu egin zen. Ez nuen inon topatzen. Hiru egun pasa ziren eta ezer ez. Halako batean berriro ikusi eta erabakia hartu nuen :

- *Honi zerbait esan behar zioat, ezin dinat berriro galdu.*

Indarrak hartu eta hor joan nintzaion. Ostirala zen, goizeko 08:30ak eta horrela esan nion:

- *Hirekin hitz egin behar dinat.*

Eta ordu bietan jarri zidan elkarrekin egoteko hitzordua. Zer den kasualitatea, ostiral horretan atsedenaldian ikasleak zaindu behar nituen eta hori baino lehenago eskola nuen. Eskolatik aterata hara non topatzen dudan emakumea…

- *Baina, ordu bietan geratu bagaitun.*
- *Arazoa dun gaur amaitzen dinatela eta ikasleek agur-hamaiketakoa egingo zidaten. Ezingo dinat hirekin geratu. Zer nahi huan?*

Non sartu ez nekiela geratu nintzen. Korridorearen erdian, anabasa horretan tupustean atera zitzaidan:

- *Ezer berezirik ez. Nahi al dun zinemara nirekin etorri?*

Izututa egin zuen alde.

- *Bai, bai… beno, hitz egingo dinagu.*

Eta alde egin zuen. Seguru seguru nengoen emakume hura lesbina zela, armairu barru-barruan sartuta bai, baina lesbiana. Eta uste osoa nuen begiratzen ninduen moduagatik. Urtetara horretaz hitz egin genuenean den-dena ukatu bazuen ere, oso argi ikusten nuen nik emakume hark zerbaiten bila ariko balitz bezala begiratzen zuela. Beharbada nire gogoek hartaratuta pentsatzen nuen horrela. Eskola utzi zuen, beraz, eta laupabost urte pasa behar izan ziren berriro ere harekin topo egin arte. 2002 urtean izan zen, berriro eskola berean bat egin genuen eta enroilatu egin ginen. Txortan egin eta hurrengo hilabetean jakin nuen seme-alabak zituela. Lur jota utzi ninduen.

Hilabeteak eman genituen, ez elkarrengandik ihesi baina bai elkarrekin egotea saihestuz. Ikasturtea bukatzeko gutxi falta zela *e-mail* bidez mezuak bidaltzen hasi nintzaion. Mezuan huskeriak aipatzen nizkion: zer egin egun hartan, zer pentsatzen nuen… halako txikikeriak. Mezu dezente igorri nizkion arren, ez nuen erantzun bakar bat ere jaso. Bi hilabete eman nituen mezuak bidali eta bidali. Ez nion egunero idazten vaina bai askotan. Irailean, Nazioarteko Zinemaldirako bi sarrera erosi eta filma ikustera gonbidatu nuen. Ez zen zinemara nirekin etorri, baina nire mezuei erantzuten hasi zen eta piskana-piskana gutun-harremana landu genuen. Kostata ere, azkenean lortu nuen. Aitortu behar dut hilabete batzuk lehenago eskola hartan berriro topo egin genuenean, neska batekin nenbilela. Harekin zerbait lortze aldera, bertan behera utzi nuen harremana. Elkarrekin egon ginen denbora guztian ezkutuan ibiltzen ginen. Bera ezkonduta zegoen, senarra eta seme-alabekin bizi zen eta pentsaezina zen, esaterako, gu biok *Ziripot* tabernara elkarrekin sartzea. Hura zen, garai haietan, giroko taberna Donostian.

Oso harreman korapilatsua izan zen gurea. Izan ditudan hiru harremanetatik zailena izan zen. Hiru emakume haiekin hartu nuen konpromezua, hiruekin izan nuen sexua, baina bakarrarekin ez nintzen bizi izan. Inorekin bizitzeko gogorik ere ez nuen izan inoiz. Ez dakit zergatik izango zen, baina ez nuen halakorik nahi. Beharbada orain, aukera izanez gero, saiatuko nintzateke emakume batekin bizitzen. Garai hartan ez zitzaidan burutik pasa ere egiten.

Etxean, inoiz ezer ez

Aitortu behar dut halaber, etxekoekin ez nuela inoiz gaiari buruz hitz egin. Behin amak galdetu eta ukatu egin nuen. Aitarekin ez nuen inoiz gaia aipatu, amarekin ere ez. Behin ia-ia gaia atera zen praka-sakelean Kolektiboko paper bat aurkitu eta galdetu baizidan:

- *Hi, ez haiz bada…?*

Uste dut lesbiana hitza erabili zuela.

- *Ez haiz bada lesbiana izango?*

Ohean bizkarra eman nion eta ez nion ez baietz ez ezetz erantzun. Esan beharrekoak orduan esan behar nituen baina ez nintzen ausartu. Ama orain *Alzheimer* gaitzak hartuta dugu ohean eta egun hori kenduta, inoiz ez dugu gaia aipatu. Inoiz ez. Koadrilako neskei bai esan nien lasaiago geratze aldera. Haietako batek bazekien, hirugarren lagun batek aipatu ziolako ez dakit non ikusi ninduela. Ez zidaten hutsik egin, lagun guztiek ondo hartu zuten. Eta lantokian ez dut ezer esaten, ez argi eta garbi, baina nik uste dut jakin nahi duenarentzat nahiko agerikoa dela. Eta akaso baten bat ez bada jabetu, esan ohi ditudanak entzunda izango du nire berri. Nik uste jakin duenak badakiela.

Adin batean harremanak ez dira batere errezak. Ezta lagunak egiteko ere. Eta ez naiz gay eta lesbianei buruz bakarrik ari, adin batetik aurrera harremanak zail-zailak dira mundu guztiarentzat. *Gehitu*n sartu nintzen bakarrik nengoelako eta zerbait egin beharra neukalako. Azken neska-lagunarekin bukatutakoan sartu nintzen, 2006 urtean. Urte hartan Psikopedagogia ikasketak bukatu nituenez, zer gehiago egin ez nekiela geratu nintzen.

*Gehitu*n lesbianak elkartzen ginen ostiraletan. Bertan neskazahar guztiak, bakar-bakarrik geundenak elkartzen ginela ikusita, koadrila osatu genuen. Gertatu zen batzuk tarte horretan neskaren bat ezagutu zutela, besteek koadrila zutela eta horiek guztiak gaueko 22:30etan desagertu egiten ziren. Bakar-bakarrik geudenak geratzen ginen. Eskerrak gure artean ondo moldatzen ginen, bestela! Azkenean baina, dena delakoagatik, denak haserretu ginen eta hor amaitu zen koadrila. Egun *Gehitu*ra ere ez naiz joaten. Hor ere, zer?, koadrilarik ez baduzu, jai. Ez duzu zereginik!.

Gipuzkoan, 2013ko azaroan

TESTUINGURU HISTORIKOA

Frankismoa izan da historia hurbilean gure herriak ezagutu duen arorik latzena. Aginte nazional-katolikoak iraun zituen 40 urte haietan general gorenak indarrez hartutako herri eta nazioek jazarpena, errepresioa, eskasia eta zoritxarra sufritu zituzten. Eta herriekin, herritarrek. Agintaldiaren hastapenean Francisco Franco zena bete-betean sartu zen eragile politiko zein sindikalen erresistentzia ororen kontra. Frankismoa egonkortuz joan zen neurrian baina, jazarpena areagotu egin zuen eta errepresioaren zakuan sartu zituen bestelako sexu edo genero nortasuna zuten herritarrak ere. 1954ko uztailaren 15ean Nagien eta Gaizkileen kontrako Legea aldatu zuten homosexualitatea jazarri beharreko delituen zerrendan sartuz eta, ondorioz, Erregimenak “bioleta” bezala izendatu zituen herritarren kontrako jazarpenari ekin zion.

Eliza Katolikoak, Akademiak eta Medikuntzak bat egin zuten agintari militarrekin eta “bioleta” bezala nabarmendutako emakume eta gizonen kontrako jazarpenarekin. Inork ezin izango du ukatu aginte frankistak homosexualitatea itotzeko hartutako erabakia indartu eta sendotu egin zela moral katoliko zurrun eta atzerakoia Estatuaren dotrina ofizial izendatu zutenean. Elizak finkatu zituen, Armadaren eraso errepresiboarekin batera, aginte frankistaren oinarri ideologikoak. Hori horrela izan zela egiaztatzeko, 1953ko abuztuaren 27an alde biek sinatu zuten Konkordatua irakurri besterik ez dago: aurrerantzean erlijio katolikoa izango zen bakarra Espainiako nazioarentzat eta Estatuak hura babestera behartzen zuen bere burua. Horrenbestez, Estatu frankistak bere egiten zuen moral katolikoa eta horrekin batera, ezkontza, familia eta homosexualitateari buruz Elizak babestutako doktrina. Homosexualitatea, gaitzesgarria ez ezik ofizialki ezabatu beharreko zentzugabekeria izango zen aurrerantzean. Ez hori bakarrik, sexua ugalketarako besterik ezin izango zen erabili –gogaide katoliko eta frankisten kopurua handitzeko– eta ez zen onartuko plazerra helburu izango zuen berdinen arteko sexu jarduerarik. Berdin zion harreman horiek sexu bereko edo ezberdinekoen artean izan, guztiak debekatu zituzten.

Baina ez zen Eliza bakarrik izan homofobia ofizialaren sustatzaile sutsu. Garai haietan Espainiako esatuan egindako “ikerketa zientifikoek” ere gaixotasun bezala “berretsi” zuten

homosexualitatea, nazioarteko mediku aparatuak erabakitakoari men eginez. Agintariei eskeinitako laguntza erabatekoa izan zen zientzilarien aldetik eta baita unibertsitarien aldetik ere. Madrilgo Espetxe-Ospitalean homosexualak “zientifikoki” aztertzeko atal berezia sortu zuten. Fernando Chamorro Gundin psikologo klinikoak gizon homosexualen portaerak aztertze aldera, hainbat “ikerketa” egin zituen preso hartutako 200 bat “gaizkile” homosexualekin. Azterketa horiek 1967ko irailean hasi eta 1969ko abenduan amaitu zituzten. Tarte horretan gatibu hartutakoak ikertu zituzten, “sufritzen” zuten gaitza, homosexualitatea, nola osatu asmatzeko.

Gregorio Marañon endokrinologoa, Valentin Perez Argiles Medikuntza katedraduna eta Antonio Vallejo Najera psikiatra izan ziren, besteak beste, nork bere eremuan homosexualitatearen izaera “gaizbera”, “kriminala” eta “kutsakorra” bermatu zutenak. Proposatu ere, hainbat neurri proposatu zizkieten Osasun agintariei. Hala nola, gaitzak hartutako gizon oro antzu uztea edo, hori egiterik ezean, gizon guztiak halabeharrezko ebakuntza eta terapietara behartzea: txertoak barrabiletan, organoterapia (animalien organu edo guruin endokrinoen txertoa) eta ar bihurtzeko ariketak. Hitz bitan, gizonak “zegozkien” jardueretara behartu behar zituzten, ar-giro horretan gaitza osatu zezaten.

1975ean Francisco Franco hil zenetik asko hitz egin, ikertu eta idatzi da aginte nazional-katolikoari aurre egin zion oposizio demokratiko, ezkerreko eta independentisten kontra haren erregimenak eragindako jazarpenari buruz. Aitzitik, gutxi, oso gutxi ikertu eta idatzi da beraien sexu eta genero desio/nortasunagatik milaka emakume eta gizonek sufritu zuten jazarpenaren inguruan.

Ezin dugu ahaztu horiek guztiak atxilotu eta indarrez sartu zituztela balizko lantegi eta nekazaritza-kolonietan. Balizko diogu, Fuerteventura (Kanariar Uharteak) uhartean Tefia herriko kolonia ohiko presondegiak baino gogorragoa zen eta. Bertan preso hartutakoak gizagabeko baldintzetan lan egitera behartuta egon ziren eta nekea, jipoiak eta gosea sufritu zituzten atxilo izan zituzten bitartean. Datu zehatzik ez badago ere, uste da frankismo urteetan harreman homosexualak izateagatik 5.000 lagun inguru atxilotu eta preso sartu zituztela.

Osatu eta birgaitu

---

70. hamarkadaren haseran, erregimenaren gainbehera ageri-agerikoa zen, aginte militarra aterabiderik gabe geratu zen eta oposizio eta erresistentzia politikoak, eta baita sozialak ere, piskana-piskana loratzen hasi ziren. Une hartan Franco generalaren gobernuak Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialaren Legea onartu zuen, ordura arte izandako jardun sexu-generikoa ustez aldatzeko, funtsean ezer aldatu barik.

Lege berria, 1933 urteaz geroztik indarrean egon zena, Nagi eta Gaizkileen Legearen oinordeko zuzena zen. Legeak delitua zigortu beharrean, delitua gauzatzea “saihestu” nahi zuen. Araudian, hortaz, ez zen zigorrik zehazten eta horren ordez, balizko gaizkile arriskutsuak atzeman, urrutiratu eta kontrolpean hartzeko neurriak ebazten ziren. Izan ere, Kode Penalarekin zigortzeko adinako deliturik egin ez arren, “traba” egiten zuten herritarrak

gainetik kentzeko bidegabeki erabili zuten legea agintariek. Horri esker, legez zigortu ezin ziren jarduerak berez zigortzen zituzten, gizon homosexualak, kasu, preso hartuz.

Legea indarrean sartu zenetik Gobernua eta haren zerbitzura ziren mediku eta akademikoak homosexualitatea “artatzen” eta “osatzen” ahalegindu ziren. Ustezko gaixoak “birgaitzeko” zentro bi ireki zituzten, bat Badajoz aldean (Extremadura), txortan balizko jardun “pasiboa” izan zutelako atzemandakoak preso hartzeko, eta Huelvan bestea (Andaluzia), harremanean balizko jardun “aktiboa” izan zutenak hartzeko. Zentro bi horiek gainezka egon zirenez, ohiko presondegietan atal bereziak ireki zituzten atxilotutako emakume eta gizon homosexualak hartzeko.

Presoek desio eta grina sexualak alda zitzaten nazka terapiak baliatu zituzten aipatu zentroetan: presoari pizgarri homosexualak jartzen zizkieten hasteko eta horiek gogoz hartutakoan deskarga elektrikoekin uxatzen eta indargabetzen zituzten. Ondoren, bertan behera uzten zituzten deskargak minak pizgarri heterosexualekin gozatzeko. Ez hori bakarrik, hainbat txostenetan aitortzen denez, Espainiako gobernuak –Europa eta Amerikako hainbat herrialdetako agintariek egin bezala– emakume eta gizon homosexualei sufritzen zuten “gaitza osatze” aldera, lobotomia egin zieten. Jazarpen hori guztiori bezain larria izan zen baina, diktadorea hil ondoren zigorra sufritu zutenek pairatutako isilkeria eta ahanztura. Ez 1975eko azaroaren 25ean onartutako indultoak ez 1976ko uztailaren 31an indarrean sartutako amnistia legeak ez zituzten aintzakotzat izan beraien desio homosexualengatik preso eduki edo zigortutakoak. Ez zitzaien barkamenik eskatu eta ondorioz, ez zitzaizkien justiziaz eta etikoki zegozkien kalte-ordainak.

Fernando Olmeda kazetariak gai honen inguruan *Zigorra eta luma* (*El latigo y la pluma*, Anaya argitaletxea, Madril 2004) liburua kaleratu zuen. Bertan jasotako datuen arabera, 1970 eta 1979 (legea indarrik gabe utzi zutenean) urte bitartean mila gizon homosexual inguru hartu zituzten preso. Epe horretan Franco egon zen agitean, baina baita Trantsizio demokratikoa bezala ezagun den aroko lehendabiziko gobernuak ere. Agintari horiek guztiek homosexualitatea egotzi zieten gizon horiei eta indarrez hartu zituzten preso, bermerik gabe eta deliturik egin gabe. Mila gizon horiei Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialaren Legea ezarri zieten. Emakume lesbianek jasandako jazarpenari buruzko daturik ia ez dago, gainerako emakume guztiekin gertatu bezala ezerezean baliogabetuak izan zirelako ikustezin egin arte.

Madrilgo Arriskugarritasun epaitegietan badira baliagarriak izan daitezkeen datuak. 1974 eta 1975 urteetan, esaterako, bertako epaileek aztertutako txosten guztietatik %6 inguru homosexualitate delituari zegozkion (txosten ia guztiak, %99, beste gizon batekin sexu harremanak izateagatik atxiolotutako gizonei) eta zigorra “merezi” izan zutenak berriz, aztertutako kasuen %5 izan ziren.

Auzitegi Gorenaren Fiskaltzaren oroitza-txostenei (1970-1979) erreparatuz gero, bestetik, Arriskugarritasun Legearen gainekoak 58.000 kasutik gora ageri dira eta 21.000 zigor-ebazpen baino gehiago. Madrilgo datuak Estatuko eskualde guztietara estrapolatzen badira, 1970 eta 1979 urte bitartean homosexualitateagatik gutxi gorabehera 3.600 txosten ireki zirela eta mila zigor-ebazpen inguru hartu zirela pentsa daiteke, gehin-gehienak gizonezkoen kontra. Zigorrak gartzelan bete ohi ziren eta bost urte artekoak izan zitezkeen.

Aro madarikatua

Publiko.es egunkari digitalak 2012ko uztailean argitara emandako erreportai batean Javi Larrauri (Madril, 1971) artista plastikoak Frankismoaren homofobiaren kontra egindako artesalaketa jasotzen da. *Aro madarikatu baten lekukoak*, hori da Larraurik lanari emandako izena. Erreportaian azaltzen denez, bilduma horretan moral frankistak inposaturiko sexu bizipenari jaramon egin barik, bestelako sexu aukerak bizitzeagatik zigortu eta preso hartutakoekin margoturiko lanak biltzen ziren. Arte egitasmoa osatzeko, Larraurik koadroetan ageri ziren guztien lekukotasunak bildu zituen dokumental batean. Madrilen ez ezik, erakusketa Latinoamerikako hainbat hiritan izan dute ikusgai.

"Elkarrizketatu nituen hainbatek ez zuen ezkutatzen bizitako beldurra. Ziotenez, iraganean jasandako gehiegikeria guztiak etorkizunean errepika daitezke eta, pentsatzen badugu, oso larriak dira Alcala de Henares barrutiko gotzainak gayen kontra berriki esandakoak. Adierazpenak telebista publikoan egin zituen eta ez du ondoriorik jaso. Eta larria da, era berean, Alderdi Popularrak hartutako jarrera homofobikoa, ezin baitugu ahaztu berdinen arteko ezkontzaren kontra aurkeztu duen helegitea". Larrauri horrela mintzo zen aipatu erreportaian: "Asko dago egiteke oraindik".

Artistak berak aitortzen zuenez oso zaila izan zitzaion lana osatzea. Izan ere, ez omen zitzaion samur egin aro madarikatu hura sufritu zutenengana iristea eta are zailagoa izan omen zitzaion lekuko haiek guztiek aurpegia eman eta beraien istorioak kontaraztea. Larraurik mesfidantza handiarekin egin zuen topo. "Hemen ez zegoen gako politikorik. Izan ere, falangeko gizon baten lekukotasuna hartzea lortu nuen, bai eta homosexualak izateagatik Alderdi Komunistatik bota zituztenen kasuak ere. Bada bitxia hain jende ezberdinek, hain esperientzia beretsuak bizi izatea. Pertsona hauek ezkutuan eta erabat bazterrean bizi izan ziren 70. hamarkadako borrokaldiak piztu ziren arte", zioen Larraurik.

Testuinguru horretan, artistak, Andres Garciaren (1939) kasua azpimarratzen zuen. Gurasoak errepublikarrak izanagatik exilioan jaiotako gizon honek askatasun osoz bizi izan zuen bere homosexualitatea txikitandik. 60. hamarkadan Donostian bizi zen mutil-lagunarekin Franco bertara oporretan heldu zenean. Egun haietan Poliziak sarekadak egin zituen ustez frankismoaren kontra zebiltzanen inguruan eta Garcia atzeman eta preso izan zuten hilabete eta erdiz. Aurrekari penal horrekin, gartzela utzi zuenean ezin izan zuen irratian zuen lanpostua berreskuratu eta alde Suediara alde egin zuen. "Bertan ikasi nuen zer den herrialde libre batean bizitzea", kontatzen zuen Garciak aipatu dokumentalean.

Esan beharra dago, hori bai, jazarpena eta errepresioa sufritu zuten emakume eta gizon homosexual edo transexualek indarkeria egoera horri aurre nola egin asmatu zutela. 1970 urtean, esaterako, Mir Bellgaik eta Roger de Gaimonek –Francesc Francinok eta Armand de Fluviák, hurrenez hurren, beren burua babesteko erabilitako goitizenak– Askapen Homosexualeko Mugimendu Espainiarra (MELH) sortu zuten klandestinitatean, Bartzelonan (Katalunia). Hura izan zen emakume eta gizon homosexualen eskubideak defendatzeko Estatuan sortutako lehengo talde garaikidea. 1972an Aghois (Sexu Berdintasunerako Elkarte Homosexuala) izenarekin hileroko agerkari bat plazaratu zuten. Aldizkaria Frantziara

igortzen zuten, handik posta bidez Espainian banatu zedin. Taldea 1974 urtean desegin zen poliziaren jazarpenak hartaratuta.

Atsotitzak hala dio: “Txakurra akabatuta, akabo errabia”. Besteentzat hala izango zen, baina ez izate sexu-generikoa agintearen esanetara makurtzen ez zuten emakume eta gizonentzat. Edo, agian, 1975 urtetik aurrera argi geratu zen arazoaren muina ez zegoela Francisco Franco generalaren buru gaixoan soilik. Adibide bezala aipa daiteke, Antonio Ruiz gizasemeari jazotakoa. Frankismoan harreman homosexualak izateagatik zigortu zuten gizonak, Franco zendu zenean elegitea aurkeztu zuen bere aurrekari penalak zuritu asmoz. Bost urteko epaiketa luzea sufritu behar izan zuen, azkenik, epaitegian “arrisku soziala” izateagatik bere kontra zuten txosten horiztatua hartu eta 2000 urtean eskuz txikitu zuen arte. 1976 urtean atxilotu zuten Poliziak NAN agiria gainean ez eramateagatik identifikatzera zihoala baten batek esan zuenean: “Kontuz horrekin, *marikoia* duk eta!”.

Oroimen historioa berreskuratuz

Aginte nazional-katolikoa indarrean egon zen berrogehi urte haietan Hego Euskal Herriko emakume eta gizon homoxualek Estatuaren atzaparretan ziren gainerako lurralde guztietako herritarrek sufritutako jazarpen eta errepresio sexista eta homofobo beretsua pairatu zuten. Egun, Eusko Legebiltzarra Oroimen Historikoa berreskuratzeko ahaleginean dabil Frankismoak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrengan izan zuen eragin mingotsa ezagutzera emateko. Nafarroan ere, berebiziko eginahalak egin dituzte gerra garaian eta haren ondoren inpunitate osoz atzeman eta fusilatutako ehunka emakume eta gizonen hobi klandestinoak bilatzeko. Esfortzu horiek guztiak txalogarriak diren arren, ez dira nahikoa garai haietan izandako jazarpen osoaren oroitzapena berreskuratzeko. Giza Eskubideen eta sexu askatasunaren alorretan lan egiten dugun emakume eta gizonok harreman

homosexualak izateagatik gure herrian zigortuak izan zirenen lekukotasunak bildu nahi izan ditugu.

Beharbada berandu ekin diogu lanari, beranduegi. Lehenago ezin izan zen eta orain jaso ditugu bestelako sexu aukeratan aitzindari izan zirenen lekukotasunak. Urteak joan urteak etorri, dagoeneko zendu dira garai latz haiek larrutan sufritu zituzten gehientsuenak. Eta ez bakarrik urteen poderioz, hiesaren pandemiak ere izan baitzuen eraginik hutsune horretan. Gehienak hilda daude eta haiekin galdu dira egia eta oroitzapena. Hala ere, ez dira gutxi Frankismoaren azken urteetan jaio zirelako legez kontrako sexu jarduera edo gogoak atzeman eta klandestinitate gorrian ikasi behar izan zituztenak. Haien lekukotasunak bildu ditugu lan honetan.

Lesbianen falta oroimen historikoaren berreskurapenean

Pertsona homosexualen oroimen historikoa jaso denean ikertzaileek emakumeak ahaztu egin dituzte. Hutsunea ez da ustekabean gertatzen. Hori da, behinik behin, Raquel Osbornek gaiari buruz idatzitako liburuan –*Emakumeak susmopean* (*Mujeres bajo sospecha*, Fundamentos argitaletxea, Madril 2002) – defendatzen duen tesia. Gaia zintzotasunez lantzeko abiapuntu egokia irizten diogu *Begirada ausartak* idazlana landu dugun guztioi. Izan ere, ez da kasualitatea izan lan honetan bildutako hamahiru bizitza istorioetatik emakumeek kontaturikoak hiru besterik ez izatea.

Egitasmoarekin hasi ginenean emakumeak eta gizonak zenbaki berean elkarrizketatzea izan zen gure asmoa. Saiakera alferrikakoa izan zen. Lesbianen oroimen historikoa bildu nahi izan duten hainbat eta hainbat emakumeri gertatu bezala, zailtasun, oztopo eta muga ugari izan ditugu frankismoan emakumeak maitatu zituzten emakumeak aurkitzeko eta, aurkitu ditugunean, gehienak ez dira lekukotasuna ematera ausartu. Emakume lesbianek aginte katoliko-militarpean nozitu zituzten ukazioa eta bazterketak ondorio larriak utzi zituen haiengan: nork bere buruarekiko sentitutako errua eta lotsa, ezgauza zirela pentsatzea edo gizartearen aldetik sufritu zuten zokoratzea izugarria izan zen. Egoera, funtsean, ez da aldatu, zoritxarrez. Horregatik, hain zuzen, ezagutzen dugun lesbianismoan ia ez dago adineko emakumerik.

Aipatu liburuan azaltzen denez, frankismoak egundoko ahalegina egin zuen emakumeari historian zehar inposatu zaizkion zeregitekoak larriagotzeko: moralaren zaindariak, ama jagoleak eta emazte otzanak. Ohitura zena lege bihurtu zuten emakumeak bertutetsu izatera behartuz. Zer esan nahi du horrek? Emakumeek pairamen handia izan behar zutela, beti egon behar zutela sakrifikaziorako prest, zintzoak, zuzenak eta apalak izan behar zutela eta, esan bezala, gizonarekiko otzanak. Emakumeen egunerokotasuna halakoa izaki, ofizialki ez zegoen emakumeak maitatuko zituen emakumerik. Errealitate horren aurrean ikertzaileari ia ezinezko egiten zaio emakume lesbianen edo arauetatik kanpo bizi ziren emakumeen eskarmentua eta sexualitatea arakatzea. Inork ez zuen horri buruz hitz egin nahi, ezta ukazioan ziren emakumeek ere. Jokabide politiko hori kontutan hartu behar da frankismo garaiko homosexualitatearen kontrako jazarpena aztertu eta oroimen historikoa

benetan berreskuratu nahi bada. *Gaia tabu izan da eta emakumeon eskubideen gainetik agintariek, Akademiak eta hedabideek auziaz erabakitako ukazioa gailendu da.*

Aipatu liburuan Dolores Julianoren hausnarketak ere biltzen dira. Horien arabera, frankismoarentzat emakumeen sexualitate arauak hain ziren zurrunak ezen pentsaezina zen emakumeen artean harreman homosexualak ematea. Ukazioa izan zen muga horiek gainditze aldera egon zitekeen edozein saio indargabetzeko erregimenak izan zuen bidearik eraginkorrena.

Arestian, gizon homosexualen kontrako jazarpena gogoratu ekarri denean, argi geratu da frankismoak artez jo zuela haien kontra eta horretarako ageriko egitura eta baliabide errepresiboak erabili zituela. Lesbianen kontrako jazarpena, aitzitik, zeharkakoa izan zen, emakumezkoen sexu autonomiari buruzko edozen aipamen isildu, ezkutatu eta ukatuz. Esan bezala, zeharkakoa izan zen haien kontrako errepresioa: familiaren, erlijioaren, eskolaren, ezkontzaren edo psikiatren bidez garatutako zapalkuntza.

Argitalpen honetan jaso ditugun emakumezkoen hiru lekukotasun horien bitartez ahanztura eta ukazioa gainditzen lagundu nahi izan dugu, frankismoan emakume lesbianek pairatu zuten jazarpena halako batean, benetan, ezagut dezagun.

BEGIRADA AUSARTAK, MAITASUN INTSUMITUAK: ONDORIO GISA

Lan honi ekin genionean bagenekien ez zela erraza izango. Izan ere, jendeari bere bitzitzaren gaineko hain galdera intimoak egitea eta haien intimitatea urratzea suposa zezakeen eta. Hala ere, gay eta lesbianen oroimen historikoa berreskuratzeko ahaleginak merezi zuela pentsatzen genuen eta ondorioz, beharrezkoa zela galdeketari erantzun dioten emakume eta gizonen emozioak eta oroitzapenak arakatzea. Haiek diktadurapean bizi izan zituzten hainbat eta hainbat arazok bere horretan dirauten neurrian, horien inguruan hausnarketa sakona egitea beharrezkoa dela deritzogu. Barka diezagutela beraz, haien bizitzan eta oroimenean sudurra sartu izanagatik. Aipatu gogoetarekin hasteko, hemen aurkezten dizkizuegu jasotako lekukotasunak entzun ondoren ateratako bat-bateko ordorio batzuk.

Etxekoen zeharkako babesa

Gaurko neska-mutikoentzat ohiko familia nuklearra –aita, ama, seme-alabak eta, batzuetan, aitona-amonak ez da eredu bakarra. Askotariko familien mundu korapilatsuan harremanak lantzeko, osatzeko eta egituratzeko aukeretako bat da familia nuklearra. Horregatik, harrigarri gerta dakieke gazteei 50 urte lehenago beraiek duten adinean ez zutela maitasuna eta sexua lantzeko aukera askorik jakitea. Harrituko dira, batez ere, sendia osatzeko eredu bakarra eta derrigorrezkoa zutela jakiten dutenean.

Egun ezin dugu familiaz hitz egin, familiez baizik. Gizartea izugarri aldatu da eta gaurko gay eta lesbianen bizimoduak ez du zerikusirik Frankismoa bizi izan zuten emakume eta gizon homosexualek bizi izan zutenarekin. Hargatik, ezin dugu pentsatu, ezin dugu esan, garai haietan ezin zirela gizartearen arau zurrunak gainditu eta urte haietan bizi izan zirenek ez zituztela bestelako sexu jolasak eta maitasun moduak ezagutu. Jende guztiak ez zuen bere sexualitatea libreki bizitzeko aukerarik izan, baina argitalpen honetan jaso ditugun lekukotasunei erreparatuz gero, argi dago izan zirela disfrutatzen eta bizitzen jakin zutenak ere. Etxeetan ez zen sexualitateaz hitz egiten. Are gutxiago, jakina, homosexualitateaz. Ukazioan eta ixiltasunean izanik ere, gure lekukoek asmatu zuten nola eta non gozatu, nahiz eta harreman horietaz ezin etxean hitz egin, ez artez ez moldez.

Familiak, izatez, tradizioaren gotorleku bezala agertzen ziren arren, haien seme-alabek –gure lekukoen kasuan, bai behintzat– ez zuten aparteko arazorik izan beraien sexualitatea garatu eta disfrutatzeko. Etxetik kanpo egin behar izaten zuten eta etxekoei azalpen handirik eman gabe, hori bai. Baina lekukotasunetan irakurri dugunaren arabera, familiak ez ziren uste bezain zurrunak eta guztietan utzi zieten zirrikitu bat seme-alabei nahi bezala bizi zitezen. Ez zieten familia osatzearekin alamena ematen eta ez zituzten auzokoek, lehengusuek eta enparauek hartutako bizimodura behartzen: senar edo andregaia hartu, ezkondu, umeak egin eta arrastoan sartzera ez zituztela derrigortzen esan nahi da, alegia. Pentsa daiteke jarrera lasai horrekin etxekoek, zeharka bazen ere, aintzat hartzen zituztela bestelako harreman motak.

Gure protagonistek adierazitakoa irakurrita, gainera, badirudi etxeko emakumeek jarrera irekiagoa zutela homosexualitatearekiko gizonezkoek baino. “Badirudi” diogu baiztapena

ezin delako bere horretan borobildu eta etxe guztietan ez zelako ziurrenik berdin gertatzen, hemen jasotako hainbat kasutan hala izan arren.

Arestian aipatzen genuen bezala, egun Euskal Herrian ez dago familia eredu bakarra. Ez bakarra ez nagusia, askotarikoak dira gizon-emakumeek, elkarrekin edo beste gizon eta beste emakumeekin osatu dituzten sendiak. Zoritxarrez desio homosexualak dituzten hainbat eta hainbat neska-mutikok ezin dute oraindik gurasoekin horretaz lasai hitz egin. Etxe askotan ez baitira jabetu oraindik gurasoek landutako harreman mota ez dela izango halabeharrez beraien seme-alabena eta ez dute ikusten, edo ez dute ikusi nahi, etxean duten gazteak maitasuna eta sexua gisako batekin egiteko premia izango duela, semeak mutilarekin eta alabak neskarekin. Egoera horretan gazteok zalantzaz bizi beharko dute premia hori, etxekoen laguntzarik eta babesik gabe.

Galdutako begirada

Lan honetan bildutako bizipenak irakurrita bada behin eta berriro agertzen zaigun gai bat: begiradak. Harreman homosexualak debekatuta eta jazarrita, nola egiten zuten ilunpe horretan antzeko desioak zituztenak ezagutu eta haiekin harremetan jartzeko? Inork irakatsi ez zien arren, guztiek asmatu zuten. Bilboko kalerik jendetsuenean, Kale Nagusian, elkar ezagutu eta hitzik esan gabe elkar ulertu eta komunikatzeko moduak asmatu zituzten. Eta egiten zuten hori guztiori inguruan zebiltzan gainerako oinezkoentzat oharkabean pasa behar zuen. Asmatu zuten, halabeharrez asmatu, gainera. Desio homosexualak ezkutuan gordetzera behartuta zeuden emakume eta gizon horiek begirada zuten hurkoa bilatu, atzeman eta harrapatzeko modurik eraginkorrena. Mundua ikuspegi homosexualetik aztertu, ezagutu eta arakatzeko begirada zen.

Heziketak izan zuen eraginik begiratzeko modu horretan, gizon homosexualen begiek emakumeenak baino zorrotzagoak baitziruditen. Bizitakoak kontatu dizkiguten gizonak bat datoz nolako begirada zuten azaltzerakoan: bat-batekoa zen, kaletarra, ausarta, lotsagabea, irekia eta kale gorrian eskainitakoa. Emakumeen begiek berriz, toki intimoagoak, lasaiagoak, kutunagoak eta gertukoak aukeratzen zituzten bilaketari ekiteko. Andrazkoen begiradak ez bide ziren, gainera, hain zuzen eta berehalakoak.

Bitxia da emakume eta gizon homosexualek hurkoak ezagutu, haiekin komunikatu eta harremanak lantzeko zituzten modu berezi horiek nola kasik galdu diren ikustea. Internet sareari lotutako teknologia garaikideek elkar ezagutzeko modu berezi horiek zapuztu dizkiete belaunaldi berriei. Teknologiak aldaketa zorrotzak eragin ditu eta goitik behera aldatu gizonezko bik edo emakumezko bik elkar ezagutzeko zituzten modu eta bideak. Ez da begirada galdu den bakarra. Ehiza birtualak eraldaketa sakona ekarri du giroko taberna, sauna eta enparauetara. Tokian bertan sexu zuzena, azkarra eta anomimoa lortzeko aukera eskaintzen zuten taberna eta enparauek jasan dute, batez ere, aldaketa. Gaurko gazteek ez dute ez toki ez trebezia berezirik behar hurkoak ezagutzeko. Sakelakoa piztearekin nahikoa dute nahi beste mutil edo neska ezagutzeko.

Ezin dugu esan harremanak lortzeko modu bat bestea baino hobea denik. Hori bai, izan dira internet aspaldian gazte homosexualen “armairu” erraldoia bihurtu dela azpimarratu dutenak ere. Izan ere, sareak anonimoki eta ezkutuan jarduteko eskaintzen dien aukera abagune ezin hobea ei da beraien desio sexualak ezkutuan gorde eta bizi nahi dituzten guztientzako. Gure herriko udalerriak hain txikiak izanik nahitaez kalean edo tabernatan ligatu behar zenean, arinago ala beranduago guztiek amaitzen zuten elkar ezagutuz.

Izaten taldean ikasi zuten

Koadrila da Euskal Herrian harremanak garatzeko egiturarik behinena. Gure herria ezagutzen ez dutenei azalduko diegu lagun taldea dela kuadrila, elkarrenganako oso harreman mina lortu duten adiskideen taldea. Gehientsuenak gaztetan osatutako taldeak dira eta bizitzarekin batera garatu, sendotu eta irautea lortu dutenak. Onerako edo txarrerako, koadrila funtsezko egitura bihurtu da euskal herritarron giza harremanetan. Koadrilak kudeatzen ditu taldearen baliabideak, koadrila da taldearen muina eta koadrila bidez banatzen eta jasotzen dira informazioak. Koadrilak egiten ditu bitartekaritza lanak taldekidea eta haren senitartekoen artean. Barne kohesioari eusteaz gain, koadrila da kanpoko eraginak uxatu edo arintzeko baliabidea.

Globalizazioaren eraginez, norbanakoaren garrantzia indartu egin da aspaldion, taldearen kalterako. Lan honetan aztertu dugun garaian baina, koadrila izaten zen etxetik gizarterako bidea egiteko neska-mutikoek zuten zubia. Oso egitura homogeneoa zen koadrila eta bada oraindik. Politikagintzak euskal gizartean duen garrantzia kontutan hartuta koadrilak ideologia, uste, erlijio edo kezka beretsuak zituzten lagunek osatuak izaten ziren eta taldeko kideek jatorri, maila eta kultura berdintsuak izaten zituzten.

Oso bitxia egiten zaigu hortaz, lan honetan deskribatzen zaizkigun koadrilak nolakoak ziren ikustea, ez baitute zerikusirik batere arestian aipatu ezaugarriekin. Koadrila homosexualak –bai gizonezkoenak bai emakumezkoenak– oso-oso heterogenekoak izan ohi zirela ikusi dugu, maila ekonomiko eta adin oso ezberdinak zituzten kideez osatuak eta uste politikotan horren irekiak ulertu ezinak liratekeela ez bada kontutan hartzen guztiek bazutela elkartzen zituen zerbait: sufritzen zuten homofobia, alegia. Izan ere, homosexualitatearen kontrako jazarpena zuten guztiek elkarrenganako harremana lantzeko abiapuntua. Nola ulertu bestela Neguriko etxe on-oneko semeak bat egitea tabernan edo ohean Labe Garaietako langile batekin? Eta hauek ez dira gogoeta soziologikoak, lan honetan protagonistak direnen bizipenak baizik.

Koadrilak harrera egiturak ziren, bestelako maitasun eta sexu premiak zituzten neska-mutiko homosexualei ikasi, ezagutu eta gizarteratzeko aukera eskaintzen zietenak. Egungo gazteek etxeko ordenagailua piztu eta edozein zalantza argitzeko, liburu topatzeko, filma ikusteko edo lagunak egiteko berehalako aukera dute. Etxetik atera gabe aurki ditzakete beraien nortasuna landu, egituratu eta finkatzeko eredu aproposak. Gure protagonistak gazte zirenean ez zuten halakorik, ez eskura ez inon. Homosexualitatea edo harreman homosexualak irain eta txisteen bidez ezagutu ohi zituzten eta horrela izanik, beldurrez hartzen zituzten barruan handitzen ari zitzaizkien desioak. Beldurra, nazka ematen ez

zienean, jakina. Gizarte basamortu horretan txokoa aurkitzeko premian ziren neska-mutikoentzat oasia ziren koadrila homosexualak. Gazte zirenean antzeko zailtasun eta premiak izan zituztela jakinik, koadrilako adinekoek ez zituzten noreazean zebiltzan gazte baldar horiek uxatzen eta koadrilara sartu berriei bidea egiten laguntzen zieten

Gazte askok halako koadrilatan ikasi zuten giroko esparruetan patxadaz ibiltzen eta adinekoen eskarmentuari esker jakin zuten nola egin behar zuten maitasunean eta ohean zoriontasun apur bat edo, gutxienez, plazerra, lortzeko. Hori bai, gure protagonistek aipatu dizkiguten guztiak aztertuta, argi geratzen da gizartean nagusi zen sexismoak habia egina zuela koadrila homosexualetan ere eta beraz, genero bereizketak bazuela eraginik haiengan. Hau da, mutilen koadrilak tabernetan edo kalean batzen eta ibiltzen ziren bitartean, neskenak etxeetan elkartzen ziren eta etxe zuloan lantzen zituzten harremanak.

Esan daiteke, bestalde, garai hartako koadrilak egun ezagutzen ditugunekin alderatuz gero, ezberdinak zirela. Argi geratzen da, esate baterako, ordukoak apalagoak zirela beraien izate homosexuala ageri egiterakoan. Gaurko koadrilek ez bezala, orain 30 edo 40 urte osatutako lagun taldeek ez zuten beraien homosexualitateaz aldarri egiten eta gainerako koadrilen artean nahasten ziren, esaterako, poteoan zebiltzanean.

Ordukoak eta gaurkoak alderatzen hasita, gauzak zenbateraino aldatu diren galdetu diezaiokegu geure buruari. Izan ere, gizartea bera aldatu den hein berean mudatu badira ere, funtsean antzeko arazoei erantzuten dietela iruditzen zaigu. Egungo gay eta lesbianek elkar ezagutu eta gizarteratzeko guneen premia izaten segitzen dute, haien aitzindariek izan zuten bezalaxe. Lagun homosexualak ezinbestekoak zaizkie oraindik arau zurrunen oskola apurtu nahian dabiltzanei lagundu eta sexuan eta maitasunean egin beharko duten bidea errazteko. Bi hitzetan laburbilduz, gay eta lesbianez osatutako egungo koadrilak zubia eskaintzen diete mutiko eta neska homosexualei etxetik kaleko bizitzara artekoa egin ahal izateko. Garai batekoak ez bezala, egungo koadrilek lotsarik gabe aldarrikatzen dute izate homosexuala gainerako koadrilekin partekatzen dituzten gune eta unetan.

Gay mundua hankaz gora jarri zuen birusa

Hiesak hankaz gora jarri zuen gizon homosexualen mundua, baita gure herrian ere. 80. hamarkadaren haseran beste gizonekin sexua zuten gizonak gaixotzen hasi zirenean, inork ez zekien oraindik zenbaterainokoa izango zen hasi berri zen hondamendia. Hedabideek *gay minbiziaz* hitz egiten hasi zirenean –egun batean bai eta biharamunean ere bai izandako heriotza haiek homosexualitatearekin–, jendeak arriskuarekin lotu zuen gay bizimodua. Horrela hasi zen oraindik indarrean den zorigaiztoko estigma. Lan honetarako lekukotasuna eskaini duten gizon guztiek gogoratu dutenez birusak lagun, adiskide eta ezagun ugari eraman zizkien, nahiz eta horretaz ez zuen inork tutik ere esaten. Giroan inork ez zuen esaten Juan edo Iñaki birusak eragindako gaitz ezin arraro batek akabatuta hil zirenik. Lotsagatik, beldurragatik, itxukeriagatik, auskalo zergatik baina ez giroan ez etxeetan ez hedabideetan ez agintarien txostenetan, hiesak eragindako eriotzak inon ez ziren zenbatu. Jendea neumonia batek jota hiltzen zen edo minbiziak jota edo auskalo zein gaitzak jota, inoiz ez hiesak jota.

Egoera horrek izu-ikara eragin zuen pandemiaren atzaparretan jausteko arriskuan ziren gizon guztiengan. Birusaren zertxobait gehiago ezagutu zenean eta berau gorputz batek bestea kutsatzeko bideak zeintzuk ziren argitu zenean are gehiago indartu zen gizon homosesualen kontrako paranoia eta gay ezagunei agurra ere ukatu zietenak ere izan baziren, beldur ziren izerdiaren bidez kutsatuko ote zituzten.

Mendikuntza alorrean izandako aurrepenei esker gaitza osatu ez baina kutsatutakoen gorputzean gib bisura kontrolpean hartzea lortu zenean, hildakoen kopurua erruz arindu zen. Horrek oso eragin baikorra izan zuen birusarekin bizi zirenen artean, bizitza luzatzea ez ezik, bizi kalitatea hobetzea lortu baitzuten. Eragin txarrik ere izan zuen, hala ere. Prebentzioan hogei urtez izandako halabeharrezko obsesioa larregi lasaitu zen. Gazteek beldurra eta errespestua galdu zioten gib-hies bikoteari eta prebentzio ohiturak baztertzen hasi ziren. Belaundaldi berrientzako pandemia iraganeko arazoa zen, edo da, eta horren ondorioz gazte homosexualen artean berriro hasi da nabarmentzen hies gaitzaren hazkundea.

Birusak egundoko eragina izan zuen, gainera, norberaren bizitza ohituretan. Horrenbesteraino, batzuk ez kutsatzearren txortan egiteari seko utzi ziotela. Hala gertatu zitzaien liburu honetan solaskide izan ditugun hainbati. Eta egun birusarekin bizi direnek aitortzen dutenez, oraindik beldurra eragiten dute beste gizon batekin sexu tratuan saiatzen direnean. Gib birusarekin bizi direnen gaineko hiesfobia horrek ageri-agerian uzten du garai bateko estigmak eta aurreiritziek zenbaterainoko indarra duten oraindik, baita gizon homosexualen artean ere. Ezin da ahaztu giza talde honek ixiltasunarekin mozorrotu nahi izan zuela horrenbesteko mina eragiten zion gaia eta tabu bihurtu zuela gib-hies auzia.

Gib-hiesa eta gizatalde homosexualak gaia aztertzen denean, gizonak dira protagonista ia bakarrak, emakume lesbianentzat arazoa ez baita inoiz berea izan, talde bezala esan nahi dugu. Hondamendia bizi izan dute, noski, beraien lagun gayek larrutik sufritu zutelako. Hain da nabareman jarrera hori, Emparrek berak –eta bera izan da lekukoen artean konpromezu politikorik handiena izan zuen emakumea– aitortzen duen bezala, Latinoamerikatik itzuli zenean pentsatuz Lesbianen Mugimenduak gaiari seriotasunez heldu behar ziola, burkideek ez zioten kasurik egin. Lesbianen axolagabetasun horrek izan du eraginik, gib-hies pandemiaren aurrean arriskupean ez dagoen taldea direla pentsatzen baitute. Lasaitasuna hiesarekin bakarrik balitz, gaitzerdi. Arazoa da sexu bidezko gainerako gaixotasunen aurrean ere, lesbianen artean halako utzikeria nagusitu dela eta ondorioz, ez dituzte prebentzio neurriak hartzen haien sexu harremanetan.

Aurreiritziak aurreiritzi, egia da gib-hiesaren inguruko datuak kezkatzeko modukoak izaten jarraitzen dutela. Ezin gara lasaitu, egun birusa ez delako jada gaixotasun, baldintza kronikoa baizik. Eriotza saihestu daitekeen arren, birusarekin bizitzeak bizi artean egunero-egunero pilulak hartzea dakar, bai eta botikaren albo-ondorioak ekiditeko aldiro egin beharreko osasun txekeoak ere. Eta larria ez bada ere, ez da samurra horrela bizitzea.

Prebentzioa da oraindik gib birusaren kontrako txerto bakarra eta eraginkorrena. Arazoa da orain nola egiten dugun herritarrak horretaz jabetu daitezen. Eta ez da izango informaziorik jaso ez dutelako edo Erakunde publikoek eta gizarte eragileek prebentzioaren inguruko kanpainarik egiten ez dutelako. Agian hortan datza gakoa, informazio larregi dagoen arren, heziketa gutxi dagoela.

Inork ezin du esan kutsatze bideak zein diren ezagutzen ez duenik edo infekazioa ekiditeko kondoiak eskura ez duenik. Datuak, hala ere, esanguratsuak dira: kasu berrien artean nabarmendu egiten dira, nabarmen-nabarmen gainera, mutil gazteen artean izandako sexu harremanetan kutsatutakoak.

Eusko Jaurlaritzak *Hiesa eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Plana*ren barruan 2013an kaleratu zuen txostenaren arabera: “Arrisku praktikari dagokionez, sexua gizonezkoekin duten gizonezkoen transmisioak goranzko joeran jarraitzen du, eta diagnostiko berri guztien %55,9 da, eta gizonezkoen diagnostikoen %63,2. Transmisio homosexuala izan da garrantzitsuena”. Badirudi norbanakoarentzat sexu grina bezain intimoa den ikuspegitik informazioa, onena izanda ere, ez dela nahikoa. Arestian emandako datuek horixe iradokitzen dute.

Gib-hiesari dagokionez, gainera, hainbat adituk prebentzioa osasunarekin lotu izana kritikatu dute, kaltegarri suertatu dela uste baitute. Diotenez, gizona bero-bero dagoenean txortan egiteko aukera badu, osasuna da kontutan hartuko duen azken aldagaia. Kontutan hartu behar da gainera, ezusteko txortaldi horiek parrandaren ondoren gertatzen direla, larrukideak edanda edo bestelako drogak hartuta daudenean eta une horretan bai, osasuna zaintzea izaten da gizonaren X. kezka.

Baina prebentzioa-osasuna lotura txarresten dutenen aburuz, bada gehiago kritikatzeko. Izan ere, kondoia osasunarekin lotuz, preserbatiboa medikuntza-gailu bihurtzen da eta horrenbestez, plazerra lortzeko traba, oztopo edo muga fisiko eta mentala. Egia da ez dagoela kondoia plazerra lortzeko traba dela esango duen zentzuzko ikerketarik eta haatik, gizon askok eta askok tesi hori defendatzen dute. Horretaz guztiaz ohartarazpen larriak egin dituztenek iradokizunak ere eskaini dituzte: zergatik ez eman kondoiari benetako kutsu erotikoa? Alegia, zergatik ez sartu sexu bila dabilenaren buruan ideia argi bat: kondoia sexu segurua da, kondoiarekin sexua seguru lortuko baitute.

Eskuin aurreiritziak, eta ezkerrekoak

Frankismoak herritarren sexu grinen eta jardueren kontra erakutsi zuen gorrotoak eta herrak halako ondorioak ezarri zituen herritarren pentsamoldean: sexu askatasuna ezinbestean datorrela bat ezker inguruko iritzi politikoekin. Politikagintza egungo errealitatetik aztertzen dutenen aburuz, beharbada hala dela pentsa daiteke, ezkerreko alderdiek eskuin aldekoek baino jarrera adeitsuagoak izan ohi dituztela sexuarekiko eta herritarren sexualitate aukerekiko, alegia. Hala dirudi, halaxe delako, baina neurri batean bakarrik. Hona ekarri ditugun lekukotasunak irakurrita argi geratzen da gurea bezalako herri politizatuan ezkerreko alderdietan bazirela homosexualitatearen kontrako aurreiritziak zituzten kideak ere. Eskuineko alderdietan bezainbeste bai, alajaina.

“Marikoiak dituk alderdion eta herritarron lehentasunetan azkenak”. Halaxe pentsatzen zuten ezkerreko askok eta hori da hitzez hitz Sarriko Fakultateko irakasle komunista batek gure solaskide bati egindako aipua. EHGAMkide bati Eibarko Alderdi Komunistaren egoitzan gertatu zitzaiona, ez zen behineko kontua; behinekoa izan ez zen bezala emakume eta

gizon homosexualek Frankismopean sufritutako jazarpena eta errepresioa ezagututakoan kide komunista hark eskatutako barkamena. Ezjakin arloteak asko ziren, sexu askapena ez zelako inorentzako lehentasun , mugimendu feministak lehenik eta gay eta lesbianen taldeek gero, auzia alderdien gai zerrendan ezarri zuten arte.

Adibide bi aipatuko ditugu diogunaren adierazgarri : Bilbon, 1977ko azaroan, Arriskugarritasun eta Birgaitze Sozilaren Legea txarresteko egin zen lehen protesta Marginatuen Koordinadorak antolatu zuen, ez ia egunero manifestazioak egiten zituzten alderdi politikoek; eta bi, Empar solaskidea buru belarri egon zen sartuta Francoren kontrako borroka klandestinoan eta esku hartze zuzena izan zuen ezker muturreko alderdietan eta, hala ere, ezin zien burukideei lesbiana zenik azaldu.

Gure aldetik arinkeria litzateke, haatik, ezkerreko alderdikideek –ezker muturrekoak, batik bat– gay eta lesbianen taldeen edo mugimendu feministaren sorreran, sendotzean eta finkatze ideologikoan parte hartze zuzena eta erabakigarria izan zutela gehituko ez bagenu.

Gaur, herri honetako alderdi gehienen ildo politikoei eta jarduerei erreparatuz gero, argi dago haiek aspaldi hasi zirela sexu aniztasuna eta genero nortasuna agenda politikoen barruan lantzen. Iruñea edo Gasteizko parlamentuetan izan diren eztabaidek edo bertan onartu dituzten hainbat eta hainbat legek horixe erakusten dute.

Horrek ez du esanahi oraindik egiteko handia ez dagoenik. Izan ere, alderdi politikoentzat sexu aniztasuna eta genero nortasuna ez dira gai politiko potoloak. Gai horiek zeharka landu beharreko bigarren mailako gai politikoak izaten segitzen dute.

Ez hori bakarrik. Alderdien aldetik gai bi horiek lantzen direnean ere, badago zer kritikatu. Zergatik? Gaiari buruz oso ikuspegi zurruna izan ohi dutelako eta auziari benetan heltzen diotenean zaku berean sartzen dituztelako gay, lesbiana eta transexual guztiak. Alderdiek sexu aniztasuna edo genero nortasuna lantzen dutenean, gizatalde zehatzen premiak eta aldarriak baino ez dituzte aintzat hartzen: gazteak izan ohi dira, gizonak, gay, bertokoak eta minusbaliotasunik gabe bizi direnak. Hau da, bazterrean geratu ohi dira emakumeak, transexualak, etorkinak edo minusbaliotasunen batekin bizi direnak.

Ene bada! Elizarekin tupust egin dugu

Eliza katolikoak Frankismoan oso jarrera itxia, oldarkorra eta erasokorra hartu zuen bai emakumeen kontra bai sexualitatearen kontra orokorrean eta zehazki homosexualitatearen kontra. Emakume eta gizon homosexualei edo transexualei oso zaila egin zitzaien Elizaren barruan lasaitasunez eta patxadaz egotea.

Egun, oraindik, homosexualitaren aldeko edozein aldarrik Elizarekin egiten du tupust. Hala izaten da Elizaren hierarkiaren baitan nagusitu den jarrera homofoboagatik, baina baita hainbat eta hainbat urtetan apaizek umeen kontra egindako abusuak eskandalagarriak izanagatik Elizak ezkutatu egin dituelako ere. Hainbestekoa izan da inpunitatea ezen guk hamahiru lekukotasun besterik jaso ez ditugun arren, apaizen abusuak behin baino gehiagotan agertu zaizkigu. Eta arazoak ez dira homosexualitatearen inguruan bakarrik

sortu. Gizarte eragileek herritarren bizimodua hobetzeko egindako hainbat ahaleginek hierarkia katolikoaren ezezko borobila jaso dute: dibortzioa, abortua eta berdinen arteko ezkontza eragile sozialen urteetako aldarriak izan dira, baina baita, kontrako norabidean, hierarkia katolikoarenak. Entzun besterik ez dago azken urteotan Donostiako gotzainak bota dituen astakeria guztiak.

Kasu honetan baina, den-dena ez da beltza, den-dena ez da zuria. Arestian Elizaren jarrera txarretsi dugunean, "hierarkia" aipatu dugu behin eta berriro. Euskal Elizak, zorionez, hori baino gehiago izan du eta hamarkada luze hauetan ez dira gutxi izan zeregin eta borroka askatzaileetan herritarrekin bat egin duten moja, apaiz edo fraideak. Emparrek Hernaniko mojarekin izandako harremanen inguruan dituen oroitzapenak gozoak dira, abusutik oso urrun daudenak. Eta liburu honetan behin baino gehiagotan agertzen zaigu Eliza gizarte eragileen eta gay mugimenduen eskutik: Frantziskotarren aldizkaria izan zen EGHAMen lehen gutun-agiria kaleratzen bakarra eta mugimendu honek egindako lehen agerraldi publikoa eliza batean izan zen.

Ugariak dira egun hierarkia katolikoaren jarrera itxia eta homofoboa salatzen duten kristau komunitateak. Gay, lesbianak, transexualak eta bisexualen elkarteetan ere ugariak dira erlijioari lotutako baliabideak. Asko dira kristau izanagatik beraien desio edo nortasun sexuala askatasun osoz eta arazorik gabe bizi dituztenak. Garai batean hori debekatuta zuten.